

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

## *Errenteria*



Aurkibidea

# Udalerria: Errenteria

## Sarrera



Orereta izenaz ere ezaguna, Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatuta dago, Oarsoaldea eskualdean, Oiartzun, Lezo eta Pasaiarekin batera. Iparretik Lezo du mugakide; mendebaldetik Hernani, Astigarraga eta Altza; hegoaldean Goizueta eta Arano; ekialdean Oiartzun; eta, ipar-mendebaldetik, Pasaiako badia. Oiartzun ibaiak zeharkatzen du udalerria. Errenteriako jardunbide nagusia industria izan da. XX. mende hasieran, 4.081 biztanle baino ez zituen. Batez ere 1960ko hamarkadan, industriaren gorakadarekin, etorkin ugari etorri zen Espainiako estatu osotik: 10 urtean 34.269 biztanle izatera iritsi zen herria. Baserriko bizimodua ia desagertzean dago. Errenteriako hizkera maiz gipuzkeraren eta iparraldeko goi-nafarreraren arteko trantsizio-aldaratzat sailkatu ohi da.

- **Biztanleak:** 39.247
- **Euskaldunak:** %32,5

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **52**
- Zintak: **64**
- Pasarteak: **1.353**
- Transkribatutakoak: **112**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **1.212**

## Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Oiartzuarren baitan
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan

## Hizlariak

### **Inaxito Albisu Mendarte** (1924-2013)

Errenteria-Oreretako Santxo-Enea kalean jaio zen, 11 zenbakiko bigarren pisuan. Aita Errenteriakoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Oiartzungoa. Aita aitak eskribau-lanak egiten zituen Olibet gailera-lantegian, baina lan hori utzi eta okindegia zabaldu zuen Madalena kalean; orduan, iparraldean ibili zen ogi mota ezberdinak nola egin ikasten. Senideetan gazteena da Inaxito eta, gaztetxoa zela, aitari laguntzen zion ogi-banaketa egiten bizikletarekin. Geroago saltzaile modura ere aritu zen lanean. Gaztea zela, Madrilgo psikiatriko batean, Karabakan, egin zituen lau hilabete eta esperientzia horrek bere bizitza markatu zuen. Handik itzuli zenean, bolada txarra pasa zuen. Eta gaizki egote horretan, herriko beste batzuekin elkartu eta alkoholiko anonimoak izango zenaren aurrekaria sortu zuten. Inaxitoren etxean biltzen hasi ziren eta euren bizimodua eta arazoak konpartitzen zituzten. Hortik sortu zen Alkoholiko Anonimoak izeneko taldea. Pixkanaka talde gehiago sortzen joan ziren herrian eta beste herri batzuetatik beren esperientziaren berri emateko deitzen zieten eta Inaxito bere lagunekin bertaratzen zen azalpenak ematera. Alkoholiko Anonimoen bultzatzaile eta partaide izan zen. Bere beste ardura garrantzitsuenetakoa euskararen ingurukoa izan zen. Euskara-klaseak eman zituen urte askoan bere etxean eta beste leku batzuetan ere bai. Bere emazte Leorekin konpartitu eta bizitu zituen esperientzia horiek guztiak.



### **Manuel Aldaraborda Etxabide** (1928)

Errenteria-Oreretako Miguel Zabaleta kalean jaio zen Manuel. Hiru senidetan bigarrena zen. Aita Irungoa zuen eta ama berriz Etxalarkoa. Aitak Errenteriako alanbre-fabrikari egiten zuen lan. 1939an soldaduen kamioi batek jo zuen Lezorako bidean eta bertan hil zen, Manuelek hamar urte besterik ez zituela. Ama lanean hasi zen orduan Esmalterian. Manuel Biteri eskola publikoan ibili zen hamalau urte bete arte Don Pedro Indaberea apaizarekin. Hamalau urterekin lanean hasi eta lantegi asko ezagutu izan ditu: Yeregi-Billanueban moldeak egiten, Mapip izenekoan makinak egiten, Niessenen mekaniko eta Sabino Olaskoagaren lantegian mekaniko. Gero, 1963an, beste batzuekin batera Tajo Kooperatiba sortu zuen; bertan aritu zen erretiroa hartu arte. Mekaniko-doitzaile izan da. Betitik izan da oso kirolzalea: gaztetan futbolekin aritzen zen eta gerora beti izan du mendizaletasun handia. Herriko Urdaburu Mendizale Elkarteko kide izan da. Bixen Trojaola Errenteriarrarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Beti bizi izan dira Agustinak auzoan.



### **Jesus Aranburu Oskoz (1918-2013)**

Errenteria-Oreretako Foru plazan jaio zen Jesus. Ama Aranazkoa zuen eta aita, berriz, Zaldibiakoa. "Real Compañía Asturiana de Minas"en egiten zuen lan aitak, fundizioan. Jesus ere bertan hasi zen lanean 15-16 urterekin. Aurretik Biteri eskola publikoan ibili zen. 14 urterekin eskola utzi zuenean, estoldak eta ibaia garbitzen aritu zen lanean, "Real Compañía Asturiana de Minas"en hasi bitartean. 1936ko gerran frontean ibilitakoa zen Jesus; gerra hasterako Errenteria-Oreretan trintxerak egiten zebilen altxamenduaren aurka borrokatzeko. Borrokan aurrera egiteko erabakia hartuta, "Primer Batallon mixto de Ingenieros" izeneko batailoian ibili zen frontean Aian, Eibarren, Elgetan, Zornotzan, Bilbon... 1937an hartu zuten preso eta alemanen Condor Legioaren kontzentrazio-esparruan eduki zuten lanean; handik Santanderreko "La Magdalena" kontzentrazio-esparrura eta Bilbora ondoren, Eskolapioetan egon zen urte eta erdiz beste ehunka presorekin. 1939an bueltatu zen Errenteria-Oreretara, baina laster langileen batailoietara joateko deitu zuten. 1942ko abenduan "trabajadore"etan bukatu eta Zaragozara joan behar izan zuen soldadutzara. 1944ko uztailan bueltatu zen herrira soldadutza bukatuta. "Real Compañía Asturiana de Minas"en jarraitu zuen lanean jubilatuta arte. Fabrikan lanean aritu zen bitartean, langileen asanbladetan eta grebetan parte hartzen zuen; langileen eskubideen aldeko borroka izan zen bere kezka nagusietako bat. 1962an ezkondu zen Ana Campo Mazuelas zamorarrarekin. Alaberga auzoan jarri ziren bizitzen eta gerostik han bizi izan ziren.



### **Pedro Mari Arrizabalaga**

Elkarrizketa egin zitzaionean, 51 urte zituen.

### **Beñat Arzadun Olaizola (1973)**



Errenterian jaioa, ingeniaria. Mundukide GGKEko langilea, 15 urtean Mozanbiken bizi izan zen, garapenerako proiektuetan lanean. Gobernu Kanpoko Erakundeei buruz egin genion elkarrizketa, EIMA 2.0. egitasmorako.

### **Joxe Luix Arzallus Lizarralde (1929)**



Errenteria-Oreretako Zamalbide auzoan dagoen Bordondo baserrian jaio zen. Aita Albizturkoa zuen eta ama berriz Igeldokoa. Bost anaietan zaharrena izan da Joxe Luix. Aitak baserrian egiten zuen lan, tarteka Pasaiaiko portuan deskargan ere aritzen zen. Baserriko lanetan aritu da beti, zazpi urtetarako behiak jezten zituen, gero amak kalera jaitsi eta etxez etxe saltzen zuen esnea. Baserrian aritzearekin batera kanpoan ere lan egin izan du. Errenteria-Oreretako Pekin izeneko fabrika aritu zen hiru urtez. Baina urte gehien Pasaiaiko portuan egin ditu, karga-deskarga lanetan, 58 urterekin jubilatua zen arte. Juana Mitxelena Oiartzuarrarekin ezkondu zen eta zaharrena zenez, baserrietako legeari jarraituz, zaharrena izaki, berak zuen maiorazkoa eta baserrian jarri ziren bizitzen. Geroztik han bizi izan dira beti.

### **Miren Astibia Olaiz (1925)**



Errenteria-Oreretako Fanderian jaio zen. Errota zegoen bertan eta aita hango lanaz arduratzen zen, ogi-irina eta arto-irina egiteaz alegia; gerora Pasaiaiko portuan ere aritu zen eta Joxe Uranga aroztegian ere bai. Ama Oiartzuarra zuen eta aita Fanderia bertakoa. Jaio eta urte batzuetara, Gabierrotako etxe batera aldatu zen sendi osoa. Lehendabizi, mojekin ibili zen eskolan, Gurutzeko Alabekin; geroago, Aierbe ahizpekin ikasi zuen, izan ere, euskaraz irakasten zuenez, aitak hara bidali zituen. 1936ko gerra hasi zenean, familia guztia Bilbora joan zen: emakumeak eta haurrak itsasontziz eta gizonaek beren aldetik. Han bizi zen izeba baten bidez etxe eder batean egoteko aukera izan zuten. Urtebetera herrira bueltatu ziren. Biteri kaleko Garcia jostundegian hasi zen lanean Miren eta handik fabrika handira pasa zen, Lino fabrikara. Bertan ezagutu zuen senarra izango zuena. Ezkondukoan lantegiko lana utzi zuen. Senarrak Linon jarraitu zuen lanean itxi zen arte, eta gerora Tajon aritu zen erretiroa hartu arte. Ezkondu Santa Klara kalean jarri ziren bizitzen eta ordutik han bizi izan dira. Lau seme-alaba izan zituzten.

### **Pilar Beriain Taberna (1934)**



Hamar urte zituela etorri zen Pilar Errenteriako Oleta baserrira, izeba-osaben etxera, Ibarrik. Ibarrako gurasoek Fraisoron jaso zuten Pilar eurek hazi eta hezteko. Eskolan Ibarrian ibili zen, oso gutxi. Oletara etorrira lanean aritzen zen egun osoan, baserrian, jolasteko ere tarterik gabe. Izebarekin batera merkatura jaisten zen esnea eta barazkiak saltzera. Berak hemezortzi urte zituen hil zen izeba eta baserriko lan asko berak egiten zituen. Oleta ondoko Etxetxiki baserrian bizi zen Joxe Antonio Ezeizarekin ezkondu zen eta Etxetxikin jarri ziren bizitzen, senarraren baserrian. Senarrak Iberdueron egiten zuen lana eta txekor batzuk hazten zituzten gero saltzeko. Bi alaba izan zituzten. Ezkonduz geroztik Etxetxikin bizi izan da Pilar.

### **Joxe Mari Carrere Zabala (1963)**



Pasai Donibanen egin zituen lehen urteak, baina 2-3 urte zituela familia Errenteriarra joan zen bizitzera, Galtzaraborda auzora. Ama Errenteriakoa zen ([Luixita Zalaba](#)); aita, berriz, Alegikoa (baina 13 urtetatik Pasai Donibanen bizi zen). Herriko eskola publikoan egin zituen ikasketak, dena gaztelaniaz, eta ondoren Peñaflores Institutuan ikasgai batzuk euskaraz egiteko aukera izan zuen. Euskal kulturaren barneratzen ere hasi zen. 16 urte zituela, Oiartzungo Intxixu antzerki taldean hasi zen. Koldo Ameztorenen bitartez, ipuin-kontakarietara gerturatu zen. Ipuin-kontalaria da Joxe Mari, eta normalean helduentzat egiten ditu saioak. Politikagintzan ere jarduten du, baina elkarrizketa ipuin-kontakarietaren inguruan egin genion.

### **Maitxo Egilegor Portugal (1942)**

Errenteria-Oreretak Oiartzunekin muga egiten duen lekutik gertu jaio zen, Santa Engrazi izeneko baserrian, denek "Arkaitza" izenaz ezagutzen badute ere. Ama Arkaitza bertakoa zuen eta aita, berriz, Astabixkar baserrikoa. Baserriko lanetan aritzeaz gain, aitak Aizpitarteko kobazuloetatik gertu zegoen zentrolean egiten zuen lan. Inguru hartako beste umeak bezala, Aizatera joaten zen eskolara Maitxo. Oiartzundik joaten zitzaien maistra, Enkarna. Beste baserrietan bezalaxe, umetatik hasi zen Maitxo baserriko lanetan. Esnea eta fruta saltzen zuten kalera. Noizean behin jaisten ziren kalera enkargutara eta eguneroko esnea Trabalekura eramaten zuten handik esneketariak jaso zezan. Hamahiru urterekin utzi zuen eskola eta hemezortzirekin Txikierdin hasi zen lanean: auzoko taberna zen, garai hartan oso ezaguna igandero dantzaldia izaten baitzen bertan; inguruko herrietako gazteak biltzen ziren han. Lau urtez aritu zen han lanean. Auzoko Iturralde etxeko Luis Elizegi Zapirainekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Perurenako Bentan bizi izan dira.



### **Manuela Elorza Urkia (1918)**

Errenterian jaioa. Ama bertakoa zuen, eta aita azkoitiarra. Hiru senidetan gazteena. Niessen lantegian ibili zen lanean. gero, Trintxerpera ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituen.



### **Estanis Etxabe**

Grabazioa egin zitzaionean, 59 urte zituen.

### **Fernanda Etxeberria Mitxelena (1932)**

Errenteria-Oreretan Miguel Alduntzin kaleko 12. zenbakian jaio zen Fernanda, sei senidetan gazteena. Aita Añabitarte baserrikoa zen; ama, berriz, nafarra, Sunbillakoa. Aitak herrian bertan zegoen fabrika batean egiten zuen lan, "Real Compañía Asturiana de Minas"en. Rosaren eskolan ibili zen Fernanda 11 urte bete arte. Gerora, eskola utzi eta neskame lanetan hasi zen Goiko kalean. 14 urte bete zituenean fabrikari lanean hasi behar zuela esan zioten eta Pekinen hasi zen; inspektore lanetan aritu zen.



### **Antonio Etxebeste Artola (1926)**



San Markos eta Txoritokieta mendien artean dagoen Aitzondo baserrian jaio zen Antonio. Aita Aitzondo bertakoa zuen eta ama Amezketakoa. Aitak Donostiako udalarentzat egiten zuen lan, Artikutzako guarda zen. Ama, berriz, egunero jaisten zen behorrarekin Erretereriako kalera esnea, barazkiak eta fruta saltzera. Antoniok Zamalbide auzoan zegoen Tolare eskola publikoan ikasi zuen. Istripuz, gerra garaiko leherkari bat zartatuta hil zitzaion aita, berak 13 urte zituenean. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen eta Donostiako udaleko langilea izan zen, han eta hemen sortzen ziren matxurak konpontzen. Lan horretan aritu zen 65 urterekin jubilatu zen arte. Mari Karmen Garmendia lezoarrarekin ezkondu zen eta 2 seme izan zituzten. Erretereria-Oreteretako Agustinak auzoan bizi izan dira.

### **Iñaki Etxebeste Muxika (1932)**



Erretereria-Oreteretan jaioa dugu Iñaki Etxebeste. Gurasoak ere bertakoak zituen, Olibet gailera-fabrikako langileak biak. Aita paper-lantegian ere aritu zen lanean. Bi urte zituela, mojetara eramaten zuten Iñaki, gurasoak lanera joaten baitziren; geroago, Aierbe ahizpen eskolan jarraitu zuen. 14 urterekin lanean hasi zen. 1960an, Alemaniara lanera joateko izena eman zuen eta 28 urterekin hara joan zen: soldatzaile-lanetan jardun zen hiru urtez. Handik bueltatu zenean, ofizioa ikasita Paisa lantegian aritu zen 55 urte bete arte. 1965. urtetik, Galtzaraborda auzoan bizi izan da. Beraien etxearen beheko solairuan emazteak eta biek musika-akademia zuten eta solfeo-klaseak ematen zituen Iñakik bertan. Emaztea, Silbia Besga, piano-jotzailea zen eta hainbat musika-instrumentu jotzen ere irakasten zuen. 3 seme-alaba izan zituzten eta hirurak musikazaleak izan dira; ikasketak ere arlo horretatik bideratu izan dituzte. Bizi izan den auzoko, Galtzarabordako, auzo-elkartean ere parte hartu izan du hainbat jardueratan: hala nola, Olentzero ateratzeko abeslari-taldea prestatzen, Santa Agedako koplak kantatzen... Horrez gain, txorizale amorratua izan da eta urte askotan ibili izan da San Markos mendiaren inguruan erreklamuarekin txoriak harrapatzen.

### **Joxe Gaztelumendi Aiestaran (1925)**




Errenteria-Oreretako Goiko Kalean jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Oiartzungo baserri batekoa. 3 senideetan bigarrena da. Gerra garaian etxetik joan egin behar izan zuen familiak eta ongi gogoratzen ditu urte haietan gertatutakoak. 13 urterekin hasi zen lanean eta lanbide dezente pasatu ditu ordutik: gaileterian, mekaniko... Soldadu egon zeneko istorioak ere kontatu dizkigu; zehaztasun handiz kontatzen ditu, batez ere, gerra eta gerra ondorena.

### **Juanita Getaria San Pedro (1927)**



Ondartxo auzoan jaioa, aita ere bertakoa zen. Aitak Euskalduna lixiba-lantegi txikia zeukan etxe azpian eta ikatza ere saltzen zuen. Ama donostiarra zen. 4 senidetan zaharrena zen Juanita. Mojetan ibili zen eskolan, eta euskaraz egiten zieten han. Gerra hasi zenean, aita gudari joan zen eta beraiek Bilbo aldera egin zuten ihes. Bueltan, aitak 4 urte egin zituen Ondarretako kartzelan. Juanita 12 urterekin neskame joan zen izebaren etxera, eta 14rekin Pekin lantegian hasi zen lanean; 16 urte egin zituen han. Gerora Lezon bizi izan zen, senarrarekin.

### **Maritxu Goitia Zuloaga (1923)**



Lekunberri baserrian jaio zen, ama hara joan zelako erditzera, baina Erdiko kalean bizi ziren. Aita Oiartzungoa zuen, paper-lantegian egiten zuen lan. Ama, berriz, Igeldokoa zen jatorriz, baina Errenteriara joana bizitzera. Bost senidetan laugarrena izan zen Maritxu. Eskola publikoan hasi zen ikasten, eta errepublika garaian mojetara bidali zuten. Zirkulu Karlistan ikasi zuen doktrina. Gaztetan hasi zen lanean, Sociedad Tejidos de Lino ehundegian. Markinakoa zuen senarra.

### **Iñaki Goñi Galarraga (1929)**



Errenteria-Oreretako Santa Klara kalean jaio zen, zazpi senidetan laugarrena. Gurasoak Errenteriakoak zituen: ama Gabierrotakoa eta aita Malen kalekoa. Aitak "Fundiciones Markeze"n egin zuen lan hamahiru urtez, eta gero "Banco San Sebastián"en aritu zen erretiroa hartu arte. Aita oso abertzalea zen, jeltzalea eta Batzokiko juntako kidea. 36ko gerran Bilbora egin zuen alde. Bilbo erori zenean bueltatu zen herrira; hasieran, ez zioten lehengo lanean onartu nahi izan, baina gero lortu zuen onartzea. Amak postua zuen plazan (merkatuan) eta Tolosako eta Ordiziako ferian erositako produktuak ekartzen zituen postuan saltzeko. Iñakik Gurutzeko Alabetako mojekin ikasi zuen txikitan, gero Rosaren eskolan ibili zen eta handik fraideetara joan zen hamalau urtera arte. Errenteriako Makazaga inprentan hasi zen lanean: han bertso-liburuxkak eta bertso-paperak egiten zituzten. Lanean ari zela, Pasaiara joaten zen arratsetan kontabilitatea ikastera. Makazagatik Urruzola inprentara igaro zen eta hogeita bi urterekin Banco San Sebastianen hasi zen. Geroztik beti aritu izan da bankuan.

### **Joseba Goñi Galarraga (1935)**



Errenteriako Santa Klara kalean jaio zen Joseba Goñi. Urte askoan Goiko Kalean bizi izan zen familia osoa. Gurasoak Errenteriakoak zituen: aitak Banco San Sebastianen egiten zuen lan; 36an Bilbon egon zen gerran, hiria erori zen arte; herrira itzulitakoan, lana galdu zuen. Fraideekin ikasi zuen Josebak hamabi urte bete arte. 1947an komunioa egin behar zuela eta, fraideetatik atera eta hiru hilabetez Rosaren eskolara bidali zuen aitak dotrina euskaraz ikas zezan. Fraideen ondoren, Fabrika Haundian (Lino fabrika) hasi zen lanean. Lantegitik ateratakoan, arte- eta lanbide-eskolara joaten zen Donostiara; han merkataritza-ikasketak egin zituen. Geroago, Saturrarango seminaria joateko hautua egin zuen. 1960an apaiz egin zen. Orduetik hainbat zeregin bete izan ditu: parroquia bateko apaiz izan da, hiru urte igaro zituen Erroman... Baina urte gehien irakaskuntzara bideratu ditu, bai Gasteizen, baita Donostiako EUTGn historiako irakasle ere. Jarduera horrekin batera, Errenterian apaiz izan da. Errenteriako Santa Klara kalean, jaiotako toki berean, bizi izan da.

### **Maritxu Iburguren Amondarain (1934)**



Errenteria-Oreretako Santa Klara kalean jaio zen Maritxu. Zortzi anai-arrebatan hirugarrena zen. Aita Errenteriakoa zuen, Lartzabal auzoan jaioa. Esmalterian egiten zuen lan aitak: sukaldeko ontzi eta kazuelak egiten ziren lantegi hartan eta aita galdatzailea zen, lantegiko labeetan aritzen zen. Ama, berriz, Bedaiokoa (Tolosa) zen. Maritxu mojekin ibili zen eskolan, "Gurutzeko Alabekin", hamabi urtera arte. Erdaraz ikasten zuten, baita dotrina ere. Eskola utzita haurtzain hasi zen lanean, baina haurra zaindu ez ezik, etxeko garbiketak eta erosketak ere egiten zituen. Hamalau urterekin Ramon Etxeberriaren tindategian hasi zen lanean, plantxatzen. Josten ikastera ere joaten zen: berak egiten zituen etxeko arropen konponketak eta baita etxekoentzako jantziak ere. Hogeita sei urterekin ezagutu zuen senarra, Errenteria-Oreretako Alamedan igandetako dantzaldian. Andaluziarra zen, Huelvako El Granado herritik lanera etorria. Handik gutxira ezkondu eta Santa Klara kalean jarri ziren bizitzen. Ezkontzerakoan lana utzi behar izan zuen Maritxuk, garaiko legearen arabera emakume ezkonduak lana uztera behartuta baitzeuden. Hiru seme izan zituzten. Maritxu beti bizi izan da Santa Klara kalean.

### **Seberiano Iñarra Lizarazu (1926-2013)**



Errenteriako Bidegurutzeta baserrian jaio zen, Melondegi izenaz ezagunagoa bada ere. Zortzi senide ziren. Ama Lezokoa zuten, baina Errenteriara bizitzera joana; aita, Erreka baserrikoa. Baserritik bizi ziren: esnea partitzen zuten Errenterian, astoarekin; hori bai, aitak moilan ere egiten zuen lana noizean behin, Pasai Antxon. Xeberiano Tolareberrira joan zen eskolara lehenengo, eta gero Errenteriara, kalera. Batez ere arotz-lanetan ibili izan da Lasa zerrategian eta itsasontziak konpontzen Pasai San Pedron: Arrazola eta Urangarekin eta Guria kooperatiban, hain zuzen ere. Afrikan egon zen soldadu. [Bixenta Arrieta](#) altzatarrekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ehiza ikaragarri gustatzen zitzaion umetatik.

### **Laxaro Iparragirre Perurena (1929)**

Errenteria-Oreretako Añarbe baserrian jaio zen, egun Añarbe urtegia dagoen tokian; izan ere, urtegia egitean urpean geratu zen baserria. Aita Añarbe eta Petrinea baserrien artean zegoen Herriko Etxe baserrian jaioa zen eta ama, berriz, Goizuetan. Aitak Añarbeko zentrolean egiten zuen lan. Errenteria-Oreretako lurretan zegoen baserria, baina herrigunetik hiru orduko bidea zegoen eta Goizuetatik bi ordu eta erdikoa. Oso gutxi joan zen eskolara Laxaro. Hamaika urterekin hasi zen basolanetan osabarekin. Gerora, urte batzuetan baserriko morroi-lanetan aritu zen Hernanin eta Oialumen. Berrito bueltatu zen basolanetara anaiarekin batera; baina berehala baserrira itzuli behar izan zuen anaia zaharrena ezkondu zelako. Hogeita lau bat urterekin Luzuriagako Astillerotan hasi zen lanean, bakailaotarako itsasontziak konpontzen eta bertan aritu zen aurrejubilatuta arte. Pakita Etxeberria Oiartzuarrarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Errenteria-Oreretako Agustinak auzoan bizi izan dira.



### **Xanti Iparragirre Perurena (1934-2022)**

Errenteriako Añarbe auzuneko Añarbe baserrian jaio zen. Ama Goizuetakoa zuen eta aita, berriz, Oiartzungoa. Hamar anai-arrebatatik zazpigarrena zen bera. Eskolara joateko aukerarik ez zuen izan. Hamasei urtera arte etxean lan egin eta gero, basolanean hasi zen, ikatza egiteko egurra botatzen eta prestatzen. Soldaduska aurretik Donostian Gaiztarroren mendia zena lautu zuten eskuz, geroago Bidebieta parkea izendatu zuten tokian etxeak eraikitzeko. Eskoriatzara ezkondu zen, eta bertan Goikolea eta Akixorekin batera, Euskal Herrian aitzindari izango zen haurrentzako Bertso Eskola jarri zuten martxan.



### **Maritxu Irazusta Iraola (1937)**

Landarbasoko Landarbaso baserrian jaio zen Maritxu. Aita eta ama Abaltzisketakoak zituen, ezkondu eta gero jarri ziren Landarbaso bizitzen. Aita Landarbaso inguruko mendiko guarda zen. Landarbaso kaletik urruti geratzen da: bai Errenteria-Oreretatik, baita Hernanitik ere ordu eta erdi edo bi orduko bidea zegoen oinez. Eskola ere urruti geratzen zitzaien: Zamalbideko Tolare Berri eskolara joan zen, baina oso gutxi. Hamabi urterekin komunioa egiteko dotrina ikasten ibili zenean joan zen eskolara hilabete batzuetan, baina besterik ez. Amak zekiena erakusten zien etxean. Tarteka baserriko produktuak eramaten zituzten saltzera: batez ere gerezi denboran, Hernanira jaisten zen Maritxu gereziekin. Hogeitaz urterekin hasi zen baserrikanpo lanean: Errenteria-Oreretako Zumardian bizi ziren Otegitarren etxera joan zen neskame. Geroago etxerik aldatu eta Hernaniko Teodoro Setienen etxean aritu zen neskame-lanetan. Hogeita bi urterekin lana utzi zuen, ezkondu egin zen eta senarrarekin jarri zen bizitzen. Landarbaso inguruan dagoen Susperregi baserriko Juan Susperregirekin ezkondu zen. Agustinak auzoan jarri ziren bizitzen eta han bizi izan dira. Hiru seme izan zituzten.



### **Sorkunde Iturria Lasa (1930)**

Oiartzungo Arragua (Oiartzun eta Errenteria arteko mugan) auzoan jaio bazen ere, hiru-lau urte zituenetik bizi izan da Errenteria-Oreretan. Aita Errezilgoa zuen, ile-apaintzailea zen eta erdiko kaleko Arruabarrenaren ile-apaindegian egiten zuen lan. Ama, berriz, Oiartzungo Errotazar baserrikoa zuen. Sorkundek Aierbe ahizpen eskolan ikasi zuen. Gerra garaian aita preso hartu zuten eta anai-arrebak amarekin Pasai Donibanetik itsasontziz Santanderrera iritsi ziren; urtebete pasa zuten han. Hamalau urterekin Pekin izeneko fabrika hasi zen lanean eta hamaika urtez aritu zen bertan. Gazterik hil zitzaien ama, 23 urte zituen Sorkundek, eta laster lana utzi eta etxeko lanez arduratu zen. Kristobal Arrieta donostiarrarekin ezkondu eta Sorkunderen gurasoen etxean jarri ziren bizitzen, Gaztaino auzoan; han bizi izan dira beti. Hiru seme izan zituzten.



### **Garbiñe Jauregi Abarrategi (1932-2021)**

Aretxabaletan jaio zen Garbiñe. Aita, Pedro Jauregi, Azatzan jaioa zen eta Aretxabaletako alkatea izan zen gerraurrean EAJren aldetik. Ama, Mercedes Abarrategi, Garagarzan jaioa zen. 36ko gerra hastean, aitak Bilbora alde egin behar izan zuen eta senide guztiak bertara joan ziren bizitzera. Gero Durangora aldatu ziren eta, hango bonbardaketaren ondoren Aretxabaletara itzuli zen ama seme-alabekin. Gero aita preso hartu eta langile batailoietan ibili ondoren, Ondarretako kartzelan pasa zituen lau urte preso. Garbiñek bere haurtzaroa senideen etxeetan igaro zuen, osaba apaizarekin Garagartzan lehenengo, eta gero Aztirian senide batzuen baserrian. Hamahiru urterekin Errenteria-Oreretara etorri zen familia osoa. Aitak beste akziodun batzuekin batera Lanona izeneko lantegia jarri zuen martxan Errenteria-Oreretan eta hango zuzendari-lanak egin zituen. Hamasei urtera arte ikasten aritu ondoren, aitaren bulegoan jarri zen lanean Garbiñe. Joaquin Bengoetxearekin ezkondu zen hogeita hiru urterekin. Garraiolaria zen senarra eta hogeita hamabi urterekin Garbiñe alargun gelditu zelarik, senarrak hasitako bideari eutsi zion. Ordurako Errenteria-Oreretako autobus urbanoa martxan jartzeko baimena eskatua zuten udaletxean. Garbiñek alargundu ondoren baimena eskuratu zuenean, autobus zerbitzua jarri zuen martxan. Gerora, bere enpresa propioa, Bengoetxea Autobusak, eraiki zuen eta Garbiñek eraman izan du bertako ardura nagusia, baita enpresako kontabilitatea ere. Maria de Lezo kalean bizi izan da ezkondu zenetik, sei seme-alaba izan zituzten eta seme guztiak autobusekin, familiako enpresan, aritu izan dira lanean.



### **Arantxa Jauregi Burutaran (1926)**

Errenteria-Oreretako Santa Klara kalekoa da Arantxa, sei anai-arrebatan gazteena. Hogeita bost urte zituenean Matxainera joan ziren bizitzera. Mojekin ikasi zuen, Gurutzeko alabekin, 14 urtera arte. Hamasei urterekin Zumardian zegoen Felix Novoaren drogerian hasi zen lanean; bere ahizparekin aritu zen han. Bertan azido mota ugari prestatzen zituzten: lixiba, xaboia... Mutil koskorrek biska erostera joaten ziren gero txoritan ibiltzeko. Drogeria itxi egin zen eta perfumeria bat zabaldu zuten leku berean. Gero hura ere itxi eta ondoan zegoen Elizalde burdindegikoek erosi zuten lokala. Berrogeita hamahiru urtera arte aritu zen drogerian lanean; izan ere, hanketako gaitza zuela eta, lana utzi behar izan zuen. Aragazkiaren ezker aldean agertzen dena Arantxa Jauregi da eta eskuinaldekoa, berriz, Pepi Mitxelena.



### **Eustaki Labandibar Retegi (1920-2012)**



Errenteria-Oreretako Goiko Kanean jaio zen Eustaki. Aita bertakoa zuen, Larretxipi baserrikoa eta ama, berriz, Oiartzungo Zamora baserrian jaioa. Mojen eskolara joan zen hamalau urte bete arte. Gero josten ikasten hasi zen Pepita Iñarrarekin, Pepitak Goiko Kanean zuen jostundegian. Eustakik oso gustukoa zuen jostea eta ikasle abila zenez, Pepitari jostun lanetan laguntzera joaten zitzaion eta Pepitak trukean diru apur bat ematen zion. Gero kanporako josten hasi zen eta Lekuona sendiarentzat josten zuen; izen bereko okindegiko jabe zen sendiaren jostun izan zen 70 urtez. Soinekoak, blusak, gonak, gaueko soineko dotoreak... josten zizkien. Baina fabrikako lanean ere aritu zen Pasai Antxon, hortzak garbitzeko pastaren tutuak egiten zituzten fabriketan, 11 urtez. 1970 urte inguruan Iztietan auzora joan zen bizitzera ahizparekin eta geroztik han bizi izan zen.

### **Miren Lete Oiartzabal (1935)**



Errenteria-Oreretako Goiko kalean jaio zen. Aita Goiko kalekoa zuen; ama, berriz, Añorgan jaioa eta Andoainen bizitakoa zen, baina gaztetan Garcia jostundegira neskame etorri zen, izeba baitzuen bertakoarekin ezkondua. Mirenek mojekin ikasi zuen eta gero bi urtez Rosaren eskola partikularretara joan zen. Hamalau urterekin hasi zen lanean Niessen lantegian. 36ko gerran, aita Bilbora joan zen eta Jose Antonio Agirre lehendakariaren zaindari izan zen. Bilbon harrapatu eta kartzelan sartu zuten. Langile batailoietan aritu zen ia lau urtez. Gerran zela, bost urteko semea, Mirenen anaia, gaitzak jota hil zen. Gerra bukatuta, aita bueltatu zenean, lehengo lantokian hasi zen berriro lanean, Luzuriagan. Gerra denboran, antzerkia euskaraz egiteagatik amaren ahizpari ilea moztu zioten eta herritik paseatzera behartu zuten. Mirenek eskola bukatutakoan, josten ikasi zuen Foruen Plazan zegoen Joakiren jostundegian. Jose Krutz Sarasola errenteriarrarekin ezkondu zen eta legeak hartara behartzen zuenez (emakume ezkonduak ezin zuten lanean segi), Niessengo lana utzi zuen. Ordurako senarrak burdindegia zuen Foru Plazan eta han aritu zen lanean. Iztietan bizi izan dira eta bi alaba dituzte.

### **Begoña Lizaso Eizmendi (1922)**



Aita arotza zuen, eta Biteri kaleko Altzari lantegiko etxean bizi zen familia osoa, Erreterian. Etxean beti izan dute musikarako eta bertsoetarako afizioa. Aita, Gillermo Lizaso, Erreteriko Txistulari Bandako kide zen eta baita anaia Alejandro ere. Oso txistulari ona omen zen azken hau eta "Eusko gudariak" kantaren sorrerarekin lotzen da. Begoña Tolosan oporretan zela hasi zen gerra, eta anaiak gudari joan zitzaizkion. Bera, aldiz, Tolosako izebaren baserrira joan zen bizitzera, amarekin batera. Han ezagutu zuen bere senarra izango zena. Horrela, kaletik baserrira ezkondu zen, Hernialdera. Han gogor egin behar izan du lan beti, nahiz kalekumea izan, lanerako balio duela erakusteko. Baita erakutsi ere.

### **Paulita Loinaz Otegi (1908-2014)**



Zazpi anai-arrebetan zaharrena. Ama Hondarribikoa zuen eta aita Goiatzekoa. Gurutzeko mojen ikastetxean ibili zen zortzi urtera arte. Andres Brizard aterkin lanean hasi zen lanean, gero, artean umea zela. 12 urterekin Fabrica Grandera joan zen, bordatzaile gisa. Jose Alabarekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten. Oso musikazalea.

### **Jon Maya Sein (1977)**



Dantzaria eta koreografoa. *Kukai* konpainiako zuzendaria da. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.

### **Miren Mendarte Kasares (1929)**

Herriko erdigunean, kale zaharrenetako batean, Santxo-Enea kaleko 19an jaio zen Miren eta kale horretan bizi izan da beti. Aita Errenteriakoa zuen, bera jaio zen etxekoa bertakoa, eta ama, berriz, Altzako Kasanao baserrikoa. Bere aitona Saturnino Elorriokoak erosi zuen hiru solairu zituen etxea eta etxepean janari-denda haundi bat jarri zuen, "Mendartetarrena" bezala ezagutzen zena. Etxepean zuten denda hartan egiten zuen lan Mirenen aitak familiako beste batzuekin batera. Aita abertzalea zen, batzokiko arduraduna; 36ko gerran gudaria izan zen eta fusilatu egin zuten. Mojen eskolan ibili zen Miren, "Hijas de la cruz" izenekoan. Etxean garrantzia handia ematen zioten ikasteari eta Mirenek Batxilergoa egin behar zuela erabaki zuten. Ikasketak bukatzean irakasle bezala aritu zen, eskola partikularrak ematen. Gero dendan aritu zen bizpahiru urtez, Pako Etxebeste errenteriarrekin ezkondu zen arte. Ezkondu eta etxeko lanetan jardun zuen. Bazuen nahikoa lan hamar seme-alaba izan baitzituzten. Senarrak drogeria zuen eta ahal zuenean lagundu egiten zion Mirenek. 1975 urte inguruan itxi zen Mendartetarren janari-denda.



### **Mari Kruz Mendizabal Etxeberria (1923)**

Errenteria-Oreretako Biteri kalean jaio zen. Ama, Ramona Etxeberria, herriko Añabitarte baserrikoa zuen eta aita berriz, Pedro Mendizabal, Beizaman jaio baina Errenteriarra etorria. Hamabi senidetan zaharrena zen Mari Kruz. Mojekin ibili zen eskolan, "Gurutzeko Alabetako" mojekin. Biteri kaletik Papeleraren ondoko etxe berrietara joan ziren bizitzera eta bederatzi urte arte han bizi izan zen. Aita kontratista zen eta etxeak eraikitzen zituen, berak eraikitako etxe ugari dago Errenteria-Oreretan, ez etxeak bakarrik bestelako eraikinak ere egin zituen, zubiak besteak beste. Horietako batzuk Agustinak auzoko lehenengo etxeak izan ziren, etxe txiki haietako batera joan zen bizitzera sendi osoa. Etxe alboan zegoen bulegoa eta Mari Kruz han aritzen zen paper-kontuekin aitari laguntzen. Hamazazpi urterekin ezagutu zuen bere senarra izango zena, Armando Lacombe, eta hogeita lau urte zituenean ezkondu ziren. Sei seme-alaba izan zituzten eta Mari Kruzek neskamea izaten zuen etxeko lanetan laguntzeko. Agustinetan bizi izan dira.



### **Imanol Miner Aristizabal (1974)**



Errenterian jaioa, ama oiartzuarra eta aita bertakoa. Lau anaietatik hirugarrena. Orereta ikastolan ikasi zuen eta ondoren Euskal Filologia ikasi zuen Donostian, EUTGn. Batez ere euskalgintzan jardun du. EHGAMeko kidea ere bada, eta elkarrizketa bereziki LGBTBI mugimenduaren historia jasotzeko egindakoa da.

### **Pepi Mitxelena Aiestaran (1926)**



Errenteria-Oreretako Beheko Kalean jaio zen. Bost anai-arrebatan bera zen zaharrena. Anaia bat jaiotzetik elbarria zen eta txikitatik anaia zaintzeaz arduratu zen. Herriko eskola publikoan ibili zen ikasten hamahiru urte bete arte. Hamabost urterekin, Pekin fabrikan hasi zen lanean. Entxufeak eta torlojuak egiten zituzten. Gogoan ditu Pepik 1933ko uholdeak: Beheko Kaleko etxetik zumardia ikusten zuen. Hamahiru urte zituenean Goiko Kaleko etxe batera aldatu ziren. Danel Txapartegi errenteriarrarekin ezkondu zen. Oso kantuzalea zuen senarra. Senarraren aita bertsolaria zen, Jose Ramon Txapartegi. San Markosene zaharrentzako egoitzan bizi izan da Pepi. Argazkiaren eskuinaldean azaltzen dena Pepi da eta ezkerrean dagoena Arantxa Jauregi.

### **Joxe Murua Artola (1931)**



Errenteria-Oreretako Santa Klara kalean jaio zen Joxe. Aita Errenteria-Oreretakoa zuen eta ama, berriz, Lezokoa. Santa Klara kalean jaio eta handik bizpahiru urtetara Santa Maria kalera aldatu ziren. Aitak, "Super Bielle" produktu kimikoak egiten zituzten fabrikan egiten zuen lan. Amak, aldiz, etxeak garbitzen zituen. Rosaren eskolan ikasi zuen Joxek. Hamalau urterekin gerora bere ofizio bihurtuko zen lanbidean hasi zen laguntzaile gisa, Fermin Lesakaren ebanisterian. Gerora lanbidea ikasteko, lanean aritzearekin batera iluntzetan marrazketa teknikoak ikastera joaten zen. 1959an ezkondu zen Kontxi Etxebeste oiartzuarrarekin. Errenteria-Oreretako Goiko kalean jarri ziren bizitzen. Bi alaba izan zituzten.

### **Consuelo Ordoki Ordoki (1927)**

Errenteria-Oreretako Maria de Lezo kalean jaio zen Consuelo. Aita eta ama nafarrak zituen. Txikitan hasi zen pilotan jolasten eta ikaragarri gustatzen zitzaionez, egunero egiten zuen bere saioa: txikitan etxe ondoan eta handik urte batzuetara, helduagoa zela, Esmalterian lan egiten zuten mutil gazteen aurka lantegiaren horma handi batean, haiek bazkalostean lanera sartu aurretik. Eskuz aritzen ziren eta eskuak minberatuta zituela bueltatzen zen Consuelo etxera. Askok "marimutil" deitzen zioten. Geroago, herriko pilotalekura hasi zen joaten. Han erraketarekin aritzen zen, erraketista zen. Madriletik deitu omen zioten behin erraketista bezala aritzeko, baina amak ez zion joaten utzi. Etxean arrosarioak eginez irabazten zuen diru pixka bat. Bularretakoak ere egiten zituen kakorrazarekin enkarguz. Herrian oso ezaguna izan da kalean zihoala txistu egiteko ohitura izan duelako, eta trebetasun handiz gainera. Urte askoan bizi izan da zaharren egoitzan.



### **Mila Otaegi Arrizabalaga (1926)**

Errenteria-Oreretako Gabierrota auzoan zegoen bidezainen etxean bizi izandakoa da Mila. Jaio bertan jaio ez bazen ere, jaio eta hilabete batzuetara jarri ziren han bizitzen, beraiek estreinatu zuten etxea. Gurasoak Zegamakoak ziren, baina aitaren lana zela-eta Errenteria-Oreretara etorriak. Bidezaina zen aita, bideak egiten eta konpontzen egiten zuen lan. Gabierrotako etxean bizi zirenak bidezainen familiak ziren; gizonaek lan horretan aritzen ziren eta etxe azpian gordetzen zituzten lan-tresna eta makinak, eta kamioiak ere bertan betetzen zituzten harriz. Baratze eta animalia ugari zituzten etxearen atzealdean. Mojekin ikasi zuen Milak, Gurutzeko alabekin. Hamazazpi urterekin lihofabrikian (Fabrika Handian) hasi zen lanean; bertan egin zituen bere arrearako maindireak. Hogeita lau urterekin utzi zuen lantegia eta Agustin Alfaro Ruiz errenteriarrekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten. Gabierrotan bizitu ziren hasieran, gero kaputxinoen gainean, eta azken urteetan Morrongilleta kalean.



### **Mari Tere Paskual Zapirain (1931)**

Errenteria-Oreretako Biteri kalean jaio zen Mari Tere. Gurasoak Errenteria-Oreretakoak zituen, ama baserrian jaioa. Aitak Markeze izeneko tailerrean egiten zuen lan moldeak egiten; 36ko gerra zibilean, frontean ibili zen Intxarkundiaga batailoian. Gerrak iraun zuen bitartean, Errenteria-Oreretako beste hainbat familiak bezalaxe, herritik ihes egin eta Santurtzin bizi izan ziren ama-alabak hiru urtez. Petrolio-ontzi handi batean bueltatu ziren herrira, amonaren etxera. Aita gerratik bueltatu zenean, Gaztaino auzoan jarri ziren bizitzen. Aita portuan aritu zen lanean platanoak eta ikatza banatzen. Gero Fabrika Haundian, Linon, gaueko guarda izan zen, eta suginlanetan ere aritu zen. Aierbe ahizpekin ibili zen eskolan Mari Tere. Arratsaldez joaten zen eskolara amak gaixoaldiak izaten zituenez, berak arduratu behar zuelako etxeko lanez. Amak Lino fabrika egin zuen lan. Behin "Productos El Quijote" izeneko lantegitik bulegoko langile baten galdezka joan ziren Aierbe ahizpen eskolara eta Mari Tere aukeratu zuten. Bertan aritu zen lanean ezkondu arte. Jose Koka errenteriarrarekin ezkondu zen Gaztainora, gurasoen etxera, eta bost seme-alaba izan zituzten. Gerora Olibet auzoan bizi izan dira.



### **Xebastian Retegi Mitxelena (1929-2018)**

Errenteria-Oreretako Egi-Luze Mendikoa baserrian jaio zen Xebastian eta han bizi izan da beti, Egi-Luze sagardotegia dagoen baserrian, alegia. Aita Egi-Luze bertakoa zuen eta ama, berriz, Añarbeko Pikorrene baserrikoa. Zazpi anai-arrebatan bera izan da gazteena. Aitak Landarbasoko kobetan egiten zuen lan perretxikoak hazten eta hura utzi zuenean baserrian aritu zen. Xebastian Zamalbide auzoko Tolare-Berri eskolan ibili zen 6-7 urterekin hasi eta 12 bete arte. Geroago, auzoko beste mutil bat eta biak Errenteriako kaleko eskola publikora jaisten ziren gaztelaniaz ez zekitela-eta ikastea komeni zitzaiela erabaki baitzuten gurasoek. Hamalau urterekin utzi zuen eskola. Donostiako Udaleko langilea izan zen konponketak egiten, basolanetan ere aritu zen eta Landarbasoko zentralako langile ere izan zen. Baina sagardogintza izan da bere zeregin nagusia. 1945 inguruan sagardotegia martxa jarri zuten baserrian eta geroztik beti izan da sagardotegia bertan.



### **Begoña Sarasola Mitxelena (1938)**



Errenteria-Oreretako Gabierrota auzoko Larre-Enea izeneko etxean jaio zen. Aita Beasainen jaioa zen, baina 10 urterekin Errenteriara etorri zen ebanista-lanbidea ikastera. Ama Lartzabalgoa zuen, Errenteria eta Oiartzunen arteko mugan zegoen auzokoa. Mojekin ibili zen eskolan, Gurutzeko alabekin. Hamahiru urterekin ile-apaindegi batean hasi zen laguntzaile gisa. Arantxa, Miren eta Eli (Galarraga ahizpak) etorri zitzaizkion lana eskaintzen ospe handia zuen ile-apaindegian. Han hasi zen gerora urte askotan izango zuen lanbidea ikasten. Donostian ere aritu zen urte batzuetan eta gero Errenteriara bueltatu eta ahizparen etxean hasi zen ahizparekin batera. Ordutik aurrera bere ile-apaindegia izan zuen. Manuel Azpiazu errenteriarrekin ezkondu eta Iztietara auzoan jarri ziren bizitzen; lau seme-alaba izan zituzten. Senarra arrantzalea zen, patroia, alturako arrantzan aritzen zen, arraste-ontzietan: bakailaotara joaten zen eta sei hilabete ere egiten zituen etxetik kanpo arrantzan. Kaputxinotako gainean etxetxo bat erosi eta bertan bizi izan dira.

### **Jose Krutz Sarasola Mitxelena (1929)**



Errenteria-Oreretako Gabierrota auzoko Larre-Enea etxean jaio zen Jose Krutz. Ama Oiartzungoa zuen, baina baserria Errenteriatik kilometro batera gelditzen zen; aita, berriz, Beasainen jaioa zen, baina 10 urterekin Arrieta Ebanisteriara etorria, mantenu truke lanbidea ikastera. Mojekin ibili zen eskolan, "Gurutzeko Alabekin", 7 urtera arte. Ondoren, Aierbe ahizpekin eskola partikularrak hartzen aritu zen 3 urtez. Eta gogoan du gero fraideekin pasa zituen urteetan asko ikasi zuela. Hamalau urterekin Elizalde burdindegian laguntzen hasi zen arratsaldetan. Handik urte batzuetara arduradun izendatu zuten. Bertan aritu zen hamabi urtez. 1956an bere burdindegia ireki zuen, Sarasola izeneko, Errenteriako Foruen Plazan. 1957an ezkondu zen Miren Lete errenteriarrekin, eta biak aritu ziren dendan lanean. 1980ko krisia zela-eta, handik bi urtera saldu egin behar izan zuen ferreteria eta jubilatua egin zen. Bi alaba ditu.



### **Nikolas Sarrasti Kazabon (1954)**

### **Apolonia Susperregi Zabala Poloni (1937)**



Errenterian jaioa. Sei senidetan hirugarrena zen. Eskolara gutxi joan zen, etxean lana izaten zutelako. Tabernari lanetan ibilia. Futbola, idi-probak eta bidaiatzea izan ditu zaletasun. Jose Migel Loinazekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen.

### **Luixita Zabala Beristain (1932)**



Errenteria-Oreretako Gaztaino auzoan pasa zituen Luixitak haurtzaroa eta gaztaroa, Lezon jaio zen arren. Bera jaio eta berehala joan zen familia osoa Errenteria-Oreretara bizitzera. Ama Azkoitikoa zuen eta aita, berriz, Aranokoa. Sei anai-arrebatan zaharrena zen bera eta oso gaztetxo zirela hil zitzaien ama. Aita okina zen: Garmendia okindegian aritu zen lanean lehendabizi eta Villarrealen geroago. Gaztainoko harrobi-gain etxean bizitu ziren. Hamabi urterekin eskola utzi eta umezain aritu zen hasieran; gerora Niessen lantegian hasi zen lanean, hamalau urterekin. Hamabost urterekin ezagutu zuen lantegian lehenengo greba. Artean ez zituen gertaera haien nondik norakoak ulertzen. Gerora, hogeita hiru urterekin emakumeen sekzioko langileen ordezkari izan zen. Hamalau urtez egin zuen lan Niessenen, ezkondu zen arte. Ezkondu aurretik behartu egin zuten lana uztera. Pasai Donibaneko Joxe Mari Karrererekin ezkondu eta Galtzaraborda auzoan jarri ziren bizitzen. Sei seme-alaba izan zituzten eta geroztik han bizi izan dira.

### **Balentina Zabala Etxeberria (1936)**



Errenteria-Oreretako Morrontxo baserrian jaio zen Balentina. Aita Morrontxokoa zen eta ama, berriz, Zamalbideko Pikoketa baserrikoa. Baserritik bizi ziren. Esnea eta barazkiak eramaten zituzten egunero kalera; etxeetan, plazan eta merkatuan egiten zuten salmenta. Balentina zortzi bat urte zituenerako hasia zen ahizparekin salmentan. Geroago, Balentina bakarrik joaten zen astoaren laguntzarekin. Pedro Lekuona lezoarrarekin ezkondu zenean, senarraren baserrian Lezoko Kaxernan jarri ziren bizitzen. Geroztik han bizi izan dira. Ezkondu eta gero ere, urte askoan jarraitu zuen Balentinak esneketari lanetan, beti ere astoa lagun zuela.

### **Euxebi Zabala Zapirain (1926-2024)**



Trabaleku baserrian jaio zen Euxebi, Aldura bidean, Errenteria eta Oiartzun arteko mugatik gertu. Hamalau anai-arreba ziren, Euxebi bederatzigarrena izan zen. Ama Lezoko Amuntene baserrian jaioa zen, baina hamazazpi urte zituenean sendi osoarekin Trabaleku inguruko baserri batera joan ziren. Aita inguru bereko Baringarategoikoa baserrian jaioa zuen; baserrian egiten zuen lan eta inguruko mendietan egurra bilduta Errenteriara jaisten zen idiek bultzatutako gurdiarekin, Garmendia okindegikoei egurra saltzera. Ama, berriz, Donostiara joaten zen baserriko esnea saltzera. Beranduago Euxebi eta bere ahizpa ere aritu ziren lan horretan. Trabaleku inguruko Haizate Etxean zuten eskola inguruko neska-mutikoek. Euxebik bertan ikasi zuen Tomaxa irakaslearekin. Hamar bat urterekin eskola utzita ahizpari laguntzen zion Donostian esnea saltzen. 1948an ezkondu zen Santiago Agirrezabala bedaioarrarekin. Hamaika seme-alaba izan zituzten. Jaio zen baserrian bizi izan da beti Euxebi.

### **Konsuelo Zabaleta Galarraga**



Errenteriako Miguel Alduntzin kaleko (Goiko Kaleko) laugarreneko lehenengo pisuan jaio zen. Ama, Monika Galarraga, Errenteriako Eliz kalean jaioa zen eta aita, berriz, Santa Klara kalean. Aita Juan Zabaleta bertsolaria zen eta anaia ere bertsolaria zuen: Zabaleta anaiak ziren. Aita bertsolaria izaki, senideen artean kantatzeko ohitura zuten Konsueloren etxean. Aitak Fabril artile-fabrikari egiten zuen lan eta tindatzailea zen; Goiko Kaleko jaietarako tinteak eramaten zituen eta paper-fabrikako paperak tindatuta, banderatzoz betetzen zuten kalea. Konsuelo Gurutzeko Alabak kongregazioko lekaimea da. Hondarribian egin zuen nobiziatua eta ordutik irakaskuntzan aritu da. Hasierako urteetan Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat herritan klaseak ematen eta kongregazioaren eskoletan zebiltzan irakasleei euskarako klaseak ematen hasi zen. Hogeita hamar urte daramatza Errenteriako San Jose ikastetxean lanean, irakasle lanak egin izan ditu eta baita zuzendari lanak ere.

### **Joxe Mari Zapirain Etxeberria (1933)**



Lezon jaio zen, baina zazpi urte zituela Errenteria-Oreretako Pontikara joan zen bizitzera sendi osoa. Aita Donostiako Loiola auzokoa zen, baina gaztetan Errenteria-Oreretako Arramendi baserrira etorri ziren. Ama, berriz, Errenteria-Oreretakoa, Zamalbide auzoko Luberaburu baserrikoa zen. Aitak paper-fabrikari egiten zuen lan. Lezon bizitu ziren bitartean Agustinaren eskolan ibili zen Joxe Mari. Errenteria-Oreretara etorri zirenean Aierbe ahizpen eskolan ikasi zuen. Hamahiru urterekin Maria de Lezo kalean zegoen Fraileren lantegian hasi zen lanean. Baldosak egiten zituzten bertan. Hogeita bi urterekin baldosen lantegia utzi eta Luzuriagan hasi zen lanean. 1966an Luzuriagakoa utzi eta hodi-fabrikari hasi zen ofizial kargua zuela; han ELAko ordezkari izan zen. Ezkondu zenean, Gabierrotan jarri ziren bizitzen eta bertako auzo-elkartea sortu zuen beste auzokide batzuekin elkartuta.

### **Joxe Mari Zuloaga Etxebeste Pottitto (1932)**



Errenteria-Oreretako Goiko kalean jaio zen. Lau anai-arrebatan hirugarrena zen bera. Aita Errenteria-Orereta eta Lezo arteko mugan zegoen Gabiña baserrian jaioa zen eta ama, berriz, Errenterian. Aitak Pasaiaiko portuari egiten zuen lan gerra etorri zen arte. 36ko gerran Itxarkundia batailoian ibili zen. Santanderren preso hartu eta langile-batailoietan aritu zen; gero, Iruñeko kartzelan egon zen preso. Bitarte horretan, izebaren baserrian bizi izan zen Joxe Mari, eta ama eta anaiak beste etxe batean. Errenteria-Oreretako Goiko kalera bueltatu eta aita itzuli zenean ez zuten lehengo lanean onartu, atzera bota zuten portuari. Gero "Industrias Navarras"en hasi zen lanean, Lezon. Joxe Mari txikitatik oso argi zuen arotza izan nahi zuela. Hiru urtez delineazioa ikasteko aukera izan zuen, arratsaldetako eskolan, lanetik ateratakoan. Gaztetan beste lan batzuetan aritu izan den arren, bere lan garrantzitsuena arotzarena izan da. 1956an ezkondu zen Caceresen jaiotako Agustina Lorenzorekin. Agustinak auzoan bizi izan dira. Hainbat lantegitan ibili ondoren, bere arotzategia sortu zuen Joxe Mari Agustinak auzoan. Altzariak egiteaz gain, egurrezko eskulturak egin izan ditu eta hainbat erakusketatan erakutsi izan ditu bere lanak.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Ohiturak eta bizimodua

### 1.1. Etxean gazteleraz hitzik ez

- **Hizlaria(k):** Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ERR-001/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:17. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Espainiako Bigarren Errepublikak eskolarako adinean zela harrapatu zuen Begoña, eta aitak aukera izan zuen bezain laster, euskaraz ikasi ahal izango zuten eskola batera eraman zituen alabak. Izan ere, aitak debekatua baitzien etxean gazteleraz egitea.

#### Transkripzioa

- Herriko eskolaa o...?

- Bai, juten giñan. Baiño ordun zeon Alfonso XIII. Zer zan ba ordun? Ze klase Alfonso XIII... erregia zeona. Gero hurrena etorri zan republika. Eta republika etorri zanian, Errenterin bi ikastola jarri zittuen. Nere aittak bai azkar asko españolati aterata ikastolaa! Eske nere etxian hitz bat ezin zan erderaz in, e!

- Ez, e? Galarazita?

- Ezta hitz bat´e! Ni aittak bi aldiz jo niñun! Batian, gendun, hola, fabrikatik etxea, hola, pasillo bat, eta esaten zigun: “Hemen ez ibili txinguan!”. Ta beti hantxe gu´re ba! Ta bai-ta-ez-ta etorriko ta. Ai giñan txinguan [...], atia iriki [zunian]nei iya muturrez aurrea bota ta “Gaiña erderaz! Oain´e hemen ta gaiña erderaz!”. Eskaileretan korrika abittu nitzan. Bai, lau zankadara pasa ta hua pasaportia eman ziana! A! Nere lagunai´re esaten niyen, e, euskeraz ez [bazekiyen]: “Cuando viene mi padre, callaros, ¿eh?”.

- Benetan, e?

- Bueno! “Callaros cuando viene. Si le veis a mi padre, callaros”. “Ez al do lagunik euskaldunik, o?”. Jo. Eguardin, zea, `Euzkadi´ periodikua hartzen zun, Bilbaon itten zan ta. Eskolatik etxeakon nik eramaten non ta. Egun batian juten naiz eskolatik eta: “Buenas tardes”. “Zer da hoi?” altxa ta “Aide, e! Baiño beheko atariko ateaño, e! Ta tinbria jota etorri!”. Jolin, hua ikara sukaldian sartzeko. “Ia, ba! Ia, ba!”. Kendu zizkiun “Buenas tardes” esateko goguak!

### 1.2. Tifusak bi anaia eraman

- **Hizlaria(k):** Albisu Mendarte, Inaxito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-006/004
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:02:56. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Anaia bat izan zuen, baina 4 urte zituela hil egin zen tifusak jota; gerora, beste anaia bat 2 urte eta erdi zituela hil zen, hura ere tifusak jota.

### Transkripzioa

-Anai-arreba asko ziñeten?

-Bueno, aber, nere gurasoak izan zuten mutiko bat. Ta lau urterekin hil egin zen, tifusak jota. Europan izan zen pand... ez dakit nola esaten den, baña millaka ta millaka persona hil ziren, e! Horrakin. Eta allegatu zen honaño. Eta harrapatu zuen anaia. Nik ez nuen ezagutu.

-Ya...

-Gero... A ze nolako ostia hartuko zuten gurasoek, e! Beste bat. Beste mutiko bat. Bi urte terdi, eta hura ere gauza berarekin, kanka! Gero, hil.

### 1.3. "Etxe poxpola" abestia

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal Etxeberria, Mari Kruz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-009/011
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:19:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: "Etxe poxpola" abestia kantatzen du. Batzokian ikasitakoa, umetan.

### Transkripzioa

- Adibidez bestea:

“Han urrun etxe poxpola  
hola, hola.  
Tximinitik gora, kea dariola,  
hola, hola.  
Gaintxuan arbola, zelai erdian.  
Erreka poxpola itxe atarian.  
Tralara lalara la la.  
Dana txiki-txiki-txikiya, hola.

Badator etxeoandria,  
hola, hola.  
Begitxoak ñir-ñir,  
ahoan irria,  
hola, hola.  
Sutan danboliña gaztaiña erretzen...”

Ez naiz gogoratzen.

- “Sutan danboliña gaztaiña erretzen”.  
- Baiño lehenbizi... beste... “etxia”...

“...babak egosten.  
Sutan danboliña gaztaiña erretzen.  
Tralara lalara la la.  
lara lara lara txikiya, hola”.

#### 1.4. Apaizaren erreakzioarekin txundituta

- **Hizlaria(k):** Otaegi Arrizabalaga, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-013/034
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:16:32. **Bukatu:** 01:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Behin, Mila konfesatzera joan zenean, mutil batekin hasi zela kontatu zion apaizari. Gerora, apaizak galdetu zion ea musurik eman zion mutil-lagunari eta Milak ezetz erantzun zion; horren ostean, apaizak izandako erreakzioarekin txundituta gelditu zen Mila.

#### Transkripzioa

- Zea, konfesatzea jua nitzan eta don Jose Maria Mujika. Majua, gaiñea! Hua bai zan apaiza majua! Eta nunbaitte esaten niyon gauzakin, mutil batekin hasi nitzala ta zea ta hola. Ta aber ze moduz nebillen beakin, ta oso kontentu, ta bai, ta bueno. Orduan dena kontatzen zitzaion apaizai! Eta esan zian behin aber zenbait denbora damakitten mutillakin, ta lau-bost hillabete o hola, ta “Muxu bat eman diyozu?”, “Eez —nik— eez”, “Ta beak ez dizu eman?”, “Eez”, “Ba nik obligatzen zaittut muxu bat emateko, zergatikan ikusten da oso mutil formala dela” esan zian. Ta utzi nittun geldi-geldi-geldiik iña utzi nittun.

- Baiña orduan ere ez zitzaion dena konfesatzen apaizari.

- Bai, gehiena bai.

- Bai?

- Gehiena bai. Ze pekatu genun? Ez giñan iñokin ibiltzen, ez genun ezer itten. Oain bezela? Ezta pentsatu ere! Hizketan ta, plan txukunian, dantzian ta zean ta... txistiak kontatu, parre in ta besteikan ez. Orduan ez giñan juaten, gaiñea, iñoa; ezta taberna batian´e sartzen. Behin ere ez.

#### 1.5. Batzokiko antzerkiak eta zozketa

- **Hizlaria(k):** Otaegi Arrizabalaga, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-013/067
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:45:45. **Bukatu:** 01:47:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** Gerra aurrean, batzokian antzerkiak ikustera joaten ziren. Han, zozketak egiten ziren; eta, behin, Milari tokatu zitzaion saria: anaiarengan pentsatuta aukeratu zuen saria.

#### Transkripzioa

- Gerra aurretik Batzokiyan egoten zan antzerkiya ta dantza ta... Batzokiya?

- Bai.

- Ezagutu zenun zuk Batzokiya?  
 - Bai hoixe!  
 - Bai, ezagutu zenun.  
 - Denbora gutxi dela bota dute Batzokiya.  
 - Bai. Baiño gerra aurretik, zu umia ziñala o neska koskorra...  
 - Gerra aurretik nere ama ez zen joaten, zegatikan mutikua ttikiya lau urtekin ta zean, baiño ni nere bizilagunak beti eramaten nittuzten. Beti eramaten nittuzten teatrotaa ta zea. Gogoratzen naiz, gaiñea, han rifak itten zittuzten haurrantzako, jostailluak eta zea, ta behin tokatu zitzaiten nei. Eta bizilagunakin jua nitzan, e? Baiño... Haur bakoitzai eman ziyoten papera ta nei tokatu zitzaiten. Ta esan zian —Murgiondonak eta Arregiñakin joaten nitzan, amakin, eta beakin!, eta,— esan ziaten: “Ze nahi duzu hartu?”. Ekarriziaten muñeka bat ikaragarri polita, ta esan nun: “Eramango nuke ba muñeka hau, baiño...”. Badakizu ze bururatu zitzaiten? Nee anaia itxian zeola bakarrik. Zaldi bat hartu nion. “Baiño nola zea hola?” esan zian Murgiondonak; “Bai, eta Antonio ze, bate gabe? ezer gabe? nik ikusi dut”. Eta eraman in nion. Bai. Gogoratzen naiz gaur bezela balitzake.  
 - Eta nola jaso zun zure oparia?  
 - E?  
 - Nola hartu zun zure oparia?  
 - Oiii... kontentu! Orduan ez zen erosteko ta! Zalduya, gaiñea, koskorra, e! Holako zaldi koskorra, e![Primeran]. Kontentu!

## 1.6. Rosarenetik fraideetara ikastera

- **Hizlaria(k)**: Goñi Galarraga, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-027/033
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:56:21. **Bukatu**: 00:57:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Rosarekin ikasi ostean, fraideetan ikasi zuen. Eskola ona zen hura. 14 urtera arte ibili zen han ikasten.

### Transkripzioa

- Bueno, eta hor, ordun, Rosan eskolatikan gero ze juten zan...?  
 - Frailetaa. Frailetaa. Hemen Tellerialdeko “Hermanos Sagrado Corazón” deitzen zitzaioten orden hortaa. Hoiek zuten, hoiek ematen zittuzten eskolak zean, fabrika haundiyak zun pabelloi haitako batean. Haitako zea batean izandu zuten [haik eskola], alkilatua-o zakaten ta. Bueno, eta hortik zenbat jende pasatzen zen! Pasaitik eta Oiartzundik eta Pasai Donibanetik eta honea jende asko etortzen zen eskolaa, zeatik hemen inguruan zen, ba, ya nahiko edadeko 14 urte-15 urte bitarteko eskolik onena, pentsatzen dut. Oiartzungo jende ezagunena, Pasai Antxotikan ´e bai eta Donibanetikan ´e bai ta. Nik asko ezagutzen dittut Donibanetik orduko Sistiaga ta Pedro Etxeberria Ansa, [nola hil zen duela gutxi], musikua ta pintoria-ta zena ta hoik denak eskolan hemen frailetan ezautuak. Frailetan ezautuak. Xipri Manzisidor ta. Jesus!  
 - Hor hamalau urtera arte?  
 - Bai, hamalau urtetan ni lanian hasi nitzan ya.

### 1.7. Etxean eta kalean euskaraz

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-027/037
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:00:36. **Bukatu:** 01:01:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan gaztelaniaz ikasi arren, lagunartean euskaraz hitz egiten zuten. Erreterian izandako apaizak abertzaleak eta euskaltzaleak ziren.

#### Transkripzioa

- Zuk, edade hortan, hamalau urtekin, eskola erderaz zan.
- Erderaz.
- Euskeraz hitz eiten zenuten zuen artian?
- Bai, geen artian, etxian ta beste lagun askokin´e bai. Imanol Albisu ta nik banittun lagunak giro berekuak, familikuak, eta bai, bai, guk euskeraz hitz eitten genun, oain bezela.
- Kalian elkartzen ziñatenian-eta...
- E?
- Kalian elkartzen ziñatenian-eta [...]?
- Ba, ni [...] Imanolekin eo hola, ba, Imanolekin euskeraz ariko nitzan! Eta "Pottitto"kin euskeraz! Hoi jakin ezkeo euskera bazakiyela. Eta elizan mezak´e... Apaizak, gu bizi giñan etxe hortan ez dakit zenbat bizittu izandu zian, eta denak abertzale... euskera... Don Santiago ta don Angel ta don [Markos] ta don Felipe ta denak euskeraz. Erdera´re bai, e, elizan, erdera´re itten zan, baiño. Guk bittara itten genun, baiño geen artian bagenekiyen, oan bezela, euskaldunak gara, ba, euskeraz.
- Oseake zuk etxian bakarrik ez, etxetik kanpo ere, kalian, euskera erabiltzen zenun.
- Bai, bai, bai, bai.
- Zure adiñekoekin.
- Horixe, horixe, bai.

### 1.8. "Etxe honetan euskaraz neri!"

- **Hizlaria(k):** Ibarguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-028/008
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Gurutzearen Alabak eskolan ibili zen Maritxu, mojekin. Hamabi urte betetzerako utzi zuen eskola. Mojek gazteleraz egiten zieten eta euskaraz egiten utzi ez, baina amak argi eta garbi emana zien abisu, etxean sartu orduko euskaraz egin behar zutela denek.

### Transkripzioa

- Zu eskolan nun ibili ziñan?
- Hemen, mojetan, "Las hijas de la Cruz". Bai, hemen.
- Eta zenbat urte arte aittu ziñan hor ikasten?
- Pues, hamaika. Hamabi ya... hamabi urtetan ya jon nitzan etxe hortaa / etxiortaa/, asike...
- Eta ze oroitzapen dakazu mojekin ibili ziñan zea haietaz, urte haietaz? Hor ikasten ibili ziñan garai hartaz. Nola erakusten zuten o ze moduzkoak ziran mojak maistra bezela?
- Bueno, ba, mojak. Lo ke pasa es ke gu joaten giñanian gure amak esaten zigun: "Ate hortatik sartzen zeaztenian, hemen nei euskeraz, e! Gero hortik ateratzen zeaztenian nahi dezutena in /nahizutenin/". Porke eskolan ez ziguten uzten euskeraz hitz eitten. Ez ziguten uzten. Dana erderaz.
- Eta euskeraz egin ezker?
- Pues, erritan ematen zizuten. Porke bestela ez genula ikasiko eta... Ni gogoratzen naiz Eskarne Mendizabalena. Klaro, haiek´e dana euskeraz etxian eta cuenta, eta cuenta itteko guk askotan euskeraz itten genun kuenta. Errexo o. Gero ya ikasi genun erdera ta gero alrebes. Euskeraz ezin iñik oain ibiltzen gea, "hitz hau nola jarri behar dut?" eta.
- Oseake, orduan mojak erderaz.
- Erderaz, dana erderaz. Dana. Ez ziguten uzten...
- Eta dotriña?
- Dotriña´re dana euskeraz.
- Dotriña euskeraz?
- Oi... dotriña erderaz! Dana erderaz! Bai. Don Jose Luis Lekuona-ta izaten zian erakusten zigutenak. Bai. Dana, dana erderaz. Gogoratzen naz ondo atera genula urte batian, ta eraman ziguten eskurtsiyo bat. Jon giñan topuan zearaiño, Gaintxurixketaiño. Ta Gaintxurixketatik Lezotik malda hortan barrena zeara... Jesus! Esango dut!
- Guadalupera?
- Guadalupea. Eta gero Guadalupetikan jeitsi ziguten Hondarrabiko hondartzaa. Eta hondartzan bazkaldu genun. Eta, jo, ez traje de bañoik jartzeko eta ez ezerre, hankak han urian sartzen, dana... gona dana busti! Eta gero eraman ziguten Iruna. Eta Irunen erakutsi ziguten eliza, Irungo eliza. Eta nola eukitzen zittuzten apaizak zean sartuta. E? Ni ttiki xamarra nitzan, baiñan...
- Eta ze in zenuten eskursiyo guziya oiñez?
- Bai, bai, oiñez, oiñez.
- Ba, bada, ez?
- Bai, bai, bai, bai. Orduan asko ibiltzen zan! Ez zan oan bezela. Oan kotxia hartuta.

### 1.9. Egun osoa josten!

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-028/009
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:23:04. **Bukatu**: 00:24:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Brodatzen asko aritzen omen ziren eskolan, baita galtzerdiak pasaratzen ere. Etxeak josteko, brodatzeko zein

konpontzeko izaten ziren arropak ekarrarazten zizkieten mojek eskolara.

### **Transkripzioa**

- Ordun, zuk hor ikasiko zenun irakurtzen ta idazten.  
- Bai, dana.  
- Ta kontuak ateratzen.  
- Bai. Bai, bai, bai, ikasi genun guziya. Bai.  
- Eta eskulanak eta hola ere egiten zenituzten?  
- Bai, bai, itten genittun eskulanak.  
- Gogoratzen zea ze eskulan zian?  
- Josus! Asko. Gehientsuna bordatzen. Bai. Eta nei, gaiñea, nola giñan anai-arreba asko, pues, egun batian esan nun: “Gaur libre, gaur ez dut josi-ta in behar”, nola beti josten-ta aitzen nitzan. Etxeko erropa guziya nik josten nun. Orduan ez baitzan oan bezela! Telak erosi ta ahal zenun bezela etxian itten zenittun. Eta jon giñan zeara... Jon nitzan eskolaa, eta mojak galdetu zien: “Ekarri al dezu /altzu/ lana?”, “¿Has traido trabajo?”, y “No, hoy no, ha dicho mi madre que no había”, ez zeola lanik. “Ez daola lanik zure etxian hoinbeste umekin? Beinga! Seittuan etxea!”. Eta arrautz bat, arrautza bezela, egurrezkuak bazian. Han sartu eta zurzitzen galtzerdiyak. Orduan zuluak itten zian eta zurzitzen ikasi nun.

### **1.10. Neskak alde batetik eta mutilak bestetik**

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-028/010
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:24:41. **Bukatu**: 00:25:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena**: Zazpi urte bete eta lehenengo jaunartzea egin bitartean, neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren eskolan. Adin horretatik gora, ordea, bereizita. Maritxuren anaiak Don Pedrorengana joaten ziren, herriko eskola publikora, eta oso gogorra omen zen. Makila asko dantzatzen omen zuen.

### Transkripzioa

- Gero, hor, esan dezu hamabi urte arte edo ibili ziñatela.
- Bai, bai, [...] eskolan. Gero ya ni gehio ez nitzan jon.
- Neskak eta mutillak batera al ziñaten hor eskolan?
- Ez, ez. Monjetan ttikiyak zazpi urte arte. Komuniyua in arte neskak eta mutillak. Biñon ya handik aurrea ya mutillak joten zian o frailetaa o herriko eskolaa don Pedrokin o bestela... Biño hor neskak bakarra geo.
- Don Pedro zan... hemen apaiza zan, ez?
- Bai, bai, apaiza.
- Eta horrek nun erakusten zun ba?
- Zean, "en las escuelas públicas". Osea... Bai, herriko eskolan.
- Eta zer zan [gogorra]?
- Kriston gogorra! Bua! Makilla hartzen zun... [Gure] mutillak kontatzen dute; haiek, haiek kontatzen dute /kontatzeute/. Eta badakizu gonakin ze soñu ateratzen dan: "pla!", "pla!", "pla!". Eta ez bazenun ikasten, harrekin zipli-zapla.

### 1.11. Etxean potajerik inoiz falta ez

- **Hizlaria(k):** Zabala Zapirain, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-030/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Trabalekun ez zen behin ere potajerik falta izaten eguerdiko otordurako. Txerri bat edo bi hiltzen zituzten urtean, gainera. Sagar errea sarritan egiten omen zuten, eta baita konpota ere, ardo eta azukre pixka batekin lagunduta. Bestalde, esne-partitzen Donostian ibili ohi zirenez, handik arrain freskoa ekarri ohi zuten, kokotea eta halakoak, "orain ez bezalako arraina". Gauetan, gisatua edo bakailao puska bat patatekin. Untxiak ere izan zituzten, baina azkenerako, kendu egin zituzten.

### Transkripzioa

- Zuek zer jaten zenuten orduan?
- Egiya esan gue etxen potajeik ez zen /etzen/ behin'e falta. Eunero eltzeka bat potaje itten zen /ittezen/. Ta geo txerriya nola hiltzen zenun / hiltzezenun/, bat o bi'ro, txerria hiltzen zenun /hiltzezenun/, pues, txerri puska bat bota ta hua partitzen zen /partitzezen/. Ta geo sagarrak izaten zin, uain aldin sagar eerra izaten zen hemen, itten zen, bai. Eta sagarrak eo ta izaten zienin, pues saar errik, o konpota, itten zen ta konpota itten... hua haundiya izaten zen, baakizu, ardo puxkat ta azukre puxkat.
- Eta, postriak eta, hola, egun berexitan e, ba... Gabonetan o holako egun berexitan zerbatte berexigua prepatuko zenuten. Ze izaten zan?
- Ez dakit ba /eztakipa/ nik zer jango genun ordun. Zerbatte izango zen o... Bai, beti extraordinario pixkat zer bait izaten genun /izategenun/. Uain, nola Donostira joten zen /jotezen/ beti esnikin, gu ezin giñen kejatute beste askok bezela. Itten zen /ittezen/ arraya ekarri, ro kokote eerra bai, aizu, ta kazulka jartzen zen /jartzezen/ ta, geo...
- [...] beti zerbatte frexkua ekarriko zun handikan...
- Bai, bai, bai... Uain ez bezelako arraya. Hola, kokotia ateratzen zenun /

ateratzezenun/ leatz haundiyena, belarriyan atzetikan, ta harek mami asko eukitzen zun /eukitzezun/. [...] gañekun berriz gixarua izaten zen /izatezen/ gabeako, normalin.

-Gixatua?

-Bai.

-Patata bakaillua, bakaillu haundiya hemen eoten zen zintzillik; harei puska kendu ta patata bakaillua, ta geo gisaru pixkat o bueno, bizitza korrientia hola. Ta txerriya hiltzen zenin txerriya pixkat...

-Eta, konejuak eta ollaskuak eta, ez zenittuzten eukitzen?

-Konejuk euki genittun geo. Ni neska koxkorra nintzala gustatu iten ta! [...] Nee garaian hasi zien. Bai. Eta geo puxka'at o, baña azken aldin dexente eduki genun, uaintxe... Ez dakit ba /eztakipa/, hamabost bat urte'ro... Ta geo kendu in genittun. Beak'e lana zuten.

-Bai.

-Denea alletu ein behar zendun. Konejuak esaten da biñon, beti gañian behar duzu /bertzu/ ta... Garbitasun pixkat'e ber du...

### 1.12. Soldadutzara joan behar izan ez duten hiru belaunaldi

- **Hizlaria(k)**: Zapirain Etxeberria, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-035/002
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:04:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Joxe Marik zazpi urte zituela, Errenterira etorri ziren bizitzera Lezotik. Joxe Mariren aita, Joxe Mari bera eta bere semea ez dira soldadutzara joan izan.

#### Transkripzioa

- Zu etorri ziñan oso gazterik Errenterira, ezta?

- Ni bai, zazpi urtekin.

- Zazpi urtekin?

- Bai.

- Ta zer dala-ta etorri ziñaten Errenterira?

- Ba, gerra ondorea! Ez genun jatekoik! Eta nola konpondu zian nere gurasoak? Nere gurasoak zaharrak esposatu zian, mutilzaharra ta neskazaharra. Ni jaio nitzanian, berrogei urte zitun aitak, eta horregatikan soldaduskaa jun gabe geratu nitzan, aita sexagenarioa zalako.

Soldaduskaa jun gabe. Bera ez zan jun beste gauzangatik, eta nere semea ez zan jun "exceso de cupo". Jun gabiak gea soldaduskaa.

### 1.13. Erdara ulertzen ez zueneko komeriak

- **Hizlaria(k)**: Zapirain Etxeberria, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-035/004
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:06:13. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Lezotik Erreteriera etorri zenerako, Joxe Mari hasia zen eskolan ikasten: dotrina ikasi zuen gehienbat han. Gerora, eskola publikoan hasi zen, baina dena erdaraz zenez, ez zuen tutik ulertzen. Ahal zen moduan moldatzen zen han.

### Transkripzioa

- Zu Erreterira etortzeako ya Lezon eskolaa-ta hasiya ziñan?
- Bai. Lehendabiziko batian dotriña ikasten o hola. Agustiña, emakume bat, biltzen zitun haur asko. Haur asko! Eta han, nik usten dut, dotriña bakarra ikasten genula. Baiño gero hasi ziaten hango eskola publikoetan. Eta eskola publiko haitan, tutik jakin gabe erderaz, euskeraz bakarrakin, eta hara juten ziñan ta ez zenun ezer ulertzen. Ni zazpi urtekin Erreteriera etorri nitzanian bakarra nakin erderaz "sí" eta "no", gaiñeakorik ez nakin ezer. Oso denbora gutxi egondu nitzan han, e. Baiño irakaslea, Martzelino zun izena, ta Erreterikua zan. Ta ez zakin euskeraz! Behintzat ez zun egiten.
- Ta nola moldatzen ziñaten?
- Ahal dan moduan!
- Zegatik...
- Sei urtekin hasi eta han ez genun gauza haundiik ikasi. Hona etorri giñanian, hemen hasi giñan.

## 1.14. Txikitan, Erretereriako Aitzarte landa-eskolara

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/002
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Baserri inguruan zegoen eskola batera joan zen Maitxo txikitan. Aitzate esaten omen zioten eskola hari. Landa-eskola omen zen, inguruko baserrietako haur guztiak bertara joaten baitziren. Hala ere, eskola ordutatik kanpo baserrian egiten zuen lan Maitxok, gurasoei laguntzen. Enkarna izeneko oiartzuarra zuten irakasle, eskolak goizez bakarrik ematen zituena, bederatzietan hasi eta eguerdiko ordu bata arte, nonbait hor.

### Transkripzioa

- Zer ze, nesketan zaharrena, edo?
- Ez. Bi neska gea lehenenguak.
- Normalean, hola, neska zaharrenari edo tokatzen zitzaion lan asko itea, baserrian...
- Ba, ba ez pentsatu ba, e! Alderantziz. Ni geyo iña izaten naiz. Zaharrena jun zan ikasketak ittea're lehengusu baten etxea, Ugaldetxoa jun zan, eta geo handikan juten zian mojeta, Oiartzuna, eskola, eta ni etxian. Eta guk ganeukan eskola bat hor, baserri inguruan, Aizate esaten ziyotena, eta

hara juten giñan hor inguru hortako ume gehinak eskolara. Eta etxean gañeko lana itten. Baserriyan gurasoei launtzen.

-Aizate hori, etxe bat o baserri bat edo da, o zen ez?

-Bai, bai, bai... Eta uain ere, bueno, uain ardik eta hola ibiltzen dittuzte, baiñon han dago, zutik dago. Ta aldameneko baserri batekua da.

-Eta zenek ematen zun hor eskola edo...

-Ba, e... Aurretikan, gue aurretikan, hor bertako amona batek. Eta gero bere iloba bat Oiartzundik etortzen zan /etortzezan/. Bai. Bi ahizpa. Normalian bat etortzen zan /etortzezan/ ya gehinin, biño bea gaixotu o ezin zunian o beste ahizpa etortzen zan /etortzezan/. Ta hoik zian Oiartzungo 'Amurriyanakuk' eo esaten ziotenak.

-'Amurriyanakuk'?

-Bai.

-Amurraitikan etorriko da, noski...

-Ez dakit /eztakit/ zergatik esaten ziyoten. Amurriyanak esaten ziyoten. Hoik taberna eukittu zuten han, uain dago han elektrodomestiko'ro holako bat dago, e... plazan, Oiartzungo plazan, ya Ugaldetxoa aldea abiatzen za /abitzeza/ eta eskubita dagon zea hartantxen zan.

-Zure maistra zein izan zan?

-Ba Enkarna zun izena.

-Enkarna.

-Bai.

-Ta, Enkarna hor bizi zan, esan dezun toki hortan?

-Bai, bai, hoi bazian ez dakit /etakit/, lau'ro ahizpa ero bost o bazian.

-Orduan egunero Aitzateraino joaten zen?

-Bai, bai, oinez juten zen /jutezen/, eta goiz partian bakarrik ematen zun /ematezun/. Goizian beatzitatikan... ez dakit /eztakit/, ordu bata edo hola izaten gendun /izategendun/. Ta arratsaldian ez zan etortzen ta ez giñan juten. Ta egualdi txarra hola tokatzen zanian'e /tokatzezانياn'e/, etorri be geldittu izandu da, eta orduan jo(a)ten giñanak jolasten giñan eta geo etxea.

-Eta hor, zer zen, etxe hortan o baserri hortan gela bat prestatuta edo...

-Bai, azpian san genezake, zan ikullu bat bezela, ez? Ta gero eskaillera batzu zittuen gora, ta goiko plantan dena sala haundi bat zan, atzian bazan, bai, gela bat, sukaldia ta bazauden, ez dakit /takit/, noizpaitt'e... Eta orduan, banko batzuk egoten zian /eotezian/, alderdi batian eoten giñan neskak eta beste alderdiyan mutillak, egoten giñan /eotegiñan/.

-Maistra beakin.

-Bai, bai, bai, bai, maistra beakin. Bat, denantzako.

-Eta zer zinituzten, zuen pupitreak eta mahaiak o nola...?

-Bankuak. Ta aurrian zuten ba idazteko, eta geo baita're, ordu ez zan /etzan/ izaten rotuladore ta boligrafo... plumakin! Tintero batzuk jarri eta bazter guziyak zikindu igual ingo genittun, baiño haikin aitzen giñan. Bakoitza bee... zeak izaten genittun.

-Eta, koadernoa-edo erabiliko zenuten...

-E... Koadernuak bai, erabiltzen genittun, baiño koadernuak biño gehio, pizarrak ibiltzn zian /ibiltzezian/ orduan. Pizarra, pizarrilluak, eta orduan igual jartzen zizkiguten /jartzezikiguten/ problema batzuk tableruan o zeatu ta handikan atera, biño pizarrakin itten genun gehienbat lana guk. Bai, bai, koadernuak erabiltzen genittun, diktado itteko eta holako gauzak itteko, ta kopiatzeko-eta, ibiltzen genittun.

-Eta bazeon arbelarik o pizarrarik hor paretean?

-Bai, hori bai. Bazan.

-Eta gero gurutzeren bat edo

-Bai, hoi bai. Hoi bai. Bai.

### 1.15. Gurasoei errespetu handia

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/019
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:58:42. **Bukatu:** 01:01:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- **Laburpena:** Artazuriketak ez ditu Maitxok etxean egindakoak bakarrik ezagutu. Izan du auzo mailan egiten ziren artazuriketen berri ere, baina euren ez omen zuten halakoetan sekula parte hartu, haur ziren garairako ez zelako ia halakorik egiten. Gurasoek errietarik ematen ote zieten galdetuta, motiborik ematen ez zirela erantzun du Maitxok. Ez du ulertzen egungo hainbat haurren portaera eskasa nola den posible, baina inor jotzekotan, gurasoak jotzen ditu halako jokaeren errudun.

#### Transkripzioa

-Artazuriketan eta...

-Bai...

-Ibilita zaudete?

-Aratozuriketan baiñon etxekua bakarrik izaten... Ni etxetik kanpo ez naiz joan izandu iñoa, baño garai batin iten omen zien. Hoi, gure ama, gaztetako garaiyan, igual, ba arto zuritzea auzokora jun eta holako zeak, baiñon ni hortaz ez naiz... Ez, etxekuak bai. Etxekuak. Eta gañea, atta askotan, jun gora ta, benga, bestii beste zeozer igual eta... Igual juaten giñan, benga, in beharra daozte ta jun pixka bat, baño ez [da] hainbestaño... Arduratzen ez giñen.

-Etxian, txikiyak ziñetela-eta, pixkat gurasuak bere disziplina jartzeko, edo erakusteko, edo... Haserratu eingo zian o... Nola goatzen dituzu / goatzeituzu/ gurasuak o... Zigor txikiyak jartzen zittuzten edo...

-Ez dakit. Ez det uste motiboik jartzen geniyonikan'e.

-Oso txintxuak ziñaten zuek...

-Bai. Hor telebistan eoten naiz ni beira uain, "nanny" ro nola deitzen da? Nik esaten det, 'biño posible da umiak hola ikustia?' Ta gelditua naiz, gelditzen naiz harrittuta. Bai. Nik esaten non: 'Jo! Guriak holakuk izan bazian zeñek in ber zun hemen agantatu?' Ez, ez...

-Bai, baño ematen du askotan gurasuak ez dakitela zer egin behar / zeinber/ duten...

-Ikusten da!

-Baiña, orduan, ni [guras] guen etxian, ez? Gu txikiyak giñanian, eta ezta ere neria nittunian ez det /eztet/ holako problemaik izan izandu, e! Ez, ez, ez... Ni harrittu itten naiz. Askotan pentsatzen det: 'posible da hori, edo ze?' Ez dakit. Ez dakit.

-Hor bai ikusten dala errespetua ez dagola...

-Ez, ez, ez... Eta gañea, eztakit. Hor nik uste det /ustet/, zaharrena, bigarrena, hirugarrena... Eske zaharrenetik hasi ber da edukatzen! Eta ez diyotela... Beraien errua dala iruitzen zait nei! Ez umiana! Beraiena! Hasieratik hasi bihar dute, hor, lanian! Ez dakit. Guk ez degu /eztegu/ holako zeak izan izandu. Ez lehen eta ez oain, eta... ni senidiakin denakin ondo izaten naiz eta...

### 1.16. 'Pernando amezketarra'ren pasadizoak

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/020
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:01:07. **Bukatu:** 01:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak  
Asia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** 'Pernando amezketarra'ren pasadizoak kontatzen zizkieten gurasoek Maitxo eta bere anai-arrebei. Maitxoren aitak tarteka bertsoak kantatzen omen zizkien 'Basarri', 'Zepai' eta garaiko zenbait bertsolarien liburuetatik irakurrita. Baina gutxitan izaten omen zen halakorik, Maitxok esaten duenez, garai hartan lanak ez baitzion aisiari tarterik uzten.

#### Transkripzioa

-Ttikiyak ziñatela goguan dakazu ipuiñak edo halakorik kontatzen zizkizuten etxian, ipuiñak edo hola, kontaerak edo...

-Bai, zeanak, Perrandonak, askotan!

-Zeiñenak?

-Perrando Amezketarranak. Horrenak bai. Ta badet liburuxka uain ere umiai eta hola zeatu... Uain ya ez, baiño txikiyak zianin gustatzen zitzaizoten. Eta han ere bai, bai Perrando Amezketarranak, holako ta halako ta holako batzuk bai eta geo atta, aldizka, aitzen zan /aitzezan/ liburua hartu ta berso batzuk zeatzen, eta... Hola, umiak giñanian, baiñon... Ez, gurasoak ere beti lana ta lana eta ez guek gurasuakin ta ez beraiek umiakin, ez det uste asko...

-Baño, tarteka, Pernando Amezketarran kontuk, garai bateko kontuak, edo pasadizuak o...

-Bai, holako batzuk bai, izaten zian, baiñon ez asko ere, e!

-Ta ze liburu zeukan ba aitak? Bertsoana esan dezu...

-Ba bazitun Baserrina ta Zepai, eta hor garai bateko... Bai.

-Liburu zaharrak izango zian, ezta?

-Bai, bai, bai, bai.

-Eta, kantatu iten zitun, bertsoak?

-Irakurritz kantatzen zun, e! Beak memoriz, hola, ez zittun /etzittun/... Ez zittun asko...

-Eta ze eoten ziñaten zuek, entzuten?

-Guk entzuten. Ta esan iten geniyon gañea, 'benga, atta, bersuak irakurri, benga, kantatu!' ta... Besteik nola ez giñun izaten, ordun irratiyikan ere ez gendun, pentsatu!

-Ta kantatzen zittun...

-Bai. Ta gustoa entzuten genittun, baiñon gutxitan izaten zan /izatezan/ hori. Oso gutxitan. Eske orduan, lana ta lana ta lana... Ezkondu zanian ere zentraleko lana, eta geo, etxea etorritakuan, ba txondar itten eta mendiyian eta... Betiko lana.

### 1.17. Erljioari buruzko bertsoak

- **Hizlaria(k):** Ordoki Ordoki, Consuelo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-042/024
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:33:06. **Bukatu**: 00:37:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Bertsoak gogoko ditu Consuelok. Txirritaren bertso batzuk abesten ditu.

### Transkripzioa

- Zuk txistuka kantak jotzen dituzu.

- E?

- Kantak jotzen dituzu.

- Bai, kantak. Bertsoak bai. Denbora batian bertsoak aski pollitak bai! Ya lo kreo. Aski pollitak! Batek badu... este... Ana. Ana ez dakit... Ana ba al da? Ez dakit. Ana ba al da? Ez. Ana ba al da? Ez. Bestiak. Esaten [zina]: "Consuelo, me vas a grabar esas canciones". Gure Jangoikua ta Ama Birjiña ta mundu hontako... relijiyuak.

Denbora, leku, zeru ta lurrak,  
izar ta illargi, eguzkiyak,  
kristau guziyak, animaliyak,  
ur gezak eta gaziyak,  
Aita Eternuak sei egunian  
egin zituen guziyak;  
merezi du ta eman zaizkagun  
eskerrak eta graziyak.

Aita Eternuak Adan ta Eba  
egin zituen aurrena,  
lehendabiziko gizasemia,  
emakumia hurrena;  
baratza frutaz bete-betia  
sartu zituan barrena,  
baiñan etzuten ondo kunplittu  
eman ziyoten ordena.

Demoniyuak ziyon Ebari:  
«Fruta hartatik jan zazu,  
Aita Eternuak dakien hainbat  
orduan jakingo dezu;  
berak hori nahi eztuelako  
zuri debekatu dizu,  
horra nik esan egiya haundi bat  
gusto dezuna in zazu».

Allegatu zan Adan ta Ebari  
fruta hortatik jatia,  
etzan posible mundu hontatik  
iñor zerura juatia;  
haiek kunplittu etzutelako  
Jaunaren borondatia,  
itxi ziguten guztiyentzako  
zeruetako atia.

Adanen seme Kain ta Abel  
igualak izan ez dira,  
inbiriya harren gorroto biziz  
hil zuten batak bestia,  
arrazoiaren biderik gabe  
anaia zaharrak gaztia;  
halakuari kostako zaio  
zerua irabaztia.

Lau milla urtian egondu ziran  
zeruko atiak itxita,  
animak triste askoan zeuden  
linbo beltzera jetxita,  
betiko hala biharko zala  
beren artian etsita;  
zorionian egin zioten  
Salbadoriak bisita.

Ahal dan maizena erreza zagun  
«Nere Jesukristo Jauna»,  
jakiñik dala Jangoiko eta  
gizon egiazko ona,  
gurutze piso baten azpiyan  
hain gogoz hiltzera juana,  
guri atiak zabaldu eta  
orain zeruan dagona.

Aita Santua Erroman dago,  
oso gizon seriyua,  
abisatzen du gaiñian dala  
guztientzat heriyua;  
gaixtuenari barkatutzeko  
badu erremedyua,  
horrengatikan deitzen diyogu  
Kristoren Bikariyua.

Hamaika bider leitu izan det  
lehengo dotriña zaharretik:  
gezurra esanda ez gera libre  
pekatuaren zorretik;  
bi aldetara partittu bihagu  
Jesukristoren aurretik...

Oain ahaztua ya. Ahaztua ya.

... ezkerretako gelditzen danak  
pagatuko du larrutik.

Kondenatuen azken fiñeko  
penagarrizko pausuak,  
bi hitz bakarrak esango dizka  
gure Jaun amorusuak:  
«Orain ez dago barkaziyorik,  
kunplittu dira plazuak,  
zure pagua emango dizut  
serbittu dezun maisuak».

Hoi, zuazi... Pio XII.ena... zuazi noizkuak dian, zenbat urte! Buf!

### 1.18. 'Xenpelar'ren bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Ordoki Ordoki, Consuelo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-042/027
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:39:52. **Bukatu**: 00:43:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena**: Xenpelarren bertsoak abesten ditu.

#### Transkripzioa

-Xenpelar.

"Milla zortzireun ta  
hirurogeita biyan,  
bertso berrik jartzera  
nua Euskal Herriyan.  
Betroi bat erosi det  
Hernanin periyon,  
ganantziya egingo  
nuela ariyan,  
tristura begiyan,  
beti miseriyan,  
ez haren premiyan  
nere familiyan,  
Xenpelarrek dakizki  
Erreteriyon.

Ostegun jua danian  
hamabost Hernanin,  
betroi baten tratua  
genduen egin,  
Inaziyo saltzaille,  
erostuna Permin,  
hemeretzi [ezgut]  
geniyon eragin,  
sabelian du min,  
iñork ase ezin,  
artuari muzin,  
eztu nahi edozin,  
atzetik bihar ditu  
zazpi medezin.

Oraindik gaztia da,  
hogeitasei urte,  
ernari omen dauzka  
bost hillabete,  
nik ez diyot igartzen,  
hala esan dute,

gezurra baldin bada  
engaiñatu naute;  
hezurak [tris] torpe,  
zaiñak dauzka fuerte,  
haragiya aparte,  
zeiñek dauzkan merke  
zikiro baten truka  
emango nuke.

Horren arbolatikan  
datorren loria,  
frutua konserbatzen  
pare gabia,  
alabatu nahi diyo  
bere honoria  
umatzen baldin bada,  
ai zer poderia!  
horren koloria,  
beltza ta moria,  
juan zaio floria;  
lehenago hobia  
nere familiyaren  
hondadoria.

Notizi txarrak dira  
horrentzat auzotik,  
besua ateria  
urgun besotik,  
etzula ta antsiya,  
ukullo zokotik  
desterratuko nuke  
nik nere gogotik,  
amarra lepotik  
diruak orpotik,  
arbolan ondotik  
jotzen det gogokin,  
ez diyo akolarik  
ezerengatik.

Burua jarri zaio  
lurrera begira,  
belarriyak zintzilik,  
ai zer segira!  
albaitero guziyak  
ikaratzen dira,  
ikusi dutenian  
han daukan [errira]  
bajatzen ari da,  
hirutatik bira,  
hau nere perdida!  
nork nahi dun [erdina],  
baiña ez det emango  
Euskal Herrira.

Begi bat itxua du  
adar biyak motzak,

krixillua diruri  
horren kokotzak,  
ikaratutzen gaitu  
eztularen hotsak,  
parra egiten dute  
elizatik hontzak;  
sano dauzka hortzak,  
hagiñak zorrotzak,  
tristura bihotzak,  
dantzan dabil hotzak,  
ez diyo onik egin  
leku arrotzak."

Horik Xenpelarrenak die. Xenpelarrenak.

- Hoiak dia "Betroiarenak".
- E?
- "Betroiarenak".
- Xenpelarren "Betroianak", klaro!

### 1.19. Gurasoei berorika eta elkartasuna auzoan

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/004
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:08:03. **Bukatu**: 00:13:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
  - Euskara » Tratamenduak
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
  - Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena**: Maritxu dotrina ikastera joaten zen "C&iacute;rculo Carlistara". Kaleko giroa euskalduna eta errespetuzkoa gogoratzen du. Gurasoei, kargudunei eta ezezagunei, bere senide guztiek bezala, berorika egiten zien berak ere. Garai bateko auzoan arteko elkartasunaren, baloreen eta fedearen falta sumatzen ditu gaur egun.

#### Transkripzioa

-Bai. Esan dezu Circulo Carlista zeola, ta eongo zan...

-Ni harea joaten nitzan dotriña ikastea. Eta umiak, pues, umiak. Han erregalatu ziaten.

-Eta batzokira jute'ziñan zerbaitetara?

-Ni ez.

-Baña, egongo zan... Beste zentro batzuk ere eongo zian: republinua, ta batzokiya, ta beste batzuk. Zu ezea gogoratuko umia izango ziñan ta...

-Ni goatzen naiz. Ni joaten nitzan Circulo Carlistara.

-Ta nun zeon hori, Circulo Carlista?

-Pues nee itxian bazterrian! Ta han dotriña, kantatzen, ostiralero errosaiyua erresatzen lurrian belauniko jarrita, bai jauna! Gauza hoitako. Han [nik, e...] eakutsi ziaten San Inaziyon martxa, ta kanta asko.

-San Inazion balsa?

-San Inaziyo gure patroï haundiya.

-Orduan, euskeraz kantatzen zenuten han?

-Han daneta! Euskeraz, lehen eskeraz hitz egitten zen, ta danak senidiak bezela, nahiz uaingo gauza ez zen lehen. Lehen alkarrekin konpianza geyo. Maitasuna [edo] geyo. Nahiz gurasuak errespetatzen genittun. Nik nere gurasuai beti beorrika hitz eitten niyon. Beti eh! Ni [...] ez, ne senidiak e'bai. Ta honek, iloba izan arren, honek zuka, ta nik esaten nion: nola litteke hoi? Nik beorrika eta honek zuka. Hoi da konfiantz(a)? Konfiantza klaro "que" nik nere gurasoekin konfiantza, biño errespetua. Eta nahiz medikuai, nahiz apaizai, nahiz persona ezautzen ez duzun [...], danai beorrika. Lehen hitz eitten zena. Ta lehen zen, ni neetzako, [...] Nola esango nizuke... Nei iruitzen zaittena esangoizut; ni bestiakin ez naiz sartuko. Nei iruitzen zait lehen alkarrekin launtzeko, maitatzeko ta bihar bada launtzeko ere bai; ze, bizilagunakin e'bai. Lehen ez gendun atia sekula giltzakin ixten. Atia irekitzeko ez giñan bildurrak. Oso, beste, beste modu bat zen. Zu jun, osea, oliyua edo, azukria edo, falta zitzazula edo gastatu zitzaizula, zergatikan juxtu ematen baizen, ez oain bezela, oain bezela, zea joan ta kantidadia ekarri! Libra bat oliyo, libra bat azukre, eta gero ez ziren /etzian/ izaten gauzak gaur bezela preparatuak. Eskatzen zenun libra erdi bat edo libra bat azukria edo garbantzua, eozein gauza, ta itten zizuten papera, zea, paperian bildu ta geo pisuan pisatu eta ematen zitzaizun. Eta ez, galdetu gabe, osea, "Aizu, emango al diazu azukre pixka bat? Bukatu in zait. Geo ekarriko'izut, kikera bat." Ta zuk... Hola, hola bizitu giñan. Ta ikusi ezkeo inorei launtzeko zea zeola, laundu. Nik egiya esango'izut. Nik oso diferente haundiya bilatzen dut. Oso, uain, ixilik,... Lehen emakumia gañea iten zen errespetatu. Emakumiantzako halako errespeto bat. Oain bezela? Uaingo jazkerak, uaingo ibilerak, uaingo hezkuntzak? Lehen, maldiziyua aittu eta're, atentziyua deitzen zen. Ni goatzen naiz: nee itxia, zea zun, bi kaleta, kale batetik kalea atentziyua deitzen, emakume bat. Ta beste allekakua, berriz, gizon batek, kalian maldiziyua aittuta. Lehen holako errespetua zen. Lehen, gaztian aurrian, umian aurrian, etzen eozein gauza esaten. Osea, izaten zen errespeto bat. Uain bezela, uaingo lizukeiyak eta uaingo gauzak? Ezta pentzatu ere! Ezta pentzatu ere! Ezta pentzatu ere! Ta lehengo fedia! Lehengo kristautasuna! Nere aita, zeruan [eongo da ia,] noski! Harrek txapela eantzi, ta jartzen zen mahayian, bazkaltzeko, afaltzeko ta danetako. Hara: aita jarri da, txapela kenduta. Ta errespetu hoi.

-Errezatu ingo zenuten bazkaldu aurretik'e...

-Klaro, ui, klaro! Aitak itten zun txapela eantzi, eta ia seinalia. Ta geo eunero, eunero-eunero, familiyan errosayua errezatu. Lehenoko bizimodua, gue itxian hoi izandu zen. Ta errespetu haundiya elkarrentzako. Nahiz anai-arrebantzako, errespetua. Ta gurasuakin ze esanik ez. Denak.

## 1.20. Umetako zenbait abesti eta istorio

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/008
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:20:12. **Bukatu**: 00:22:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,

kontakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

- **Laburpena:** 'Euskaldunak gera', 'markesaren alaba'ren bertsoak, aitona kontatutako Santa Kruz apaizaren kontuak eta halakoak ditu Maritxuk gogoan.

### Transkripzioa

-Ta goguan dezu amak umetan kantatze'zitun abestiyak?

-"Euskaldunak, euskaldunak gera, euskaldunak betiko izango gera.

Euskaldunak ziraden gure gurasuak, baita bai ere fede haundikuak". Hoi [] zen, ta han kantatzen men zuten. Hoi goatzen naiz, eta geo, "Markesaren alaba"n, zea, bertsoak eta... Geo, zea, itxea ezkondu zen, Oiartzuna, eta han aitona bizi zan uaindikan, ta aitona harek kontu asko [konta] esan zizkan, zea, karlista denboko... Gerran ibiliya, San Juan, oi, San Juan ez... Santa Kruz nola ibiltzen zen, ta holako [kon] hrek bazakizkin!

-Apaiz Santa Krutz apaizan kontuak?

-Bai... Nola baserrian sartu ta, kopa burutik bera sartu ta, zea, belarra ebakitzea balijuake bezela nola ibiltzen zen ta, hilak nola ibiltzen zittuzten karruan gañian, behiak aurrian zituztela ta, holako kontuak! Ta ze esango'izut ba nik gehio?

-Bai, ta zure amak umetan hola umiak lo, lo iteko kanturik edo, kantatzen zun? "Haurtxo maitia" ta holako...

-...

-Umia altzuan...

-Bai, bai, bai, bai, bai! Konprenitze'intzut! Eztakit [hoiesateko] ze kantatzen zuen. Ez naiz, ez naiz, ez, ez naiz goatzen. Enaiz goatzen hoi. Egiya esango'izut. Igual "Andre madalen" ta kantatuko zittun! "haurtxo txikiya" ta hoik ez. Ez orduan ez. Ez.

### 1.21. Fedea galdu da

- **Hizlaria(k):** Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ERR-050/016
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:54:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Lehen bekatu zena gaur ere hala dela dio Maritxuk, eta egun, gizartean aurrerakuntza handiak direla onartu arren, fede kontuan atzera egin dugula uste du. Bere burua oso elizkoitzat du Maritxuk.

### Transkripzioa

-Lehen dena zen pekatu...

-E?

-Orain dena libre da ta lehen dena pekatu! Ta ze gauza zian pekatua?

-Lehen pekatua zena uain'e pekatua da. Uain ez da pekatuik ez delako /ez dalakoz/. Errenteiko bikayo jauna, don Roberto Agirre, ez dakit ezautuko zenun zuk... Bueno. Harrek esan zun lehen pekatua zena uain'e pekatua zela. Biño uain jendiak hartu du: "no hay pecaus", "no... Todo es mentira"... Zergatikan? Fedia galdu delakoz. Ez dago /ezto/ fedeik, ta

fedelik ez den /ezten/ tokiyan “no hay temor de Dios” esaten dan bezela erderaz.

-Zuri orduan gehio gustatzen zaizu lehengua?

-U!

-Lehengo biziya.

-O! Buf! Egiya! Jesus! Nietzako ona [dut]

-Bai?

-Bai. Uain aureapen asko dao. Hoi bai, konprenitzen dut. Gauza asko ondo daude. Biño beste asko ez. Ezin esango dut dena gaizki donik. Ondo're badago. Biño lehen zen... Beste bizimodu bat, lasayagua o nik ez dakit /etzakit/ ze esan'e. Uain alkarrentzako inbiriya ta, e!

-Jazteko modua ere asko aldatu da.

-Jesus!

-Lehen oso tapatuta ibiltzen ziñeten!

-Jesus! Noski! Noski! Uain bezela? Uain bezela? Uain biño errespeto gehio genun, emakumiak.

-Lehen ukalonduak eta paparra ta, tapatuta eraman behar izaten zan. Hori apaizak esaten zun?

-Ez zigun /etziun/ esan beharrik! Geok itten genun. Neri ez zidan /ezian/ sekula apaizak esan holako gauzik. Geok itten gendun. Geonen burua tapatzen gendun.

-Ta toki batzutan dantza itia helduta ez zegon /ezeon/ ondo ikusiya... Kongregaziyotik ere bota ta...

-Errenteiyan ez dute sekulan bota biñon Lezon ta hala esaten /saten/ zuten, bai.

-Ta zu kongregaziyokua izango ziñan...

-Jesus!

-Mariaren Alaba...

-Mariaren Alaba, ta Jesusen alaba ta Espiritu Santuaren alaba! Hi ze? Nee ilobak parra itten du /itte'u/

-Ni bai. Ni oso elizakoya. Oso elizakoya. Ta segitzen dut, ta segittu nahi dut. Oso fededuna. Nik egiya esango dut /esango'ut/. Ni uaingo txoakeiyak [ez diot /e'yot/], nik txoaiyak [...] oaingo kontuak. Txoakeiyak.

-Orduan joango ziñan misiyotara.

-E?

-Misiyoak eoten zianian Aste Santu aurretik edo...

-Jesus! Holako gauzatan numero uno!

-Bai?

-Entierrota're bai. Kanpanak, hoiek, entierrua! Zein zan ez nekien /e'nakiyen/, eta ala! Uain bezela, jo! Pintatzen ta jazten ta, hola, zerbait, abrigua o gañetikan jarri ta hartu mantilla, ta mantillakin eliza.

-Elizarako beti erabiltzen zen mantilla?

-Bai! Beti!

-Burua tapatuta beti?

-Gue, nere aiton-amonan baserria joateko, zea zen, eliza bat, konbentua, ta ohittura, izaten gendun, nee amak'e bai, nik'e bai, eta han sartu ta bolsilluan genun pañelua buruan jartzen gendun. Ze nahi duzu /nahizu/? Leheno hala zen! Leheno hala zen! Uain bezela jaun hartzea? Eozein moduz jantzita? Eliza juateko errespetua. Elizai errespeto haundiya zen. Leheno fede haundiya zen. Niretzako fedia galdu da ta dena galdu da! Ta pekatua lehen ez zena /etzena/ uain ez... Hoi ez! Leheno pekatua zena uain'e pekatua da. Hoi esaten da, gaizki esana. Ni, neetzako. Nik esaten dizut /esateizut/. Nik esaten dizut /esateizut/ nik pentsatzen dutena. Ni oso antiguala izango naiz. Biño ez zait inportik.

-Ez, ez...

-Ni naizen bezela naiz.

-Ta zuek orduan seguro eukiko zenutela etxian ur bedeinkatua...  
 -Jasus!  
 -Ur bedeinkatua, kandela bedeinkatua, erramua bedeinkatua, zean, ohian ertzian, ohian zean, ur bedeinkatua jarri, ta han bihatzak sartu ta ohian sartu biño leheno 'aitaren' ta, lehen-leheno bai! Uain ez biño leheno bai.  
 -Eta erramua gero zertako erabiltzen zen?  
 -Trumoia ta tximista hasten zunian, surtan erretzen zen. Ui! Trumoia ta tximista! Kandela bedeinkatua piztu, eta erramua hua, puska bat, zean, suan sartu. Tar, tar, tar, tar... Iten zula. Ohitturak, lehengo ohitturak!  
 -Hori zer zen, tximisten kontrako...  
 -Bai, ta geo, hilla, bat iten zanian'e, ur bedeinkatua, baso batian jarri, erramuakin, ta jartzen zen hillan aldamenian. Ta itten zitzaion, bisitan joaten zanian, responsua bota. Lehengo ohitturak hoik zian.  
 -Ta erresponsua botatzeko zerbait esaten zan /esatezan/?  
 -Bai! Aita guria.  
 - Aita guria.  
 -Geo "Requiem aeternam dona eis Domine. Et lux perpetua luceat eis Requiescant in pace." Esan, ta ur bedeinkatua bota. Leheno latíñez asko errezatzen zen.  
 -Bai.  
 -Bai.  
 - Ta zuek ogiyai iten zeniyoten gurutzia?  
 -Ohittura hoi, ohittura hoi, ikusi izandu dut e, biño gue etxian ez dut uste. Ez naiz uain... Ikusi izandu dut.

## 2. Euskara

### 2.1. Batzokian antzezte

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ERR-001/003
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:04:31. **Bukatu**: 00:06:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Euskara » Euskararen egoera  
 Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena**: Giro erdalduna omen zen Erreterian Begoñak haur koskorra zenerako. Hala ere, Begoñak dio eurek nahiko inguru euskalduna zeukatela, izan ere, aita eta anaia nagusia batzokian ibiltzen baitziren. Antzerki obraren bat antolatu izan zenetan, tartean ibili omen zen Begoñak, eta baita 'Joxe Gergorio ta Mari Piliparen ezkontza erabakia' izeneko obran parte hartu ere, besteak beste.

### Transkripzioa

- Eta, gaiñontzian, Erreterin, erdera dexente hitz egingo zan garai haitan.  
 - Bai, bai, dexente zan. Baiño euskera're... Ez dakit ba gu euskaldun tartian ibiltzen giñalako edo... poliki. Gure aittan zea... taberna... o zea guziya Batzokiya zan. Anaiak'e bai. Anaia negun, zaharrena, bea aitzen zan antzerkitako zuzendari ta kargu. Bai. Zeak, dekoraziyo guzik kanbiatu ta danak. Ni're hiru antzerkitan atera nitzan. Neska koskorra tartian behar zan ta ni're atera nitzan.  
 - Ta ze elkartek iten zitun hoiek? Hoiek ere Batzokiko jendiak? Hor... euskal mugimendua behintzat.

- Batzokiko jendiak, bai.  
 - Ta nun iten zenituen ba antzerkik?  
 - Batzokin.  
 - Bertan?  
 - Bai. Urte baten nere antzerkia tokatu zan, bai, karnabal batzutan-ta Tolosaa etorri ta Tolosako Batzokin...  
 - In zenuen?  
 - In gendun, bai. `Joxe Gregorio eta Mari Piliparen ezkontza erabakia´.  
 - Hoi al zan?  
 - Hoi zan, bai.  
 - Ta zu zein ziñan? Ze pertsonaje?  
 - Ni? Ba nitzan neska koskor bat. Ta, zean, jun giñan festaa, bi ahizpa giñan-ta, nere ahizpa ta ni, ta, zea, jun giñan festaa. Ta etorritakon, ni nere ahizpa nola ibili zan ta ze in giñun-ta kontatzen. Ni “de kontaktillu”.  
 - Eta hoi, zure anaia ibiltzen zan, ordun, zuzendari?  
 - Bai.  
 - Delineante ikasi zun hua?  
 - Bai. Bestia... bestia zan txistulariya, Erreteriko Bandako txistulariya.

## 2.2. Mahaia bedeinkatzeko, euskara

- **Hizlaria(k)**: Mendarte Kasares, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-003/059
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 02:26:32. **Bukatu**: 02:28:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Euskara » Euskararekiko sentimendua  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Euskara bere hizkuntza da, erdara gehiago jakin arren. Mahaia bedeinkatzeko, euskeraz. Senide asko biltzen dira Gabonetan. Hamar seme-alaba ditu. Lehenengo laurak elkarren segidakoak.

### Transkripzioa

- Zuretzat ze izan da euskera?  
 - Nere hizkuntza, desde luego. Hori dudik gabe. Nere hizkuntza euskera da. Gehio dakit erdera, baiño nere hizkuntza euskera da, hori dudik gabe, gaiñea!  
 - Etxean jaso zenuna, ezta?  
 - Etxean jaso dutena eta etxean ibiltzen dutena nik denakin! Nik mahaia ez dakit bedeinkatzen ez baldin bada euskeraz! “Mahai honetan bildu geanak zeruko mahaian bildu gaitzala”.  
 - Eta ohitura duzu.  
 - Ohitura.  
 - Hola iteko, bedeinkatzeko euskeraz mahaia.  
 - Hemen mahaia izugarriya jartzen dut eguarri jaietan-ta, famili guziantzako. Hogeita hamar biltzen gea. Hiru mahai dia. Hor, mahaiak dia.  
 - Bai, beharko dituzu!  
 - Eta ni eseri arte eta bedeinkatu arte ez dia hasten. “Mahai honetan bildu gaituanak zeruko mahaian bildu gaitzala”.  
 - Ohitura.  
 - Ohitura, euskeraz. Ttikiyakin, erdikuakin... Kataluñatikan etortzen dianak,

haiek, batek badaki ondo; bestiak, gaztetxoena, ez horrenbeste. Baiñon...  
- Zenbat seme-alaba izan dituzu?  
- Hamar ditut.  
- Hamar dituzu?  
- Bai. Ditut, izandu ditut eta segitzen ditut, Jaunai eskerrak, izaten. Hamar bizi dia, bai.  
- Hamar seme-alaba izan zenitun, e? Danak segidan?  
- Segidan-segidan. Junio, julio, agosto, septiempre... Juniyua, julyua, agostua ta iraila, segidakuak lau lehendabizikuak. Bai. Segida-segidan.  
- Urtian bat?  
- Urtian. Urtero-urtero. Ezkondu nitzan agostuan hogeita labian. Eta hurrengo urtian, ekaiñako azkenengo egunian, izandu nun lehenengoa; eta gero, hurrenguan bigarrena; hurrenguan hirugarrena, ta hurrenguan laugarrena.

### 2.3. Erreterriako kalean gaztelera nagusi

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-028/011
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:25:43. **Bukatu**: 00:26:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Maritxu gaztea zela gaztelera hitz egiten zuten kalean, nagusiki.

#### Transkripzioa

- Hemen, umea ziñanian ta jolasten ibiltzen ziñatenian kalia-eta, zuen artian nola hitz egiten zenuten? Euskeraz, erderaz, bitara?  
- Nik uste dut /usteut/ gehientsuna erderaz itten genula. Itten genun ´e bai, e? Segun zeĩnekin juntatzen ziñan itten zenun euskera. Biñon ez, kalia...  
- Gehientsuna...  
- Gehientsuna erderaz. Bai.

### 2.4. "Euskara den gauzarik ederrena da"

- **Hizlaria(k)**: Gaztelumendi Aiestaran, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Erref**: ERR-051/042
- **Iraupena**: 0:05:07. **Hasi**: 01:15:53. **Bukatu**: 01:21:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Joxeri ate asko zabaldu dizkio euskarak bizitzan. Euskararen jatorriari buruzko liburuak ere irakurri ditu. Berea ez beste euskalkietako euskaldunekin hitz egin duenetan ez du elkar ulertzeko arazorik izan sekula.

## Transkripzioa

-Bueno Joxe, ba bukatzeko, ingoizkizut euskeran inguruan bi galdera, e!  
Bat, zuk bizi guziya, bueno, ezkondu ta ez, biño euskeraz in'tzu bititza.  
Etxian, txikitan...

-Nik beti etxian euskera in det, beti. Lanian de'bai. Lanteiyan de'bai. Ez zekitenekin /Etzakitenakin/ ez, klaro, porque ni hor, ni ekargatu eon nitzan lehenbizi hasi nitzan tokiyan. Geo ia ofizina teknitan ta eondu nitzan ba, launa euskalduna, sanjuandarra... Guk egun guziya euskeraz iten genun. Uan, baldin bazeon norbaitte erdelduna, ba...

-Harekin erderaz.

-Klaro...

-Ta zuk bititza guztia euskaraz inta, zer da zutzako euskera, Joxe?

-Gauzik ederrena. Gauzik ederrena. Ni euskeraz ikasi izatia, beti itea, netzako gauza ederra da. Nik izandu'et, mendira juten [...], hemengo mendieta ta, basarrin batea ta, galdetzea ni juten nintzan. Ta euskeraz nola [...], segittun zabaltzen zuten atia! Jatea jute'giñan tabernan batea ta hola ta, ni han euskeraz. Ta beti oso ondo. Oso ondo. Nei asko zabaldu'izkit euskerak. Ta netzako, esate'izut, lehen esan dizutena, da netzako gauz ederra! Ederra. Nik ba'itut hor libro batzuek, oso garrantziya'aukatenak, biñon dia libro batzuek beitu ber dena beste gauzakin. Atzo eondu nitzan honekin ikusten. Eta baditu liburuak geyo horrek'e iñak. Ta horrek ekartzen du, liburu hortan ekartzen du, euskalduna nola atea giñan mundura! Karriri, karri liburuak! Ikusteko!

-Geo, ez, geo ikusiko'ittugu, hau, azkeneko galdera ingo'ut ta...

-Bai. Eta hor ekartzen du: el euskara madre del castellano. Eta ez du esaten, Iruretagoiena edo, Arrizabalaga edo holako batek, ez, Valladolideko gizon bat da e! Jorge María Rivero Meneses. Hoi Europan'de garrantzi haundiya izandu du, gizon honek. Eta ni jun nitzan gizon horrekin bi konferentzira, jun nitzan beakin. Eta batian jarri niyon ni gauza hori [...]"Yo he leído", esan nion, "Yo he leído que los vascos procedemos de una isla, que había y se hundió, por el Atlántico, y que procede de allí, y tal... Y eso decían los alemanes".

Esan'tzian (bere hitzakin e!): "No tenían ni puta idea". Esan'tzian. "Ni puta idea. Los vascos siempre han vivido aquí. Y proceden aquí. Su origen está aquí, en la bahía de Santander". Ta esplikatzen ditu gauzak, nik arrittua nago Valladolideko gizon bat nola dagon horren zoratua euskerakin. Profesoria da e, bea profesoria da. Kategoriko gizona da. Ta ni Donostira jun nitzanian beakin hitzein nun, gai hoi, ta jo, san tzian: "no tienen ni idea. Ni idea".

-Ta zutzat, euskeraikan garbina? Euskera guztiak ez dia ba, Tolosan hemen bezela ez da hitzeitten, edo...

-Bueno, azkar jartzen da e!, "Porque" gu soldauskan gaudela Bizkaitarrak zian asko. Nik haien euskara seittun ikasi nun! Eta euskaldunakin era batea iten nun ta haiekin bestea. Eta geo naparrak'e bazian, ta etzenun horren berdiña're e, baño arazoik ez zegoen /etzeon/. Etzeon bat'e arazoikan.

-Denak ulertzen ziñaten...

-Bai, bai! Ni...

-Ta bat esatekotan, garbina zein dela esango zenuke zuk?

-Bat?

-Bai, nunbatteko ba, Errenteikua edo Oiartzungua edo Bizkaikua edo...

-A bueno, Oiartzunguak eta Errenteikuak lehen ez ziren /etzian/ horren berdinak; uain bai, "porque" ikastolan ikasten dituzte uain! Gu ez giñan ikastolako umiak! Hoi, itxian ikasten genuna, baiñon baserriyan'de, gauzak, hemen igual deitzen geniyon era batea ta han bestea, igual, Oiartzunguakin de'bai, baiña azkenian, danak hartze'ituzu. Ni [...] arazoik

izandu, sekula. Ez bixkaitarrakin ta Arabakuak ez naiz goatzen inorre bazeonik. Naparrak bai, naparrak bazian. Ta nik euskeraz iten nun beti. Nik ahal den guziya euskaraz.

-Bueno ba, Joxe, ba eskerrik asko.

-Ez horregatik.

-Zuk hemen esantakuak interneten jarriko'ttugu, ba nahi dunak ikusteko ta nahi dunak ba ikasteko.

-Hoixe, ederki.

-Bale?

-Ikastia dute euskaraz.

-Hoi da.

-Gure hizkuntza da.

-Bale ba, mila esker, Joxe.

-Ez horregatik.

### 3. Lanbideak

#### 3.1. Alejandro Lizaso Eizmendi, anaia

- **Hizlaria(k):** Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ERR-001/004
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Artistak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Alejandro Lizaso, Begoñaren anaia, txistulari famatua izan zen. Begoñak ematen digu bere berri. 'Eusko gudariak' jatorrizko ereserkiari moldaketaren bat egina da Alejandro.

#### Transkripzioa

- Bai, hor bada zean argazkiya.

- Nola izena zun zure aitonak?

- Nere aittak?

- Bueno, zure aitak.

- Guillermo Lizaso. Eta bertsok´e idazten zittun.

- Hitzuna 2: Harek ez al zun asmatu `Eusko Gudari´an letra edo?

- Hitzuna 3: Hua zan Alejandro.

- Alejandro beste...?

- Hitzuna 3: Bere anaia. Bere anaiak, `Eusko Gudariak´ beak sortutakoa da.

- Zure anaiak o zure osabak? Zure anaiak?

- Nere anaiak. `Eusko Gudariak´... Aurreneko letra tristia irudittu emen zitzaion ta gero "Irrintzi bat entzun da" hoi. Ta gero, klaro, mendia, zeara, frentea zijoaztenen beti hua "Irrintzi bat entzun da" iñez.

- Beak jarri ziyon irrintziyan esaldi hoi? O dana goitik behera?

- Dana, bai.

- Dana goitik behera, e?

- Hitzuna 2: Jende azkarra, zea!

- Ilustria familiya, e?

- Ordun, 36ko garaiyan, ia txistulariik onena jotzen zuen. Irabazi zittun: konkurson Hondarrabin bigarren geratu zan; gero hurrena lehenengo

geratu zan. Berriz´e onena zanai irabazi in ziyola ta gero Errenteriko Banda jun zan Bilbaora konkursoa, ta han´e irabazi in zuen. Eta han irabazitako eta beste irabazitako domiñak utzi zittun aberriyantzako, armak erosteko behar baldin bazittun´e. Ta bea gerran hil zan.

- Aittona... zure aitta?

- Anaia. Alejandro.

- Ordun, sarik irabazi zittuna Alejandro izan zan?

- Bai.

- Baiño aitagandik ikasita?

- Ba, aitagandik o... ez dakit, ba. Aitagandik solfeua ta. Gero Isidro

Ansorena o harena´re uste det...

- Harekin ikasten zun?

- Uste det baietz.

### 3.2. Bere kontura ile-apaintzaile

- **Hizlaria(k):** Sarasola Mitxelena, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-012/012
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak  
(kokapena)
- **Laburpena:** Begoñaren ahizpek galtzerdiak konpontzen egiten zuten lan. Arantxa Galarragaren ile-apaindegian lanean aritu zen bitartean, Begoñak bere kontura ere egiten zuen lan emakumeak orrazten; zer lan eskatzen zizkioten azaltzen du. Batzuetan goizeko hirurak arte egoten zen lanean. Lehen ilea apaintzeko zer tresna eta teknika erabiltzen ziren azaltzen du. Lehen Errenterian Carasa laborategia zegoen (ile-apaindegiko produktuak egiten zituzten bertan) eta Begoñak han erosten zituen produktuak.

### Transkripzioa

- Nere ahizpak jasotzen zittuzten galtzerdiak, puntuak.

- Bai, hori egiten zan orduan, ezta?

- Nere ahizpak. Hor, [Pakeako] alkilatu genun hoi genun sekadoria ta hola, eta beak galtzerdiak, puntuak jaso. Eta gero izeba genun dendakin ta enkarguak itten zian han utzi, ta.

- Oseake, "karrerak" iten zianian...

- Bai, konpontzea eramaten zian.

- ... galtzerdietan-eta, konpondu iten zian.

- Bai. Pentsa!

- Ze lana, e?

- Ze lana! Gaiñera, motor ttiki bat elektrikua ta jostorratza "txiii", banaka, banaka, banaka.

- Zuk hemen, hor, dendan atzeko alde hartan aritzen ziñanian lanian, ze lan motak iten zenitun?

- Ba, permanente asko. Izandu dittut egun asko-asko-asko handik lanetik etorrira, igual lau permanente eta moztu ta markatu ta hola, ba, igual hamar o hamabi o hola. Eta igual, esaten dizut, e, igual goizeko hiruak arte

igual lanian. Eta igande gozian ere bai.

- Orduan erabiltzen zian tresnak-eta pelukeriyan, bai orrazteko, mozteko... oraingoan antzekoak zian?

- Beira, aldatu da gauz bat: nik ez nun ikasi eskuzko sekadoriak. Oain iya dena itten da esku-zepillua. Gure garaiyan dena zen rulu jarri edo pintzak, eta sekadorea. Eta gero ondo orraztu. Biñon permanentia eta "modelaos" ta hoi dena berdiña da. Likiduak, etxiak... aldatu o hola, baiñon antzeko. Eta tintiak ere bai, eta metxa kontuak ere bai. Orduan, hori... Eta illia moztia, ba, hoi dena igualtsu gertatzen da, dena moda. Ez? O luziagua, motxagua...

- Baiña orduan tinteak eta metxak-eta ere ematen zian.

- Ematen zian, bai, bai, bai. Eta reflejuak, "el farandol" ta hoiek denak.

- Ere ematen zian.

- Bai, bai, bai, ematen zian.

- Ta ze kolore erabiltzen zian?

- Ba, rubio´re bai, beltza, kastaño, kaoba asko... Osea, nahiko... Zegatik Erreteriyen zeon Carasa denda, produkto oso onak zittuna. Erreteriyen zeon laboratoyua Carasana, pelukeriko gauzak itten zianak. Orduan, hori zen oso arrunta guretzat. Ez?

- Eta bertan egiten zituzten produktuak?

- Bai, bai, bai.

- Ta zuk hor erosten zenittun?

- Erosten nittun hor. Nik banekiyen han, Donostiko pelukeriyan, ze gauzak erabiltzen zittuzten, eta nik erosten nittun Carasakuak, ziala merkiaguak Oreol... Biñon Oreol oaindik jarraitzen du, eta han Donostian ibiltzen zuten Oreol, baiñan da askotaz´e garestiyo. Orduan, nik nola oso gutxi kobratzen nun, ba, produktuak´e zian merkiaguak.

- Klaro. Ordun horregatik igual ere jungo zian, ez? Igual merkexio kobratuko zenun eta...

- Klaro! Bai. Bai. Gustora juten zian.

### 3.3. Lehengo orrazkeren modak

- **Hizlaria(k)**: Sarasola Mitxelena, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-012/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:31:31. **Bukatu**: 00:33:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Erreteriyako Carasa dendan erosten zituen produktuak aipatzen ditu. Lehen modan zeuden orrazkerak aipatzen ditu: permanentea, Grace Kellyren mototsa, patillak, melena lisoak, togak... Toga zer zen azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Eta ze produkto erosten zenitun Carasan? Gogoratzen zea?

- Permanentia iteko produktuak, geo... Permanentiak daka prozesu bat, ez? Bildu, likidua bereziya eman, ya iruditzen zaizunian kixkurtu dela, in behar dezu prozesu bat. Refuerzo bat deitzen dela, likido bat bota, eduki... Ba,

hoiek erosten nittun. Txanpuak, lakak, tintiak, reflejuak... Garai haitan ille txuriya zutenai ematen geniyon, hola, urdiña edo grixia, hola. [...].

- Gogoratzen naiz, bai.
- Bai, [...] ta gauzak.
- Zer zeon modan? Ze orrazkera mota?
- Garai haitan itten zen permanente asko. Ez? Eta jende edadekua itten zun permanentia eta hiru o lau hillabetetan igual ez zen juten pelukerira, berriz hurrengo permanentia in arte. Berriz moztu ta permanentia. Jende gaztia maizo. Asko itten zian garai haitan ere etorri zen asko ere “el moño de la Grace Kelly, el moño” eta, hola, patillak, eta bueno, ere bai melenak lisuak, “la toga”, liso-lisuak eta...
- Toga zer zan?
- Toga zen illia orraztu bustiyian, orraztu liso-liso, bueltan, buelta emanez, illian, buruan. Eta gero askatu eta gelditzen zen liso-liso-lisua.
- Eta kardatuak eta hola ere...
- Kardatua nere garaiyan hasi zen. Ni ez nitzan gehiegi ibili kardatuan, biñon bai, pixkat kardatua bai, itten zen.

### 3.4. Algarrobo-lekak jaten

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-028/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:18:37. **Bukatu**: 00:19:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Santa Klara kaleko dendak gogoratzen ditu Maritxuk, eta baita horietako batera ekartzen zuten Arabako patata ere. Harrez gero ez omen du halakorik probatu. Gose urteak ziren, eta algarrobo-lekak ekarri eta zakuren bat hausten zenean, haiek lurretik hartu eta ahora eramaten ibiltzen zirela kontatzen du.

#### Transkripzioa

- Hemen, kale hontan, dendak-eta izango zian, ez?
- Bai, bai, bazian.
- Gogoratzen zea zu neska koskorra ziñala ze denda zian hemen?
- Pues, hemen zan, hor... oan itxi... zea dao... zeak hartu dute...
- Restaurantia dao oain, ezta?
- Ez, hor zan, hor zan, restaurantia daon toki hortan /tokiyortan/ zan `Pionekuak´. Hor zekaten oilluantzako ta patata. Aiii! Ekartzen zuten patata bat zeatikan, Alavatik, arront patata ona! Nik geroztikan ez dut jan hain patata ona hoiek ekartzen zutena bezelakua. Bai. Eta horrea joaten giñan patata billa ta. Bai. Kamioiak´e etortzen zian. Ganaduantzako-ta ekartzen zittuzten gauzak, eta algarroba, zakun bat lehertuta eroitzen bazian, algarroba jaten aitzen giñan. Eta nik oain dala gutxi ikusi dut eta, jo, ze gauz txarra den!
- Baiña orduan izan zian gerra ondoren gosete...?
- Klaro, gosia. Jo, ya lo creo! Ya lo creo! Joee!

### 3.5. Aitaren tailerra

- **Hizlaria(k):** Getaria San Pedro, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ERR-049/002
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:01:16. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena:** Ondartxo auzoko lauzpabost solairuko etxe batean jaio zen. Aitak tailer txiki bat zuen bertan, "Fabrica de lejías" orduan, "Euskalduna", eta ikatza eta lixiba saltzen zituen. Gerra ostean preso eraman zuten, ordea, eta familiak urte gogorrak igaro zituen.

#### Transkripzioa

- Zuen etxia zenbat pisukoa zen?
- Ba, nik usten dut bost bat; lau behiñipin bai. Ez nago ziur, e? Biño lau bai. Gero bajuak haundiyak izaten zian lehenago, ta han zakan nere aitak, ba, saltzen zun ikatza, lejia... "Fabrica de lejías" orduan, "Euskalduna".
- Eta aitak iten zun, berak iten zun lejia?
- Bai, berak eta, ez dakit, norbaittekin, biño bai, bai, beak itten zittuen.
- Zer zitun langilleak bere kargu?
- Ez, nik uste dut izango... nere... pentsatzen det, izaunak. Onbre, zerbait emango ziyoen, biño esan nahi dizut fabrika haundi bat ez zen, ez zen / etzen/.
- Enpresa familiarra?
- Bai, bai.
- Ta zure aita nungua zan?
- Nere aita Lartzabalen jaiua. Lartzabal.
- Nun dao hori, Lartzabal?
- Ba, Oiartzuna joteko, Arragua. Ez duzu izautzen? Han dago...
- Baiño Erreterria da?
- Erreteritik ya Oiartzun aldea. Han zen futboleko kanpo bat ere, biño oain denak etxe berriyak in dittuzte han ere, oseake dena dago desberdiña. Dena ya dago... Eta ama Donosti.
- Ama donostiarra?
- Bai.
- Biño ez dakit non jaio zen. Ta non bizi zen ere... ez dakit. Aittana asko juten giñalako. Baserriya zen eta asko juten giñan hara. Biño amana ez naiz gogoratzen.
- Eta amak dendan iten zun lana?
- Ez, nere amak etxian, etxian. Bai.
- Zuek zenbat senide ziñeten?
- Lau.
- Ta zu zenbatgarrena?
- Zaharrena. Gero anaia, gero ahizpa, eta beste ttikiya. Ni jaio... o... ez, ni bizi hogeita bat urte eramaten diyot nere ahizpa ttikiyai, asike hue izandu da neretzako jostailua. Bai. Eta gehio ez gea izandu; labak, labak. Bizi gea labak; anaia Erreterriyan, beste ahizpa Madriden eta nere ahizpa ttikiya hemen, Donostin, Bidebietan. Eta ni hemen.
- Esan dezu aitak ikatza partitzen zula.
- Bai.
- Eta nola partitzen zun? Bazeukan karrorik ala manduakin, kamioia...?

- Ez, ez. Nik pentsatzen det, zeatikan nik beai aittua, klaro —ta badakit non zagon ta dena, e, biño—, nik usten dut karretilla izango zutela. Ta zakua bete ta. Nik hala pentsatzen det. Ez, ez zen... fabrika zen, ba... tailler bat. Lehenoa hola. Ta, onbre, asko zen orduan. Asko zen.

- Ta badakizu nora eramaten zun ikatza? Etxez etxe partitzen zun ala beste fabriketara?

- Nik usten dut jendia hara jungo zela billa, gaiñea. Ta ziur nago hala zela. Adibidez, beak eramango zittun noizipeñian behin zakokada bat, biño gehiegi ez dut uste. Ez dut uste, e? Ez dut uste.

- Eta lejia iteko zer erabiltzen zun?

- Nik [badakit itten zula], “Euskalduna”, “Lejía Euskalduna”. Eta oso ona emen zen, beti beai aittua. Biño orduan ni oso ttikiya nitzen, ta gero kanbiatu in giñan beste bizitzara ´re. Bai.

- Orduan, aitak lan hori utzi in zun eta beste zerbaitekin hasi zan? Ala jubilatatu in zan?

- Ez, aittak... aittak gero... gerra etorri zen. Eta handik etorri ta kartzelara jun zen. Eta gero, ba, gaizki pasa genuen. Aber!

### 3.6. Aita Kartzelan eta Juanita lanera

- **Hizlaria(k)**: Getaria San Pedro, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-049/004
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:07:06. **Bukatu**: 00:08:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Neskameak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Aita lau urtez preso izan zuten Ondarretan. Ama etxegarbitzen ibiltzen zen eta laster batu zitzaion Juanita bera ere, 9-10 urte besterik eduki ez arren.

#### Transkripzioa

- Zegatikan gu gero, gerra hasi zen, Bilboa jun giñen, handik etorri eta aitta belaxe eman zuten, esan dizuten bezela...

- Kartzelara?

- Kartzelara.

- Nora eraman zuten?

- Ondarretaa. Lau urte pasa zittun han. Asike gero nahiko lana. Eta orduan nik nittun, ba, beetzi-hamar urte. Ta amak lan asko in behar zun. Ni zaharrena nitzan eta, ahal genuen bezela, gogor bizittuak. Biño...

- Amak zer in zun aurrera ateratzeko?

- Interina esaten genuen, etxetara; etxe batera, bestera... Eta ni ´re gero izebana jun nitzan, hamabi urte nittula, biño dirua ekartzea.

- Neskame?

- Neskame. Neskame.

### 3.7. Erdiko kalean ezereen faltarik ez

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/002
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:03:02. **Bukatu**: 00:06:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Errenteriako Erdiko kaleko etxe batean bizi izan zen Maritxu. Hiru solairuko etxe arkupeduna zen, armarriduna eta "Jesus hombre salvador" izkribua zuena. Errentan hartua zen eta otar-egile batek lan egiten zuen beheko solairuan, Joxe Olaziregik, era guztietako otar eta saskiak egiten zituen: okindegitarako, arrantzarako, baserriko hainbat zereginerako... Errenteriako Erdiko kaleak, motza izanagatik, negozio eta zerbitzu ugari biltzen zituen: ehorztetxea, harategia, txurrodenda, mertzeria, burdindegia, taberna, herriko eliza eta herriko etxea bera, besteak beste.

### Transkripzioa

-Ta? Zuek bizi zineten etxia nolakua zan?

-Oso antiguala. Zun arkupia. Zun eskudua. Ta jartzen zun "Jasus hombre salvador", letra hoiek. Eta beti hola ezautu gendun, ta uain'e halaxen dago. Geo zittun bi pixu. Ta bihan zen xesterua, xestuak iten aitzen zena, bai, hala da, holaxen, nola, zea, baserriko, arrantzialientzako, panaderuantzako, [pues] xesterua gendun. Ta zitun bi pixu. Bueno, bi ez, hiru. Hiru.

-Zuek han rentan bizi ziñaten?

-Bai, bai, bai.

-Eta xesteruak iten zitun ordun zestuak diferentiak, asko. Xestu bakoitza bere erabilera...

-Bai. Batzu zian panadeitako. Beste batzuk arrantzialientzako. Beste batzuk, zera, baserriko. Ta basarriyan'e pues xestu izaten zian, batzuk belarra biltzeko, beste batzuk sagarrak biltzeko... Eta bai

-Ta xestuen izenak?

-Zeinek.

-Badakizkizu, xestu hoi izenak...

-Bai. Jose Olaziregi. Bai, Joxe Olaziregi!

-Joxe Olaziregi zan xestuak ite'zituna?

-"Si, si, si, si... ¡No me confundas!" Si. Bai.

-Joxe Olaziregik iten zitun xestuak eta xestuen izenak? Igual, bat izango zan "kopa", bestia...

-Pues, pues, arrantzialientzako, pues hola, luziak... Baserriarrantzako kopak, geo bestia zen txikiyagua, sagarra biltzeko, panaderuak'e haundiya, o sea, ... Ta geo sillak'e hark konpontzen zittun, gauza asko iten zittun! Bai... Bai... Erdiko kalia genittun, [...] kale motxa da, baña han ez zen gauzik ez zen /etzen/: funeraria, karnizeiya, txurreriya, merzeriya, ... Zenbat gauza zian? Zuk laundu nazu zenbat gauza zian! Gauza asko!

-Bai, bai,

-[...]

-Osea, izaten zen, bai, izaten zen, kilometruan [...] kilometruak ez, kilometroik ez zuen /etzun/ ta, esto, kalean, como... Nola esango nuke nik hori. [Gipu, osea] European zen konpletuena zela esaten zuten, "en conformidad de"...

-Erdiko kale hori?

-Bai... Erdi erdiyan. Ayuntamientua, eliza, dena...  
-Hantxe.  
-Hantxen, bai. Dena batian.  
-Orduan etziztaizuen ezer falta hor...  
-Ez, ez, ez, ez, ez... Denak, denak. Gero topua, nortia, autobusa Donostirako, Hondarribirako, dena bertan.  
-Toki ona, orduan.  
-Bai. Errenteia zentrua, zentro-zentrua, zentro-zentrua.

## 4. Politika

### 4.1. "Nire tokia mendian dago"

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ERR-001/005
- **Iraupena**: 0:04:28. **Hasi**: 00:08:34. **Bukatu**: 00:13:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena**: Gerra hasi zen garaian Tolosako izebarekin oporretan zen Begoña, eta ezin izan zen Errenteriara itzuli. Ez zuen familiarn berririk. Errenteria hartu zutenean, aita joan omen zitzaien etxekoei, handik ihes egin behar zutela esanez. Etxekoek kontatuta daki Begoña;ak zer nolakoa izan zen frontean hil zuten bere anaia Alejandroren despedida.

### Transkripzioa

- Bale, ordun, berriz ´e bueltatuko gea. Errenterin zeunden zu, neska koskorra ziñan, eskolan zenbiltzen... Eta esan diazu oporretaa etorri ziñala?  
- Bai. Nere ahizpa zaharragua zan ta hua ekartzen zun. Hara! Hau erraiña, horren emazia.  
- Erraiña: Zuk segi zure rollon.  
- Ahizpa ekartzen zun ta "Ama, ni ez nazu behin ´e eramaten" ta "Bai, eramango zaittut ba, eramango zaittut", ta hala ekarri niñun izeban etxea, ta hoi gertatu ba, gerra hastia. Ta gero ezin jun festetaa. Damutu zitzaiean, baiño alperrik.  
- Nora jun ziñan oporretaa? Tolosako auzo batea?  
- Tolosako izeban etxea.  
- Nun zan hoi?  
- Ba, Barrio Urzabal, Urzabal baserriya.  
- Lizartza aldea?  
- E?  
- Lizartza aldea?  
- Lizartza aldea.  
- Oporretaa izeban etxea. Eta han zeundela, zuk oporretan, osea, kaletik baserrira junda, zer iten zendun? Itxulen-ta ibiltzen ziñan? Aintzen zizuen o...?  
- Ez, ni... jolasen o, ze ibiliko nitzan? Izebakin zerbaitte. Ta gero, hala, ba, Errenteriye ba... ya Errenteria sartu zianen, aitta jun zitzaiea ta esan ziyela: "Ahal dittuzuen gauzak hartu ta guazen. Laister etorriko da

kamioien bat eta alde ein beharra daukeu”.

- Hoi zu izeban etxen ziñan bitarten?

- Ni izeban etxen neon. Nik ez nekin ezerre. Haik han zeuden, Erreterin, ta ni hor. Ta ni nola ezin nitzan pasa. Ta gau batian Alejandro honek esan emen ziyen: “Gerraa jun beharra daukat, ba. Frentea noa. Ez dakit biziik etorriko naizen o... Biziik baldin banaiz, etorriko naiz. Hiltzen banaiz, berriz, ba! Ze inporta dio ba oain hil o hemendik larogei urtea hil? Total, Jainkoai kontu gutxigo eman beharko dixkat”. Eta, klaro, hala hasi zanian, ama negarrez. Ta esan zula: “Ba! Geo, zuek ´e on-onak izan, e? —beste ahizpai esan ziyon— Zuek ´e on-onak izan. Ta geo, azkenian, juntatzen geanian danak Josepeteko zelaiyan, nik txistua joko det. Jo ta jo! Baiño jendia nekatuta ´re jo ta jo aiko naiz. Eta San Pedroi esango diot: hi, San Pedro, ekar zak sagardua!” Eta orduntxe parra atera emen zitzaion amai, ta “Bueno, ya banua. Ama parrez uzten det, ta ya banua”. Hala segi emen zun. Hua, egun batian, anai zaharrena —zeatzen zittun hoi ta Batzokin ibiltzen zan hoi— egun batian, zaurittu zankuan. Eta, klaro, ya [ospitalea alleatzen] ai giñela, bidian kotxian bala galdu bat etorri ta txoferra hil. Eta geo kotxia hara ta honea, ta baztarren geratzea egokittu. Hala, hurrena zijuan kotxiak hartu emen zun, ta Gernikako ospitalea eraman zula. Ta hurrengo egunian, anaia txikina, Sabin, frentea juteko, Alejandro anaiai esatea ondo zegola Felipe. Ta harena jun, ta bestia hila zala. Bat erittu dan notiziyakin jun ta bestia hil zalako notiziyakin buelta. Ta Jose Antonio Agirre lehendakariyak nahi emen zun Frantzia pasa gure Alejandro hoi, baiño “Ez, nere lekua mendian dao” erantzun emen ziyon. Haren destinua han egongo zan.

#### 4.2. Familia guztia "zerrenda beltzean"

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ERR-001/007
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:18:25. **Bukatu**: 00:19:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Tolosan zeudela Erreteriarra bisita bat egitera joatea erabaki zuten Begoña, amak eta ahizpek, baina lagun batek handik joateko esan omen zien, haiek atxilo hartzeko agindua emana zegoela eta. Izan ere, Itxarkundia batailoiko komandantea eta kapitaina baitziren Begoña anaia Felipe eta Alejandro.

#### Transkripzioa

- Gero, hala, esan deana: nere ahizpa-ta etorri-ta in zianian, “Erreterria buelta bat ingo al deu?”. Hola, gure ahizpan lagunak sarrera xamarren bizi zian. Jun giñan ta “Garbiñe, baiño etorri al zeate? Jun zaittezte e! Lista negran zaude ta detenittu ingo zaittue ta!” Bueno, hurrengo tranbia ahal gendun bezela hartu ta akabo! Gero Erreterria jun? Jun hai!

- Zer zan ba “lista negra” hua?

- Detenitzeko, zean, listan zeola.

- Reketek idatzita?

- Klaro!

- Eta zuen famili guztiya egongo zan “lista negra”n.

- Bueno! Nere anaia Felipe horrei bi “pena de muerte” atera zizkan,

prisionero in ta Santoñan kartzelan egon zanen.  
- Hua´re, Felipe´re, gudari sartu zan?  
- “Batallón Itxarkundia”ko komandantia zan. Eta Alejandro, berriz, kapitana.

#### 4.3. Anaia Feliperen karta Santoñako kartzelatik

- **Hizlaria(k):** Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ERR-001/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Hamar-hamabi lagun fusilatzen omen zituzten egunero Santoñako kartzelan. Moja batzuen bitartez, Felipe anaiaren eskutitza iritsi zitzaien. Hark ere garbi asko omen zuen edozein egunetan bere txanda izan zitekeela.

#### Transkripzioa

- Anaia zaharrena, esan deana, delineante, aparejadore estudiantzen ai zan; ya azkeneko esamiña falta zitzaion, ya setienbren. Eta gero, hoixe. Gero Santoñatik pasa zuen Bilbaora kartzelaa, ta gero handik Burgosa. “Pena de muerte” kendu zizkenian, “ya behintzat ez due hilko”. Egunero hamar lagun hiltzen emen zittuen. Lista jartzen emen zuen. Ta gauian jun ta “holako ta holako”, kraak, eta berriz´e kraak, atia, “holako ta holako”. Ta karta bat, klandestino pasa zigun mojak-o bazeudela ta; hoi jartzen ziun: “Hemen egunero hamar o hamabi hiltzen dittue, ta neri´re noiznahi iritsiko zait hiltzeko ordua. Eta ez diot besteik eskatzen Jainkoai, irmo eta tinko, gizonki jokatu dezatela fusil aurrian”.

- Hoi idatzi zizuen, e?  
- Bai.  
- Ta nola alleatu zitzaizuen karta? Moja bitartez?  
- Bai.  
- Holako gauzak iten zituen?  
- Onbre!

#### 4.4. Kooperatibak ireki zituztenean, denda itxi behar

- **Hizlaria(k):** Mendarte Kasares, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-003/046
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:58:58. **Bukatu:** 02:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Politika eta Franco  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Ekonomia eta industria » Boom industrialia  
Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- **Laburpena:** 1975 aldera itxi zuten denda, kooperatibak hasi zirenean. Francoren aginduz zabaldu zituzten, Luzuriagak eta paper lantegiak. Konpetentzia handiegia zen, langileak ez zirenek ere han erosten zutelako.

### Transkripzioa

- Milla bederatziehun ta hirurogeta hamabost...
- Bai, bai, holakon bat. Hirurogeta hamabost bat izango zan.
- Kooperatibak hasi... ze motibo izan zan istekoa. Hoi nahi nun pixka bat.
- Beira, inportanteena-inportanteena izan zen kooperatibana. Francok agindu zun langilleei laguntzeko kooperatibak jarri bihar zituztela milla biztanle baiñon gehio lan iten zuten fabriketan. Orduan, hasi zen Luzuriaga, papelera... eta hoiek denak kooperatibak jartzen. Orduan, zer gertatzen zen? kooperatiba zzenez, beak ez zuten irabazirikan izan behar, baizikan saldu bihar zuten kosta prezियuan. Gehi jartzen zioten kopuru txiki bat gastuantzako, argiya edo balantza hondatzen baldin bazan edo lokala garbitzeko. Eta halaz ere [gelditzen] zuten kopuru hortatikan diru pixka bat sobratzen baldin bazen, obligaziyua zuten bertan diru hori [jartzeko].
- Inbertitzeko.
- Orduan, ze iten zuten? Oliyua baldin bazen zortzi pezetan litrua, esan dezagun, ba, irabazi horrekin jeisten zuten sei pezetara.
- Preziyua jeitsi.
- Ezin zenuten konpetentzia... ezin zenun... Baiñon hori ez zan txarrena, baizikan horren inguruan Luzuriagian lan egiten ez zutenak ere bere koiñatatikan lortzen zuten kartilla, eta juten zian baldin bazian bezela Luzuriaganeko langilleak, erostea. Orduan, konpetentziya ez zen konpetentziya; zen desastre bat! Entenditzen duzu? Klaro.
- Bai, bai, bai.
- Zegatikan papelerakuak berdin. Papelerakuak papeleroak bakarrikan erosten bazuten, ez zen deus, baiñon lehengusiñak erosten zuten haien izenian! Hori gertatu zan.
- Eta hor ya klientiak horra jungo zian, pixkanaka-pixkanaka, toki hoietara.
- Klaro! kooperatibetara jun zian. Klaro, merkea zuten. Jenero berdiña ta erdi-preziyuan! Erdi-preziyuan edo askoz ´e merkio.
- Ta sumatu zenuten bezero gero eta gutxio?
- Klaro! Nola ez? Espezializatu in bihar zendun. Zuk euki bihar zenittun, ba, mantekillak iñork... han ez zegoztenak. O ez dakit zer, o konserbak oso onak [hor ez zegon..] o edariyak oso onak han ez zegoztenak. Eta horrekin luzatu zen pixka bat negoziyua, baiño puntu bateaiño ezin zela mantendu. Zegatikan saiatu zian ere bai jartzia supermerkatu modura, zea, konjelatuakin eta mostradoria jendiak beak serbitzeko beak bere jenerua ta... Hoik danak in zittuzten saiakera hoiek guziyak. Halaz eta guztiz ´e oso zailla zen. Zegatikan kooperatibatikan atera ta etortzen zian ta “¿A cómo tiene usted esto?”, “A seis pesetas”, “¡Uy! Acabo de comprar a cuatro”.
- Baiña pentsatzen det zuei bezela beste denda batzuei ere gauza bea.
- Askoi, askoi. Janari dendai.
- Denda gehio ´re itxi zian hola?
- Janari dendai. Zenbat gelditzen dia gaur egunian Erretererian pixkanaka-pixkanaka? Gero supermerkatuak sortu dia.
- Bai. Oain daude ya Mamut eta hoiek, ya diala superfizie haundiyak.
- Dozenerdi bat denda gelditzen dia hemen: Monikana, erdiko kalia beste bat, han beste bat... sei bat. Ez da gehio. Oain kateakin oain. Klaro. Lehen hasi zian supermerkatuakin, gero hasi zian kate haundi hoiek...
- Bai, ta gero ta gutxigo.
- Oain, katiak, hoiek irabaziya bihar dute, bestela ez dia mantenduko.

Biñon auskalo nola gobernatzen dian! Esaiezu esnea saltzen dutenei, baserritakoei. Haiei preziyua jetsi-jetsi-jetsi-jetsi eta denak ezin biziyikan. Eta irabaziya... oseake.

#### 4.5. Batzokian bueltaka umetan

- **Hizlaria(k)**: Mendizabal Etxeberria, Mari Kruz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-009/009
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:14:38. **Bukatu**: 00:17:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak  
Aisia » Kultura » Dantza  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Batzokia bere aitak egin zuen. Umetan asko joaten ziren, gehienetan antzerkia ikustera. Euskaraz ziren. Dantzak ere izaten ziren, eta kantatu egiten zuten. Abesti bat kantatzen du.

#### Transkripzioa

- Batzokiya beti ezagutu zenun zuk hor?
- Batzokiya nere aittak in zun, e!
- A! Zure aitak.
- Bai, nere aittak in zun hua ´re, bai. Nere bizi guziyan ezagutu dut, ta barrenan ´e asko ibili nitzan umetan. Hoixe baietz.
- Umetan?
- Bai, klaro.
- Ze juten ziñan harea, jolastea ta hola?
- Gehienetan este... teatrua ta gauz hoik itten zian hor asko, ta hoik ikustea-ta juten giñan. Zeatik urruti xamar hemen bizi ezkeo, goian bizi giñan, ta amak ez zigun uzten kalea juten, Errenteriko kalea juten.
- Eta ze juten ziñaten, anai-arrebak Batzokira?
- Bai.
- Elkarrekin?
- Bai, elkarrekin juten giñan.
- Ta zenek eramaten zizuen, aitak o amak o...?
- Guri?
- Bai.
- Bueno, beatzi urte banittun orduan eta ibilli ere bakarrik ibiltzen giñan, biñon jeneralian izaten zan itxian norbaitte, lehengusua edo hola, umiak kontutzeko-ta eukitzen zuna nere amak. Eta harrekin juten giñan.
- [...]
- Bai, harrekin juten giñan.
- Han esan dezu anatzerkia-ta ikusten zenutela.
- Hoixe, bai, bai.
- Nolako antzerkiak ziran haiek?
- Ui! Jesus! Ez naiz oain gogoratzen asko.
- Euskeraz izaten zian?
- Bai, bai, hoixe baietz! [Hua] dena euskalduna zan. Hoixe baietz! Bai, bai.
- Eta jende asko juten zan ikustea?
- Bai, bai.
- Dantzak-eta hola ere izaten zian?
- Baita ere, baita ere. Eta kanta...

- Katak.
- Horko kantatzen zian katak ere badakizkit, batzuk behintzat.
- Zein zian? Zein zian?
- Zein zian? Adibidez, bat kantatuko dizut:

“Gaztetasuna eta garbitasuna  
 —Ai! Oain ez naiz gogoratuko! Hara!—  
 duten laguntza zoriontasuna  
 zuzenak diralako gure buruko asmoak  
 arpegian barruan [...] berriz bihotz alaia  
 ipintzen digu Jainkoak.  
 Tralara lara lara ra...”

Hoixe. Hoi adibidez. Hasi ta bukatu badakit.

#### 4.6. Gerra garaiko lapurretak

- **Hizlaria(k)**: Otaegi Arrizabalaga, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-013/076
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 02:07:24. **Bukatu**: 02:08:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Gerra garaian Erreteriatik alde egindako jendearen etxeetan lapurreta egin zuten. Milaren amaren lagun min batek beste batzuen etxean ikusi zituen berari lapurtutako ohe-estalkiak.

#### Transkripzioa

- Hor kontatzen dezu momentu hura, ez? Gerra hasi zenekua eta nola jendia, bertan gelditu zan jendia, beste etxetan sartu zan gauzak rekisatzea.

- Rekisatu? “Pero cómo requisar, oye. Cómo requisar. Ésta, la [casetera], claro, vivían... primero vivían aquí...”

- Euskeraz.

- Bai. Lehenbizi bizi zian hemen, eta gero Andoiaña jua zian. Eta handikan maiz etortzen zian, zeatik beti gure itxian... nee ama ta hua, biyak bat zian. Etortzen zian, ta. Eta behin pasa zen handikan eta esan [zian]: “Maria, hor ikusi zizkiñet nee bi sobrekama gorriyak zintzilik!”, “Ze?”, “Ez dun hoztuko! E? Bai! Lehenguak baiño bi gehio dakaxkin oain!” esan zion. Ta “Zein hunan ba?” ta “Hola ta hola” esan zion. Eta kitto. Hor gelditu zen “la cosa”.

#### 4.7. Bonbardaketek iraun bitartean, tunelean babestuta

- **Hizlaria(k)**: Paskual Zapirain, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-021/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:16:42. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerran, goian-behean erortzen ziren bonbak. Babesteko, batzuetan mendira eta besteetan tunelpera joaten ziren. Tunelean zeudenean, jaten ematen zieten; tren tunelatik pasatzen zenean, baztertu egiten ziren.

### Transkripzioa

- Geo, goian-bihian bonbak. Hua zen horror. Badakizu zer den horror? Hoitakua zen. Batzutan esaten ziguten mendi aldea hobeto zela juatia; ta bestetan, tunelpean. Orduan, batzutan juaten giñan gora aldea, segun nondikan "buuu", "buuu", "buuu", ta "pun" eta "pun" eta "pan". Eta hobeto omen zen, zeren tapatzen zuten, estalitzen zuten, este... hondar-zakuak, zakuak hondarrez betiak, eta hua zen pues zapaia balitz bezela. Ta han pean egoten giñan. Ta pixkat kalmatzen zenian, orduan ateratzen giñan handik ta etxe aldea juaten giñan. Ta eguardiyan, ba, zian Portugalete ta Santurtzin tarte hortan zeon tunel bat, tren pasatzen zena, ta han ematen ziguten janariya. Ta janariya beti berdiña zen: zen garbantzua arrozakin. Hori. Juaten giñan platerakin hara. Plater... aluminiozko platerakin harea juaten giñan, ta ematen ziguten erraziyo hori ta harekin pasa behar.

- Hor, tunel horretan?

- Tunel horretan.

- Barruan?

- Bai, ta tren poliki-poliki pasatzen zen, ta orduan baztertu itten giñan psatzen zen denboran, zegatikan orduan denbora, osea, distantzia haunditikan hasten zen "pi-piiii, pi-piiii", adierazteko tren zetorrela. Ordu, egitten giñan, pues, zea, ixkiñetara baztertu egiten giñan. Ta geo berriz ere, pues, bueno, pues ateratzen giñan ta etxera juaten giñan. Santurzetik zeara, Portugaletea, ez dakit, hemendikan Pasaira bezela, gutxi gorabehera —oain dena aldatua egongo da, baiña. Eta nola ez zen dirurik, beti oiñez jua ta etorri.

## 4.8. Gerrako zerrendan aita topatzeko beldurra

- **Hizlaria(k):** Paskual Zapirain, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-021/008
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:18:27. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Bilbora astean bitan joaten ziren, gerran hildakoen izenak ematen baitzituzten orduan. Bilbora joateko, tranbia hartzen zuten; aita hilean behin ekartzen zuen gerran egoteagatik ematen zioten dirua, eta diru harekin ordaintzen zuten tranbia.

### Transkripzioa

- Bilbora astian bi alditan juaten giñen, zeren esaten zuten zeintzuk bizi zian ta zeintzuk hillak zian. Gudan, batzuek hillak, bestiak bizirik. Orduan, han, hangua zen komeriya! Denak urduriik. Aber bakoitza bere senarrari esaten zioten bizi zela o ez zela bizi. Eta, bueno, pues, denbora askuan

juan giñan Bilbora. Eta han esaten zuten, pues: “Holako, halako bizi da; bestia hil da, bestia...”. Beitu ze gogorkeriya, e! Eta, bueno, nere aita bizitu zen. Nere aita bizitu zen. Beste asko hil zian. Nere aita eta beste batzuk ere bai bizitu zian.

- Eta Bilbora nola juten ziñaten?

- Bilbora joaten giñan, aita ta hoiek, ez dakit hillabetetikan behin o, zerbait, zerbait ematen zioten, dirutxo bat, eta orduan ekartzen zuten, egun bateko permisuaikin etortzen zian. Ta permiso hortan, pues, zerbaitte dirua ematen zioten emaztiai, eta dirutxo hoi enpleatzen genun Bilbora joateko, hango tranbian.

#### 4.9. Aitaren bisitak gerran eta gosea

- **Hizlaria(k)**: Paskual Zapirain, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-021/013
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:23:22. **Bukatu**: 00:24:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Aitak hilean behin izaten zuen baimena etxeoak bisitatzerako etortzeko; egun haietan, bokadilloa jaten zuten. Bai gerra garaian, bai gerra ostean, gosea pasa zuten.

#### Transkripzioa

- Nola etortzen zian bisitan.

- Bai.

- Eta iten zenutela...

- Dirutxo bat...

-... bokadillo bat...

- Bai. Bokadilloa. Bokadilloa. Han inguruan bazen taberna bat ta bokadillua jaten genun. Ta, bueno, hua zen alkarrekin jatia bokadillua..! Ni txikiya nitzan, baiñon gogoratzen naiz hori! Orduan gosia pasatzen genun, e! [Hori esanda, gosia pasatzen da].

- Gutxi zenuten jateko, eta dirurik ere ez eta...

- Eta gero handik etorrira ere bai, e! Handik etorrira ere bai egun osorako ematen ziguten holako arto-ogiya, artiriñakin egindako ogiya, holakoxekua, ta egun guziya harekin pasa behar zenun. Goizian jaten genun, gosia zelako, ta gero egun guziya [ogiarik] gabe.

#### 4.10. Santurtzitik itsasontziz alde egiteko pasatako momentu latzak

- **Hizlaria(k)**: Paskual Zapirain, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-021/015
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:25:15. **Bukatu**: 00:29:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- **Laburpena:** Gerra garaian, Santurtzitik itsasontzi handi batean sartu zituzten gauez: jendea oso larrituta zegoen, eta asko uretara erori eta ito egin ziren. Inguruko barkuetatik bonbak botatzen zizkieten, oso gogorra izan zen hura. Azkenean, Pasaian gelditu ziren eta beraiek atera egin ziren itsasontzitik. Gainerakoek Frantzia eta Errusia aldera egin zuten.

### Transkripzioa

- Ta gero ya azkeneko honutz etorri giñanian izan zen handikan ya atera in behar zen. Gauerdia. Ta atera in behar zen ta denak korrika izaten zen. Orduan korrika juaten zianian, badakizu ze izaten da, ezta? Bata bestiari bultzaka ta hori. Eta zeon hango kaian zeon barko haundi bat, ta esan ziguten hara sartu behar genula. Ta orduan, kaiako lurratik barko hartaraiño jarri zituzten tabloi batzuk, hara pasatzeko. Ta denak, pues, korrika, zeatikan gaiñian zeuden zeak, bonbak eta istilluak. Zenbat jende erori zen orduan! In zazu kontu hau dela. Bueno, zabalagua, ezta? Eta korrika zoaz. Pues, gero itsasoa dago. Erori zian biñon pillaka jendiak. Eta haurrak, e! Haurrak, txikiyak; heldua emakumia gehiena, zeatikan gizonezkua gutxi zen han. Eta erori eta itto, e! Ez erori eta zea. Ittota. Bai. Apuru horrekin, apuru horrekin, pues, asko, asko. Ezker-eskubi, asko erori zen. Ta zien gauerdia. Ta zen petrolerua. Petrolero hori oso... petroleokin zijuana, gaiñera. Ta inguratu giñuzten “barcos de guerra” esaten zaiotena. Inguruan [genittuen]. Ta haiek tiroka ta tiroka. Ta, klaro, petroleoa bihian dagola, arrisku ikaragarriya. Ta botatzen zuten, ta igual barkotik —ez dakit — berrehun metrora edo hola, “fouum!”, sua ikusten zenun itsasoan, haiek botatzen zuten materialakin. Ta nahi zuten errenditzia kapitana. Ta kapitaiñai buruan ez dakit zergatikan, ezetz. Eta esaten zioten zea, este... nola izena du, ba? ikurriña ez, txuriya zen. E? zapiya jeisteko, “como rendimiento”. Ta bestiak ezetz. Ta orduan segi haiek ere botatzen ta botatzen. Hori´re izan zen beste gogorkeri ikaragarriya! Ta gero, batzuk jun zien Errusira hortikan, barku hortatikan. Azkenian jeitsi in zun, e! Bestela denak han akabatuko giñan.

- Itsasontzitik jeitsi in ziñaten berriro.

- Pasaian. Gertatu zen garai hartan nere aman partetik osaba zeon alkate hemen Erreterian. Karlos... este... Karmelo Rekalde. Ta egon zen hemen gerrako garaian alkate. Ta baita ere zinegotziya nere amaren anaia. Hua´re zeon udalan. Orduan, bi hoiek jakindu zuten —hoi ez dakit nola komunikatu zien— gu barku hortan giñala. Ta bi haiek, klaro, agintariyak nola zian, hoiei esker hemen Pasaian gu atera giñan. Lauak. Juan giñan lauak atera giñan. Ta gero bestiak jua zian batzuk Frantzira, bestiak... Bueno, guri´re esaten ziguten “rumbo a... rumbo a esto... rumbo a Rusia”. Hoi asko zeatzen zuten, izentatzen zuten, “rumbo a Rusia”. Ta gero beste runbo bat hartzen zun, ta gero bestia hartzen zun ta... Nola? ta [anda] Pasaira etorri! Ta Pasaian, pues, hori gertatu zen. Ta atera giñuzten.

- Pasaian batzuk jeitsiko zian.

- Bai, gutxi. Nik uste dut gu. Biñon haien zeakin, e, haien... nola esango zen? bueno, baimena edo nola esaten da? Bai, bai. Bestiak, pues, batzuek Frantzira jua zien. Asko. Eraman zittuzten. Bestiak ere asko dia Errusira joanak. Baiñon gu, hor gelditu zen. Oain, hori ez dizut esango nola izan zen jakittia gu barku hortan giñala. Biñon beak biyok jua zien ta, klaro, nola zien... agintaritzia zaukaten, atera giñuzten ta, bueno, pues geroztikan Erreterian.

#### 4.11. Koldo Mitxelena gertutik ezagututakoa

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-023/012
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:33:22. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Josebaren aitak eta Koldo Mitxelenak harreman handia izan zuten. Koldo Mitxelenaren bizitzari buruz hitz egiten du: gerra garaian 21 urte zituen eta kartzelan egon zen 7 urtez. Kartzelan familiartekoren bat zuten Errenteriako familien artean, denek irakurtzen zituzten kartzelatik iritsitako gutunak. Koldo Mitxelenaren erretratoak iristen zirenean, ez zuten uste bizirik aterako zenik kartzelatik. Koldo Mitxelenaren ama oso hiztun ona zen. Koldo kartzelatik atera zenean, Madrila joan zen ikasketak egitera eta bere konpromiso politikoa jarraitzera. Han berriro espetxeratu zuten, eta han zegoela hil zitzaion ama.

#### Transkripzioa

- Osea, Koldo Mitxelenan situazioan jarri egin behar da. Badakizu, 15ean jaio zen, e, 1915ean. Karo, bera jaio zen, dakizun bezela, bueno, hemendik atera eta malda jeisteko kale hortan. Bueno. Eta nere aitta, berriz, bizi zan —esan dizut— palazioa, hemendik eskubitara daon etxe haundi hortan. Eta, jakiña, nere aittak bere aitta asko ezagutu zuen. Eta bere aittan lagunak. Eta Koldo, 15ian jaiua, karo, gerra-garaiyan zittuan 21 urte. [Dakizun] bezela, boluntario gerrara jun zien. Gero kartzelatik etorri 42yan, noski, e? Zazpi urte izandu [...], uste dut izandu zela; danera sei, aber, sei, lau... bai zazpiren bat urte kartzelan. Eta ni bizi nitzan oso mundu abertzale inguruan. Zergatik? Gure bost bizitzako etxeetan, bi bizitzetan bazeukaten preso Burgosen. Eta Koldon ama alarguna bizi zan bakarrik hemen, etxe hau ez, hurrengo hartan. Eta ni ume koskorra, bost, sei, zazpi urtekoa. Ba, Burgostik karta bat iristen zanean, Errenterian jiratzen zun famili guztietatik karta. Eta argazkia baldin bazan, oaindik gehiago, ezta? Eta ni beti gogoratzen naiz...

- Baiña famili batzuen artean, ezta?

- A! Karo! Kartzelan zeudenen artean, kartzelan zeudenen familien artean, klaro. Kartzelan zeuden familien artean.

- Abertzaleen artean?

- Abertzaleen artean ez, baizik kartzelan zeudenak. Etxe batetik bestea, ba, amak ikusi nahi zuelako erretratoa. Eta beti nik daukaten lehenengo erretratoa, eta ni ume koskorra, seguraski punttan jarrita “aber, hau zein da?” ta “hau, beste hau, zein da?” ta “hau bestia da” ta “hau bestia da” ta... Beti, jo, Koldon erretratoak ikusita beti esaten zuen: “Ez dute uste kartzelatik bizirik aterako danik”. Jo, Koldon planta... Badira erretrato hoiek. Erretrato hoiek edozeiñek [...] ahal izango dittu, nik ez, gure aittak ez zittuan baiño. Koldon planta. Baiño ni oso ondo gogoratzen naiz, eta ibili izana, ba, etxe bateko karta Koldon amari ekartzea, hementxe bertan, etxe hortan. Ni Santa Klarako ume koskorra, zazpi-zortzi urtekoa, eta gure etxen bi ziran, e! Biak hillak dira. Errazkin, Eugenio Errazkin, txistulari... gaiñera Errenteriko Bandako txistulari silbotea zena. Eta bestia...

- Nik ez dakit garai hartan Koldo Mitxelena gero hizkuntzalari ta jakintsu

eta, bueno, ba, asko aipatua izan da, ezta? Euskeraren gaiaren inguruan eta...

- A! Klaro, klaro.

- Garai hartan, gerra garai hartan ere hola bizi zenuten? Bea hola zan ere?

- Bai. Koldo... Klaro, gure... nere aittak bere aitta ezagutu zuelako eta ama alarguna bakarrik bizi zalako, bai, inguratua, ama oso... nik uste dut... ez dakit behar zen aña, baiño ama oso inguratua egondu zen Erreteriko zenbait famili abertzale... Joxepiñaxi Joxepiñaxi zen, eta bera zan oso hiztun ona. Koldon gatza guztiya amangandik; nik aitta ez nuen ezagutu. Eta, klaro, gero kartzelatik Koldo etorri zanian, badakizu, Koldok apustu haundiya egin zun politika aldetik, badakizu. 43an honea etorri ziran beste zenbait lagun. Denak ez ziran Erreterian bizitzen geldittu. Batzuek lan billa beste nunbaittea jun ziran. Gure bizilagun bat Tudelaa jun zan bizitzea eta familia [...], eta Koldo Madridera jun zen. Karo, ordun esaten zan Koldo jun zala ikasketak egitea, eta egia da. Ordun egin zuen "Filosofía y Letras Clásicas" Madrident. Baiño, karo, oain dakigu kartzelatik konpromisoakin ateria zala, Ajuriagerran kontsejutzaille edo sekretario bezela. Eta Madridera politika jarraitzea jun zan. Eta han anarkistekin-eta harremanetan berriro giltzapetua izandu zen bi urtean. Eta, karo, bitartean ama bakarrik. Eta Koldo Madrident zegoela hil zitzaion ama. Eta ez zuen behin ere bere burua konformatzerik izan...

- Amaren ondoan ez egon izana.

- Amaren ondoan ez egon izana. Koldok hori...

- Oso barruan...

- Bai, oso barruan zeukan. Eta hori nik dakit, ba, gure aittari askotan esan ziolako. Eta ordun, zer gertatu zan? Gero Koldo oaindikan´e gaizki, badakizu, Erreteriko alkateak urteetan ukatu egin [zioan] "el certificado de buena conducta", hau da, ez da lapurra, ez da... ez du iñor menperatu... baiño ez zion eman nahi.

#### 4.12. Koldo Mitxelenaren eta Josebaren aitaren arteko harremana

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-023/014
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:42:17. **Bukatu:** 00:45:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Koldo Mitxelenak askotan grabatu zuen Josebaren aita tesia egiten ari zen bitartean. Koldoren familiaren jatorriari buruz hitz egiten du. Koldok 15 urte zituela galdu zuen aita. Aita Erreteriako lehenengotako abertzalea omen zen. Koldo ere politikan sartu zen errepublika garaian, baina aitaren garaitik hutsune bat zuen, eta Josebaren aitaren bidez saiatzan zen hutsune hori betetzen.

#### Transkripzioa

- Eta ze pasa zan zure aita... ze ibiltzen zan Erreteriko jendiari grabaketak egiten?

- Bai, nere aittari behintzat badakit grabaketak egin zizkiola zenbait gauzetan. Eta gehien euskera kontuan zan, e? Jakin nahi zun aber hitz hau

entzuna Erreterin iñoiz izandu zan. Eta berak tesian garbi esaten du: “Por lo que yo sé mi tesis está fundada en el euskera de mi pueblo”. Onbre, nik uste dut gehixko dela esatea, zegatik Koldok hori aberastu zuen... bueno!

- Eta zinta hoiekin ze pasa zan?

- Ba, ez dut behin ere jakin izandu. Nik ez nuan... andrea... emazteak eskeiñi zizkenean, ba... Egia esan, semea oso mutil jatorra da. Bueno, mutil jatorra, ya gizon egiña da Rafael, ezta? Rafael zen aittona. Baiño gure aittak... gure aitta Koldok gehien ibiltzen zuan honetxegatik: Koldok esaten zun “nere aitta badakit abertzalia izandu zala”. Erreterin izandu zan lehenengo abertzaletarra. Igeldon jaiua zen aitta. Ama, berriz, badakizu, Iparraldekoa zela, Elissalt, bi s-kin, Elissalt. Erreteriko fabrika haundira lanea etorritako [egurleak] edo emen zian teknikoak, Koldon aittona. Eta... Bueno, zerekin ari giñan? A, bueno, karo. Gure aittak, karo... Koldo geldittu zan hamabost urtetan aittik gabe. Eta, klaro, gero bera politikan sartu zan republika garaien. Eta hor zeukan hogeituro urteko hutsune bat aitta hildakotik. Eta, karo, gure aitta ikusten zun zubi bezela; ez zan bere aittan edadekoa, gazteagoa zan, baiño ondo Erreteriko nazionalisten arteko hasarreak eta eztabaidak eta... hortarako ibiltzen zun gehien. Osea, bete nahi zun bere bizitzako hutsune hori. Eta, karo, gure aitta memori onekoa zen, eta Campionen Erreterian egindako testu bat bada, oan badabil leku guztietan.

- Campion etorri zan Batzokiko inauguraziora.

- Batzokiko inaugurapenera. Eta gure aittak zeuzkan sei folleto gordiak. Eta Koldok nola hartu zittuen, gustora asko!

- Zer zeon folleto haietan ba?

- Erreteriko hemen, este... topoko maldan egindako Batzokiko Campionen diskursoa, publikatua inprentan. Eta Koldok milla aldiz entzuna. Eta gure aittak gerran pasa eta gerra ondoren eta Bilbotik etorri ta beldur pixkatekin, baiño gordiak zeuzkan sei folleto.

#### 4.13. Aita oso abertzalea zen

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-023/015
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:47:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Josebaren aita oso abertzalea zen eta nazionalismoaren historian garrantzitsuak izandako pertsonak miresten zituen. Josebaren aitak Euzkadi egunkari abertzalea irakurtzen zuen; baina ez zuen inoiz kargu politikorik izan.

#### Transkripzioa

- Eta zure aita oso nazionalista izango zan, ez?

- Bai, bai, gure aitta... Nik umetan ezagutu dittut etxean, alde batean Aita Santua eta bestian Sabino. Eta gero `Kizkitza´.

- `Kizkitza´?

- `Kizkitza´ izandu zen oso... PNVko gizonik inportanteena Sabin hil ta gero. Beraz, `Kizkitza´ izandu zan Euzkadi egunkaria sortu zuena; bueno, sortu zuena, zuzendari izandu zena. Eta nahiz bera donostiarra izan, Sabinon laguna izana. Eta, bueno, nik uste dut, argitaratuta dittuzu Sabinekin eta

`Kizkitza´k izandutako elkarrizketak ez, baizik eskutitzak publikatuak daude. Eta `Kizkitza´ izandu zen Euzkadi-ko egunkariaren buru sortu zanetik “quince”, “dieciséis”... ba, iya hogei urte. Zegatik Kizkitzak suerte bat izandu zun: gerra hasita, bi hilabetera hil zan Bilbon. Ya minbiziakin zegoen, ya edadeko gizona. Baiña `Kizkitza´ familiz donostiarra da.

- Eta zure aitak hoik denak irakurtzen zittun.

- A, klaro... A, bai, bai, bai, klaro. Gure aitta zen, soldaduskan Bilbon zegola, 1914-18, hor, urte hoietan, Vitorin Euzkadi erosten zuna eta gero Errenterin abertzaleak Bilbotik... eguneko arratsaldera arte ez zitzaien iristen eguneko Euzkadi. Euzkadi, gure aittak-eta Euzkadi irakurtzen zuten.

- Zure aitak ardura zun hemengo [...] alderdian edo...?

- Bai, Errenteriko... bueno, Errenteriko gizona zen.

- Ya. Baiño agian zinegotzi bezela egongo zan [...]?

- Ez, ez, ez, iñoiz ez. Iñoiz ez. Ez zuan iñoiz kargu politiko bat izan. Ezta Batzokian ere. Ezta Batzokian ere.

- Baiño Batzokian ibiltzen zan, ez?

- A! Bai, Batzokiko gizona zen eta jende guztik abertzaletzat zeukan, eta gure aitta hala izandu da, abertzale. Ta gero, gerra ondoren, zenbait gauzeta Felipe Lizaso eta zenbait jende gure aittana etorri izandu zan “Hau, gogoratzen al zea zu hau nola...?” ta gure aittak... Abertzale munduan bizi izana zen, erabat murgildua, baiñan ez zuan iñoiz kargurik izandu. Ez zuan behin ere... ez dakit nik, edo aukeratu ez zuelako edo berak... Nik uste dut berak nahi izan ez zuelako. Baiñon hori ez dizut esango behin ere, gure aittak iñoiz kargu bati ezetzik esan ote zion, hori ez.

#### 4.14. Aita gerran Bilbon; itzulitakoan panorama zaila Errenterian

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-023/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:47:57. **Bukatu:** 00:49:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra garaian, Josebaren aitak badaezpada Errenteriatik alde egin zuen. Bilbo erori zen arte egon zen han, anaiarekin eta koinatuarekin batera. Errenteriarra itzuli zenean lana galdu zuen; denbora batez amak tratutik lortutako diruari esker atera ziren aurrera. Zenbait lagun karlistaren laguntza ere ba omen zuen aitak.

#### Transkripzioa

- Aittak kontu hori ez zuan behin ere aittatu izan. Bilboko kontuak bai, eta Bilbora [jun zen].

- Hori esan nahi dizut. Gerra garaian, Bilbora jun zanian...

- Bai, bai, gure aittak-eta garbi zeukaten Errenteritik badaezpada´re jun egin behar zuela.

- Batez ere horregatik joan zan, edo...?

- Eta jun zan anaia, koiñadua eta beste zenbait jende Errenteriko, zenbait jende Errenteriko.

- Zenbat denboraz egondu zan Bilbon?

- Bueno, ba, Bilbo erori zan arte. Eta ez zuen denak aukera bera egin. Hiru

koiñatu jun ziren eta bakoitzak aukera bat hartu zuen. Gure aittaren aukera izandu zan Bilbon geldittu eta handik hillabete batera Bilbotik etxera etorri. Bueno, detenitzeko arriskua. Ta ez zitzaioan... bueno, poliziak deittu ta hori, zerbait egin eta... lana galdu, lana galdu. Bi urteak, bi urte-edo uste dut aitta egondu zala, hori behiñipein berari ez nion entzun izan, ez zuan behin ere finkatu zenbateaiñoko... Karo, gure etxen ordun salbamena zegoen ama tratara juten zala ta amak irabazten zuanakin bizittu giñan. Bizittu omen giñan! Ni orduan...

- Baiño honea etorrita ere beldurraz ibiliko zan, ez?

- A! Bueno, pentsatzen dut. Eta nik uste dut jende laguntza ere izandu zuen, karlisten laguntza ere izandu zuen; bai, zenbait lagun karlistak zienak eta.

#### 4.15. Gerrako erabakien ondorioak

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-023/019
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:51:22. **Bukatu:** 00:53:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra  
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Aitaren anaia bat ere Bilbora joan zen harekin, baina gero Frantziara ihes egitea erabaki zuen. Gerra ostean, ordea, erabaki hark ondorio latzak ekarri zizkion.

#### Transkripzioa

- Anai bat, berarekin Bilbora junda, Bilbon erabaki zun Frantzira joatea. Zergatik? Ba, bera zen "Funcionario de la Audiencia Provincial de Justicia". Funtzionarioa. Eta, klaro, Bilbon Euskal Gobernuan segittun sartu zan republikano bezela. Nola esango dugu? "En el cuerpo oficial", eta soldatakin. Eta gero, Bilbo erortzekoan, esan zuan "Nik nahiago dut Frantzira pasa, Frantzitik Bartzelonara jun; Bartzelonan republika dao. Oaindik beste bi urte eta erdi iraungo du republikak", eta han berriro funtzionario bihurtu zen. Eta gehien harrek ordaindu behar izandu zun gero hori egiña. Zegatik, gero gerra bukatu eta berriro Frantziatik urtebete "campo de concentración" en pasatu eta Donostira etorri zanian, pentsa — San Martingo jauregiyan, hor zegoen, badakizu, zea, tribunala—, langilleak eta zuzendari zegoenak onartu, ondo onartu zuen, baiñan Madritik handik urte batera etorri zan "la expulsión del cuerpo". Eta bost umen aitta geldittu zan zerua goian ta lurra behian. Eta gure aitta, berriz, "empresa privada", bueno, bankuan, ba, bi urteko zigorra. Eta, klaro, gure aitta... Eta beste koiñadu bat Erreterikoa ere Frantzin bizi izandu zan. Ba, alemanak 41ean sartu ziren eta... bueno, beste lau-bost urte koiñadu batek egin zittuen. Eta, bai, karo, arazo hori familiko arazoa zen, ezta? Gu umetan Donostira juten giñanean izebanea beti, ba, osaba falta zala, osaba falta zala, oaindik Frantzin zegoelako. Eta etorri zanean eta nik gauza hoiak ondo gogoratzen dittut. Eta gero, hil zan artean bizi izan zan funtzionario izatea galduta. Ba handik...

- Ez zun berreskuratu.

- Ez, ez zun berreskuratu. Gero, Franco hil ta gero, bere alarguna iya ehun urtekin hil danak berreskuratu dittu berari, alargun bezela, urte guzi

#### 4.16. Gerra osteko miseria gogorra

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/005
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean  
Aisia » Kultura » Zinema  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Zinea beti ezagutu izan du Joxe Marik Erreterian. Gerra bukatu zenean, Erreteriarako familia batzuk elkartu ziren herriko jende pobrea laguntzeko. Jende asko hil zen miseriagatik Erreterian gerra ostean. Behin Joxe Marik zozketa irabazi zuela gogoan du.

#### Transkripzioa

-Ta hor, geo, Onbideko zea hori hor eongo zan baita ere, o zinia ta, beti eon dia hor?

-Bai. Nik zinia ya hor topatu nun. Eta zinia, gerra bukatu zanian, Errenteiko famili batzuek juntatu, eta egin zuten jende pobriai laguntza iteko zerbait egin. Ta orduan egin zuten billera bat hor eta joan giñan pobre jendia, klaro, gue aitak ez zun /etzun/ lanik! Etziyoten iya lanik ematen! Ta bueno... Oso gaizki izandu zen hua. Guk kontatzen degu, baiñon hor jarri behar liake gurutzia zenbat hil zian, mixeriyakin.

-Bai, e!?

-Jo! Askok! Ez bertan hil, baiñon, gero ezin hazi! Ezin hazi! Gosiak zapaldua.

-Ta esan dezu...

-Ta gero, eon...

-Bai, kontatu, kontatu...

-Ta familiya horrek... Osea, orduan, hor goatzen naiz, bi urtetan uste dut egin zutela hori. Geo galazi in ziyotela o ez dakit zer esan zuten. Behintzat, bigarrenian, nei tokatu zaiten, ba, osea, famili bakotxai ematen ziyoten opari bat; famili bakotxeko semiai, opari bat. Eta gero numero bat. Rifako. Ta nei tokatu zitzaiteen iya han zen hobexkuena: dama joko bat. Ta nik banakin jokutzen, dametan.

-Eta hor esan dezu ziela famili batzuk, alkartu zianak...

-Bai.

-Iguar diru gehixiokin o aukera gehixio zakatenak...

-Bai, bai, bai.

-Komertziyotako... bat zen... hua bakarra goatzen naiz: Albisu. Uain hor badago komertziyua... Hoi en gurasuan gurasuak.

-Bai, bai, bai... Eta ze iten zuten? Janariya-ta biltzen zuten o...

-Ez dakit janariya eman ziguten? Ez dakit. Baiño bueno, jostailluak zian, jostaillu gauza.

-A... Bai, bai...

-Sorteuan jostaillu gauzak eta bestela're bai, globo batzuek eta txokolate tableta bat eta holaxeko gauzak. Joe, gu txoratzen!

-Klaro, izugarriya izango zan hoi zuentzat orduan, ez? Ezerrez ez eukitzetik...

#### 4.17. Gerra hasi zeneko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Joxe Marik 4 urte zituen. Aita gerrara joan zen. Gerra hasi zeneko oroitzapenak baditu oraindik: topotik etorri ziren tiro asko, gizon bat garbitokian ikusi zuten pistola bat eskuan zuela...

#### Transkripzioa

-Gerra hasi zanian, zuk zenitun lau urte.  
-Lau urte.  
-Uaindik eskola hasi gabia izango ziñan?  
-Eskolan uaindik ez nintzan hasi; ez giñan hasi.  
-Ezin zan hasi...  
-Ez.  
-Bost-sei urtekin o hola hasten ziñaten.  
-Ba... Geo hasi nitzan... Ez naiz goatzen lzeban itxetik o... Nik... Geo nee aita gerra joan...  
-Hoi, bai, galdetu behar nizun: zure aita gerra jun zan.  
-Jun zan.  
-Nola... Zuk goatzen dezu zerbaitte, alleatu zanian gerra herrira edo...  
Badezu goguan nola izan zen...  
-Detalle batzuek bai.  
-Ze goatzen dezu?  
-Nik, gauz bat beiñe ahaztutzen ez zaitena da, ba, nola topuan? Topua? Ba hor, hortikan sartu zien batzuek, eta bestiak beste tokitik juango zien, nik ez dakit. Baiñan hortikan disparuak ein in zien, asko. Eta gero, ba... Eun batian ikusi nun, hor zeon, uain Escuela Profesional nola dela, hor labadero bat. Eta nola gizon bat barkutikan ikusi genun, pistolakin, horrei buelta ematen zijuala. Kazadora batekin. Baiñan, bueno, hoi da "visiones" esateko modua, baiño hoi goguan daukat.

#### 4.18. Gerrara bi hilabeteko kontua izango zelakoan

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/010
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra garaian, Errenterian geratu zen Joxe Mariren familia. Aita gerrara joan zen, eta haren uniforme gogoan du oraindik. Aita amarengandik agurtu zenean, bi hilabeteko kontua izango zela uste zuten.

### Transkripzioa

-Zuek etzenuten alde eingo herritik... Famili asko jun zian.  
-Ez, ez. Gu ez. Gu ez. Ez zen moduik ateratzekorik. Ze diru zuten? Seituan gerra. Ezkondu ta familiya hazitzen ai zien gogorrenian etorri zan gerra. Aita Joan zen gerrara, ta orduan, gelditu giñan gu lotuak.  
-Aita jun zan, aita jun zaneke oroitzapenik badaukazu?  
-Bai. Bai. Bat badaukat. Nere aita etorri zen etxea... Hoi ez naiz goatzen garbi; ez dakit etorri zen laun batekin o bikin. Eta nere aitak-eta zuten kazadora bat o jertse bat, ta uste dut urdiña zala, eta zun Euskal Herriko eskudo bat, hola. Denak, nazionalista guziyak, hola uste dut ibiltu ziela garai hartan. Beste inork esan dizu hori? Bai... Bueno. Eta nola etorri zien eta nola despeditu zien ama ta bera. Ta alde in zun aitak eta usten zuten nere gusasuak-eta, bi hilabeteko gerra izango zela; bi hilabeteko gauza. Zeatik ya mordoxka holakuak izandu zittuzten. Baiñon hau luzia izandu zen.  
-“Mordoxka holakuak izandu zittuzten” esan dezu...  
-Bai, bai, osea...  
-Aurretik?  
-Aurretik, aurretik, aurretik. Ba... holako tokitan maitu diela, o halako tokitan, ta... Deitzen ziyoten beai ta... o holako gauzak behintzat. Nik ez dakit ze izango zen o, baño hoi izandu zela, badakit. Zeatik... Hori zergatik dakit nik? Nere aitak esan zulako konbersaziyon batian.

#### 4.19. Aitaren gerrako nondik norakoak

- **Hizlaria(k)**: Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-024/012
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:22:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Aita abertzalea zen: denak errespetatzen zituen, baina berea defendatzen zuen. Itxarkundiaga batailoian egon zen gerra garaian: Lleidan ibili zen eta katalanak oso ondo portatu omen ziren berekin.

### Transkripzioa

-Baño beak bazun pentsamendu bat, ez? Euskadiri buruz eta...  
-Onbre!  
-Bazakan...  
-Ohhh...  
-Hortaz hitz eingo zun ez?  
-Jolin! Bai, bai.  
-Hitz eiten zun horretaz? Horretaz hitz egiten zun?  
-Bai. Euskal... Beretzat euskalduna zen berexiba. Gizon berexi bat. Eta berak errespetatzen zun denak, baño beria defenditzen zun. Hori, hori daukat buruan nik.  
-Ta beak pixka bat ideia horrek bultzata jun zan...  
-A, ez, ez, joe, jun zen baño... Esan dizut! Bere aktuaziyua eta beste batzuek ere baditu gerran!  
-Eta, bea, ze batalloitan eondu zan-edo badakizu?  
-Ai... Itxarkundia! Hori badakit.

-Itxarkundia da.  
-Besteik ez dakit nola organizatu zien ta ez dakit ezer-ezerre.  
-Itxarkundiaga esan dezu, ezta? Eta nun ibili zan? Ze tokitan?  
-Uiii... Hoik ez dittut behin ere kontuan hartu. Leridan badakit ibildu zala.  
-Leridan...  
-Katalanak oso ongi beakin portatu zien, baiño, hori ya, Lerida joan zen...  
-Geo juango zan Lerida...  
-Gerra... Bea prisionero in zutenian, orduan esan ziyoten: o Lerida joan o...  
Lerida frentea joan edo ez dakit bestela ze... Eta nee aitak esan zun Lerida joango zala.

#### 4.20. Gerra garaiko zorrak ordaintzen

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/017
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra garaian, ama Hondarribira joan zen baserri batera; han zor handia egin zuten, eta ondorengo urteetan aitak ordaindu zuen zor hura.

#### Transkripzioa

-Nere ama, beste anaia ta arrebakin, baserri batea Hondarribira joan zien. Eta han egin zuten kriston zorra.  
-A bai?  
-Bai. Zergatikan nere... Ez dakit nola izandu zen... ez dakit nola izandu zen...  
-Zure amak-eta in zuten zorra?  
-Bueno, zorra... Nola esango genuke... Erderaz erraxo esango dut: [una deuda de sentimiento, de "convinciones"]. Gero aita... pagatuko zun kontuakin.  
-Bai, bai, bai...  
-Ta orduan nee aita etorri zenian, juaten zan lanea puertoa, eta puertuan lana in eta ematen baziyoten egun bat, beste egunak baserrira joaten zan. Eta han txikitzen zan lanian. Eta horrela ez dakit zenbat urte in zitun, gero. E? Osea, ondo pagatu zun. Ondo pagatu zun nere aitak.

#### 4.21. Joxe "Beltza" eta sarjentua

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/022
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:38:41. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Aita gerran zegoela, Joxe "Beltzak" sarjentuarekin izandako istilua kontatzen du.

#### Transkripzioa

-Beste batian, hori egiñik, sarjentu bat omen zan, oso kaxkarra, baiña oso alua. Txarra! Eta denak ostikoka-ta ibiltzen omen zittun.

-Gaiztua.

-Gaixtua.

-Eta behintzat, hau lanian ai zela, pikotxa ta palakin, etorri omen zan sarjentu hoi ta: "tú, no se qué", honei, Joxe 'beltza'i: "dza"! Ostikoz ipurdiyan. Joe, jira omen zen: "mekaguental!" Hitza guziyakin esan omen ziyon. "¡Te voy a matar!"

Eta sarjentua, holaxe, seko gelditu omen zan. Nee atta han bertan, beakin zeon. Joe. Juramentu batzuek bota omen zittun! Eta sarjentua arront eta umildu omen zan. Arront eta umildu. Eta handik aurrea bere launik hobena izandu omen zun kanpaiñan.

-A bai, e?

-Bai. Bere launik hobena. Bueno, launa... sarjentua [...]

#### 4.22. Haizeak lapikora ekarritako oparia

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/026
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:44:42. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Anekdotak barregarria kontatzen du: gerra garaian, aita Iruñe zegoela, gosea zegoen; haize bolada batek, ordea, "oparia" ekarri zuen janariz betetako lapikora.

#### Transkripzioa

Han omen zauden, otorduan, eta bere perola haundi bat, ta handik raka-raka, zenek gehio... kutzara zeinek gehio luzatzen zun, gehio jaten zun. Eta haizia omen zabilen, eta nonbaitte, bat beren inguruan sasi mordoxka bat omen zeon, eta hara joan zen bere beharrak egitea. Eta beak jaten ai ziela, haize golpia, papera fsssss!... Eta panpa!, peroloa bota omen zun kakez betia.

Denak gelditu omen zian... Kieto denak! Nere aitak kutxarea sartu, atera omen zun papera, bota, nahastu-nahastu in ta nahi dunak jan dezala / jantzala! Denak jan omen zuten handik. Ze izango ote zan, ez? Hara, hoi txiste bezela ateako da.

#### 4.23. Gerra, uste baino luzeagoa

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/028

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:45:58. **Bukatu:** 00:47:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Aita Euskadi defendatzera joan zen gerrara, baina ez zuten espero hain luzea izango zenik.

### Transkripzioa

-Pasadizo hoiekin batea kontatzen zizun zeatik jun zan bea gerrara o ze...

-Bai, bai!

-Horren inguruko gauzak...

-Ez zidan /etzien/ kontatu ber. Berak hoi sentitzen zun, Euskadi, eta etorri zenian, ba denak utzi ta hara joan zen. Uain, beste gauz bat izango zen, jakin izandu bazuten gerra jua zienak lau urtekua izango zala gerra, ez dakit ze ingo zuten. Baiñon hauek jua zian bi o lau hillabete, bueno, bi hillabete esango ziogu ta urte bete o baldin badare o... asmo o intentziyo hoik o usti hoik izango zuten, nere ustez.

-Eta gero, hor, Francon aldeko tropak-edo, guazen esatea, izan zituzten laguntzak'e bai...

-Bai.

-Alemanak...

-Ba...

-Laguntza haundiyak izan zituzten.

Oain bezela, oain bezela... Europa ze aida iten Afrikakin. Ze ai da iten?

Hoiak beak dia! Beak!

-Bai, bai, bai, bai...

#### 4.24. CNTko gizon bat Erreterian hil zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/038
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:04:05. **Bukatu:** 01:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Erreterian CNTko gizon bat hil zutenekoa gogoan du Joxe Marik.

### Transkripzioa

-Ordun, republikanuak ikusten zian, oaindik.

-Bai, nik ikusi nitun! Bueno, nik ikusi nitun baiñon nik ez nekin hua zer zen. Bakarra, Txapartegi badakizu non biz... zein den? Hor, gaztelua? Goiko kaleko gaztelua, eskubita dagona? Hor Txapartegi bizi zen, ta guetzat Txapartegi izena du horrek. Bueno, hor, CNTko bat o, hor tiroka ai ziela, ba, goiko eskailletan, soldaduak. Bueno, boluntayauak, izango zien, eta: "Va, Venga, que voy a salir!" tranpillatik. "¡No salgas, no salgas! Que está cubierto de..." Atea zen eta dapa! Balak buruan jo ta hil zun. Bai, hoi're goatzen naiz, nola izandu zen hori.

#### 4.25. Gaileten apurren zain

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/042
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:07:47. **Bukatu:** 01:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean  
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Olibet gaileten fabrikan, gaileten apurrak kanpora botatzen zituzten; umeak kanpoan zain egoten ziren apur haiek jateko.

##### Transkripzioa

-Armamentua-ta kalia-ta ikusiko zenuten...

-Ui... Bueno, nik egiya estea, ikusi nitun. Baño gu joaten giñan geo... hau, hau kontatuko dut /kontatukout/, hau politta da oso. Juaten giñan, 'Galletas Olibet'? Eta 'Galletas Olibet'ek eitten zun, galletak in, eta papurrak, eta galleta puskak-eta, kaja batian hartu eta kanpora bota; zelaira. Pareta bazuten, ate ttiki bat erekitzen zuten, eta uain "rasca cielos" dauden toki hortan, joaten zian eta praaast! Han bota. Eta gu han zai eoten giñan.

-Hartzeko...

-Eta galletak hartzen genitun, eta galletak jaten genitun. Galleta puskak. Eta nik uste dut pixka bat egiten zutela guei launtzeko; nik txoriyai botzen yoten gisa. Hori're goatzen naiz, ta askotan joan izandu giñan...

#### 4.26. Batzokira oso gutxitan

- **Hizlaria(k):** Aranburu Oskoz, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-026/008
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:17:27. **Bukatu:** 00:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** Mitinak entzutera joan zalea izan zen Jesus. Batzokira gutxitan joaten omen zen, ez baitzuen begi onez ikusten Errenteriako Eusko Alderdi Jeltzaleak politikoki Madrilekin elkartzeko zeukan joera. EAJren zatiketarik ANV-EAEn sorrera ezagutu zuen.

##### Transkripzioa

-Eta ordun esan dezu mitin bat egondu zala...

-Ez! Askok, hemen, e!

-A, asko...

-CNT-kuak, karlistak, denatik... Herriyan denatik zen, jendia.

-Ta zu nun ibiltzen ziñan? Ze lokaletan o...

-Ni orduan...

-Biltzen ziñan, o ez...

-Bai, mitiñea joaten nintzen, ikustea...

-Mitiñeta juten ziñan. Eta gero juten ziñan o batzokira, o centro republicanoa o...

-Ez. Ni ez nitzen juten. Batzokira gutxitan juten nintzen ni. Ni beti PNVku hoik... Ez dakit, ez dakit zergatik biño... Neegatik ya... Kanpoko jendia...

Hemengo jendia zen, biño beti Madrikin alkartu itten zen.  
 -Orduan ere... Baña hor, ere gertatu zan ANVko...  
 -Bai, hoi. Eszisiyua zen. PNVkuak, nola uain in duten “hamaika bat”, azkenekuak, ta lehen EA in zun... Biño, hortik sartu zen.  
 -PNVn eszisiyua gertatu zan eta hortikan atea zianak sortu zuten ANV.  
 -ANV, bai.  
 -Zuk, ordun, e... Konturatzen ziñan hortaz, zer gertatzen ai zan, edo eszisiyo horrei... Bazenekin hori gertatzen ari zela edo...  
 -Bueno...  
 -Edo gero jakin dezu...  
 -Ez, gero ez, bertan, orduan ya ni ya hamazazpi o hamasei urte banittuen ta pixkat...  
 -Konturatzen ziñan...  
 -Bai.  
 -Herriyen ANVkuak ere izango zian...  
 -Bai, denatik, denatik... Gutxi gorabehera, biño hemen partidua, haundiena beti izan da PNV, biño partido bezela. Ta geo bestiak juntatu zienian, uain pasatzen den bezela, sozialista ta PPkuak, hoik biyek gehio die PNV ta Aralar ta denak.  
 -Hemengo alderdiyak baño gehiago dia, ezta?  
 -Ta Errenteiyan, joe! Errenteiyan kriston diferentziya atetzen dute / atetzeute/, sozialistak.  
 -Orduan’e bai. Garai hartan.  
 -Garai hartan’e bai. Nik sekulan ez dut ikusi PNVko alkatia Errenteiyan.

#### 4.27. ¡No pasarán!

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Oskoz, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-026/037
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 01:09:06. **Bukatu**: 01:09:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gerran oihuak eta leloak alferrik dira batzuetan.

#### Transkripzioa

-Eta, bazenuten, hola, zeak, oihuak o lemak, edo...  
 -Bai, “no pasarán”, ta “no pasarán”, “pero pasaban”!

#### 4.28. Pontejosos preso Cándor Legioarentzat lanean

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Oskoz, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-026/039
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 01:11:53. **Bukatu**: 01:12:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- **Laburpena:** Soldatu alemanen zaintzapean ziren Pontejoseko base militarrean atxilo hartuta zeudenak. Durango eta Gernika bonbardatu zituen C&oslash;ndor Legioa bertan zen.

### Transkripzioa

-Han bizi zifan, basian?

-E?

-Han, base hartan bizi zifan?

-Baserri batian, kanpuan. Baserri bat ya erdi... Eroiya zen ta... Han lo itten genun. Ta handik, eguna argitzen zenian, eskolta hartu ta "campo de"... "al campo de aviación" joaten gifen. Ta han eskolta espainolak utzi ta alemanak [hartzen] gifen. Ta orduan ya kanpuan, alemanakin ya, ilun arte, seiak arte o zazpiyak bukatzen zuten, illuntzian ya bonbardeuak, berriz eskolata etortzen zen, berriz baserri harta o...

## 4.29. Aitaren lanak eta kultura eta politikarekiko zaletasuna

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-027/002
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra  
Aisia » Kultura » Irakurtzea  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Aita fundizioan hasi zen lanean 13 urte zituela. Soldadutzara joan eta gero, ordea, Banco San Sebastianen egin zuen lan. Gerra garaian, alde egin behar izan zuen herritik nazionalista izateagatik. Aitari irakurtzea asko gustatzen zitzaion, eta politika munduan sartuta egon zen.

### Transkripzioa

- Aitak nun iten zun lana?

- Aitak lana, beak esaten zunez, hamahiru urtetan hasi emen zan lanian, hemen izandu zan, Arramenditik aurrera, "Fundiciones Marqueze" deitzen [zioten]. Eta mutil koskorretan han hasi emen zan lanian, "Fundiciones Marqueze". Hamahiru urtekin esaten zun hasi zela.

- Eta gero aldatu in zun lantokia?

- Gero, bai. Gero ya... uste dut sodaduska jun arte. Soldaduska hiru urte Vitoriyan, kaballeriya, "caballería". Eta, uste dut, gero handik ya soldaduskatik etorrita, ba, lanian ya zean, "Banco San Sebastián"-en. "Banco San Sebastián".

- Banko batian iten zun, e?

- Bai, banko batian. Banko batian.

- Eta ya hor jubilatu zan?

- Bai. Bueno, gero gerra-denborak etorri zian, alde in behar izandu zuten hemendik beste askok bezela, gerrako persekuziyoa, oso... oso nazionalistak zian. Beren... Berak ezagutu zuten girua beren lagunen artian, ta Sabino Arana ta gauza hoiek, eta klaro...

- Osea, PNVkoa edo, ez?

- Bai, bai, bai, bai. Orduan, klaro, orduan nazionalismoa hemen PNV emen zen. PNV emen zen. PNV, klaro, Sabino Arana denbora hartan, pues...Ta

berak hori bizittu izandu zuten. Gero Batzokiyan ´e sartua egondu zan, ba, juntetan, ba, laguntzen, sekretario bezela batzutan, hauteskundetan-ta mahaiko sekretario ta holako... [partiduan sartua].

- Jarraitzen zun pixkat bat PNVren ildo politikoa [...]. Militantea zan bea.  
- Bai, bai, bai, bai, bai, beti. Eta gero izandu zun, gure aitak izandu zun afiziyo haundiya, ez zun... hamahiru urtetan lanian hasita ez zun kultura mailla, baiño gustatzen zitzaion irakurtzia asko. Liburu asko-ta irakurtzia, ta orduko bizimodu hartako zeak nazionalismoan bueltan ta Sabino Arana hemendik eta Sabino Arana ta mundu hartan, ba, bizittu izandu zien, ba, esaten dena, "a tope".

#### 4.30. Bizilagunen marruak gogoan

- **Hizlaria(k):** Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-028/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Oso txikia zen Maritxu gerra piztu zenean. Hiru urte eskas izango zituen. Hala ere, gogoan ditu bizilagunen marruak, semea gerran hil eta gorpua non zen ez zekitela eta.

#### Transkripzioa

- Hor zu oso gaztia ziñan, baiño 36an, gerrako urte hortan, zuk bi urte o hola izango zenitun.

- Hiru.

- Hiru urte.

- Hiru urte.

- Eta, jakiña, ez dezu gogoratuko orduko... badezu oroimenian gerra garaiko konturik?

- Ni gutxi gogoratzen naz, horrengatik esan nizun. Gerrako denbuan, jo, gogoratzen naz ni hemen aurreneko bizitzan bizitzen zan andre bat izena zuna Genoveva. Eta harrei in ziyoten anai bat, ez dakit, gerrako denbuan-o ez dakit noa eraman zittuztela ta hil in zutela ta ez zekiyela non zeon, non sartu zuten ta. Ta gogoratzen naz nola egoten zian marruez. Marruez. Hoi gogoratzen naz. Marruez.

#### 4.31. Sotora, kupel artera, sirena hotsarekin bat

- **Hizlaria(k):** Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-028/013
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Maritxuren familia ez zen gerra garaian Errenteriatik atera, etxean hiru haur txiki eta anaia Batista 1936an jaio berria baitzen.

Fabriketako sirena hotsak eta bonbardaketa abisuak izaten ziren garaiko korrikaldiak eta gora-beherak gogoan ditu. "Batall&ocute;n de trabajadores" delakokoak On-bide zinemara biltzen ziren lotara, eta gurasoek ez zieten hurrei hara gerturatzen uzten, han izaten zen arkakuso eta zorri pilagatik.

### **Transkripzioa**

- Gerra... Gerrako... Eta gero, pues, gu ez giñan jon hemendikan. Hemen geldittu giñan, porke amak zittun hiru ttiki, ta gero, zea, mutilla jaiotzeko zeon, porke gure Batista treintaiseisian jaio zan. Eta ez giñan muiitu hemendikan. Ta sirenak hasten zianian, "iiiiiii" fabrikako sirenak-eta jotzen zittuzten. Eta gero, pues, hoi, bonbak-eta botatzen zittuzten, ta "[Hara! Hara!] Goiko kalian bonba! Goiko kalian bonba!". Eta hola zerbait, biñon gutxi. Eta sirenak hasten zianian, gogoratzen naz korrika danak goitik behera jeisten giñan, eta sartzen giñan hor bihian. Beheko zean zeuden barrikak, porke itten zuten sagardua. Hor zeon... Ekartzen zittuzten sagarrak ta hor itten zuten, ta han atzetikan pasatzen zuten ta hemen saltzen zuten sagardua.

- Saldu iten zuten?

- Saldu itten zuten sagardua.

- Eta barrikak zeuden?

- Bai. Eta zeuden barrika haundiyak. Eta hara josten giñan. Ni gogoratzen naz hor barrikan ixil-ixilik eta nola egoten giñan. Eta gero, berriz, pasatzen zanian dana, berriz gora. Bai, biñon gutxi gogoratzen naz. Gero gogoratzen naz, ez dakit "del Batall&ocute;n de Trabajadores" o zer ekartzen zittuzten, ta etortzen zian horrea, On-bidea, atze hortaa /atziortaa/. Zine haundi bat zeon, "cine On-bide", eta hor sartzen zittuzten. Eta lo ta danak. Eta gue ama beti erritan: "Ez jon horrea! Zorriya ta zikiña besteik ekartzen ez duzute ta!". Klaro, haiek erropa zikiñakin-ta, gaixuak!

- Eta zuen amak o aittak o ez zittun kontatzen hola gerra garaian herriyan gertatutako kontuak?

- Bai, kontatzen zittuzten. Bai. Gue anaiak gehio, biño kontatzen zittuzten. Hor bidian nola jarri zittuzten zakuak eta; etorri tropa batzuk etorri ta ezin pasa ta. Kontatzen zittuzten hola gauzak, biño ni ya... Ni oso ttikiya nitzan ta oso gutxi gogoratzen naz ni.

### **4.32. Eskola publikotik mojetara**

- **Hizlaria(k):** Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Erref:** ERR-050/005
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:13:13. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Umetan fede kristauan hezitakoa da Maritxu eta sinismen berei eusten die gaur egun ere. Txikitan eskola publikoan ibili zen arren, errepublika garaian eskola kristaura aldatu zuen amak, ez zuelako nahi alaba hezterik gurutzea ukatzen zuen eskola batean. Mojen eskolan josten, brodatzen, kantuan eta errezoan trebatzen zituzten haurrak. Neskak eta mutilak bereizi egiten zituzten, garai batean gizonak eta emakumeak elizan bezalaxe.

## Transkripzioa

- Ezlijiyuak pisu haundia zekan lehen.

-Bai. [Leheno...] Nik neonek, uain bertan'e, nik fede haundiya dut. Nik lehengo zea segitzen dut; lehengo martxa, igual-iguala. Eunero joaten giñan mezeta, errosayoa... Leheno eliza zen kontua. [...] hamahiru urtekin hasi nitzan, eta... Zea... Uain bezela kalia pasiatzen ez. Neska gaztiak'e, fabriketatik eta atera, ta leheno itxian josten zen erropa, zergatikan uain bezela ezpaitzen erropa josiyik saltzen. Saltzen zien, zeak, piezak, eta josten ikastea! Uain bezela kalia hola pasiyuan? Igande arratzaldian pixka bat. Ta neska-mutilak eta? Keba! Ta uaingo posturan? Bu! Ez, ez, ez...

-Nola joan zifien zu josten ikastera?

-Pues, zea, itxe batea. Osea...

-Jostunakin?

-Ni bezela, neska gehio... Hau ere josten iblli zen, ni're bai, orduan denak! Uain bezela, botoi bat jartzen ez dakitenak? Ez, ez, ez, ez... Jersiak itten, galtzetinak itten... Osea, zaharrenak txikiyagoai, zea, itten... Dena hola, aprobeztatzen. Eta otordua're, illa... Eunero ez, baño gehienian babarrun gorriya izaten zen. Ta geo aza. Eta azai odolkiya sartu eta handikan puska bat, uain bezela portriak eta ere ez. Beste, beste, beste modu bat, beste modu bat. Igandia etorri ta meza nausira. Arratzaldian bezpeeta. Ni, egiya esan, eskola publikuan-edo hasi nitzan. Baño republika denbuan gurutzia kendu zuten. Ta gurutzia kendu zutenian, nere amak etzun bere alaba han ikusi nahi. Ta in niñun Hijas de la Cruz, monjak zian, ta kolejiyo hartara eman. Ta han eakutsi ziaten edukikaziyo haundiya. Dena erderaz eh! Hoi bai. Nik dena erderaz ikasi dut.

-Republika garaian ere bai?

-E?

-Eskola publikuan ere bai dena erderaz?

-Ez. Nik esan nahi dizut, nik... Bai, orduan bai! Dena erderaz itten zen. Ta zean e'bai, Hijas de la Cruz-etan'e, Hijas de la Cruz zian mojak... Ta nik, egiya esan, ne oraziyuak, ne konfesiyuak, ta nik gauza hoik danak, uain bertan'e erderaz itein'ttut, hala ikasi nun ta! Ta hola...

-Ta eskola publikuan ze ikasi zenun?

-Txikiya nitzan! Baakizu, [ni], zea, zenbat urtekin jungo nitzan mojeta ba!? Igual, eskolan hasi nitzanian, eztakit ba nik zenbat urte izango nittun? Bost, ez dakit /eztakit/, bost urte edo... Ez dakit, ez dakit /Eztakit, eztakit!/ Bai. Orduan [...] gurutzia kendu zituzten...

-Eta han, eskola publikuan, gogoratze zea zein zan maistra?

-Señorita Teresita. "Porque claro", parbuluak edo esaten zen, txikiya, geo ia monjeta.

-Eta, monjetan, ze irakasle edo euki zenitun?

-Monjak.

-Monjak? Bat baño gehio...

-Bai. Segun ze edadia, [...] ta oso ederki, errezatzen. Uain bezela ez ziguten deportia ta holako gauzik itten. Arratzaldian, bainika ikasten, osea, dibujuak, osea, pixka bat bordatzen, josten, edo puntu itten, holako gauzak erakusten ziguten. Ta gero esaten genun eunero errosayua, edo kantatzen, zea, josten ta ai giñan bitartian. Bai...

-Han denak neskak izango zineten?

-Bai. Muttikuak ibiltzen zian zazpi urte arte bakarrik. Zazpi urtian ia atera [behar] izaten zuten. Leheno, leheno etzan neska-mutillak. Keba. Keba, ez, ez, ez. Elizan bertan'e, leheno, gizonetzkuantzako, alkiak zian, ta emakumiantzako, sillak. Emakumia, zea, sillaik gabe geatu, ta nahiz alkiyak hutsak eon, edo lekua izan, lurrian belauniko. Errespetua. Hala errespetatzen zen.

-Orduan, elizan ere aparte?

-Bai. Lehenoa bai. Aspaldiko kontua dia, eh! Aspaldiko kontua dia.

#### 4.33. Gerra Zibila hasi zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/009
- **Iraupena**: 0:10:00. **Hasi**: 00:22:04. **Bukatu**: 00:32:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  - Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Hamabi urte inguru izango zituen Maritxuk Gerra Zibila hasi zenean. Ongi gogoan ditu erreketek Erreterian egin zituzten sarrera saioak, eta baita osaba-izeben baserrian milizianoak nola egokitu ziren ere. Behin soinean zeraman jertse gorri bat kendu omen zioten eta bandera moduan eduki omen zuten teilatuan. Anaia eta ama bizitza galtzeko arriskuan ibili omen ziren, ganaduari bazkatzen emateko borroka piztua zen tokietatik igaro behar izaten baitzuten. Gerraren kontra dago Maritxu, senideen artean sortzen dituen hausturak penagarriak zaizkiolako, batez ere. Dena den, gerrate zibila bukatu eta gerraostea gogorra izan bazen ere, euren etxean diktadura urteak bakean eta lasai igaro zituztela dio.

#### Transkripzioa

-Ta zu akordatze zea gerra nola hasi zen?

-Bai. Gerra hasi zanian nik hamabi urte, hamabi urte... Bai, orduan, bai, martxuan, osea, apirillan in nun, ta gerra hasiko zen, pues, en julio. Bai. Nola Errenteiyan izan genittun, gerra, osea, bai...

-Zer gertatu zen Errenteiyan?

-Errenteiyan ze gertatu zen? Gauza pranko. Uain; danak esatia ba... Gue familiyak'e sufrittu zun. Odolian. Ta ez dakit komeni den esatia.

-Ez badezu nahi ez. Ze jun zian soldadu? Ala bestela...

-Eh?

-Soldadu ta ibili zian? Soldadu junda?

-Oh, soldaduak, Jesus! Itxian! Gue ama gaixuak makina'at erropa garbitu ziyoten! Zea, milizianuak: ke moruak heldu ziala ta, zea, petxuak ebakitzen zittuztela ta, gezurra! Sartu zian trankillamente! Lehendabizi sartu zian, zea, herriyan [...] hola menditsu, bueno menditsua edo, ta han in zuten, atzea joan behar izandu zuten. Ta hil zian sei edo zazpi erreketek. Eta bat geatu zen hanketik erittuta, nere aitona ta amonaren basarriyan. Aurrea joateko gauza etzelakoz. Ta nere izeba gaxuak, [...] gixaajuai ze ingo ziyon! Kafesnia eman, ta geo [guck] kura in. Eta gizaajuak sos zittun sosak nere izebari eman ziyon, hiltzen bazuten'e meza ateratzeko. Ta geo milizianuak eta gudariyak eta danak nahaste'zian, in zian baserriyan jabe. Asturianok'e bazian. Biño Errendeiko jendia're bai ta... Eta oyian, batzuk nahi zuten hil. Beste batzuk ez. Been artian diskutitzen. Eta atzenian in zuten hil. Nik aittu izandu dut, erittua, ezin dala hil. Geo, igual gizajua hankian, hankian zea, bala zulakoz aurrea joan ezik. Ta geo, hil zutenian, pues, gorputza in zuten zakurrak bezela kanpoa bota ta han... Ta nere izebak, nere osabak, nere amari esan ziyon: lehenoa, nere osaba ona izan baldin bazun beretzako,

faborez, hango mutil gizaajo hua handik biltzeko. Ta bildua zeola. Ta nee amak esan ziyon etzetz. Bea orduan handik heldu zela, eta hua han zeola. Eta baserriya pues, eondu zen milizianuan mende, eta ne izebak, gertatu zen familiya izatia. Ta nere izebak nahi zun ikustea jua. Ta bea bakarrik jua gabe, esan [niñu], esan zian neri aber galdetuko niyon. Ta ni joan nitzan jerse gorri batekin. Eta izate izan behar izaten zan, harrea joateko, zea, kontrola pasa behar zan. Ta ayuntamentura joan ta txartela bat atera. Eta kaletikan, pues, bastante, bai, zenbat denboa egongo da baserriya hua? Este... Geo jua zian milizianuak. Aber baserri harta joan giñan emakume bat neska koskor batekin, jerse gorriyakin. Ta nere jerse gorriya banderaz eondu zen tellatuan! Horrebeste denbuan! Nola... Ze nahi zu? Nere jerse gorriya bandera jarrita!

-Milizianuak bandera moduan jarri zuten...

-Esan dizut ba! Milizianuak, eta gudariyak eta danak alkarrekin zian. Ez, asturianuak'e bai. Zergatikan nere ama ta nere anaia, klaro, osaba ta izeba, berriz, han balak baizian, balapian, ta han ez eotetikan, pues, kalea jaitsi zian. Ta, baserriyan, badakizu, behiak eta ganaduak, ta jaten eman behar! Ta nere anaia, hamabost, hamazazpi edo hamasei urtekin, joaten zen ta nere amak, bakarrik utzi gabe beste [biak], iten zion lagundu. Ta eunero joan behar izaten zuten zergatik jaten eman, esnia jaitsi, ta gauzak iteko. Ta aitzen zian balan soñua beak aitzen zutela! Baiño, ez pentsatzen! Ez konprenditzen... Ta holaxen, bai.

-Arrisku haundia.

-Arrisku haundiya. Bai. Arrisku haundiyan ibilli zian. Eta, barkatu, ..., e... Geo behintzat denak bizitu giñan erdiko kalia hortan. Eta geo, hurrungo sarrera in zuten, lehendabizi, ez dakit /eztakit/ ze hilletan zen... Geo in zuten berriz reketiak, berriro, ta in zian el trece de septiembre, sartu. Ta haik sartu zianian, pake-pakian. Han [etzan deus'e] gertatu. Ayuntamentura joan zian, ta bandera espainola jarri zuten... Ta han etzen ezer'e gertatu. Ta elizan, parrokiyan, milizianuak eondu zian. Gu lehendabiziko gauza, ni bezela beste asko, ni umia nitzan biño, bestiak egitten zutena! Zea, eliza joan, eliza garbittu, hurrungo egunian meza emateko moduan jartzeko. Eta hala. Ta haik reketiak! [Iñoi] deus'e in! Kalian kantari ibiltzen zian gizaajuak! Ta guk amistadiak in genittun! Baakizu. Ni mintzat... Guen gerra hoi izandu zen. Geo, pues, anaia're gerra joan behar izandu zun, hemezortzi urtekin, ta nere ahizpa bat'e, gaixua, [zeruan] gerta dedila! Biño hemezortzi urtekin, itxe batian eskailerak fregatzen ai zala, interina, hua're kartzela eaman zuten. Ta Erreteriko gudari batek. Ezaunak. Ta geo, eon zian, eon zian zentro liberalian. Ta itxetikan otordua-eta ematen zitzaiola. Ta gue ama, nere ama, bere ama, pues jua zen bazkaiyakin beti bezela, ta han etziala. Ui, nun dia! Nun zian jakin ez! Geo enteratu zian, edo enteratu giñan, barko zahar batian Donostira eman zittuztela. Ta euki zittuzten barko zahar batian Donostia, oi Donostian... Bilbaoan, gaixki esan dut: Bilbaoa.

-Hori zure ahizpa?

-Bai. Nere ahizpa. Ta nere ahizpa bezela, beste Errenteiko geyo're. Zergatikan oain esaten ai dia alleka bateko kontuak. Biño bitakuak jakin ber dia. Gerra gauza tristia da. Nahiz batentzako, ta nahiz bestiantzako. Zergatikan izaten da alkar ezin ikusiya, zea eztakit zer, baakizer, heriyotzak... Nik hoi esaten dut: gauza oso gauza tristia da. Ta batez ere hemengua; senide artekua. Senide artekua, hoi zen gauza tristia. Eta geo, Frankok, nola ez dakit nola moldatu zen, in zun konbeniyo bat, ta etorri zian kartzelatikan, bueno, kartzelatikan ez, barkotikan, el once de octubre. Nuestra Señora de Begoña. Hua poza! Hua poza! Gaxuak! Ta Errenteitikan beste geyo're, gizonezkuak, eman zittuzten kartzela. Gizona gizaajuak, fabrika ta errosayua ta eliza beste kontuik ez! Karlistak zialakoz! Ta

norbeak ez al du deretxua be opiniyua izateko? Ta in zittuzten bost hil!  
Asalto batian, en El Carmelo.

-Bilbon?

-Bilbaon, bai. Attona gizaajuak! Jesus! Edadekuak eh! Bat baserrikua!  
Bestia, fabrika, galleten lanian aitzen dana, bestia fabrika haundiyan,  
bestia mutil gaztia uaindikan, bai, zea, Hijas de la Cruz, Agustina hoiek  
baatzan lana iten ziyotena. Jende sentzillua! Haik'e han geatu zian! Ta  
beste asko, bueno, asko baitzian! Ta hoik ez dittuzte kontu hoiek esaten  
uain. Uain dana beste allekakua!

-Dena esan behar da.

-Nik hoi esaten dut! Dena esan bihar da. Jakin bihar da. Nik konprenitzen  
dut. Nahiz alleka batian ta nahiz bestian, itten diala gauza asko.  
Horregatikan, gerra tristia da.

-Sufrimentua ekartzen du gerrak.

-Hombre! Ta geo, pues, gerran gertatzen dena! Geo dena mixeriya! Hoi bai,  
pasatu behar izan genittun, pues, gosia, dana rasionamentua, pixkat altxa  
bitartian, baño geo altxa zanian gu primeran bizitu giñan! Pakia, berrogei  
urtian! Eta geo, eliza, aiba, zea, eliza libre! Eliza libre!

#### 4.34. Ahizpa itsasontzi batean preso

- **Hizlaria(k):** Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ERR-050/010
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:32:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena:** Maritxuren ahizpa Karlista izateagatik ontzi batean izan  
omen zuten preso, errenteriar gehiagorekin batera.

#### Transkripzioa

-Ta zure ahizpa esan dezu euki zutela barku batian.

-Bai.

-Han preso?

-Preso, bai, bai.

-Barkutik jaitsi gabe?

-Bai, bai, preso, preso. Handik, kartzelan eon biharrian'o, pues barkuan.  
Barkuan, barkuan eman zittuzten ta.

-Bera ez zan eongo bakarrik, beste emakume batzuk? Ala gizon ta  
emakume?

-Ez... Emakume... Errenteitikan bertatikan'e bazittun, makina'at. Bera  
bakarrik ez zen /etzen/.

-Emakume gehio?

-Bai. Amonak e'bai.

-Amonak e'bai?

-Bai. Amonak e'bai.

-Ta, zergatik, Karlistak zialako?

-Klaro. Beste falloik gabe! Nere ahizpak'e ze, ze, ze? Eskailerak pregatzen  
ai zan emakumiak ze ingo'u?

## 5. Familia eta harremanak

### 5.1. Berri txarrak

- **Hizlaria(k):** Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ERR-001/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Lagun bati esker jaso zuten Begoñaren etxeokok frontera joanak ziren lau senideren berri. Alejandro hila; Felipe preso Santoñan, bi heriotza-zigor egozten zizkiotela; aita eta Sabin, seme gazteena, Frantziara ihes egiten saiatzera zihoazen.

#### Transkripzioa

- Ba, prisionero Laredon-o in zuen, ta gero aurrena Santoña. Eta guk, klaro, ez gendun gizonan berriik ezer'e, hainbeste denbora! Ta gero, hemengo bat, harek bi koiñadu zittun junak eta jun zan ta harek ekarri zun notiziya: Alejandro hil zala ta Felipe Santoñako kartzelan zeola, bi "pena de muerte" atera zizkela, eta aitta ta Sabin, gaztena, berriz, Frantzia pasa ziala. Orduntxe lasaittu zala esan zun Felipek, ya haik Frantziako bidian jarri zittuenen. Zegatikan, zea, mutil koskorra balitz bezela, nola umek-eta bakarrik, umek eta zaharrak bakarrik pasatzen zittuen barkun, behintzat mutil koskorra balitz bezela, galtza motxak eta zeakin. Ta aitta, berriz, bizarra ta alkandora zahar batekin ta zean, ta behintzat Frantzia pasa zittuen ta. [Alperrik] zan. Ez dakit zenbat denbora pasa zuen ta, azkenian, etortzia... etorri nahia, etorri nahi bazeuken, baiño 41ko kinta zan, ta etortzen bazan, Francon aurreneko frentea eramango zuen.

- Hori Sabiñeatik ai zea, txikiyaatik?

- "Primera línea". Komerik, bai. Ta gero, hala, ba, Urzabal hortan bizi giñan ba gu're. Eta bueno.

### 5.2. "Haria, mataza, loria" sokasaltorako kanta

- **Hizlaria(k):** Lizaso Eizmendi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ERR-001/045
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:34:14. **Bukatu:** 01:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** Sokasaltoan aritzeko kanta abesten du.

#### Transkripzioa

- Ze kanta izaten zenuten ordun sokasaltuan? Gogoratzen al zea?

- Jesus! Makiña bat bai kantatzen giñun. Ze kantatzen giñun ba?

Sokasaltuan: "Haria, mataza, loria". Geo...

- Nola? Nola?

- "Haria, mataza, loria. Haria, mataza. Haria! Haria, mataza, loria". Aurrena hiru salto, gero bi, ta gero bat. Ta gero "Haria! Haria! Haria!"  
- Ta hor salto ta salto ta salto.  
- Salto ta salto. Galtzen zunak sokan eraittea.

### 5.3. 1924ko ekainaren 6an jaiotakoa

- **Hizlaria(k)**: Albisu Mendarte, Inaxito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-006/006
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:06:23. **Bukatu**: 00:07:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1924ko ekainaren 6an jaio zen. Donostiara gidabaimena ateratzera joan zenean, jaiotza-dataren gainean izandako anekdota kontatzen du.

#### Transkripzioa

-Noiz esan dezu zuk, jaio ziñela? Mila beatzireun ta...

-Hogeita lauean.

-Hogeita lauean. Ta hilabetea...

-Ekaiñian, ekaiñaren seiean.

-Ekainaren seian.

-Eta ikusi, anekdota politta da. Hau, agian ez...

-Esan, esan...

-Nik atera behar nuen konduzitzeko karneta, ezta? Eta joan giñen [Iradi], Donostiara. Ta joan giñen aitta ta biok. Eta neska batek, "bueno, aber: edad" [y tal...]. Ez; "¿De dónde eres?" "De Rentería" [...] "de Rentería"... Eta galdera gehiago... Eta galdetu zidan: "¿Qué años tiene usted?" "Estos sabrán mejor, mi padre... Porque yo era muy niño, muy niño cuando nací, y no me acuerdo". Hala, kastillanoz oso erraxa da nahastea sei eta "dieciséis"; "junio" eta "julio". Ta behar genuen Bigarren Gerra Mundiala, ze, "el día D", izan zen el seis de junio, ta orduan enteatu nintzen benetan nintzela ekainaren seieko tipoa, e! Gerra bat!

### 5.4. Ezkontzeko itxaron behar izan zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Otaegi Arrizabalaga, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-013/037
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:22:52. **Bukatu**: 01:25:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontzeko garaia iritsi zenean, etxekoei baimena eskatu zien. 24 urte zituela ezkondu zen Mila Erreterian. Ezkontzako bazkaria etxean egin zuten eta familiakoak elkartu ziren.

### Transkripzioa

- Ba, zuk esan zenien gurasoei ezkondu egin behar zenula?
- Bai, baiño lau urtera o hola. Lau urtera, bai. Ta maiatzian. Ta ez zuten nahi. Aiii... asko kosta... Ez nahi ez zutelako, baiño asko kostatzen zitzaion. Ta amonak esan zian: "Jo, itxoin in biharko duzute. Oaindikan preparatu ta dena itteko itxoin in biharko duzute". Bueno, ez zitzaion asko gustatu nere mutillai, baiño "Bueno, bueno". Setienbrian pentsatu genun gero. Pentstau genun setienbrian. Amai esan ta: "Jolin, nundikan... preparatzeko ta zea ta...", esan ziyon beak "Si estamos esperando a preparar, no nos casamos nunca, así que o nos casamos o no nos casamos. ¿Qué pasa?". Nere ama ixil-ixilik eta "Bueno, bai". Hor ezkondu giñan Arantzazuko Ama Birjiñan egunian.
- Izaten dala... Ze eguna da hoi?
- Bai.
- Ze egunetan da? Ze egunetan izaten da?
- "El día nueve de septiembre".
- Aaa. Ta ze urtetan ezkondu ziñaten?
- Ba, ni hogeta lau urtekin eta bea hogeta bostekin. Urte eta erdi zen zaharragua ni baiño.
- Hemen Erreterin ezkondu ziñaten?
- Bai. Hemen jaio nitzan eta bataiatu´re bai, hor. Komuniyua´re hor in nun eta ezkondu´re hor egin nitzan.
- Eta nun egin zenuten bazkaria gero?
- Itxian! Oillaskuak eta zeak zertako zian? Itxian orduan! Bai, dena itxian.
- Eta ze elkartu ziñaten familikuak?
- Bai, familikuak juntatu giñan.
- Zure familikuak eta bere familikuak.
- Klaro, aman ahizpak eta lehengusuak; haien... gu bezela, haien familiya. Denak juntatu giñan. Han itxe... komedore haundiya genun. Mahaia, berriz, hau baiño haundiagua izango zen eta honenbesteraño zabal. Eta bai, itxian in genun dena.
- Eta menu berexiya izango zan ba ezkontzakua, ez? Janari berexiya o...?
- Bueno, bizilagun batek lagundu ziyon amai ta ez naiz gogoratzen. Oillaskuak ziala badakit. Salda ona bai, gure itxian ez da sekula falta, ta hauen itxian´e ez. Salda ikaragarriya, ona. Eta geo beste... ez dakit postriak o ze izango zian. Gero zezer... ez dakit zer. Ez naiz gogoratzen ya.

### 5.5. Jaioberria zaintzeko sehaska, arropak eta fardelak

- **Hizlaria(k):** Otaegi Arrizabalaga, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-013/042
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:34:12. **Bukatu:** 01:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
  - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena:** Etxean sehaska handi bat zeukaten. Jaioberriarentzako arropak erosi egiten zituzten. Umeen fardelak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

### Transkripzioa

- Eta haurra eukitzeako etxian gauzak prestatzen zian? Ba, umian gela, o sehaska o arropak o... ze preparamen zian?
- Bai, sihaska... sihaska beti. Gue etxian beti izan zen sihaska. Nere aman itxian zen sihaska bat ohia bezela.
- Haundiya.
- Hau bezelakua sihaska. Ikaragarriya. Han hazi zian nee umiak.
- Eta gero arropak-eta zer egiten zian, eskuz baita´re? Umian arropak-eta jaioberriantzat eskuz iten zian?
- Ez, nik ez nittun... Erosi itten genittun orduan, bai. Ez, eskuz ez.
- Eta gero, pardelak-eta ez zeuden oain bezela. Paketiak-eta ez zian...
- Ez, paketiak ez. Maindiriak jartzen zitzaion orduan maindire bat ta geo mantatxo bat eta haiekin. Haiekin egoten zian. Ta pixa iten bazuten, asko ta asko umiak, zenbait, dena pixa inda ta dena zea ta... oso zikiña zen hua.
- Ya, oain baiño zikiñagua.
- Oso zikiña zen hua.
- Ta ze iten zenuten, zinkintzian kendu...?
- Bai, kendu, ta garbitu ta beste batzuek jarri ta hola.
- Garbitu ta gero berriz erabiltzeko, klaro.
- Bai, bai, bai. Orduan ez zen holako gauza politik. Oain nere illobatxoak dabilzkiten gauzak! jolin!

## 5.6. Gerrako bizimodua Santurtzin

- **Hizlaria(k)**: Paskual Zapirain, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-021/011
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:21:49. **Bukatu**: 00:23:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena**: Aita hilean behin etortzen zen etxera gerra garaian. Mari Tereri bere amaren lagunak eman zion titia ume zela.

### Transkripzioa

- Hiru urte pasa zitun aitak gudan.
- Bai.
- Hiru urte.
- Bai, hiru urtekua izan zen guda, ezta? Bai, bai.
- Eta etortzen zenian, klaro, izango zan egun berezia zuentzako.
- Onbre! Egun bat, e? Egun bat izaten [zen]; eguna, gaua, ta gero berriz jua in bihar zuten.
- Hori da. Ta ze iten zenuten? Elkarrekin bazkaldu ta...?
- Normalian izaten zen afaria, baiñan bokadilluak. Orduan ez zen bazkaltzeko modurik! Bokadillua. Ta, bueno, bokadilluakin lauak; ta gu bi neskak. Gaiñera, nere amaren lagun hori, nere amak ez zaukan bularra nahikoa ni jaio nintzarian, ta horrek zaukan gehiegi. Ta, orduan, haren bularrakin ni haziya naiz. Ta orduan maite giñan bi ahizpa bezela bi gazteak. Bai.
- Orduan ohitura izaten zan hola, ez?
- Bai!

- Bat bestian titiakin...  
- Bai, bai, bai, bai. Zuk ez baduzu titia! Ta titia zen ona ta, gaiñera, merkeena ´re bai. Ba, beak ematen zian titi bateti, zeatikan harek asko zun, eta titi bateti ematen zian hark. Manuela izena zun eta bere alabak Konsuelo.

### 5.7. Errepublikara garaiko alkateari gerra ostean emandako babesak

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-023/017
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:49:17. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika  
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Erreterian errepublikak iraun zuen bost urteetan Paulino Garcia errepublikanoa izan zen alkate. Denbora batez kanpoan egon bazen ere, laster itzuli zen herrira eta bere jostundegiarekin jarraitu zuen normal-normal. Garciak babes handia izan zuen herrian gerra ostean.

#### Transkripzioa

- Ze hemen karlistak zeuden, "Centro Republicano" ere bazegon...  
- Bueno, bai, errepublikanoak... Bueno, Errepublika... [...] gauzik iñok esplikatu ezin duana da nola Errepublika guztiko urteetan alkate errepublikanoa izan eta ezer pasatu ez izana horri. Eta nik ez dakit gerra-ondoren zenbat denbora egondu zan kanpoan, baiñan gero etorrira ´re bere sastreriya zeukan calle Biteri kalean. Calle Biteri kalean, Garcia.  
- Zenek?  
- Alkatea izandu zanak Errepublika garaian. Osea, bost... Osea... Bueno, alkate errepublikanoa zergatik? Ba, nazionalistak eta karlistak konpondu eziñean, nazionalistak nahiago izandu zuen alkate errepublikanoa. Eta egondu zan Garcia. Eta gizon horretaz ze gutxi [esan...]. Eta gero, gaiñera, hori nik umetan... gu umek giñaneako ya Erreteria itzulia zen, eta iñork — nik beti galdetu izandu dut— iñork ba al daki zer babes haundi izandu zuan Paulino Garciak? Oso gizon jatorra, e. Paulino Garciak ze babes izandu zuan gerra ostean Erreterian! Nik uste, hain azkar etorri, ta berriro bere sastreria, calle Biterin zeukana, bere langille eta bere...  
- Martxan segitu zun?  
- Bere negozioakin ta bere seme-alabak eta danak ondo atera zirenak eta. Paulino Garciak noren babesak izandu zuan karlisten munduan? Baiño norbaittek, dudarik gabe, babestu zun Paulino Garcia. E? Zegatik ez zan edozer gauza, e? Alkate, bost urteetan bera izandu zen alkate.

### 5.8. Gerra hasi zeneko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** ERR-024/008
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerran, etxeko leihotetan koltxoak jarri zituzten babesteko eta etxeko eskaileretan egiten zuten bizimodua bizilagun guztiak. Bizilagunen artean batasun handia zegoen. Amaren laguna beraien pareko eraikinean bizi zen eta balkoitik hitz egiten zuten.

### Transkripzioa

-Gero, guk jarri genitun, leihotan, agindu ziyoten gure gurasuai-ta jartzeko, koltxoak. Eta koltxoak jarri genitun, eta ez dakit zenbat eunetan egondu giñan, baiñon, eskailletan. Ta eskailletan janariyak-eta jaten genitun. Emakumiak, ba, sukaldian prestatzen zittuten eta geo, eskailletan jan. Ta han egun batian jan genittun patatak; patata egosiyak. Ta ez naiz goatzen, o goatzen naiz, ze goxuak zian! Ze onak zauden! Gosia izango genun, orduan ya.

-Ta, han eskailletan, bizilagunak alkartuko ziñaten...

-Denak, bai, bai. Bizilagun gauza ez zen uaingu hau. Uaingu hau, batak bestiai buru gaiñetik beitu, iya agurrik eztia elkarri iten, ez dute izautzen laugarrena bigarreguak... [...]. Orduan denak, itxe guzitan gañea iya berdin zen, e! Iya, iya masa bat zen goiko kalia.

-Atiak irikiyak eukitzen zian? Etxeko atiak.

-Bueno, guk sarraila txarra bat bagenun. Hari're eman behar zitzaion, zeatikan beiñe ez zenakizun zein etorriko zan o...

-Baiña elkarlaguntza gehio, esaten dezu...

-Jesus! Jesus! Ni goiko bizilagunana gehiena joaten nitzan.

-Eta zerbaitte falta zanian edo...

-A, bai, bai, bai... Beti hantxe ibiltzen zian, denak, e! Gure etxian denak ibiltzen zian ta geo, nere amak, launa zun beste etxeko bizilaunak. Eta topo aldea jotzen zun aldetik, ba, topo aldea jotzen zun aldetik, balkoiak genitun. Eta bi andriak, hartu makil bat, o eskoba, eta balkoian jotzen zun zerbait behar zunian: kan-kan-kan-kan-kan... Ta bestiak: "Zer? Zer? Ze nahi zu?" ta "zuk ba al dezu..." betikua, o patata batzuek, o koipia, o binagria, o... Beti! Hoi korrientia ibiltzen zan. Etxian ez zauden osatuak uain bezela, ezta, ezta... Bueno.

-Beti zerbaitte falta ez?

-Bai. Beti ahaztu ta...

-Hoi da.

-Bai.

-Eta gero ordaiña ematen ziyon eta beti, relaziyuak hobio ezin zian izan.

### 5.9. Aitaren adorea gerran

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Aita abertzalea zen eta bere konpainiako soldadurik zaharrena zen; atzeguardian egoteko eskaini zioten, baina aitak ez zuen onartu, Euskadi defendatzera joan baitzen gerrara. Aita gizon umila zen eta etxea zen bere lehentasun nagusia.

### Transkripzioa

-Zure aita abertzalea zan...

-Bai. Boluntayo joan zen.

-Hoi da.

-Izandu zen bere konpañiko gizonik zaharrena. Soldadurik zaharrena. Eta esan ziyoten, nere aitai, ba bueno, "zu, Mateo, zu adinaz aurrera zabilta ta zu retaguardian geldituko zera". Ta nere aitak erantzun ziyon: "zu, hor dakaizkizun gazte hoitakon bat bakarria billatzen bauzu ni baiñon gehio dala, orduan bai." Eta ixil-ixilik-eta: "bueno, bueno, segi". Nere aita gerra joan zen Euskadi defenditzera.

-Nola zun izena?

-Mateo Zuloaga Etxeb... Salaberria. Ez, Zuloaga Salaberria. Ez. Bai, bai ama zen Narbarte.

-Eta aita, gerra aurretik eta, klaro, abertzalia izanta ba, batzokiyan, herriyan eta hola ibiltzen zan?

-Ez zan ... Nere aita ez zan, ... ez zan... osea, sozial moduko gaia ez zun, osea, zen, nik ezautu nuna bezela, gizon umil bat; lehendabizikua zen itxia, eta itxiagatik eman zun zittun kemena guziyak. Behinez juerga bat, behinez zurruta... Igande batzutan launakin ateatzen bazen! Baiñon bestela ez tabernara ta... Bai! Launakin baldin bazuaz ta "E! Mateo! Goazen hartzea hau!" ta jua ta pun. Hola. Baiño inizatibik gabe eta, bestelare, beste bere laguna batzuk eta joaten zien han, kartetan jolastea ta abar eta tabernara, baina nere aita raro zan, raro zan.

## 5.10. Cipriano Fernández Landa

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Iñaki

- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne

- **Erref:** ERR-027/036

- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:00:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Cipriano Fernández Landari buruzko anekdotak kontatzen ditu: "la letra con sangre entra" lemaren aldekoa.

### Transkripzioa

- "Plaza Cipriano Fernández Landa". Badakizu zein zen Cipriano Fernández Landa?

- Ez.

- Ba, hor... hor, plaza... plaza badakizu non den, zea hori; hori da "la plaza Cipriano Fernández Landa". "Natural de Matauco". Vitoriyan sarreran, Matauco, herri txiki bat. Hangua zan hoi, Cipriano Fernández Landa. Gure aittak... Gure aittan-ta maisua izandua! Gure aittan-ta maisua izandua!

Cipriano Fernández Landa. Harrek esaten omen zun: "La letra con sangre entra", orduko! Eta beste gauza bat gure aittak esaten zuna harrek esaten zuna, este... nola da esaera zea? "Acorta la noche y alarga el día. Santa... Santa Lucía".

- Ez dakit nola dan.

- "Santa Lucía, acorta la noche y alarga el día". Harrek esaten omen zun... Uste det esaera normalki esaten dela: "Santa Lucía, acorta la noche y alarga el día", ta harek esaten omen zun: "Corta la noche...", no, "Larga la noche y corto el día". Bueno, bi modutara uste dut gauz bera esan nahi dula.

### 5.11. Haurtzaroko oroitzapen onak

- **Hizlaria(k)**: Getaria San Pedro, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-049/003
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:05:48. **Bukatu**: 00:07:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Haurtzaroko oroitzapen onak ditu Juanitak. Eskolako moja euskaldunak ditu gogoan, baina hamabi urte betetzerako eskola utzi eta lanean hasi zen.

### Transkripzioa

- Gerra aurretik...

- Ez, nik gerra aurretik... nere anaia han jarri zen ta bai, gue... nola esaten da? Ttikitazuna? Leike hola esatia? Ona izandu zen neria behiñipin, nahiko ona.

- Haurtzaroa? Ume garaia ona?

- Bai.

- Ta zu eskolan...?

- A! Eskolan, bai, euskeraz. Monjetaa juten giñan, ta orduan monjak ere zien, ba... monjak eta prailliak eskola nahiko... Bai. Ta euskeraz itten genuen dena, biño gero ya bukatu in zen.

- Eta monjak, orduan, bazekien euskeraz?

- Bai, bai.

- Eta nungua zan ba?

- Monja? Ez dakit, ez naiz bate gogoratzen. Monja asko zien han.

Frantsesez-ta ematen zuten. Ez dakit, ez nizuke esango. Gezurra ez dizut esango. Hori bai ez dakittela.

- Eta zer ikasten zenuten?

- Dotriña asko. Dotriña asko. Eta, gaiñea, nik... nola esaten da? Erdaraz esaten dute "las lecciones básicas", utzi in behar izan nun.

### 5.12. Kalean jostatzen, aski lasai

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/003

- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Soka saltoan, txingoka, eta gisa horretako jostaketetan ibiltzen ziren txikitan. Carlismo Carlismo jasotako panpina berde bat bazuela gogoan du Maritxuk, baina gurasoek erositakorik, bat ere ez. Errege egunean ezer gutxi jasotzen zuela dio.

#### Transkripzioa

- Baiña, lehen ez zan ibiliko hainbeste kotxe.  
 - Ez, Uuuuu! Ezta pentzatu ere! Gu, zea, kalia, aski ibiltzen ginen jolasten! Edo Jostatzen! No jolasten ez. Jostatzen.  
 - Eta zeekin jostatzen zenuten?  
 - Pues, [loka] sokakin, saltoka, geo txingoka esaten gendun lurrian numeruakin ta han harri koskor batekin saltoka, eta geo, berriz, bat hor jarri ta bestia hemen jarri ta [...] Holako jolasketak! Uain bezelako jostailuak ez.  
 - Zuk panpiñik-eta, euki zenun?  
 - Bai. Biño behin, erregetan, ez nola zen [...] panpiña... Egiya esateko, Centro Carlismo emandakua. Muñeka berde bat, txapela berdiakin, soñekuakin, han emandakua. Gañontzen, eosiya, erregietan'e ez, erregeik, keba...  
 - Hori, muñeka hori zer zan kartoizkua?  
 - Ba al dakit nik kartoia ta zer zen? Ba, hala izango ze... [...] holaxe, kokorra zen eh! Hoi bai! Gañontzen gurasuak erosita keba! Uan bezela ezta pentsatu're! Erregetan'e ez. Ez, ez, ez, ez... Gu ixtuago bizittu gea.

### 5.13. Emakumeak taberna kanpoan zain

- **Hizlaria(k):** Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ERR-050/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Maritxuren ustez alde handia dago garai bateko eta gaur egungo emakumeen artean. Ez ditu ongi hartzen egun kalean ikusten diren hainbat jarrera eta janzkera.

#### Transkripzioa

-Lehen emakumiak ez zian tabernetara sartzen.  
 -Ez. Ezta pentzatu ere! Be gizona edo senarra, nahi duzun bezela, hua sartuko zen ta andria geatuko zen kanpuan, hua atera arte. Uain bezela? Ta zigarrua erretzen ta, ta... jesus, maria ta jose! Eaten ta, uaingo ibilerak eta, uaingo erretiruak eta, keba! Leheno, zortzit'ardik, udaran edo beatzitako ia denak itxea. Ta mutilak beak e'bai, [...] neska bakarrik, mutila beak'e... Eta herriko festak, madalenetan izaten zian, ta orduan hamabiyak arte edo ibiltzen baziñan, biño eguna zabaltzeko, denak itxea! Hoi bai. Hoi bai.

#### 5.14. Ama dantzazalea eta aita gizon serioa

- **Hizlaria(k):** Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Erref:** ERR-050/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Maritxuk ez du sekula dantzatzea maite izan; ama, ordea, dantzazale amorratua zuen. Aita oso gizon serioa eta hitz gutxikoa omen zen.

#### Transkripzioa

-Zuek dantzara jungo zinaten... igandetan...

-Ni, ba ni enaiz /ez naiz/ dantzariya izandu. Ez. Sekula ez naiz baile batea sartu. Herriyan izaten zen, Alamedan, izaten zen [band...], zea, musika ta geo tarteka ttun-ttuna. Biño ni dantzariya enaiz izandu. Ta ne'ama [batez'e] zan dantzaia. Zenbat bider esaten zun: "Nik ez dakit ze alaba dittuten! Hok...", zea, harek filarmonika aittu orduako, jartzen zen hua!

-Bai?

-Bai. Donostiarra zen. Ta oso emakume salada. Eta argiya. Hua ez zen / etzan/ lotzatzekua iñungana juatia. Ez, ez, ez, ez. Erderaz'e, zea, aitzen zen trinkilin-trankullun, biñon aitzen zen, erderaz hitz eitten'e. En kanbio atta bat'ez. Ba ama bai. Bai. Ez zun ondo hitzeiten aldeako, eh! Biño, biño...

-Ta amari, dantza itia gustatzen zaitzaion, ta kantatzia ere bai?

-Bai, bai, bai... Aita ez. Aita zen oso seriyua. Gizon seriyua ta errespetokua. Oso seriyua. Hitz gutxikua. Nahikua zun, bakizu, seniden artian, pues, umian kontua, hasarretu edo hola, bueno, haserratu, baakizu, eozein txoakei! "Ala, aita heldu da, eh!" Ta akabo! Ez zan gehio esan beharrik!

#### 5.15. Gazte-gazterik lanean hasi

- **Hizlaria(k):** Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Erref:** ERR-050/011
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Hamahiru urte bete eta fabrikan hasi zenerako, haur zaintzen ibilia zen Maritxu. Etxean ere hainbat egiteko izaten zuten: koltxoak artilez bete, izarak garbitu, etxeko fatxadari karea eman edo eta enkarguak egin.

#### Transkripzioa

-Ta sosik ez zen /etzen/ ta! Behin edade bat ezkeoz, zerbaitentzako gauza zea danian, ni neoni're hamahiru urteko fabrikan hasi nitzan lanian. Dirua bihar baitzen! Eta eskolatik ateratzen nitzanian'e, haurrak kontu itzea, sos bat ateratzeko. Eta bakaziyuak eta etortzen zianian'e ze uste'uzu, uain bezela? Lehen izaten zen koltxoia ardi larruakin... ardi...iliakin. Eta iten

[gen, zen...] ohitura, pues urtero-urtero koltxoia ittekua. Eta bakaziyotan'e, koltxoia amai launtzen, zea, makillakin hua harro-harro itten. Ta almuhadak e'bai. Geo manta garbitzen. Eta buruan baldia hartu ta labaderoa, bat'e lotsik gabe.

-Nun zeon labaderua?

-Pues herriyan bi edo hiru bazian.

-Erdiko kaletik gertu?

-Ba!... Ba!... Ez, denbo haitan gaztiak giñan, ta bai!, Bai, bai...

-Orduan, kanporako ere maindiriak garbitzen?

-Ez.

-Ez. Etxerako?

-Etxerako. Maindireak eta koltxoiak eta geo itxia zurittu're itten gendun kariakin. Ta hura're urtero, geok! Geok!

-Zuek?

-Ui! Zea, atta ta lanea joatzen zian ta, hor nere ama ta... Anaiak... Osea, itxian dena! Lujoik gabe. Goseik gabe. Baño sentzillo-sentzillo.

-Karia nundik ekartzen zenuten?

-E?

-Karia nundik?

-Han saltzen zen. Almazenen.

-Altzan?

-Ez. Almazenian.

-Ah, almazenian.

-Bai, zea batek, igeltsero batek. Igeltserua edo... Bueno, igeltserua biñon geyo, gero denda ere bazun ta, han saltzen zen. Eta kariakin [ixten zen lehen-lehen]. Ta holako gauzak!

-Orduan zu umetatik ibili zea lanian?

-Bai.

-Etxeko lanetan eta umiak zaintzen...

-Enkarguak eitten... "Aizu Maritxu, etorri pixaka bat! Ekarriko nazu ogiya, edo ekarriko nazu..." Sos bat ematen bazizuten, hua ez gastatu eh! Amai eman. Ta beste etxe batian'e, eunero itten niyon, itten geniyon, bai, haik ondo zeozten jendia zen. Ba, orduan'e bai baitzian batzuk baino besteiak hobeto zegoztenak! Ta haik itxian pues tartak eta in. Nei puska eman. Zuk uste'uzu nik hura jaten nula? Hua itxea eaman, ta han partittu, ta denak jan. Holako, hola bizittuak gea!

-Zintzo-zintzo.

-Bai. Zintzo jokatuta.

## 5.16. Etxean ura bai baina dutxarik ez

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/012
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:35:37. **Bukatu**: 00:38:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Igande eta egun berezitarako jantzi bakarra izaten zutelako kontatu digu Maritxuk, baita garbiketa pertsonalerako arraskan moldatzen zirela ere.

### Transkripzioa

-Eta erropa, berriz, zea, erropa bat armayuan ukuttu gabe, igandetako bakarrik. Hua meza nausira joateko; ta bezpeeta. O entieron bat o, joan behar bazendun inoako. Ta gainontzen... Ez oain bezela, holako koloria zapata, holako jantziya, holako... Ez, ez, ez, ez. Koloria ta ezer'e.

-Aste barrurako arropa bat ta iganderako beste bat.

-Igandekua, hua, ukuttu gabe. Uain ez da igarriten igandeko arropa den o asteunokua den, biño orduan bai. Orduan bai. Ta nik ze esango'izkizut, holako kontuak!

-Ta zuek dutxarik...

-Keba! Jesus, "dutxarik". Ezta pentzatu're! Iñun'e ez. Izango zen itxen bat noski [biño] keba! Urik'e, ura're, zea, bueno, ura izate gendun, bai. Biño ahal zan bezela arraskan garbitzen ziñan. Ta nee aman denboran berriz, haik erriyoa. Haurra tripan izan arren, baldia hartu ta erriyoa. Nahiz otordurako, nahiz garbitzeko, pentsa, dutxa, ze garbitasunak!

-Baiña zuk ezautu zenun ura etxian.

-Bai, bai, bai. Ura bai. Ura bai.

-Ordun, ama baño hobeto...

-"Hombre"! Hua, hua Igeldotik Donostira hankutzik etortze zen. Etortze omen zen. Ta eliza're bai, zergatikan bizittu zen Igeldon baserri batian. Iranguen izena zuna. Ta hua, [...] nik egiya esan ez dakit /eztakit/, ez naiz /enaiz/ behin'e jua, baiño itsasuan inguruan. Ta itsasuan lapak biltzen, eta ahal zuten gauzak bildu, geo kamamilluak, ta ahal zutenak eta, Donostira, etortzen ziran haik saltzea, ta hain diruakin, hola beitu, ta aber oliyo pixka bat o zerbate itxeko moduan. Gu, harren aldian, ondo. Jesus! Ta uain berriz, guen aldian, ze esanik ez. Uain kapritxua. Biño, ni neetzako, uain biño maitasuna gehiokin alkarrentzako. Ni neetzako e! Uain, nik [ez dut esaten] hala izango zala! Ni, nei, netzako bai, behintzat.

### 5.17. Ez dut nire herria ezagutzen

- **Hizlaria(k)**: Goitia Zuloaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ERR-050/013
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:38:02. **Bukatu**: 00:39:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Gaur egun baino txikiagoa zen Erreterria eta denek ezagutzen zuten elkar. Gerora, asko handitu da herria.

### Transkripzioa

-Tratua, jendian arteko tratua, goxuagua? Denak ezagunak izango ziñeten...

-A, bai. Denak ezagunak. Eta, kalia ikusi ta dena hitz... ez hitz egin, "aio!", o sea, ya baziñakizun nun bizi zen, nola izena zun, ze famili zian... Dena, bai, bai. Bueno, lagunak, herriya're txikiyagua... Aber, uain nola hasi den herriya!

-Asko aldatu da...

-Oooooo... Jesus! Errenrei famosua! Errenrei famosua, "por desgracia"...

-Lehen politagua izango zan...

-Ez.

-Zu umia zinala, ez zan, politagua?

-Ni bizitu nitzan tokiyan, uain bezela: eliza ta ayunta ... Oain denak igual-igual daude.

-Bai, hori bai, baina etxe asko in dituzte...

-A, "hombre"! Lehen basarriyak ta zian tokiyan itxiak ta bua! Jesus! Nik ez dut ezautzen Renteiya, zergatikan eondu naiz ez dakit /eztakit/ hamalau, hamabost urte itxetik atera gabe, gauza ez ta, hanketatikan! Asiske nik nere herriya ez dut /eztut/ ezautzen. Uain, berriz, gutxiyo.

### 5.18. Familiako harremanak

- **Hizlaria(k)**: Susperregi Zabala, Apolonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oliden, Garbiñe - Trullos, Sara
- **Erref**: ERR-056/001
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:14
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Poloni 1937. urtean jaio zen Errenterian. Bere familiako giroa eta harremanak nolakoak ziren kontatzen du.

### Transkripzioa

-Bueno aber nola dakazu izena eta nungua zea?

-Bueno, nik izena dakat Poloni ta naiz...ze esan behar dizut Errenteikua naizela edo jaiotetxia? Errenteikua jaio eta bizi.

- Ta ze urtian jaio ziñan?

- Hogeitahamazazpiyan, "mil novecientos treinta y siete".

- Ta zure etxian zenbat lagun bizi zinazten?

- Aita ta ama eta geo nik ezautu nittun sei senide giñan.

- Ta zu zenbatgarrena?

- Ni hirugarrena bizi naizenetan.

- Ta zure gurasuakin erlaziyua nolakua zan?

- Bai, batzutan haserretzen ginan baiño ba pasable.

- Ta zure ama ezkondu ta geo lanian jarraitu zun edo nola?

- Nere ama ezkondu zan basarritik eta bere bizi guziya geo ezkondu zan etxian bizitu zan, han intzun lana.

- Ta aitai errespetua ta hola nola zan?

- Bai aitai errespetua geniyon hola beitura bakarrik oso ondo, ta ama eun guztin erritan ta amakin ondo, baiña aitan beitura era mui...oso zorrotza.

### 5.19. Baserrian txikitan

- **Hizlaria(k)**: Susperregi Zabala, Apolonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oliden, Garbiñe - Trullos, Sara
- **Erref**: ERR-056/002
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:05:00
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Baserriko bizimoduaz dihardu Polonik. Txikitan etxean zituzten animaliak aipatzen ditu, eta umetan egiten zituen lanak

azaltzen ditu. Etxean kanpoko jendeari harrera egiten ziotela kontatzen du.

### **Transkripzioa**

- Eta gero etxian baratzaik edo ikulluik hola bazenuten?

- Bai, genitun beyak, ardiyak, ahuntzak, txerriyak... eta hayei jaten eman, ekarri jana, haik garbittu...

- Ta lanak zuen senideen artian banatu iten zenituzten?

-Bai, banatu itten genittun. Arratsaldetik bakarrik juten ginan ikastola, bueno eskola zan orduan, ordubitatikan lau terdita hola, ez giñan eunero juten astian bi eunetan hirutan. Ni eskolara oso gutxitan juna naiz, ta nere anayak eta ere bai. Porque guk etxian ez genun urare itturritikan ekartzen genun etxian...etxeke laneako. Sua ere eurra kanpotik ekarri ta iten genun, argiya ere ni txikiya nintzela jarri zuten bonbillak ta hoi guk bestela itte genun ba kandelakin edo bazeon zea beste katxarro bat karburua esaten ziyotena pixtuta. Lurrian genun sua, geo ezautu genun txapa eta geo ya azkeneako dena.

- Eta txapako egurra ze ekartzen zenuten zure anayak eo?

- Anayak eta guk igual astuakin juten giñan mendira ta karri ta geo aixkorakin puskatu ta...

- Ta geo bizilagunakin zer nolako erlaziyua zenuten?

- Ondo, eske gu bizi giñan mendi batian eta nere izeba eta osaba bizi zian beste mendiyen. Tartian erreka zeon ta zerbait...telefonua ta etzan orduan ta zerbait o falta zenun o enkargu bat da o bihar meza holako ordutan dago holakona ta hoi... e guk itten genun hemendikan ta behaiyek haitzen zuten beste menditikan.

- Ta geo etxea jende asko juten zan eo nola zan?

-E etxeke zea?

-Bai.

- Nere etxian nik beti jendia ezautu dut kanpokokua, porque mendiyen da Urdaburuko birian ta beti jendia juten tzan eta klaro eateko eo zeozer jateko ta gutxi izaten genun, geo ya hasi zian... hasi giñan, biño lehenbizitikan ez genun ezer izaten. Ta jendia juten zan bokadilluakin eta hoi bai ardua edo dagardua beti izaten genun etxian beaiantzako.

-Ta etxian eo hola geatzen zian lota eo pasaran bakarrik?

- Lotan ere gelditzen zian ta euna pasatzea jun ere bai. Ganbaran genitun preparatuak logela batzuk eta ondo udaran oan jendia kanpoa juten dan bezala, pues Erreteritik eta familiya ta juten zian pues aste bat pasatzea eo hamar egun... o jendia heldutakua eta oporrak hartuta hara astian seme-alabak lanean juten ziala ta geo bixita juten zitziotela hairi. Beti jende tartian bizitu naiz ni egiya esan.

- Ta geo kuarto hoik kobratu eo hola itan zenuteneo nola zan hoi?

- Pues, zerbait kobratuko zuten nere gurasuak, porque ni ttikiya nitzan orduan, zerbait kobratuko zuten biño ezin dizut esan orduan nola iten zuten.

- Ta geo arropak ta hola nola garbitzen zenituzten? porque labadorak eta hola etzeuden.

- Labadoraik etzan ta arropa garbitzen genun eskuz. Etxian jaboyakin eta zeatu ta geo akklaratzeta juten giñan itturrira, etxetikan genun ba berrehun metro hola itturriya. Etxeko ura handik ekartzen genun arropak jaboyak ta eskuz etxainin ta geo han astindu ta geo etxea etorri ta zabaldu kanpuan edo ganbaran, segun egualdiya nola zeon.

- Ta hoi ze iten zeun ahizpakin ta hola?

- Bai, ahizpakin o amakin ni o. Ni nitzan nesketan zaharrena, bi ahizpa giñan ta gea oaiñe eta ni gehiyena. Ni ezkondu bitarte han eondu nitzan.

## 6. Ekonomia eta industria

### 6.1. Olibet galletak; lantegiak ixten

- **Hizlaria(k):** Mendarte Kasares, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-003/044
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:57:06. **Bukatu:** 01:58:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneneko lantegiak  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Olibet galletak. Fabrikak ixten ezagutu zituen. Burgosera joan zen Olibeteko gozogile frantsesa. Aldaketa garaia.

#### Transkripzioa

- Baiñon oso famatua zen, e? Galletak oso onak egiten zituzten. Oso-oso. Kalidade bikaiña!
- Gero, zuk ezagutuko zenitun fabrika hoiek danak isten´e bai.
- A, klaro, klaro.
- Bere zea izan zuten bezela, bere sasoia ta bere garai ona ta...
- Ta gu, gaiña, por ejemplo, fabrika... galleta Olibetekuak oso izagunak genittun. Hor pastelerua oso famatua gero Burgosea jun zen. Burgosen zegozten militarrek. Eta militarrek ereki zittuzten "fábricas de chorizos, de quesos, de galletas y de todo". Beak bazuten eskubidea daneako.
- Bere fabrikak?
- Bai. Eta hor zegoen [Saint...] pastelerua frantsesa, oso ona, eta hoi´re Burgosa uste dut jun zela. Hala usten dut, Burgosa.
- Oseake hor urte batzuk egon zian, guazen esatera hoge-hogeita bost bat urte, ba, fabrika batzuk itxi, etxiak iten hasi, jendia kanpotik etorri...
- Aldakata haundiya.
- Aldaketa haundikuak.
- Bai, haundiya, bai.

### 6.2. Ezkondu artean lanean; emakumeak fabriketan

- **Hizlaria(k):** Mendarte Kasares, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-003/047
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 02:03:04. **Bukatu:** 02:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneneko lantegiak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Urte gutxi egin zituen berak dendan lanean, ezkondu arte. Senarrak ere denda zuen, drogeria. Etxeko lanekin nahikoa lan zuen. Ez

du gogoan emakumeei ezkondu ondoren lana egitea debekatzen zien legea. "Pavo Real" fabrika.

### Transkripzioa

- Zenbat urte in dituzu zuk dendan lanian?
- Gutxi. Zegatikan hamazazpikin bukatu nun Batxillerra eta gero urte pare batian [hemen...] hemeretzi arte, eta hogeita biyan ya ezkondu nitzan. Hiru-lau urte.
- A! Oseake ezkondu ta ya utzi in zenun dendako lana?
- A! Bai, bai, bai, bai.
- A! Hori ez nekien.
- Ezkondutakuan ya utzi egin nuen.
- Eta zuk erabaki zenun uztea edo...?
- Ez dakit nik erabaki nun o zeñek. Bai, nik erabakiko nun, zegatikan ya ezkontzeakuan nere senarrak ere denda zun. Laguntza bihar zunian beragana juten nitzan drogerira.
- A! Drogerian aitu ziñan gero, hola, tarteka?
- Baita ´re! Ahal nunian, e! Zegatikan izandu nittun seme asko. Eta, klaro, nahikua nun itxeko lanakin.
- Kontatu didate baita ere nola fabriketan-eta emakume askok egin dun lana bai hemen eta bai Lezotik-eta ere etorri izan dia fabriketa lanea. Ba, hoi, eskola bukatu eta geo, handik pixkatea, ba, fabriketan hasi han o hemen, eta batzuk ezkondu eta gero ere, ba, jarraitu zuten lanian fabriketan.
- Askok!
- Askok.
- Askok!
- [...] gero lege bat edo atera zun, Francon garaian atera zan legeren bate do, nun debekatu in zitzaien ezkondata zeuden emekumeei lanian jarraitzia. Zuk gogoratzen dezu hori?
- Ez, hortaz ez naiz gogoratzen ni. Aipu hortaz ez naiz gogoratzen ni. Eta esango dizut gehio. Nik ikusi dut, zea, fabrika "Arco iris"-o deitzen ziyotena , "Pavo Real" —que diga—, deitzen ziyoten fabrikan, hor, emakumeak tintoreiya zela, lanak ziala, nere bizi guziyan izautu ditut emakumiak hor lanetan. Eta beste fabrika askotan... klaro, batzuek ez zian emakumeentzako moduko fabrikak, ez? O taillerrak edo tornilleiyak edo... Baiño Pekin-en bertan beti izautu ditut nik emakumeak. Beti. Pekin ere, osea, zen "tornillería" ta... osea, zen holako tresnak o gauzak, edo "baquelite"-ta izaten zian. Baiño emakume askok lan iten zuten hor.

### 6.3. Aitak gerratik itzulitakoan lana lortzeko izandako arazoak

- **Hizlaria(k)**: Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-024/006
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:09:32. **Bukatu**: 00:11:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Ekonomia eta industria » Lantegiak
  - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Joxe Mariren aita gerratik etorri zenean, ez zioten ia lanik ematen lehengo lekuan, portuan. Azkenean Lezoko "industrias Navarran" aritu zen lanean, oso lan-baldintza txarretan.

### Transkripzioa

-Eta esan dezu zuen aitak etzula lanik aurkitzen...  
-Gerratik etorri zienian ez ziyoten lanik eman, baizikan, eman ziyoten lana, baño lehen ai zen tokiyan, muellian ai zen, puertuan...  
-Bai...  
-Eman ziyoten lana, baiño bolantetan. "Eventual". Ta orduan, aste batzutan... hiru egun lan itten zuten astia oso ona zen. Bi, bat, batez... Ta haren zalantzan.  
-Klaro...  
-Egun guziz hara joan, eta han "a dedo" hartzen zittuten: "y tú, y tú, y tú, y tú..." eta ekarri zittuten kanpoko jendia. Baiñon kanpoko jendiak ez zun behar beste kemenik hoik ibiltzen zien modura ibiltzeko. Ta geo ya, azkenian, repeskatu zituten, nere aita ta hoik. Nere aitak ya galdu zun horko... guziya ta, hortik alde in ta eskeiñi ziyoten Industrias Navarras, toki txar batetik bestea, txarragoa, joan zen.  
-Ta gero hor aitu zen lanian? Industrias Navarras-en?  
-Bai. Urte mordoxka bat. Hortik hartu zun bere erretirua.  
-Erretirua...  
-Intoxikatua.  
-A bai, e?  
-Bua... Dena gasa, besteik ez zen.  
-Kimika asko ibiltzen zan hor?  
-Bai... Gasa besteik ez zegon  
-Non zeon hori? Fabrika hori?  
-Hori, Lezon. Orain...  
-Hoi zer da, pintura fabrika...  
-Ez. Pintura fabrika zeon... Nola esango dizut... Mataderua, Errenteikua? Beste aldian. Ta hauntzago uaindik, ibaiak buelta ematen zun lekuan, irriyuakin juntatzeko, hola, buelta itten zun eta geo San Juanea joaten zan...  
-Bai.  
-Ba ibai hartan Lezo dao. Ta Lezo iya jotzen, izkiñaz-izkiñaz, hor zeon: Industrias Navarras.

#### 6.4. Lantegian zigorra, hitz egiteagatik

- **Hizlaria(k)**: Zabala Beristain, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-044/002
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:01:28. **Bukatu**: 00:03:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Niessen lantegian zigortu egiten zituzten hitz egiteagatik. Lehenbiziko aldiz aitaren firma faltsutu zuen eta ez zen ezer gertatu. Baina, bigarreanean, etxera bidali zuten zortzi egunerako, eta aitari aitortu behar izan zion. Aitaren erreakzioa.

### Transkripzioa

- Nei bi bider-eo harrapatu ziaten hitz eitten —ez nei bakarrik, bestiai ere—,

eta behin bialdu ziaten etxea zortzi eguneko kastiguakin hitz eitten harrapatu ziatelako. Lehenbizikua saiatu nun, aitan firma falsifikatu nun, ta aitak ez zun jakin. Baiñan bigarrenian ya zortzi egunian etxian ezin nitzan —ordurako ama hilda zeon, iya hogei urte izango nittun—, eta esan in behar izandu niyon: “Aita, zortzi eguneako etxian nao”, ta “Zer gertatu da, ba?”, “Ba, hitz eitten harrapatu nautelako”, “Horrekin ez, beste zeoze ingo zendun”, “Ez, hitz eitten neon ta harrapatu in naute”. Ta zan enkargatu hura, e? Hua ze... beira...

- Baiña orduan Frankismo garaiko lantegietako girua oso zorrotza zan, ez? Esan nahi det, ez zenutela hitz egin ere eta oso kontrolatuta bezela ziñaten.

- Bai, hitz eitten gendun! Baiñon... bueno! Baiñan kontua euki behar zenun, erne egon behar izaten ziñan ez harrapatzia, baiñan... Nei beti harrapatzen ziaten. Iñolaz´e zeana nitzan, malizi gutxikua o ez dakit. Eta hala, nik ez nun jakin ezkondu ta gero arte, aitak kontatu zian: hori eman ziatenian, jetsi zan Niessenea. Ta [Lixardikin] soldaduska-o elkarrekin iñak zian, eta beakin hitz ein zun, eta esan ziyon iya egiya zan nik esan niyona. Ta baietz, egiya zala. Eta eskerrak langille ona nitzan, bestela aspaldi bialdu ziatela, erantzun ziyoten, ta “Ba, langille ona baldin bada, hitz eitteagatikan ez da delito haundiya”. Osea, gaiñetikan arrazoia eman zian. Eta gogoratzen naiz nausiya etorri zala —iñolaz´e [Josek] pasako zion ta—, don Carlos, aldamenian, eta “¿Qué?¿Qué te ha dicho tu padre?”, “A mí nada”, esan zian: “Eso si que no te lo creo”, “Vale”. Ta ez zian gehio esan. Baiñan hori izaten zan ume ziñan bitartian. Ez dakit nola esan. Umiak giñan, hamalau-hamabost urtekuak giñan iya danak. Berrogeta hamarren bat eo iya ehunen bat sartu giñan urte hoietakuak.

## 6.5. Ezkondu ala lanean jarraitu?

- **Hizlaria(k)**: Zabala Beristain, Luixita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-044/004
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:04:32. **Bukatu**: 00:07:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Luixitari ezkontza pare bat urtez atzeratzeko proposatu zioten lantokian, bulegoan lanean jarraitu ahal izateko. Ez zuen eskaintza onartu eta gerora damutu egin zen. Lana uzteagatik eman zioten diruarekin ezkontza eta eztei-bidaia ordaindu zituzten.

### Transkripzioa

- Ta gero, ezkontzeko utzi in zenun lana? Ezkondu ziñanian lana utzi zenun?  
- Ezkondu baiño pixkat lehentxio, sei bat hillabete lehenoztikan, ofizinaa deitu ziaten eta esan ziaten ia... Orduan primako lanak-eta langillek bertatikan hartzen zittuztenen ofizinan egoteko, zea hoiek danak eramateko. Eta ni... papera jarri ia zuten presentatu nahi zunak hori hartzeko ta. Ta ni ez nitzan presentatu. Ta deitu ziaten. Ia zeatikan ez nitzan presentatu; ta dibisiyuetan zeruakin problemak nittula ta lotsa ematen ziala ta horrengatikan; ta hori ez zala problema, osea, beraiek erakutsiko ziatela. Ez? Ta esan zian: “Noiz ezkontzeko asmua dezu ba?”,

“Udara hontan”, “Ba, hitz ein zazu nobiyuakin ta urte pare batian atzeratzeko ezkontza —ez?— ta ofizinan sartu zaitez”. Ta ke ba, Jose Mari ez zeon gehio atzeatzeko; ya hiru urte [zan], ta lehenbailehen ezkondu ta kitto. Baiñan gero damutu in naiz, e!

- Eta zergatikan utzi behar zen lana ezkondata?

- Zergatik...?

- Lana utzi behar zan ezkondata.

- Utzi behar. Lege zan.

- Behartuta ziñaten.

- Bai. Gero esan diate ez zeola legeik. Zegatikan nik behin periodikuan, etxian daukat gordeta in nun protesta Diario Vascon.

- Bai, ba, neri esan didate bazegola lege hori, atera zala, e?

- Eta, orduan, utzi in behar zendun. Ematen zizuten zea, nik periodikuan jarri nun bezela, “despido encubierto”, osea, soldata zea bat, hainbeste urteगतिकान hainbeste diro. Ez? Nik kobratu nittun 13.000 pezeta, uste det. Orduan diru asko zan, e! Diru asko zan! Horrekin ezkontza ordaindu gendun, biajia in gendun, etxian ez gendun zorrik in, eta gaiñetik, milla pezeta sobratu zitzaizkigun. Osea, hillabete pasa gendun, e, Madriden ta Burgosen ta hola. Eta orduan diro asko zan. Jantzi in giñan, ezkontzarako erropak eta gauzak.

- Bai, bai, gastuak.

- Gastuak. 13.000 pezeta eman zizkiate. Orduan etxian ez zeon diroik, eta aita kezkatuta, osabai eskatuko ziyola... “Zuk iñorrei ez eskatu, honekin moldatuko gea ta kitto”.

## 6.6. Alemaniara joandakoan, askoz lan-baldintza hobek

• **Hizlaria(k)**: Etxebeste Muxika, Iñaki

• **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne

• **Erref**: ERR-046/014

• **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:16:56. **Bukatu**: 00:19:10

• **Gaia(k)**:

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Bidasoa  
Behereko lantegiak

Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

• **Laburpena**: Soldadutzatik etorritakoan, obretan aritu zen lanean. 26 urte zituela, alkohol-fabrikari ibili zen urtebetez; geroago, Paisa fabrikari aritu zen galdaragintzan. Handik Alemaniara joan zen lanera 1960an: hiru urte eman zituen han soldatzen, eta lan-baldintzak askoz hobek ziren.

### Transkripzioa

-Ta geo aittu nitzan obretan, hogeita ta... Soldadu jun nitzan ta geo obretan, hogeita sei urte arte.

-Hogeita sei urte arte obretan... Ta geo?

-Ta geo hasi nitzan... hogeita sei urtekin... Alkoholera urte bete. “Fabrica Alcoholera”. Urte bete, hogeita seikin, gero hasi nitzan ya Paisan.

-Paisan...

-“Productos aislantes”.

-Hor ze iten zenun ?

-Hor?

-Paisan?

-Kalderero. Soldeatu ta dena. Ta eundu nitzan hor bi urte, ta alde in nun

Alemanira.  
 -Alemanira?  
 -Bai.  
 -Ta ze...  
 -Kategoria eskatzen ta ez ziaten /etziaten/ ematen ta martxa in nun. Lan ittea, Alemanira. Soldadore.  
 -Biño Alemanira juteko, garai hartan, baten batek esan o aittu ingo zeniyon baten bati...  
 -Jendia eamaten zuten, ofiziyokua! Sindikatuak. Ta ni in nitzan sindikatua jun, apuntatu ta... “diecisiete... dieciseis de octubre”, jun giñan, “de mil novecientos sesenta”. Alemanira.  
 -Eta...  
 -In nittun hiru urte lanian. Soldeatzen.  
 -Soldeatzen...  
 -Montajian ta...  
 -Ta han diru gehio irabaziko zan...  
 -Bua! Hemen irabazten nittun hilian milla pezta.  
 -Asko zan!  
 -Asko!?  
 -Ez?  
 -[esangoizut...] Hemen milla pezta hillian. Hortik jan in behar nun e! Amai ematen nion dirua. Ta han, jan ta denak ein ta geo, ematen zizuten hamar milla pezta, libre.  
 -Hamar aldiz gehio!  
 -Biño ya jan ta dena inta e! Residentzi batian.  
 -Ordun gastuak’e bai iñak.  
 -“Residencia católica”. [Over haus]... Esto... [kolpin hause] ta Ketteler. Apaiza zen Ketteler. Ein zittuzten langileantzako itxe katolikuak.

## 6.7. Hamalau urterekin Errenteriako Pekin fabrikara lanera

- **Hizlaria(k):** Getaria San Pedro, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ERR-049/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:11:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak  
 Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)  
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Hamalau urterekin Errenteriako Pekin lantegian hasi zen beharrean eta bertan jardun zuen ezkondu bitarte. Gerora ere hainbat lanetan aritua da.

### Transkripzioa

- Eta beelaxe hitz ein genuen fabrika batian. Pekin. Ez dakit aittua dakazun. Errenteriyen famosua izandu zen hua´re, Bueno, gehienak famosuak zien Errenteriyen. Hamalau urte in nittunian, bezperan deittu ziaten. Ni txoratu nitzan, txoratu. Handikan, hamasei urte in dittut han, ta handikan ezkondu.  
 - Ta zein zan zure lana Pekin fabriketan?  
 - Danatik: “tornillaje”, “baquelite”... denetik. Hola, gauz preziso bat... Denbora asko egondu nitzan ni tornillo batzuek itten. Pollitta zen, nahiko

pollitta zen. Biño garbiya ez, e? Biño... bueno, han ondo egondu giñan. Lagun asko giñan, gaztiak, “muchos pajaritos”... Biño lan asko in behar genuen. Handikan atera ´re ta nahiko lana in nun nik gero, e? Ofizinak garbitzen ta denetik, denetik.

- Ta han, Pekin fabrikan, neskak asko ziñeten han lanian?

- Bai, fabrika haundia zen. Bai. Mutillak eta neskak. Nik uste dut neskak gehio izango giñala. Pentsatzen det, e. Ez dakit. Haundiya zen. Biño gu, badakizu, gu beti leku batian, eta goikuak... denak izautzen giñan, danak, biño gue bizimodua gue lagunakin eta gue planak itten genittun gue lagunakin.

- Eta legez posible zen hamalau urtekin lana itia?

- Bai. Nere senarra sartu zen, jakingo duzu /jakingozu/ zuk, “de botones” sartu zen litografi batian. Eta emen zen... bueno, nik izautzen nuen, zeatikan ni bizi nitzan onduan lana itten zuten han. Eta sartu zen, usten dut, hamabi urtekin. Gero eskolara joaten zen, biño lanian ya. Klaro, esan emen zuten gezura. Bea zea emen zen, mutil kozkorra, ta, klaro, egondu zen bi urte, ba... hamabi urtekin. Han bazakiyen, e! Biño bai, posible zen, posible zen. Guk hamalau. Zergatik ni gogoratzen [nak] esan geniyola hamahiru urte nittula eta noiz itten nittun hamalau. Ta [...]. Ez ziaten belaxe deittu, biño oso axkar. Lana orduan oso aisa izaten zen, gaiñea. Buu! Bai. Ez, biño ez... ni [...] ez, e? Beti konforme egondu naiz han. Bai. Zegatikan behin biño gehio esaten genuen: “Frantzira jungo gea! Oso lana polittak emen dia han”. Biño ez, ni ez nitzan mugitzen hortikan. Igual ari naiz txorakeriyak esaten.

- Ez, ez! Oso ondo ari zea.

## 6.8. Pekin fabrikako lanak eta lan baldintzak

- **Hizlaria(k):** Getaria San Pedro, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ERR-049/006
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:11:14. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  - Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Torlojuak eta halakoak egiten zituzten Pekin fabrikan eta bereizita aritzen omen ziren emakume eta gizonak. Zortzi orduko lanaldia zuten normalki, baina baita hamabikoa ere, lan asko baldin bazen.

### Transkripzioa

- Han tornilloak iten ziran Pekin-en.

- Bai.

- Besterik?

- “Para bombillas”, “casquillos para bombillas”. Lan hoiiek zien. Gero, pasta itten zen gauza politta, biño hua ya gizonantzako zien, e? Hori ez genuen guk itten. Guk gehiena, esan dizutena, “tornillos”. Bai. Gehiena-gehiena hala itten zen. Nik lana in nun... Prentsak. Dena prentsak zien. Ta batzuk okerrago, bestiak politto, biño han [gehiena hua] itten genuen. Tornilluak, zea, arroska. Makinak ekartzen zigun arroskik gabe eta guk arroska egin, arroska egin. Hola heldu ta arroska egin. Taladro ttiki batian. Oso pollitta

zen lana hua. Biño asko in behar zen eta gu berritsuak giñan! Biño langilliak´e bai, e? Bai, bai. Hori bai.

- Zenbat ordu iten zenituen?

- Ba, zortzi normalki. Biño gero zerbaittere behar genunian ta asko bihar zen, hamabi.

- Hamabi?

- Hamabi.

- Eta larunbatetan lana iten zenuten?

- Ba, lehenbizi bai. Gero ya hasi zen arratsaldian. Eta gero usten dut ya asko pasa [... asko pasa...] zela egun guziya. Biño lehenbiziko ez. Itten genuen igandia´re bai. Gero ematen ziguten oporrak. Eta lehenbizi ere izaten zien ttikiyaguak, [ez dakit] astebete o zer, ta ya gero hamabost egun´e hartzen genittun. Gehio nik ez, e. Nik ez. Nik uste dut gehio hartzen ziela geroago, baiño. Ta han hamasei urte in nittun.

## 7. Iritziak

### 7.1. Aitak okindegia ireki zuen

- **Hizlaria(k)**: Albisu Mendarte, Inaxito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-006/002
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:01:39. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Aita Olibet gaileta-fabrikako eskribaua zen, baina lan hura utzi eta okindegia ireki zuen bere kontura. Iparraldera joan zen hainbat ogi mota egiten ikastera. Aitak garrantzi handia ematen zion ogiari.

### Transkripzioa

-Aitta zen Olibeten eskribentea. Olibeteko eskribentea, eta nazkatua zegoen enkargatuarekin; eskatu zuen dirua ta jarri zuen panaderi bat, han, hor, Madalen kalean. Hori izan zen bere ofiziyoa. Panaderoa. Ta gero joan zen beste aldera, ikastera, hobeto egitera ogiya eo, e! Pan de Viena eta ez dakit zer arraio.

-Oseake okiña. Okindegia eduki zuen hor.

-Okindegia, bai, bai, bai... Asko maite zuen, ze, berarentzat ogiya zen oso inportantea. Pobreen... Pobreek daukaten janaria gosea kentzeko. Bai, hala esaten zuen e! gutxi gorabehera.

-Bai, oinarritzko janaria, ez?

-Oinarritzko janaria.

## 8. Aisia

### 8.1. Poxpolinak eta margaritak Erreterian

- **Hizlaria(k)**: Otaegi Arrizabalaga, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-013/068
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 01:47:38. **Bukatu**: 01:48:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Dantza  
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena:** Poxpolinak nonahi izaten ziren Erreterian gerra aurrean. Gerra sortu zenean, ordea, "margariten" desfileak izaten ziren. "Margarita" haien janzkera deskribatzen du.

### Transkripzioa

- Eta zuk ikusi zenitun poxpoliñak batzokiyan? Poxpoliñak, batzokiyan.  
 - Poxpoliñak? Gu ttikiyak giñanian nonahi Erreteriyen poxpoliñak. Jantzi ta dantzan ta zean ta zean. Bueno! Poxpoliñak izaten zian hemen "a montones"! Festak. Poxpolin festak itten zian. Edozin festetan poxpoliñak. Eta gerra sortu zenian, orduan "margaritas". Badakizu zer dian "las margaritas"? "Las de Franco". Haik ateatzen zian. Neekin lagunak fabrikan ibilita, e? Ta fabrikan gabiltzala, gaiñea, e? Jartzen zuten gona marroia, o... "una falda beige", kazadora ´re bai beixa, bee korreajia, zinturoiak, txapel gorriya, orla horiya... Ala!  
 - Oseake, bukatu zian poxpoliñak.  
 - Bai, bukatu zian poxpoliñak. Eta bestiak... poxpoliñak ez zuten hainbesteko gaitzik itten!

## 8.2. 'Euskadi Roja' astekaria

- **Hizlaria(k):** Aranburu Oskoz, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-026/016
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Irakurtzea  
Politika » Jarrera politikoak » Komunistak  
Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Egunkaria egunero irakurtzen zuen Jesusek, eta Euskadi Roja astekaria, astero. Komunista gazteek argitaratzen omen zuten Euskadi Roja, eta bertan irakurri zuen erreketek Nafarroan nola ari ziren altxamendu nazionalerako prestatzen. Jesusen ustez, Errepublikaren aldekoek gutxietsi egin zuten Gerra Zibila ekarriko zuen altxamendua.

### Transkripzioa

-Ya gerra etorri zen ta.  
 -Orduan, zuk letzen zenitun egunkariak edo aldizkariyak edo...  
 -Egunkaria egunero. Ta geo, astero, "Euskadi Roja, de las Juventudes Comunistas". Astero.  
 -Ta, Euskadi Roja hortan zertaz idazten zan o ze etortzen zan...  
 -Hoi, "de las Juventudes Comunistas" ta hoi, hor jartzen zun /jartzeun/, gerra hasi biño lehen Naparruan ze pasa zen, nola entrenatzen zian reketiak herritan, ta arma nola zuten, dena jartzen zun hor!  
 -Bai, e?  
 -Biño republikako jendiak ez zun uste horrenbeste indarra izango zuela "el alzamiento nacional"!

-Ez zun /etzun/ uste...

-Ta Madriden'e armak emateko kosta zitzaion! Orduan zen "ministro de gobernación" Casares Quiroga, republikanua. Ta Madriden armak emateko, hemen, kuartelak, soldaduak altxa zien hemen! Biño Madriden ya, lehenbiziko egunetik ya kuartela harrapatu zuten, Frente Popularkuak.

### 8.3. Aita bertsozale amorratua

- **Hizlaria(k):** Goñi Galarraga, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-027/003
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Aisia » Kultura » Bertsolaritza
  - Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Bertsoak irakurtzea asko gustatzen zitzaion Iñakiren aitari. Iñakirek uste du Txirrita ezagutu zuela herrian egin zitzaion omenaldi batean. Aitak bertsoak buruz ikasten zituen.

#### Transkripzioa

- Eta berak liburuak erosi-ta iten zitun?

- Bueno, ba... Bueno, klaro, batzuk erosiko zitun, baiño beste batzuk, ba, ez dakit nola lortzen zittun.

- Etxean bazitun liburuak.

- Bai, bai, bai, bai. Igande arratsaldiak-eta gure aittak pasatzen zittun liburuak irakurri ta. Bai, bai, bai, bai.

- Eta zu gogoratzen ze ze liburu zian irakurtzen zitunak?

- Bertsoak'e asko gustatzen [zitzaixkon], asko. Josus! Bertso pilla zakizkiyen! Xenpelarrenak eta. Gero Txirritan eta... Oso bertsozalia zan. Bertsozalia. Oii! Izugarriya, e! Baiño izugarriya! Bizi izandu [zittuen] Txirritan denborako gauzak eta. Eta Xenpelarrenak. Klaro, Xenpelar'e hemen Erreterikua ta buu!.. Xenpelar.

- Haren pasadizuak-eta kontatzen zitun?

- Xenpelar ez zuen ezagutu.

- Igual beste norbaitek beai kontatuta edo...

- Bueno, bai, nik uste dut kontatzen zittula Xenpelarreatatik esaten zien gauza asko. Gero Txirrita're bai. Txirrita're... nik, nik uste dut Txirrita're ezagutu nula. Uste dut, e. Uste dut.

- Ikusia zuk Txirrita.

- Ikusi. Noizpait hemen omenaldin bat eo in zitzaion 1935ian o [ez dakit noiz], hemen omenaldi [zea bat]. Badia argazkiyak ordukuak. Eta nik zerbaitte idea mutil koskorretan-ta zerbaitte idea badut hor, Plaza Fueros deitzen geniyona, Plaza Fueros, hor. [Merkadu bat] izandu zen hortan, [...] omenaldia in zitzaionian ta zerbaitte idea badut nik zerbaitte.

- Esan dezu bertso-liburuak.

- Bertso-liburuak, bai...

- Ze iten zitun irakurri o kantatu?

- Bueno, irakurri, ta memoriz ikasten zittun. Ta gero bazkalondotako girua ta [gero] etxian ta [umore ona ta zerian] ta bertsoak kantatu. Eta beste edozein lagunekin: "Eee... Ez dakit [ze] bertsoa" ta "bai" ta gure aittak "Txirritak hau [esaten] zun" ta holakotan, mutilzahar geldittu zela ta soldau ez juteatik mutilzahar geldittu zela ta Txirritan bertso hoiek-eta. Bueno!

Hoiak botatzen zittun edozeiñekin! Zer bat, tertuliyari ai ziala “hau ta ez dakit zer”, “Baa! ez dakit zer, ta hara Txirritak ze esaten dun” ta hola. Bai. Bertso mundua asko.

#### 8.4. Mendirako joera handia

- **Hizlaria(k):** Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-028/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:18:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Igandeko meza goizean goiz entzun ostean, autobusa hartu eta Oiartzunera joaten omen ziren mendi buelta egin asmoz, hemezortzi edo hogeitau inguru zituztela. Oiartzundik abiatu eta Aiako Harritik egiten zuten buelta eta etxera itzultzen ziren iluntzerako.

#### Transkripzioa

- Eta gero ba al zenuten ohitura hola mendi aldera juteko?  
- A! Bai, bai, beti mendian. Goizeko seitan meza entzun, autobusa hartu eta joaten giñan zeara —oan gogoratu zait gauz bat—, joaten giñan Oiartzunaiño. Eta gero Oiartzundik Aiako Harritik barrena jeisten giñan hor... soldadu pillak egoten ziren Arkalen, eta handik barrena etortzen giñan etxea. Goizian atera ta eramaten genittun bi o hiru bokadillo, eta gero iñulabarreako etxea. Oan, zazpitako etxea, e! Eske bestela...  
- Eta zuk zenbat urte zenituen orduan zuk, Aiako Harritaa juten ziñanian?  
- Pues, hemezortzi-hogei o... Bai, ni gaiñea oso berandu ezkondu nitzan ta. Bai, gure Kontxi ta danak hor joaten giñan. Eta Lezoko mutil batzukin ibiltzen zian, haiek gu baiño gehio, baiñon danak juntatzen giñan, ta danak. Bai.  
- Eta esan dezu zerbaitte gogoratuta zaizula oain.  
- Bai. Ez, gogoratu naz, porke joan giñan eta Lezoko mutil batzuk. Eta, ez dakit, haiek norbaittekin-o geldittuak eta nunbait jon ez o, eta gero gukin ibili zian, ta Jesus! [ze] alpargata! Eta danak ibili giñan, eta geo etorri giñan. Bai. Baiñan kale in ziyoten, bai.

#### 8.5. Zumardira musika entzutera

- **Hizlaria(k):** Ordoki Ordoki, Consuelo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-042/023
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Musika  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Lehen Zumardiko musika entzutera jende asko etortzen zen; Consuelo noizean behin joaten zen hara, baina ez zitzaion dantza egitea gustatzen. Musika, ordea, asko gustatu izan zaio. Oso ondo egiten du txistu Consuelok.

### Transkripzioa

- Orduan politta zan herriya?
- Herriya? Bai. Txikiya ta bastante pollita. Ta gero musikara hola etortzen zen jendia orduan! Brrrruu! Erreterian bakarra izaitten baizen musika. Ta buf! Zuazi... zenbat urte! Buf!
- Juten al ziñan?
- Noizbehinka bai. Noizbehinka [...], zeatik hamaika... digo, hamahiru eo hamalau urte nittunian, noizbehinka joaten nitzan ta ba! Baiñon...
- Baiño ez zenun zuk gustokua.
- Ez. Nik dantzan ez, ni bakarra musikueri begira, eurek, edo musika aitzen.
  
- Oseake, zuri musika asko gustatzen zaizu.
- Bai, bai. Horrengatikan ba, buu, ya lo kreo! Horrengatikan...
- Zuri musika asko.
- Bai. Horrengatikan lehen txistulariya beti txistuka-txistuka-txistuka. Buf! Juaten nitzanian Frantzira topuan beti txistuka-txistuka. ¿Quién silba aquí tan bien? ¿Quién silba? ¡Pero si no hay aquí ningún hombre! Pero si no hay nadie, ¿quién silba?”, “Esa, esa que está allí”, “¡Si no mueve los labios! ¡Si no mueve nada! Está quieta-quieta” y... Klaro.
- Zuk in dezu beti txistu ahoakin.
- Bai. (txistua jotzen du). Klaro, ez det mugitzen. Ezin det mugittu ta hala. Baiñon...

## 9. Herria, azpiegitura

### 9.1. Erreteriarren itxura lehen

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/002
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Erreteriarren Goiko kaleak lehen zer itxura zuen azaltzen du. Paper-fabrikako etxeak egin zireneko gogoan du. Inguru hura etxe berriak egin baino lehenago nolako zen azaltzen du.

### Transkripzioa

- Goiko kalia, hor, zu mutikua ziñanian ta, jakiña, etxe gutxiyo izango zan uain baño... Etxe gutxiyo hor...
- Ez, ez... Oain, hor dao bat berriya, berri-berriya. Geo, berritutakuak, lehengo tokiyan intakuak, bizitza bat geyago, izango dute /izangoute/ batzuek. Baña etxeak ber-berak zien.
- Ta papelerako [...]
- Hori aparte, hori zelai bat zan. Ta hoi oso berriya da, esateko moduan. Hoi geoztik egin zuten.
- Ta geo ... bai, hori izango zan zelaia, esan dezu ez...
- Hamalau urte o aldian nitun nik hoi intzenian.
- Bai, baño hor...
- Eon! Nola hamalau? Itxi hau hasi giñanian, hori bukatzen ai zian, o lanian ai zian hor, e? Bai. Ta itxi hau... Berregoita hamabi urte badia, ein zala.

## 9.2. Udareak lapurtzen

- **Hizlaria(k):** Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-024/003
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Paper-fabrikako etxeen ingurua lehen nolakoa zen azaltzen du: Villa Guadalupe, Urugoitiaren etxea... Udareak lapurtzen zizkioten Urugoitiari, eta eskopetarekin ateratzen zen etxetik.

### Transkripzioa

-Bestela, Zelaia zan hori?

-Bai.

-Baratzak o zeozer zeozten hor o...

-Eta... Hor baratzak ziren. Eta beheroxio, bueno, esango dizut hobekiyo, gora iyota nola gaztelu huandi hori, harriyak saihetsetik zintzilik daudela dirudi... Bueno, hori, horren gorago, hurrengua, hor zeon billa ttiki bat. Eta uste dut izena zula Villa Guadalupe. Uste dut, e! Guadalupe deitzen geniyon, hor bizi zen andre baten neskame o hola izango zan hua. Hor Poli? Polin familiya bizi zen hor.

-Bai, bai, bai, bai, entzuna dakat. Norbaitek kontatua, bai...

-Eta bestela...

-Geo...

-Lerro hortan etxe beak izango zian...

-Geo Urugoitia bizi zen papelera itxian, behetik gora gatozela, papeleran etxiak pasa eta horren aurka badago saio bat, saio bat, arbol batzuek eta atzian daude, eta hor zelai bat, eta hor nahi zuten uain itxiak in. Ta ez ziyoten /etziyoten/ ametitu. Eta hortxen dago...

-Hor zeon lehen etxe bat

-Hor, bai...

-Baserri bat o zeon hor...

-Etxe txiki bat. Bai zen...

-Zein zan hor bizi zana? Joxepa edo...

-Bai, baiño hori geo zen. Horren aurretik bizi zen Urugoitia. Urugoitia. Ta nik Urugoitia, 'El viejo las peras' deitzen geniyon, zertik horrek zun han pareta bat, etxian buelta guzian, eta udariak izaten zitun. Eta guk gose urtiak izugarriyak'e zian, eta horrea joaten giñan ta auzoko mutikuak ta kanpotik etortzen zienak, ahal zuna, sartu ta atrako itten zun. Ta hoi eskopetakin ateatzen zen, noski.

-Oseake aserre, aserre...

-Bai, bai... Ta nik ez dut aitu baiño esan izandu diate tiro bat bota zula. Ez dakit /eztakit/.

-Ta ze bizi zan hor, bakarrik gizon hori?

-E? Nik ezautu nunian, ez dakit andria ikusi nun, osea, bizi nitzan hil zanian, ez dakit, baia nik bakarrik ikusi nun beti.

-Bai. Bai...

-Hoi zen alkatian aita o... Bai. Kargu altu baten aita zen hori. Urugoitia.

### 9.3. Ur-deposituan igerian

- **Hizlaria(k)**: Zuloaga Etxebeste, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-024/004
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:05:36. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Ur-depositua non zegoen azaltzen du; hango ura toporako izaten zen. Depositu hartan igerian ibiltzen ziren umetan. Joxe Marik 12

urterekin ikasi zuen igerian, lehenago urpean ibiltzea gustatzen baitzizaion.

### Transkripzioa

-Ta geo, hortikan gora, hiru-etxeko etxe hoik denak ta...

-Ez. Hor zen, hiru-etxeku hortan, deposito haundi bat. Ta depositu harek, hoi gain-gaiñian iña du, deposito haundi harek, ba, suministratzen ziyon ura topuari.

-Topua beti ezautu dezu zuk hor?

-Beti ezautu det.

-Eta putzu hortan, osea, depositu hortan, bi zatitan zeon: bat horrela ta bestia horrela, ttikiya. Ba guk hor igeri itten genun. Bai. Urte batzuek izandu zien, horrea joaten giñanak, zambuka itea o. Joe! Gustoa aski, bai!

-Eta igeri bazenekiten?

-Bai... igeri... nik igeri berandu ikasi nun. Hamabi urtetan o pixkat lehentxio ikasi nun, zergaitikan nik egiten nun buzeatu asko. Ta oain ere ni, itsasoa joaten naizenian, hondartza o hola, buzeatzen denbora gehio pasatzen det /pasatzeet/ igeritan baiño. Eta orduan ez nun preziso harrapatzen. Baiñon geo behin esan non: "hombre, ya ikasi behar det ba hau" ta segituan jarri nitzan ta... ta fuera.

## 10. Baserria

### 10.1. Kaniketan txarra

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Amondarain, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-028/005
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:17:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Futbolean aritzeaz gain, beste hainbat jolasetan jostatzen ziren Maritxu eta bere auzoko haurrak: soka-saltoan, "taba"tan, kromotan, kaniketan... Maritxu bereziki txarra omen zen kaniketan jostatzen, eta jokatzeko hasiz gero, guztiak galtzen omen zituen.

### Transkripzioa

- Eta izango zenittuzten jolas gehiago ere, ezta?

- Bai, bai.

- Ze jolas gehiago?

- Jesus! Ni oan ez naz /enaz/ gogoratzen hola, biñon jartzen zian hola, zaldiya balitz bezela: "A la una anda la mula, a las dos tiro la coz pa quien quiera" ta bata bestian gaiñian ta hola. Bai, bai.

- Eta sokasaltuan eta...?

- Ere bai. Ere bai. Eta kaniketaa eta, zea, "a tabas", zeak´e bai, arkumian... belauneko puxka hoiekin, ta bai. Eta zeak´e bai, kanikakin. Jo, nik itten nittun kanikak beti galdu.

- A bai, e?

- Eta gure anaia kanika pilla batekin bortsilluan. Ta esaten zian "Zuk ez hartu!".

- Zuk berari eskatu behar!

- Klaro hoi itten nixkala! Kendu itten nixkan! Ta jeisten nitzan ta, jo, hain

txarra nitzan, danak galtzen nittun, kanika guziyak.  
- Kromuak-eta eukitzen zenituzten?  
- Ere bai. Pilla bat, bai.  
- Eta kromotaa neskak jolastuko ziñaten, ezta?  
- Bai, hoixe!  
- Mutillak´e bai, o...?  
- Danetik ibiltzen giñan, biñon gehio neskak. Bai, neskak gehio kromotaa.

## 10.2. Baserriko produktuek estimazio handia kalean

- **Hizlaria(k)**: Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Erref**: ERR-039/007
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:23:53. **Bukatu**: 00:27:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Maitxok gogoan du baserriko produktuek zein estimazio handia izaten zuten kaletarren artean. Arrautzak, untxiak eta oilaskoak saltzen omen zituzten gehien.

### Transkripzioa

-Ta zuek ere, pentsatzen det, oinez beti, ezta?  
-Bai, bai, bai. Beti oinez.  
-Eskolara edo kalera...  
-Eskolara, eskola nahiko alde itten zitzaigun /ittezizaigun/ baiño Oiartzuna jotzen giñanin´e Errenteira etortzen giñanian ere berdin. Oinez. Beti oiñez.  
Bai, bai.  
-Eta bazenuten ohitura saltzeko baserriko gauzak-edo saltzea-edo jeisten zen ama...  
-E... Bai, bai. Orduan, gauz bat izaten zan /izatezan/ oain ez zana /etzana/ ez, ordun baserriko gauzak izugarritzko estimaziyua izaten zun /izatezun/. Oain ere beharba bai, baiñon oain aukera gehio dago. Garai haitan ez zan / etzan/ ez... arrautzan granjikan ez zegon /etzegon/. Ta ordun, arrautzak, eskaka! Bai, bai. Ta gañea arrautzak ahal zan guziya jaso itten zen /ittezen/ ba asteburuan kalea joteko eta, ba halakoi ta holakoi eman berra eta bai, saldu eitten zen /eitteen/. Ta hor bada esaera bat: "baserriarrak, osasuna eman ta gaitza ekarri", esaten zana /esatezana/. Bai, bai, bai, bai... Eta ollaxko ta hola, hazitzen zianak ere bai, harrapazka saltzen zian, konejuak ere bai. Bai, ni goatzen naiz, jun izandu naiz, Errenteiko lehengo merkatu [zaharra ez], gañea hor Xenpelarren eon izandu da, ni goatzen naiz, geo in zuten goyen, beste merkatua, uain itxi dana hori, uain berriz aldatu in dute. Ta horrea, goatzen naiz jun izandu ga konejuk eramatea. Ta saltzen zian. Ta gañea normalian izaten zien /izatezien/ erosten zutenak ba bertako harakinak, e! Eosi iten zittuzten ta geo beraiek saldu.  
-Beraiek saldu...  
-Bai. Oain, gauza hoi´re aldatua dago. Uain ezin da zuzenian saldu mataera o betenayuan zeaikan gabe, ez ollaxko... Ezer ez. Ezer ez.  
-Kontrol batzuk jarri dituzte...  
-Baño... Bai... Bai... Bañon orduan zuzenian saltzen zan gauza. Hoi berriroko gauza da, ezin dala kontrolikan gabe saldu. Baño garai haitan, bueno, goatzen naiz... Kuebako gain hortan bazan etxe bat, geo ez dakit / takit/, su manta ero nola, erre in zan, bañon bizi zan gizonetzko bat,

solterua zan, ta gu juaten giñan harengana, ba, Trabalekukun parientia zan, eta jutun giñan harengana, ba, ogiya eamatea, Trabalekukuk enkarguk ematen bazittuzten harea eramatea, eta harek ematen zizkigun arrautzak Trabalekura eramateko. Bai, bai, jendia hola, saiatzen zen.

-Ordun, tarteka eramaten zenuten, ba hola, koneju batzuk, edo arrautz batzuk edo...

-Bai, baino hola kantidade haundiyak iten ere ez giñan aitzen.

-Ez...

-Bai, soberan daozte eta... Bai.

-Oseake tarteka izaten zan...

-Bai, bai, bai, bai. Arrautzana ya, hoi normalagoa zan ya hoi ya asteburutan batera edo bestea ya hor... Bai, bai, bai...

-Eta gauzatxo hoiek, baserriko gauzatxo hoiek nola eramaten zenituzten zuek saltzera?

-Bueno, Errenteira jutun giñan, Errenteiyar'e izaten zittuen bata ta bestiai hola, baiñon parrokiya, ez hola zeara, merkatura ta... Bestela, bestela. O ezaunak edo... Bai, o eskatu itten ziyoten edo... Oiartzunea ere berdin... Bai...

### 10.3. Arkaitzatic Oiartzunera enkarguak egitera

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/008
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:27:34. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Maitxo, haurra zelarrik, askotan ibili zen enkarguak egiten, abereak hartu eta atzera eta aurrera. Oiartzunera joaten zen gehienbat: Altzibar auzora, Ugaldetxora... Errandonea ardandegira ere bidaia batzuk egina da. Izan ere, berari tokatzen baitzitzaion enkarguak egitera joatea, normalki, nahiz eta oso gogoko izan ez.

#### Transkripzioa

-Ta? Bai Oiartzunea edo bai Errenteira ez?

-Bai. Bai. Enkarguta normalian Oiartzunea jutun nitzen, ni asko ibiliya naiz enkargutan, aberiakin. Aberiakin jutun giñan enkarguta, aberia saskiyakin jarri eta astian behin, gutxineko, eta enkarguak eta, o ganaduantzako pensua ekarri behar bazan, eta atzea ta aurea ibiltzen nitzan, baiñon gehienbat Oiartzuna. Igual Ualdetxoa, Altzibarren ere eoten zan e, pentsu almazen bat, eta ba pentsua ekarriz, ba bertatikan enkarguak hartu, o Oiartzuna, askotan ere, enkarguak, eta geo ardua ere ekartzen genun garrafoitan, ta jotun giñan Errandonea o, bazan hor, ardo almazen bat eukitzen zutena Oiartzunen, hor ibiltzen giñan batea ta bestea. Bai...

-Eta, enkarguetara esan dezu zu jutun zinala askotan...

-Bai, gehienin neetzako izaten zan lana hori. Gehienian bai. Neetzat izaten zan /izatezan/.

-Eta, ze izaten zan lan nekeza edo kalea jute horrek bazun bere... Ba jendia ikusi, gauzak erosi, o...

-Ba ez pentsatu, e!

-Pixka bat atea baserrik...

- Ez pentsatu, e! Ez pentsatu. Geo, neguan, egualdi txarra zalako, udaran berriz zenbait lekutan sekulako beroaldiyak hartu ber izaten zian /izatezian/ eta ezdakit. Ez zidan /etzian/ iñorrek txadik kentzen! Ez...

#### 10.4. Arrantzaleak baserritara arrain saltzen

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/015
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:51:23. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Maitxoren izeba bati Oiartzungo Ugaldetxoaraino etortzen zitzaizkion arraina saltzera, eta izeba horrek, Trabaleku baserriko bateren baten bitartez bidaltzen zien arraina Arkaitzakoei. Bestalde, ongi gogoan du Maitxok gaztea zeneko otorduak nolakoak izaten ziren: babarruna noiznahi, tortillaren bat ondoren, eta postrea oso gutxitan, etxean garaian garaiko fruta asko izanagatik ere.

#### Transkripzioa

- Garai hartan arrai asko zeon. Kostako herritan-ta arrai asko harrapatzen zuten. Asko. San Juanen...

-Bai. Antxoak ere uan biño uariyo ibiltzen zian ordun.

-Bai...

-Uain problemak die, biño ordun...

-Ordun ikaragarri zeon...

-Bai, bai... Ta gañea, arraiketari asko baserrita ta dena atetzen zian saltzea, e! Saskiyan hartu antxuak o txitxarruak o... Baiñon hoik bukatu zien.

-Ta alletzen zian, zuen [baserriaino?]

-Ez. Ez. Alletzen zian baiñon, Ualdetxon bizi zan izeba bat eta harek bialtzen zun, berai bai etortzen zitzaion etxea, eta harek bialtzen zun Trabalekukuakin, igual, guentzako. Eta ogiyan billa juten giñanian harea, haik ekartzen zizkiguten ogiyak haraño, beak juten zianin esniakin, ogiyak ekartzen zizkiguten ta harek bialtzen baldin bazun arraiña, ba izaten gendun. Hola alletzen zan /alletzezan/. Bai.

-Bestela, esan dezu, astean zehar babarruna jaten zenutela asko...

-Gehienbat, bai.

-Gehienbat... Ta ze izaten zan, hola, plater bakarra? Osea, babarrun platerkada...

-Ez, ez. Nahi dunak bat edo bi, nahi zun bezela. Bai, bai, eta geo ondotikan beti zeozer izaten zan, o tortilla bat, edo zeozer izaten zan ondotikan'e. Geo postretan, ordun postreik ez zan /etzan/ erabiltzen. Etxian baldin bazan fruta, huraxen. Gainecon...

-Ta izaten zan, ez?

-Bai, bai, bai... Bueno, garaiak izaten zian /izatezian/ baita ere, ez? Sagar garaian, gereziya ere asko izaten gendun, pilla bat! Izaten gendun, eta gerezi garayian'e, nahiko gereziya, sagar garaian ya sagarra...

## 10.5. Elorria mizpirarekin txertatzen

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/016
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 00:53:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Maitxoren aitak baserri inguruko elorriak mizpirarekin txertatzen zituen, eta gaur egun Maitxoren anaia ibiltzen da horretan.

### Transkripzioa

-Ta gero aranak, o muxikak...

-Bai. Muxika're erruz izaten zan.

-Ze ona...

-Attak bazun hortan... izugarrizko gogua izaten zun, ta bazittu, e... Han, belasuan, buelta guzian harkaitza dago. Ta harkaitz ixkiñetan harrapatzen zittun elorri guziyak txertatu itten zittun mizpirakin. Mizpira're pillat bat! Han xoxuak eta zea guziyak, denantzako izaten zan janariya. Ta uain aitzen da anaia baita're! Bai, Bai.

-Txertaketak eta...

-Bai, uain ere bire hertzian-ta ikusi dittun /ikusiittun/ elorri guziyak txertatzen aittua dago, mizpirakin eta, gereziyak eta...

-Pues ez dago asko dakina hoi iten gaur egun, e!

-Ba harek... Oso ondo ateratzen zaizkiyo, e! Bai, bai...

## 10.6. Fruta-arbolak eta txoriak

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/017
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:53:54. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Oso zaila izan da beti fruta-arbolak txoriengandik babestea eta gaur ere hala izaten jarraitzen duela dio Maitxok. Egun etxe inguruan gutxitan ikusten badu ere, txorietan eskinosoa du bereziki gogoan. Maitxoren hitzetan, "pizti" bihurtzen omen da eskinosoa frutaren aurrean.

### Transkripzioa

-Oseake uain ere izango dezute fruta...

-Bai, bañon uain fruta... Hemen bertan ere bai, e! Oso zalla da eskapatzen. Batez'e behian hor lehen txaga haundiya zegon, ta hor ibiltzen zan hegazti asko, bai zozuak, billiaruak... Askok! Ta uain etxe onduan dauzkigu denak. Etxeko, hemen, balkoyian dagon huntza hortan'e, zozuak kabiyak itten dittuzte /itteittuzte/.

-Tokiya behar...

-Tiestuan bertan, lehenguan esan niyon lñaxioi: bitu, goroldiyuak hartzen ai dia tiestuan ta hor ere kabiyak itteko asmotan dabilta. E... Orduan, hemen

bertan, uain ere aranak-eta asko dauzte. Pilla bat daukat ta ez dakit zoittuko dian, baiñon, baiño zoitzen hasten denian, bai billiarro, zozo, biño pezti bat, e! Eta hoi pentsatu hemen, ta han? Han, han, e... hemen ez dan zea ibiltzen han, iskiñusua, asko. Mendiko usuai eskiñosua saten yogu guk. Holakuak eta, bueno, frutatan pezti bat da.

### 10.7. Egur-ikatzza egitera mendira

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:03:14. **Bukatu:** 01:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena:** Maitxoren aita basoan lanean ibilitakoa zen, txondorrak eraiki eta egur-ikatzza egiten. Senarra ere halako lanetan ibilia omen da, gaztetan. Lan hura zertan zetzan azaltzen digu Maitxok.

#### Transkripzioa

-Betiko lana. Hua're... Hura're izandu zan. Uain ez da itten, baño uain mendira juten geanian, hola, igual, paudi batian o pasatzen gea ta txondar zulok han eoten dia. Kusten [dittut]... Bitu-bitu, hemen'e baten batek madarikatu zun hemen txondarra itten!

-Ta zure aitak egiten zun...

-Bai, bai, eta senarrak ere bai, e!

-A, baita, e?

-Bai. Aittu izandu da hura ere. Gaztetan basuan aittuk izaten dia hoik, zean, lanian. Eta beak esaten du, bueno, orduan manduakin eta bizkarkata, txondarra in ber zan lekura egurra karraitzen. Bai, bai.

-Ta iten zan, egur-ikatzza ateratzen zan handik, ezta?

-Bai, bai, bai, bai...

-Ta izaten zan egun batzutako lana, hori...

-Bai. Bai. Ta prepaatu. Egurra pillatu behar da, eta geo ya pilla itten dezunian /ittezunian/ ta su maten zaionian'e /matezaionian'e/ geo're errepetu ein ber zayo, han eon behar dute gau ta eun. Ta geo ya intakuan, berriz, zakua bete, handikan eraman, eaman behar zan lekura... Bai. Nahiko lan gogorra.

-Ta ze iten zuten, hola, batzun artian? Baserritar batzun artian o bea...

-Ez, basuan aitzen zan jendiak moldatzen zittun hoiek, e! Basuan aitzen zianak izaten zian: bat izango zan nagusi bezela ta beakin [zaizkiyenak] beste langilliak o pioyak eta been artian itten zittuzten.

### 10.8. Su baxua eta "ekonomika"

- **Hizlaria(k):** Egilegor Portugal, Maitxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Erref:** ERR-039/022
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

- **Laburpena:** Su baxuan kuzinatzetik su "ekonomika"rekin aritzera igaro ziren Arkaitza baserrian, eta batetik besterako aldea handia zela dio. Su baxuan jartzen zen eltzeak kearekin belztuta bukatzen omen zuen, eta "ekonomikak", aldiz, beste "txukundade" bat ekarri zuen sukaldeetara. Ekonomikak, gainera, labea ere bazuen.

### **Transkripzioa**

-Zuk su bajua ezautu dezu baserrian?

-Bai. Bai. Nere goguan jarriya izaten da... Ekonomika esaten geniyon. Sua. Bai, goatzen naiz. Bai, bai.

-Baño, ekonomika beti ezagutu dezu zuk ordun baserriyan. Edo aurretik...

-Ez, ez. Aurretik sua bajua bakarrik. Geo, noiz jarri zuten ekonomika goatzen naiz. Ta nik orduko hamar-hamabi urte izango nittun. Goatzen naiz.

-Ta su baju hartan, ingo zan, prepatuko zan...

-Bai, bai, bai...

-Bazkariak edo...

-Ta hua kendu ta jarri zutenian su ekonomika, ba ez dakit /eztakit/... Su ekonomikatikan butanokin itten den suañoکو aldia billatu genun guk. Beste garbitasun bat; beste txukundade bat... Eske han jartzen dezu /jartzezu/ neskamia'ro esaten ziyoten halako zea bat, txintxilikan, tximenitikan goiti behera, geo harek kanpana haundi bat eamaten zun... Hoi dena goatzen naiz ni. Eta geo klaro, han eltzia jartzen dezu /jartzezu/ suatan, eta ki harrek beak dena itten zun eltzia bea dena beltz-beltz in. Enkanbio, enkanbio, geo ekonomikoa o zea jarri zenian, ba beste garbitasun bat, beste txukundade bat. Labia're bazun, eta harek ez zuna /etzuna/, izuarrizko aurrerapena iruittu zizaigun. Eta geo handikan, ya, uain, bateko butano, besteko eletrika, besteko zea, ya, ta hala're denak eskas ttugu!

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Errazionamenduaren neurria (ERR-001/014)**

Gerra aurretik baratze txiki bat bazuten Errenterian, baina gerraostean, behin Tolosa aldera joan eta Errenteriarara itzuli baino lehen, errazionamenduak agindutako neurria ase behar izan zuten gosea. Dirua zen etxeetan, aldiz, estraperloan ekarritako jakiekin betetzen omen zituzten errazionamenduak utzitako hutsuneak.

### **2. Beti etxe berean zerbitzatzeaz nekatu (ERR-001/015)**

Begoñak jatekoa eskura izan zuen beti neskame lanetan aritu zen lehen etxe hartan. Hala ere, ez zegoen gustura, eta etxez aldatu nahi izan zuen. Azkenik, amarenera itzuli behar izan bazuen ere, lortu zuen bere helburua: neskame ari zen etxe hura uztea, nola edo hala.

### **3. Neskamearen lanak (ERR-001/016)**

Xehetasun handiz ematen digu Begoñak neskame ibili zeneko bere eginbehar guztien berri.

### **4. Senargaiarekin gezurra lehen hitzetik (ERR-001/017)**

Tolosako inauteri batzuetan ezagutu zituzten Begoñak eta ahizpak, gerora senar izango zituzten bi mutilak. Une harekin ongi gogoratzen da Begoña.

### **5. Ezkondu ala ez? (ERR-001/018)**

Begoñak nahikoa zalantza eta kontu ibili zuen senargaiarekin ezkondu ala ez erabakitzeko. Batetik, kalekoa zen bera eta baserrikoa senargaia, eta bestetik, ahizpak eta amak aholku kontrajarriak ematen zizkioten... Azkenik, senargaiaren etxera ezkontzea erabaki zuen.

### **6. Norberaren balioa frogatu behar denean (ERR-001/019)**

Kaletik baserrira ezkondu zen Begoña, eta bereganako zalantza dezente sumatu zuen senarraren familiakoengan. 'Balioko al zuen baserriko lanerako?' 'Eutsiko al zion hango bizi martxari?' Bereganako zalantza horiek erronka gisa hartu eta nora ezkondu zen ederki zekiela frogatu nahi izan zuen Begoñak.

### **7. Senar-emaztegaien harremana formaltzea (ERR-001/021)**

Herritako jaietan behin eta berriz elkar topo egitearen poderioz formaldu omen zen Begoña eta senartzat hartuko zuen mutilaren arteko erlazioa, eta berdin, ahizparena eta Begoñaren koinatua izango zenaren artekoa. Hala ere, topo egitea ez zen beti kasualitatea izaten.

### **8. Talorik ederrenak (ERR-001/023)**

Ederki moldatu zen Begoña baserriko bizitzara. Talo ederrak egiten bazekiela argi utzi zien behintzat senarraren etxekoei.

### **9. Baserriari lotuta bizi (ERR-001/024)**

Begoñak ez zion beldurrik izan senarraren jaiotetxera ezkontzeari. Harrez gero, baserriari lotuta biziko zen, hala ere. Urtean behin egiten zuten osteratxoren bat edo beste.

### **10. Zortzi seme-alaba (ERR-001/025)**

Zortzi seme-alaba izan zituen Begoñak, eta berak dioenez, haurdunaldi guztiak onak izan ditu.

### **11. Etxean urik ez (ERR-001/026)**

Senarraren etxera ezkondu zenean, etxean bertan urik ez izateak eman omen zion "hozkirik" handiena. Horretara ere ohitu behar izan zuen, ordea.

### **12. Hamabost egun luze ama ikusi gabe (ERR-001/027)**

Begoña Hernialdetik Tolosara jaitsi ohi zen mezetara, hartara, ama eta ahizpei bisita egiteko aukera izaten zuen. Hala ere, urtean zehar "bost peztakoa" zelakoa osatzen zuten bost meza edo elizkizun izaten omen ziren, urtean zehar banatuak, eta haietara ez omen zen huts egiterik. Meza haiek Hernialden entzun behar izaten zituen, eta hamabost egun luze joaten zitzaizkion ama ikusi gabe.

### **13. Ezkonbidaian negarrez (ERR-001/028)**

Hernialdera ezkondu zenean, mira egiten zien amari eta ahizpei. Haien hutsunea sumatzen zuen. Izan ere, gerra garaian pairatutako denak asko batu zituen ama-alabak.

### **14. Argindarrik ez baina ilunpearri ihes (ERR-001/030)**

Gerra garaian Erreteriatik ihes egin eta osaba-izeben baserrian hartu zuen babes Begoñak berak lehenik, eta bere amak eta bi ahizpek ondoren. Baserri hartan ez zen argindarrik, eta Begoñak kontatzen du kandela, farola eta kinkiekin nola moldatzen ziren.

### **15. Argindarra baserrira sartu zutenekoa (ERR-001/031)**

Izeba-osaben baserrira, beldurrak beldur eta mesfidantzak mesfidantza, argindarra sartu zuten azkenean. Hura izebaren harridura! Izan ere, alde handia baitzen etxe barruan argindarra eta ura izan edo ez. Begoñak eta bere familiak aurrerapen bi horiek kaleko etxean izatetik baserrian gabe bizitzen ohitzera pasa behar izan zuten.

### **16. Baserriaren alde onak eta txarrak (ERR-001/032)**

Gerraostean baserrira ezkontzearen alde onak eta txarrak

### **17. Emakumea galtzak jantzita! (ERR-001/034)**

Tolosan zabaldu omen zen behin, emakume bat ikusi zutela galtzak jantzita. Disparatea zirudiena munduko gauzarik normalena bihurtu zen handik ez askora.

### **18. Bidean oinetakoak jantzi eta erantzi (ERR-001/035)**

Bidean oinetakoak jantzi eta erantzi ibiltzen ziren Begoña-eta. Kalera heldu aurretik janzteko, zapatak eramango zituzten. Baserrira bueltan itzultzerako, aldiz, zapatilak edo abarkak.

### **19. Aitonak galtza pare bakarra (ERR-001/038)**

Amak sarritan gurasoei buruz kontatuak esaten ditu Begoñak. Galtza pare bakarra omen zuen aitonak, eta hamaika komeria ibiltzen omen zuen, ageriko eskasiak disimulatu nahian. Amonak erosi omen zion bigarren galtza pare, gerezi mordera bildu eta haiek guztiak plazan salduta ateratako diruarekin.

### **20. Etxaldekoak eta maizterrak (ERR-001/039)**

Bere izeba bati gertatua dela kontatzen du Begoñak. Maila sozial altuagoko mutil batekin maitemindu omen zen eta mutilaren familiak ez omen zuen harremana begi onez ikusi. Halatan, mutilak bere buruaz beste egin zuen, eta Begoñaren izeba, moja sartu.

### **21. Seme jatunarena (ERR-001/040)**

Garai batean gazteen ezkontzak zenbateraino izaten ziren gurasoek aurrez erabakiak edo baldintzatuak galdetu, eta pasadizo polita etorri zaio gogora Begoñari, aita-seme jatun pare protagonista duena.

## **22. Erreneriako sentitzen naiz (ERR-001/043)**

Hamalau urterekin herritik alde egin behar izan eta itzultzeko aukerarik izan ez zuen arren, Erreneriako sentitzen da Begoña

## **23. Txikitako oroitzapen gozoak (ERR-001/044)**

Erreneriako haur garaiko oroitzapen zoragarriak dituela dio Begoñak. Jostatzea asko gustatzen omen zitzaion, eta edozertan ibiltzen zen.

## **24. "pinis pinis terrosino" (ERR-001/046)**

Sokasaltoan aritzeko kantua abesten du.

## **25. "Tengo una muñeca vestida de azul" (ERR-001/047)**

Sokasaltoan aritzeko kantua abesten du.

## **26. "Este corro es un jardín" (ERR-001/048)**

Espainiako Bigarren Errepublika ezarri zen arte gaztelera hutsean irakasten zen eskolan, eta hurrek ikasten zituzten kantak ere halakoxeak ziren. Behin Errepublika ezarrita, aldiz, euskara hutsean ikasteko aukera eskaintzen zuen eskolara bidali omen zituen aitak Begoña eta anai-arrebak. Bertan, kargu hartzen omen zieten gazteleraz eginez gero.

## **27. Txirrina jotzen (ERR-001/049)**

Etxeetako zein eskolako txirrinekin izandako gora-beherak.

## **28. Telefonoarekin jostatzen (ERR-001/050)**

Telefono deiak eginez makina bati adarra jotakoa omen da Begoña.

## **29. Lixagailua lurrera (ERR-001/051)**

Haurrak zirela, aitaren zurgindegiko lixagailua lurrera bota zutenekoa kontatzen du Begoñak.

## **30. Barandatik behera erori (ERR-001/052)**

Begoñaren anaia barandan behera jaisten omen zen lehendabiziko solairutik sotora. Begoña horretan saiatu omen zen behin, eta baita beheraino erori ere, aitaren lantegiko langile guztien bizikleten gainera. Ez omen zuen minik hartu, baina bizikletaren bat edo beste gorpila okertuta geratu omen zen.

## **31. Abeslari eta musikari familia (ERR-001/053)**

Begoñaren aita eta anaia zaharrena abeslariak omen ziren, solistak. Baritonoa bata, eta baritono baxua bestea. Alejandro, aldiz, anaietan bigarrena, txistulari ezagun askoa izan zen, gazterik hil bazuten ere. Begoñak jaso du musikarekiko zaletasuna, baina belarri ona izanagatik ahotsa kaskarra zuela esan zion behin anaia zaharrenak, eta ez omen zuen bide horretatik aurrera egin.

## **32. Eskolara joaterik ez (ERR-002/004)**

Ez zen eskolan ibili. Baserrian egon zen umetatik. 10 anai-arreba ziren. Aitaren arreba beraiekin bizi zen.

### **33. Baserria isolatuta (ERR-002/006)**

Ardiak, behiak, txerriak, oiloak... zituzten. Baserri txikia zen. Negurako belar lanak egiten zituzten. Baserria isolatuta zegoen. Gurdi biderik ere ez zegoen harako. Erreteriarra kalera hiru ordu inguruko bidea zuten, mandoarekin.

### **34. Gerra garaiko tiro hotsak I (ERR-002/008)**

Gerra hasi zeneko oroitzapenik ez du. Gero, jende arraroa ibili zen baserri bueltan. Tiroak eta bonbak entzuten zituzten. "Abuelo" hegazkina pasatzen zen etxe gainetik.

### **35. Gerra garaiko tiro hotsak II (ERR-002/010)**

Gerra garaian tiro hotsak entzuten zituzten. Perretxikotan zebiltzala, bala txistuak. Informaziorik ez zuten gerrari buruz. Militarrik ez zuen ikusi. Basoan lanean zebiltzanak gerturatzen ziren.

### **36. Añarbe baserriaren historia (ERR-002/013)**

Añarbe baserriaren aldamenen ola egon zen sasoi batean, baina erre egin zen (eta baita baserria ere). Petrienea baserrira ordu laurden behar zen eta Pikorra-enea ere inguruan zen, baiian bi horiek Oiartzungoak ziren. Añarbe ingurua.

### **37. Denetik urruti bizi ziren (ERR-002/015)**

Bakardade sentsaziorik ez zuten, han sortuak zirelako, baina oso jende gutxi ikusten zuten. Ez ziren Erreteriarra asko joaten, derrigorrezkoa bakarrik: elizara (Pazkoazkoa hartzera eta hiletetara), errazionamendua hartzera... Goizuetara joaten ziren erosketak egitera, eta hara ere bi orduko bidea zuten. Arano zuten hurbilen. Mezetara nora joaten ziren azaltzen du, Nafarroako mugara.

### **38. Jaunartze egunean, ogi zuria (ERR-002/017)**

Jaunartzea eta konfirmazioa. Dotrina etxean ikasi zuen, buruz eta erdia latinez. Jaunartze egunean apaizak kafesnea eta ogi zuria eman zizkion, eta bera pozik. Errazionamendu garai zen. Ogi zuria Erreterian ikusi zuen aurretik, eta egun bateko jorjala balio zuen. Probatu gabe zeukan.

### **39. Garia eta artoa entregatu beharra (ERR-002/018)**

Garia entregatzeko soilik egiten zuten, gerraostean. Taloak egiten zituzten eta errazionamenduko ogi gogorra jaten zuten. Artoa Nafarroara eramaten zuten errotara, Gipuzkoan ezin baitzen. Harrapatuz gero, kendu egiten zieten.

### **40. Artilea ere entregatu egin behar (ERR-002/020)**

Artilea entregatu egin behar zenez, arreorako koltxoiak egiteko nehiko lan zuten. Mandoa artilez kargatuta harrapatu zuen behin Guardia Zibilak, zortzi bat urterekin. Firma biltzen ibiltzen ziren baserriz baserri.

### **41. Makiak zebiltzan inguruetan (ERR-002/021)**

Maki garaia zen. Guardia Zibilak eta mendiko guardak ibiltzen ziren galdezka. Asturiasko mendietatik etorritakoak ziren makiak, Frantziara joan nahian zebiltzanak. Batzuek arma eta guzti zebiltzan. Bakarka zebiltzan asko, beste batzuk taldeka... Bestaldera gidariarekin pasatzen zenik ere bazen.

## **42. Iheslariei laguntzen I (ERR-002/022)**

Añarbe baserrian ere hartzen zituzten makiak, eguraldi txarra zenean. Goizuetan gertatutakoa kontatzen du: norbaitek parte eman eta Guardia Zibila joan zela.

## **43. Iheslariei laguntzen II (ERR-002/023)**

Ez zekiten politikaz eta koloreez. Beldur ikaragarria zegoen. Baina ihesean zetorrenari laguntza emateko prest zeuden beraiek.

## **44. Errazionamenduaren bila Errenteriara (ERR-002/025)**

Astero joaten ziren Errenteriara errazionamenduaren bila. Batzuetan Pikorranekoa joaten zen bila. 9 urterekin hasi zen bera joaten, larunbatetan mandoarekin. Zer ekartzen zuen: ogia, tabakoa, olioia... Entregatzen zuten gari eta artoa pilatan egoten zen, kea dariola.

## **45. Tabako landareak (ERR-002/027)**

Gosearen beldurra. Esnea eta taloa zuten. Babarruna gordetzen ibiltzen ziren, dena ez entregatzeko. Inspektoreak joan zirenean, tabako landareak txikitu zizkieten. Txondor zuloetan jartzen zuten tabakoa. Arto bizarrak erretzea.

## **46. Senideen ibilerak (ERR-002/029)**

Koskortu ahala lanean hasten ziren, etxean ez zegoelako denentzat adina. Zaharrena gerrara eraman zuten 18 urterekin, eta 7 urte egin zituen. Soldadu joan zen beste anaia bat Burgosen hil zen. Zazpigarrena zen bera. Arreba izebarenera bidali zuten, eta berak lan asko egin behar izan zuen baserrian. Ez zuten morroi bidali. 16 urterekin basoan hasi zen lanean.

## **47. Errenterian arrotz (ERR-002/031)**

Errenteriara joaten zenean errazionamendu bila, piztiei bezala begiratzen ei zioten han. Bide txarra zuten. Zeinekin hitz egin ere ez zuen izaten. Erdaraz egiten zuten han. Ez ziren Errenterikoak sentitzen; Goizuetakoak gehiago.

## **48. Goizuetara, arrautzak saltzera (ERR-002/033)**

Goizuetara arrautzak eta oilaskoak eramaten zituzten, saltzera. Amuarrainak ere bai, errekan arrantzatuta.

## **49. Basoko lanetan ibili zenekoa (ERR-002/034)**

Basoko lanak. Egurra prestatzen zuten, ikatza egiteko. Pagomotzak. Santarderkoak oholak egiten hasi ziren, basoan bertan. Aizkora eta trontza erabiltzen zituzten. Egur kargako kobratzen zuten.

## **50. Medikuari errespetua (ERR-002/036)**

Egun batean min hartu zuen, baso lanetan zebilela, eta medikuarengana joan zen. Txapela kendu zion medikuak (errespetu falta zelako). Amarengana joaten zen Errenteriako medikua, zaldian. Diputatua eta alkatea ere bazen. Lapaza.

### **51. 3. mailako hileta (ERR-002/037)**

Amaren gaixotasuna. 48 urterekin hil zen. 3. klaseko hileta elizkizuna egin zioten. Errazionamendua ere 3. mailakoa zuten. Mailen arteko diferentziak: goizeko bederatzietan ziren 3. mailako hiletak.

### **52. Gerraosteko injustizien aurrean isilik (ERR-002/040)**

1. mailakoak aberatsak ziren. Haiek ogi txikiagoa zuten, eta 3.ekoek handiagoa. Jendeak ez zuen protesta egiten. Jendea jatekoa entregatzearen kontra hasi zen mugitzen, baina berandu. Politikaz ez zuten ulertzen. Usotara joaten zen gizon baten kontuak, kartzelan egondakoa.

### **53. Donostian lanean I (ERR-002/043)**

Basoan egur lanetan ibili zen. Gero, soldadu joan aurretik, Donostiara joan zen lanera: Gaiztarrok lurrak saldu zituen; mendia zen, eta hura lau bihurtzen ibili zen, etxeak egin behar zituztelako. Bidebieta parkea da orain.

### **54. Donostian lanean II (ERR-002/046)**

19 urterekin hasi zen Donostian lanean. Bere ilusio bakarra atsedean hartzea zen. Hamar minutuan kargatzen zuten kamioia, eskuz. Geroztik basoan ibili zen. Donostian lanean zebileneko jorrala: orduko bost pezta.

### **55. Familiaren historia: Saturnino aitona (ERR-003/002)**

Aita Errenteriakoa. Ama Altzakoa zen, Casanao baserrikoa. Casares etxean zuen jatorria. Saturnino aitona Elorriakoa zen, baina itsasgizona; alargundua zen, amona oiartzuarrarekin ezkondu zenean. Janari denda jarri zuten. Orain zazpi denda daude han (Santxoenea kalean). Ama etxera ezkondu zen.

### **56. Dendan saltzen zutena (ERR-003/003)**

Dendan zer saltzen zuten. "Ultramarinos" deitzen zioten, itsasontziz ekartzen zituztelako kakaoa eta kafea. Babarrunak eta garbantzuak nondik ekartzen zituzten, zakuetan. Paperezko zorroak. Azukrea. Olioia. Eztia. Moskatela. Loidi ardo gozoa. "Ttotta".

### **57. Aita dendan; kafea eta pastelak (ERR-003/004)**

Aitak dendan egin zuen lana beti. Oso ezaguna zen denda. Kafea erretzen zuten, kaldera batean. Pastelak egiten zituzten, eguneko esnearekin. 8 senide. Baraurik meza nagusira, eta gero pastelak jatera. Zorretan zegoen laguna. Kafea opari.

### **58. Denda ondoko jangela (ERR-003/005)**

Jangela dendaren ondoan zegoen. 14 ziren denera; neskameek sukaldean eta beraiek jangelan. Baserritarrak Altzatik eta Hondarribitik, tratuairekin. Larunbata, feria eguna.

### **59. Egunkariak eta bertso-paperak (ERR-003/006)**

Gerra aurretik, egunkariak saltzen iskanbila ateratzen zuten. Bertso-paperak. Titiriteroak.

## **60. Santxoenea kalea nolakoa zen (ERR-003/007)**

Santxoenea kalea jaio eta bizi da. Kale xumea da. Sotoak, sagardotegia, Paraiso taberna. Zapata konpontzailea. Albaiteroa, Jauregitarren denda. Gasparren ardandegia. Zahagiak. Jendea aulkietan eserita, kalean.

## **61. Asto-tokia eta azoka (ERR-003/008)**

Asto-tokia non zegoen. Azoka Foruen plazaren erdian zegoen. Arrain saltzaileak, kalean bertan, eta baserritarrak. Zer saltzen zuten.

## **62. Olibet galletak saltzen (ERR-003/009)**

Olibet galletak saltzen zituzten dendan. Bakarrak ziren Erreterian. Francotarrak ere joaten ziren erostera. Maria galleta. Erreak eta puskatuak aparte saltzen zituzten fabrikan. "Txikitiloak". Gotzainaren anekdota.

## **63. Umetako jolasak kalean eta errekan (ERR-003/010)**

Umetako jolasak. Txingoak. Arkume hezurak. "Tocapies". Kanikak. Gabierrota. Errekako jolasak, udan. Baratzeak. Bainujantzirik ez. Neskak igeri ez. Don Roberto parrokoa, gerra ondoan. Kongregazioak.

## **64. Frantsesa ikastera Frantziara (ERR-003/011)**

Aitona oso kultura zalea zen. Izebak eta lehengusuak interna joaten ziren Frantziara, ikastera. Gerra aurretik. Mugaren bestaldearekin harreman gehiago zegoen. Amonak ere hala ikasi zuen.

## **65. Batxilergoa egin zuen (ERR-003/012)**

Eskolan Erreterriako komentuan ibili zen 10 urte arte. Uniformearekin. Nistal ahizpekin ibili zen gero, "las canarias", eskola pribatua batxilergoa ikasten. Azken bi urteak Donostian, Santa Teresan. Erreterriako hogeitabat neskak egin zuten batxilergoa.

## **66. Lehenengo lanak, irakasle moduan (ERR-003/013)**

Ikasten zebilela, udan josten. Hondartzara ere bai, Donostiara. Tranbia irekiak, "jardinerak". 17 urterekin lanean: klase partikularrak ematen, akademia batean eta gero etxeko dendan.

## **67. Erreterria: Manchester txikia (ERR-003/014)**

Aitak egiten zituen pastelak, eta aurretik aitonak. Asko bidaiatu zuen. Erreterriari Manchester Txikia esaten zioten, industrialia zelako. Fabrikek etxeen errenta ordaintzen zieten langile berriei. Bere izebak Altzatik joan ziren hala. Inmigrazioa. Fabrikak aipatzen ditu.

## **68. Fabriketako ordutegiak (ERR-003/015)**

Paper fabrika ez zuten ixten. Tutuak hamabietan jotzen zuen, ordu biak arte bazkaltzera. Langileen janzkera. Gerra ondoan tela erosteko ere arazoak.

## **69. Manifestazioak eta istiluak (ERR-003/016)**

Lantegietako arazoak: kooperatibako jakien prezioak zirela eta. Ogia zentimo bat igo zutenean, manifestazioa. Politika kontuak. Guardia Zibilak eta asaltokoak, porradunak. Zaldiekin etorri, eta istiluak.

### **70. Aita zinegotzi jeltzalea (ERR-003/017)**

Aita zinegotzia zen, jeltzalea, gerra hasi zenean. Lizarrako bilkura. 100.000 pezetako isuna. Aitak karlista bati lagundu zion eta mojak izan zituzten ezkutatuta etxean. Artxandan hil zuten aita.

### **71. Gerra hasi zenean, aita frontera (ERR-003/018)**

Gerra hasi zenean, aita frontera eta ama etxera, zortzi seme-alabekin. Bergarara joan ziren, izebarengana. Izebak geratu ziren, bestela etxea hustuko zieten. Dena bahitu zieten, 27 etxebizitza.

### **72. Aita zergatik joan zen frontera; amaren jarrera (ERR-003/019)**

Aita batzokiko arduradunetakoa zen. Pilota-partidak, taberna eta pospolinen dantzak. Gazteak bakarrik ez uztearren joan zen frontera. Han hil zuten. Amak barkatu egin behar zela esaten zuen. Neskameak.

### **73. Pospolinetako eta Gabonetako kantauak (ERR-003/020)**

Pospolinen kantak eta dantzak. Ez ditu kantak gogoratzen. Etxean asko kantatzen zuten. Gabonetako kanta batzuk aipatzen ditu. Amona edadetua zen, baina oso buru ona zuen. Sehaska kantak.

### **74. Dantza eta zinea (ERR-003/022)**

Errenteriako dantza famatua zen inguruetan. Biteri kalean paseoan, mutilei begira. Igandetan denda irekia egoten zen, eta amak mojegana bidaltzen zuen, zazpiak arte. Handik korrika dantzara. Zinea. Dena bekatua.

### **75. Dantza eta mutil kontuak (ERR-003/023)**

Alamedara korrika, dantzara. Joakinek jotzen zuen musika. Dantza bidez ligatzen zen. Euskara debekatua zegoen. Ez daki euskaraz idazten. Senarra nola ezagutu zuen, Etxebeste drogeriakoa.

### **76. Elizaren indarra eta debekuak (ERR-003/024)**

Dena bekatua zen. Lantxa bat zuten, eta Madrilgo izebarekin joan ziren. Behin, bainatu ondoren, arroka atzean arropaz aldatu zen, eta gero pulpitutik esan zuten. Izeba erdi moja zen.

### **77. Bikote harremanak tabua ziren (ERR-003/025)**

Dena bekatua. Kongregaziotik botatzen zituzten batzuk. Sexua tabua zen. Pasadizoa: ahizpa ezkondu aurretik egin zen bazkarian lau txikienak ez ziren mahaian egon.

### **78. 17 urterekin hasi, 22rekin ezkondu (ERR-003/026)**

Neska laguntza egiten zen. Sotoan agurra. Iluntzerako etxean. 17 urterekin hasi eta 22 urterekin ezkondu ziren. 15 urtetatik elkarri begira. Parrokian ezkondu ziren.

### **79. Ezkontzako soinekoa; jostun asko eta onak (ERR-003/027)**

Soinekoa neurriara. Martija jostunak. Asko zeuden, eta oso jostun onak, Madrilen ere famatuak. Nieves Fernandez. Soineko beltza.

### **80. Ezkontzako orrazkera; ile apaindegiak (ERR-003/028)**

Orrazkera, ezkontza egunerako. Ile apaindegi asko zeuden. Gizaseme batzuk egunero joaten ziren bizarra egitera. Makilajea. Osaba apaizak ezkondu zituen.

### **81. Bazkaria, Panierren; apaizei berorika (ERR-003/030)**

Panier jatetxean egin zuten ezkontzako bazkaria. 26 entremes mota. Hiru apaiz gonbidatu zituzten, eta beraietako batek amonari zer esan zion. Apaizei berorika. Hika eta berorika gutxi, gehiena zuka.

### **82. Indarpean erdaraz hitz egiten (ERR-003/031)**

Etxean beti euskaraz, baina dendan erdaraz egin behar. Herrikoekin euskaraz, baina kanpokoekin ez. Kanpotar asko etorri zen, Galiziatik, Errioxatik, Nafarroatik. Familia askotan beldurrarengatik galdu zen euskara. Zapiaren zigorra, eskolan.

### **83. Desfileak eta burlak, gerra garaian (ERR-003/033)**

Herriak hartzen zituztenean, desfileak. Emakume batzuei ilea moztu zieten, tartean izebari. Isunak. Alkateak ematen zuen informea. Batzokia falangearen esku gelditu zen. 50eko hamarkada arte euskal dantzarik ez.

### **84. Errazionamendurako errolda egiten (ERR-003/034)**

Gose garaia. Errazionamenduko kartilak, hiru kategoriatan banatuta. "Abastos" jarri zuten hori kontrolatzeko. Janari dende jendearen erroldak egin behar izan zituzten; ahizpa eta biak ibili ziren etxez etxe. Askok ez zekiten sinatzen.

### **85. Errazionamendua banatzen (ERR-003/035)**

Bezero asko zituzten errazionamendua banatzeko. Familiaka antolatzen zuten jeneroa. Azukrea eta olio. Eroste eskubidea agintariek ematen zuten, baina erosi bezeroek. Kontrolak. Jendea goseak, laranjak lapurtzen. "Del tito" gaixotasuna eta biriketako gaitza.

### **86. Arraina nahiko libre, haragia kontrolatuta (ERR-003/036)**

Errazionamendu garaiko kontuak. Itsasoak salbatu zituen asko: arrain freskoak. Haragia kartilarekin ala isilka eros zitekeen. Balkoiak oiloz bete ziren. Baratzetan ere hegaztiak, txerriak... zakurra jarri ezean, lapurretak. 48 kilo argaldu zen emakumearena.

### **87. Estraperloa; janaria gordetzen (ERR-003/037)**

Trenbidea estraperlorako erabili zen, Nafarroatik ogia-eta ekartzeko. Poliziatik ihesi ibiltzen ziren. Tranpa: kafea gordetzen zuten. Kontserba latak ere ezkutatu zituzten; gauero-gauero porruak jaten, nazkatuta.

### **88. Etorkinengandik asko ikasi zuten (ERR-003/039)**

Etorkinak. Kanpoko jendearekin arazorik ez zuten. Dendan telefona zuten, eta hara joaten ziren deiak hartzera; askotan etxeko giltza uzten zieten. Haiengandik ere asko ikasi zuten, gastronomia adibidez. Enpanadak.

### **89. Dendan ordaintzeko dirurik ez askok (ERR-003/040)**

Dendan, ordaintzeko dirurik ez askok. Tranpatxoak ere egiten zituzten batzuek. Ama batek ez zuen umeei emateko janik, eta zinera bidaltzen zituen entretenitzeko. Aza usaina, familia aberatsetan ere bai. Babarrunen anekdota.

### **90. Emakumearen kaxuelarekin gizona soziedadera (ERR-003/041)**

Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen; terrazetan bai, egoten ziren udan. Elkarte gastronomikoak eta sagardotegiak gizonentzat bakarrik; emazteak preparatutako kaxuelatxoekin, hori bai.

### **91. Dendako ordutegia; kontuak, eskuz (ERR-003/042)**

Denda ez zuten gaueko hamarrak arte ixten. Bazkaltzeko etenaldia. Hamarretan gozodenda irekitzen zuten, bederatzietan janari denda. Arrosarioa. Kajoietan sartzen zuten dirua. Batuketak eskuz, paperean ala buruz. Txorizoa eskuz mozten, makina Suitzatik ekarri arte. Kamara, izotzarekin; egunero berritu behar.

### **92. Jakien kalitatea; errazionamenduko ogia (ERR-003/043)**

Jakien kalitatea nola aldatu den. Esnea. Errazionamenduko ogia txarra zen. Kontserbak, olioak... 1941-42an gose handiena. Txerrikiak. Urdaiazpikoak etxean ere prestatzen zituzten. Olibet gailetak.

### **93. Lantegietako gatazkak; manifestazioak (ERR-003/048)**

Lantegietako gatazkak. Sindikatuak asanbladak, herriko plazan. Ekoizpena igotzeko planak. CNTko emakume bat buzo urdinarekin, ogiaren prezioa igo zutenean. UGT. Borrokak. Manifestazioak. Amnistiaren aldeko Gestorakoa izan zen.

### **94. Etorkinak bertakotuta; Erreterria, herri bizia (ERR-003/049)**

Etorkin asko bertakotuta, manifestazioetan parte hartzen. Beste batzuk salatari lanetan. Gerra aurretik ere hainbat talde: batzokia, UGT, komunistak... Beti izan da herri bizia. ETA sortu zenean ere bai, mugimendua.

### **95. Manifestazioak eta miaketak (ERR-003/050)**

Istilu handiak izaten ziren Erreterrian. Polizia tiroka, jendea zapatak galduta... Teonean sartu zirenekoa. Etxez etxe miaketak, eta kalean ere bai. Barrikadak, askotan.

### **96. Harremanak nola aldatu diren; txistulariak (ERR-003/055)**

Lehen oso gutxi zirenez, zuzeneko harremana zegoen. Orain taldeak egiten dira: ikastolakoak, elizkoiak... Nork bere elkarteak eta ospakizunak. Txistulariek bere kasa jotzen zuten gerra aurretik. Urtebetetzetan ere jotzen zuten.

### **97. Gerra aurretik, euskara nagusi; orain, berriz... (ERR-003/057)**

Gerra aurrean euskara zen herriko hizkuntza nagusia baserrian nahiz kalean. Salamancako neskameak ere ikasi zuen. Gero ezin zen: kanpotik jende asko etorri zen eta euskara debekatua zegoen, gainera. Apaizgaiek ere ez zuten euskara ikasten. Orain, ikastolak egon arren, zaila da balantza orekatzea. Erdarara jotzeko joeraren zergatiak.

### **98. Hiru haur etxean, besteak ospitalean jaioak (ERR-003/061)**

Hamar seme-alabatatik hiru ikastolan ibili dira. Lehenengoak etxean izan zituen, gero ospitalean. 'Uni&oacute;n Previsora' aseguruua. Quiron. San Ignacio klinika. Lehenengo erditzea oso gogorra, San Pedro egun batean. Emagina.

### **99. Haurdunaldian, dieta (ERR-003/062)**

Haurdunaldian ere joaten zen Albea medikuarengana. Gatzik gabeko dieta. Ekografiarik ez. Jaio arte ez zekiten sexua. Sehaskak eta arropak. Haurrak nola garbitzen zituen. Neskamea zuen, laguntzeko.

### **100. Erditzea eta oilo salda (ERR-003/063)**

Komadrona beti ondoan, medikua bueltaka. Ur beroak prestatu. Ohean eduki zituen haurrak. Erditze denak ezberdinak dira. Bat hamar hilabeterekin jaio zen. Denbora askoan ohean. Oilo salda jaten. Gizonak oiloa.

### **101. Bularra ematea; jaioberrien arropak (ERR-003/064)**

Umeei bularra ematea zen normalena. Pixa oihalak, felpazkoak; "pikuak". Kamisetak etxean egiten zituen, jertseak ere bai.

### **102. Moja sartzeko erabakia eta ordutik izandako bizimodua (ERR-004/002)**

Gaztetan moja izatea erabaki zuen eta nobiziatua egin zuen. Hainbat herritan egon izan da irakasle eta zer gai eman izan dituen aipatzen du.

### **103. Euskara irakaskuntzan sartzen (ERR-004/004)**

1976an euskarako titulazioa atera zuen Bilbon, euskarako klaseak eman ahal izateko. Erreterriako San Jose ikastetxean eskolak ematen hasi zenean, hiru apaizek ematen zuten euskaraz. Konsuelok bultzatu zuen irakasle guztiek euskara ikastea; Konsuelo bera euskara irakasten aritu zen. Donostiako Santo Tomas Lizeoan irakasle izateko eskaini zioten, baina Erreterrian gelditu zen Konsuelo.

### **104. Euskarako titulazioa atera zuenean, euskarako irakasle aritu zen (ERR-004/006)**

1973an hasi zen euskara ikasten Bilboko hizkuntza-eskolan. Horrela, euskarako titulazioa lortu zuen eta Irunera etorri zen; orduan, eskolatako irakasleei euskara irakasten aritu zen. Klase haietan zer erakusten zuen azaltzen du.

### **105. Euskara fintzera Bilboko hizkuntza-eskolara (ERR-004/007)**

Euskara beti hitz egin izan du, etxetik jaso baitzuen. Gazte zela, ordea, euskara zabartuta zeukala iruditzen zitzaion eta Bilboko hizkuntza-eskolara joan zen hura fintzera.

### **106. Aita eta osaba zituen "Zabaleta anaiak" (ERR-004/009)**

Aita bertsolaria zuen, eta uste du haren aitarengandik jaso zuela bertsotarako zaletasuna. Aita eta bere anaia ezagunak ziren: "Zabaleta anaiak", hain zuzen ere; bien estiloak alderatzen ditu. Aita etxean eta Goiko Kaleko jaietan bertsotan aritzen zen.

### **107. San Agustin egunerako ilusioa (ERR-004/010)**

San Agustin egunean izaten ziren Goiko Kaleko jaiak. Umetan asko gustatzen zitzaizkien jai haiek: antolatu egiten zituzten, kalea garbitzen zuten erratzarekin, ikurrinaz betetzen zituzten kaleak... Ikurrinak nola prestatzen zituzten azaltzen du.

### **108. Otorduetako ardoa eta sagardoa (ERR-004/012)**

Lehen ardoa edaten zen bazkaritan eta sagardoa afaritan. Ardoa erosteko Kattalinen dendara joaten ziren. Umetan beraiek ere edaten zuten ardoa eta sagardoa, baina urarekin nahastuta.

### **109. Ama odol-emailea zen (ERR-004/013)**

Beraien familian O- odolekoak dira, odol-emaile unibertsalak alegia. Konsueloren ama odol-emailea izan zen. Lehen oso gauza berezia zen odola ematea.

### **110. Etxetik jaso zuen erlijioarekiko maitasuna (ERR-004/015)**

Erljioarekiko maitasuna etxetik jaso zuen Konsuelok; gerora, bere kabuz hartu zuen moja sartzeko erabakia. Ama oso fededuna zen.

### **111. Goiko kalea lehen (ERR-004/017)**

Konsueloren haurtzaroan Goiko Kalea nolakoa zen azaltzen du. Arrosario-fabrikaren jabeak ziren beraiek eta baratze bat ere bazeukaten.

### **112. Gurasoen lana (ERR-004/018)**

Lehen baratzea zeukaten beraiek eta ondoko baratzea Xabier Leteren aitarena zen. Baratzea lantzeko etxetik kanpoko norbait hartzen zuten. Aita tindatzailea zen eta oso marrazki interesgarriak egiten zituen. Amak tela-fabrikari egiten zuen lan, eta orduan erabiltzen zuten arropa oraindik gordeta dauka Konsuelok.

### **113. Aita tindatzailea zen (ERR-004/019)**

Aita tindatzailea zen eta kolore asko erabiltzen zituen horretarako. Konsuelok 12 urte zituela hil zen aita bat-batean, eta lanean bera ordezkatzeko bi ingeniari ekarri zituzten.

#### **114. Umetako planak (ERR-004/020)**

Umea zela, sokasaltoan eta kanikatan ibiltzen ziren gehienbat. Batzuetan mendira eta inguruko herrietara joaten ziren. Zinera askotan joaten ziren.

#### **115. Koldo Mitxelena asko ezagututakoa (ERR-004/021)**

Koldo Mitxelena eta haren familia asko ezagutu zuen Konsuelok. Koldok hizkuntza aztertzeke erabiltzen zuen metodologiari buruz hitz egiten du. Oiartzungo eta Errenteriako euskara alderatzen ditu.

#### **116. 'Xenpelar'ren bertsoak (ERR-004/024)**

Amak ez zuen ezagutu Xenpelar, baina bai haren bertsoak. Bertso batzuk abesten ditu.

#### **117. Juan Zabaletaren, bere aitaren, bertsoak (ERR-004/025)**

Aitak egindako bertso bat abesten du.

#### **118. Aitaren bizimodua eta dohainak (ERR-004/028)**

Egun berezietan aitarekin bazkalostean abesten zuten normalean. Aitaren laneko ordutegia nola izaten zen azaltzen du. Askok gustatzen zitzaion margolanak egitea.

#### **119. Lehengo Madalenak eta Gabonak (ERR-004/029)**

Lehen Madalenak oso desberdinak ziren oraingoan aldean: dantza asko izaten zen Zumardian eta txistulariak egoten ziren. Gabonetan ere jaiotzarekin ateratzen ziren abesten.

#### **120. Goiko kalean jaioa (ERR-005/002)**

Errenteriako goiko kalean jaioa, Migel Alduntzin. Maizterrak ziren orduan ia denak. Argia. Aita Larrapitxikoa, ama oiartzuarra, Zamora baserrikoa. Aitak ez zekien erdaraz. Ahizpa eta aita Laneran lanean; bera jostun.

#### **121. Josten ikasten (ERR-005/004)**

Goiko kalean ikasi zuen josten, Genoveva Iñarrarekin. Mertzzeria. Askok joaten ziren hara ikastera; batzuk aipatzen ditu. Maistraren laguntzailea zen.

#### **122. Aita 12 urterekin hasi zen lanean (ERR-005/006)**

Errentan zeuden aitaren baserrian. Aitona bakarra ezagutu zuen. Aitaren ama gazte alargundu zen; aita 12 urterekin lanean hasi zen Errenterian. Hark esaten ziena lehengo bizimoduaz. Alpargatak.

#### **123. Bizilagunen arteko tratua; baratzea etxe atzean (ERR-005/007)**

Goiko kalea nolakoa zen. Lehen etxe denak zabalik zeuden eta denak ezagunak ziren. Bizilagunen arteko tratua aldatu egin da. Lehengo zelaiak eta baratzeak. Etxe atzean baratzea zuten. Zer landatzen zuten. Oiloak.

#### **124. Futbolean, paperezko baloiarekin (ERR-005/008)**

Umetako jolasak. Futbolean, paperezko baloiarekin. Txingoak, kromoak, uztaia. Tomate potoak hanka azpian jarrita, "señoritena" egiten. Tabak.

#### **125. Eskolan mojetan (ERR-005/009)**

Eskolan Gurutzeko Alabekin ibili zen, mojekin. Eguneroko bizimodua. Denak batera bazkaltzen zuten, beti ordu berean. Eskolatik bueltan, merienda, eta kalera. Erdaraz hitz egiten zuten eskolan eta kalean. Sor Lucia gogorra zen.

#### **126. Goiko kaleko dendak eta festak; Eguberriak (ERR-005/010)**

Goiko kaleko dendak. Tindategia eta janari denda. San Agustinetan festak egiten zituzten. Gero, agustinetan hasi ziren. Buruhandiak, zinta lasterketa, musika... Bertsolariak gero hasi ziren. Ama-alabak dantzan, Gabonetan. Kantatzeko zaletasuna. Elizako kantak.

#### **127. Bezperetatik irten eta dantzara; zinema (ERR-005/012)**

Igandetan musika izaten zen Alamedan. Bazkaldu, sukaldea jaso eta bezperetara, 16:30ak arte. Mantilla poltsikoan sartu, eta dantzara. Zinemara, Onbidera. Oraingo gazteen errespetu falta aipatzen du.

#### **128. Sukaldean ibiltzeko zaletasuna (ERR-005/013)**

Ahizpa asko ziren. Amak sukalderako asko balio zuen; Panier jatetxetik ere deitu zioten. Berari ere gustatzen zitzaion sukaldaritza.

#### **129. Otorduak; erosketak plazan; esnea etxeraino (ERR-005/015)**

Ahizpak Panierren ikasi zuen zerbait. Igandean salda, zopa eta garbantzuak. Arkumea eta mingaina saltsan. Tripa betetzeko moduko otorduak. Plazan erositako produktuak. Astoak. Esnea etxeraino.

#### **130. Biteri kalean paseoan (ERR-005/016)**

Biteri kalean gora eta behera, paseoan. Gustuko mutila ikusteko irrikitan. Mutilekin paseatzea ez zen bekatua, dantza egitea bai. Mojei gezurretan, ez zirela dantzan ibili esanaz. Txibatak.

#### **131. San Juan, Ostegun Gizena eta Madalen jaiak (ERR-005/018)**

San Juanetan ederki pasatzen zuten. Arbolaren jiran dantza egiten zuen anaiarekin, soltean zapiarekin. Anaia dantza irakaslea zen. Ostegun Gizenean ere dantza. Madalen jaietan, baserritar jantzita.

#### **132. Errenteriako Madalen jaiak (ERR-005/019)**

Madalen jaiak nolakoak ziren. Salbea, buruhandiak, banda. Meza nagusian eliza beteta. Kontzertua. Bazkari berezia: zopa eta arkume errea. Postrea: torrajak, arroz-esnea. Kafea, koñakarekin. Musika eta su artifizialak. Idi apustuak. Arrain saltzaileak. Oraingo jaiak eskasak.

### **133. Madalen jaiak; arropa estreinatzeko eguna (ERR-005/021)**

Madalen goizeko dianan Loiolako militarrek, zaldiekin. Politena kendu egin dela dio. Arropa estreinatzen zuten jaietan; Ama Birjina egunean ere bai. Soinekoa, zapatak. Errenteriako zapata dendak. Apeztegia.

### **134. Donostiara tela eroatera (ERR-005/022)**

Arropa josi egiten zuten. Tela dendak. Arropa egin saltzen hasi ziren gero. Donostiara joaten ziren tela eroatera. Erdaraz egiten zuten ahizpen artean. Tranbia. Autorik ez. Lehen, ezin-ikusi gutxiago. Politika.

### **135. Jostun lanetan (ERR-005/024)**

Kanporako josten hasi zen. 16-17 urte egin zituen josten. 70 urterekin utzi zuen. Lekuonatarrentzat josten. Egiten zituen konponketak. Lapaza medikuaren emazteari soineko zuria egin zion San Ferminetarako.

### **136. Tubo fabrikan lanean (ERR-005/025)**

Pasaian tubo fabrikan ibili zen lanean. 11 urtean. Hortzetarako pastaren tuboak egiten. Gurasoekin bizi zen, Eliz kalean. Pasaian bizitzen egon ziren tarte batean, eta gero Errenteriara berriz.

### **137. Mendarteneko denda (ERR-005/027)**

Mendarteneko dendara joateko ohiturarik ez zuten. "Peladillas". Gozodenda eta okindegia izan zen janari denda izan aurretik.

### **138. Lehengo eta geroko grebak; "txingurri" (ERR-005/032)**

Fabrikan ez zuen grebarik egin berak. Greba egun batean, lanera joan zen, eta Polizia bidera irten zitzaion gero, babesteko asmoz. Diru asko kentzen zieten greba eginez gero. Manifestazioak, alferrekoak. Rufino Etxenike "Txingurri" komunistaren grebak ziren onenak, gerra aurrekoak.

### **139. Gerra hasi zenekoa (ERR-005/034)**

Komunistak, gerra aurretik. Gorriak. "Txingurri". Fundizioan egiten zuen lana. Gerra hasi zenean gertatu zena. "Txingurri" desagertu egin zen. Bi aldetakoek hiltzen zutela dio. Bi kasu aipatzen ditu.

### **140. Gerra osteko gosea (ERR-005/036)**

"Gorriek" etxeak sakeatu zituztela dio. Gerra osteko gosea. Latasatik ekartzen zuten babarruna, Nafarroatik. Haragia tomatearekin. Ogia falta zen.

### **141. Ez ziren herritik joan; anaia soldadu (ERR-005/038)**

Kalean erdaraz egiten zuten, eta ez zuten debekurik igarri. Mairuek neskak bortxatzen zituztela esaten zuten. Errusiara bidalitako haurrak. Ez ziren herritik joan, eta ez zitzaien ezer gertatu. Anaia soldadu, Ebroko batailan. Gorriek tranpa egin ei zuten han. Etxeko zakurra.

### **142. Tubo fabrikan lanean II (ERR-005/039)**

Ikurrina debekatu zuten, baina azaltzen ziren batzuk. Lanera oinez joaten zen. Erreleboan lana. Bi ahizpak elkarrekin bizi ziren.

### **143. Etxea ordaintzeko diru aski (ERR-005/040)**

Dirua egin zuten. Aparteko orduak hiru pezeta eta erditik zazpira igotzeko greba. 1.000 pezetatik gora irabazten zuten. Etxeek zenbat balio zuten. Etxea nola ordaindu zuten.

### **144. Izandako josteko makinak (ERR-005/043)**

Bigarren eskuko josteko makina: Singer. Oso ona ei zen. Berria erosi zuen gero.

### **145. Josten eta fabrikan (ERR-005/047)**

Lekuona gozodendakoek propina ematen zioten josteagatik, baita pastelak ere. Fabrika eta jostun lanak nola bateratzen zituen.

### **146. Errenteriako sagardotegiak (ERR-005/051)**

Errenteriako sagardotegiak. Santa Klaran, goiko kalean... Lubeltza baserrikoek barrika txiki bat oparitzen zieten urtero. Sokak eramaten zizkien fabrikatik. Zizarra. 50 bat litrokoa. Karretilak. Sagardoa. Nobio kontuak.

### **147. Sagardoa txarroan (ERR-005/052)**

Sagardoa botiletan ere saltzen zen, txarroarekin joanda ere bai. Sagardoa etxean edaten zuten, baina sagardotegian normalean ez. Aspertu egin zen sagardoarekin.

### **148. Tabernak, elkarteak; desagertutako baserriak (ERR-005/054)**

Tabernak sagardotegiak baino gutxiago. Elkarte gastronomikoak: Txepetxa... berriak dira. Orduko tabernak aipatzen ditu. Desagertutako baserriak. Denak ezagunak ziren lehen.

### **149. Fanderian hankak bustitzen (ERR-005/055)**

Goiko kalean hasi ziren San Agustin ospatzen eta agustinetan kopiatu egin zieten. Santa Klara kalean ere festak egiten zituzten. Fanderiara joaten ziren igande arratsaldetan mojekin, hankak bustitzera. Errota. Bekatuak.

### **150. Konfesioak eta kongregazioak (ERR-005/056)**

Apaizarengana konfesatzera. Lagun bati gertatu zitzaiona: mutilak musu eman ziola, eta apaizak esan zion ez dela bekatu. Ahoan ematea bekatua zen, bestela ez. Bekatu larririk ez zuten. Kongregazioak. Dantzak.

### **151. Hiru erronbotako pelikulak bekatu (ERR-005/057)**

Reina zinemara ez ziren joaten, hiru erronbokoak zelako. Bi erronbotarakora joanda ez zuten bekatu egiten. Behin joan ziren hirukora, eta gogorra egin zitzairen orduan.

### **152. Umeak Paristik (ERR-005/059)**

Umeak Paristik zetozen. Zikoinak eramaten zituen. Berandu arte ez ziren egiaz konturatu, inuzenteak ziren. Erregeen opariena bezalaxe zen hori. Etxean ez zuten ezer esplikatzen. Errespetua: zaharrei aulkia uztea. Hilerokoa. Felpazko zapiak.

### **153. Hilerokoa eta orduko painoak (ERR-005/060)**

Hilerokoa jaitsi zitzaionekoa. Felpazko zapiak. esaten zuten hilerokoarekin egonda ez zela bainatzea komeni. Amak kontrolatu egiten zituen. Painoak erosi egiten ziren.

### **154. Beti gonarekin (ERR-005/063)**

Galtza gizonentzat zen, emakumeentzat ez. Beti gonarekin. Belauna gorde egin behar zen. Azpiko gonaren garrantzia. Galtzerdiei nola eutsi. Korsea. Galtzerdiak konpontzeko dendara.

### **155. Amandrearen opariak eta bedeinkazioak (ERR-005/064)**

Belarritakoak beti. Urrezkoak. Katea. Amandreak oparitutakoak. San Marcos opilaren ohitura: besoetakoei gozotegian erostea opila; elizan bedeinkatu, eta bazkalondoan jan. San Blas eta Ama Birjina eguneko bedeinkapenak.

### **156. Errenteriako gazteen eta ingurukoetakoen arteko harremana (ERR-006/008)**

Lehen Errenteria oso desberdina zen: oso giro herrikoia zegoen. Gerra ostean, hainbat auzo berri egin zituzten. Pasaiakoen aurka ika-mikak zituzten, futbola zela medio neurri handi batean; Errenteriakoei buruz esaten zirenak aipatzen ditu. Oiartzungoekin ika-mika handia zeukaten, Errenteriakoek neskekin gehiago ligatzen zutelako; Oiartzungoek harriak botatzen zizkieten. Errenteriakoak Lezokoekin oso ondo konpondu izan dira.

### **157. Dendan lapurtzeko estrategia landua (ERR-006/009)**

Umetan, lapurretan aritzen ziren. Lapurtzeko estrategia landua zeukaten: liburu-denda bateko horman zuloa egin zuten; gainerako mutikoek horren berri izan zutenean, haiek ere dendan sartu ziren.

### **158. Primo de Riveraren garaiko giro zaila (ERR-006/011)**

Primo de Rivera diktadorea zegoen garaian, herrian ez zegoen giro ona: Murtziako gizon batekin kalean egondako liskarra kontatzen du. Orduan, "guardia de asalto" etorri zen Errenteriara eta borroka gogorra egon zen herritarren aurka.

### **159. Gerra garaiko ideologiak eta adiskidetasunak (ERR-006/012)**

Lehen zer ideologia zeuden azaltzen du. Serapio Mendarte bere osaba zen eta gerra garaian fusilatu egin zuten Artxandan. Garai hartan, hala ere, adiskidetasuna ideologia baino garrantzitsuagoa zen.

### **160. Gerra aurretik Errenterian egondako iskanbila handia (ERR-006/014)**

Errenterian gerra aurretik iskanbila handia egon zen Espainiako hegoaldetik etorritako jendearen eta Errenteriako abertzaleen artean; abertzale haietako bat Inaxitoren ama zen. Celestino Goenaga Inaxitoren laguna zen eta haren ama defendatzera joan zen; hiltzorian egon zen jaso zuen jipoiarengatik.

### **161. Bidegabekerien aurkako borroka Erreterian (ERR-006/017)**

Erreteria &ldquo;Kosovo euskalduna&rdquo; izan omen da: beti borrokan. Inspekziara askotan eraman izan dute Inaxito eta jipoiak eman izan dizkiote. 14-16 urterekin hasi zen borroka politikoan: kartelak jartzen zituzten, bidegabekeriak salatzen zituzten (lapurretak, prostituzioa&hellip;)&hellip;; Gerra aurretik, Erreterian denek ezagutzen zuten elkar eta ez zuten dudarik izaten bidegabekerien aurka borroka egiteko.

### **162. Arreba kartzelara eraman zuteneko une gogorak (ERR-006/018)**

Inaxitoren etxean drama bat ikusi zuten gerra garaian: arreba kartzelan sartu zuten Cervera itsasontzian. Han egunero pertsona bat hiltzen zuten, aitak lagun komunista batengana jo zuen laguntza eske eta alaba salbatzea lortu zuen. Lehen elkartasun handiagoa zegoen.

### **163. Pasaiaikoen eta Erreterikiakoen arteko "gerrak" (ERR-006/019)**

Erreterian hiru futbol-talde zeuden, eta Pasaian bat. Elkarren arteko harremanak onak ziren hasieran, baina pixkanaka gaiztotzen joan ziren. Azkenean, gerrak egiten zituzten umeen artean, helduen jokaera imitatuz. Mutil batek begia galdu zuen gerra haietako batean.

### **164. Gerrako une latzek markatu egin zuten Inaxito (ERR-006/020)**

Gerra etorri zenean, Erreteria ebakatu egin zuten. Asturiastik meatzari asko etorri ziren euskaldunei dinamita nola erabiltzen zen erakustera. Behin meatzari haietako bati tiroa jo zioten buruan kanpandorreen zegoela. Orduan Inaxito umea zen eta gerrako panorama latza ikusita oso gaizki pasa zuen.

### **165. Gerrak soldaduengan utzitako ondorioak (ERR-006/021)**

17-18 urteko gazteak gerrara eraman zituzten soldadu Erreteriatik. Gerratik itzuli zirenean, barrua hustuta eta burua nahastuta zeukaten askok. Mutil haietako asko edaten hasi ziren orduan.

### **166. Gerratik itzulitakoan, alkohollean babestu (ERR-006/023)**

Erreterikiako mutil gazteak gerratik itzuli zirenean hustuta zeuden, erotuta. Askok edaten hasi ziren, ahazteko. Gehienbat sagardoa, ardoa eta koñaka edaten zuten. Inaxito ere edaten hasi zen; eta alkoholarekin arazoa zuten lagunak elkartzen hasi ziren Inaxitoren etxean.

### **167. Alkoholarekin zuen arazoa konpontzeko, psikiatrikora joatea erabaki zuen (ERR-006/024)**

Alkoholarekin arazoa zuela konturatu zenean, psikiatriko batera joan zen Inaxito. Lau hilabete eman zituen han eta esperientzia gogorra izan bazen ere, asko ikasi zuen hartatik.

### **168. Bizia salbatu zion gizona (ERR-006/029)**

Psikiatrikoan egon ostean, herrira itzultzean, alde handia ikusten zuen jendearen artean: gaizki pasa zutenen eta pasa ez zutenen artean; pobrezia zer zen zekitenen eta ez zekitenen artean. Sozialista eta abertzalea zela konturatu zen orduan. Gaixotu egin zen, ez zuen ulertzen hemengo bizitza: hutsala, mamirik gabea... iruditzen zitzaion. Azkenean, Juanjo García Cavadak asko lagundu zion. Hark aholkatu zion bere egoera berean zegoen jendearekin harremanetan jartzeko.

### **169. Arazo bera zuen jendearekin hitz egiteak ekarritako onura (ERR-006/031)**

Juanjo García Cavadarekin hitz egin ostean, bizitzeko poz berria sartu zitzaion Inaxitori. Pixkanaka zerrenda bat egin zuten jendea alkoholikoen arteko bileratara joan zedin animatzeko. Arrakasta handia izan zuten bilera haiek: alkoholak antzeko arazoak ekarri zizkiela konturatzeak asko lagundu zien.

### **170. Bilerak hasteak osasun mentala hobetu (ERR-006/034)**

Alkoholikoen lehenengo bilera 1960ko uztailan egin zuten. Bilerak larunbatetan egitea erabaki zuten. Pixkanaka hainbat lekutan joan ziren zabaltzen bilera haiei buruzko informazioa eta osasun mentala berreskuratzen hasi ziren horrela. Emazteak babes handia eman zion Inaxitori. Bilerak egiteko lekuak aldatzen joan izan dira hasieratik hona.

### **171. Espainiako hegoaldeko jendea bileratara etortzeak ekarritako onura (ERR-006/036)**

Andaluziatik, Extremaduratik eta Gaztelatik Euskadira lanera etorritako jendea ere bileratara etortzen hasi zen, eta oso onuragarria izan zen hori: denek bat egin zuten.

### **172. Bileren oinarria eta terapiaren funtsa (ERR-006/037)**

Alkoholikoen arteko bileren oinarria antzeko jendea elkartzea zen. Infernua eta zerua norbere barruan dagoela konturatu ziren. Batak bestea ulertu ahal izatea izan zen terapiaren funtsa.

### **173. Esperiantziatik ikasitakoarekin besteei laguntzen (ERR-006/039)**

Pixkanaka, "Alcohólicos Anónimosi" buruzko informazioa zabaltzen joan ziren medikuen eta ikastolen artean, jendeari jakinarazteko nola lagundu zitzaizketen alkoholarekin arazoak zituzten pertsonak. Gizon bati lanean arduradun-kargua eman zioten eta ardurari zion beldurratik hasi zen edaten.

### **174. Emaztea laguntzaile aparta (ERR-006/040)**

Elizondotik militar batzuk bileratara etortzen hasi ziren behin. Inaxitoren emaztea laguntzaile aparta izan da beti: emakumeak oso ondo tratatzen zituen, lagundu egiten zituen. Komunikazioa elkarbizitzaren oxigenoa dela sinetsi izan dute beraiek, eta hala tratatu izan dute jendea.

### **175. Hamaika urterekin basora lanera (ERR-007/003)**

Pagoa auzoko eskolan hilabete besterik ez zuen egin Laxarok. Izan ere, etxetik ordu betera geratzen zen eskola, nahiko aparte, eta hamaika urte betetzerako mendian hasi baitzen lanean, zuhaitzak botatzen aritzen ziren gizonen mutil.

### **176. Mutil lanetan aritzetik morroi izatera (ERR-007/004)**

Basoan mutil lanetan aritzetik morroi izatera pasa zen oso denbora gutxian. Han artzain, haurtzain... denetik egiten aritu behar izan zuen. Gogoz kontra joan zela dio. Ez zituen hilabete asko egin morroi, baina esaten du oroitzapen txarra duela, oso gogorra egin zitzaiola. Amari abisu eman eta etxera itzuli zen. Gero Xandrinea baserritik joan zitzaizkien harako morroi bila, eta han askoz gusturago ibili zen.

### **177. Morroi lanetan jai egunik ez (ERR-007/005)**

Goizean goiz jaiki, behiak jetzi, tratua tranbiaraino garraiatzen lagundu, baserrira itzuli, ganadua gobernatu... Horiek izaten ziren morroiaren lanak, Xandrinean. Jai egunik ez zuen izaten.

### **178. Añarbera itzuli behar (ERR-007/006)**

Urte eta erdi inguru egin zuen Laxarok Xandrinean morroi. Añarben berarekin behartu ziren, eta etxera itzuli zen. Morroi ibili zeneko lan bertsuak egin beharko zituen aurrerantzean, baina etxerako, ordea.

### **179. Txerria hiltzen laguntzen (ERR-007/007)**

Añarben txerri pare bat hiltzen omen zuten urtean, etxerako. Txerri-hiltzea tokatzen zenetan laguntzen aritzen zen Laxaro, odolkiak egiten, egosketan...

### **180. Goizuetara arto-irina egitera (ERR-007/008)**

Taloak egiteko irina Goizuetako errota batetik ekartzen zuten. Nagusiki izebak egiten zituen taloak Añarben, baina Laxaro bera ere aritzen zen, eta aritu izan da gerora ere.

### **181. Taloak nola egin (ERR-007/009)**

Taloak egiten aritutakoa da Laxaro, eta taloak nola egin azaltzen digu orain. Edozerekin lagunduta edo zernahi laguntzeko jan daiteke taloa, baina Laxaroren ustez, txerrikiarekin geratzen da goxoen.

### **182. Baserriko otorduak prestatzen (ERR-007/010)**

Otorduak izebak prestatzen omen zituen gehienez, edo amak bestela, horretarako gai izan zen bitartean. Hala ere, baserrian denek ikasten omen zuten janaria prestatzen.

### **183. Eztia egiten (ERR-007/011)**

Erle-zale amorratua izan da Laxaro gaztetan, haren aita bezalaxe. Hogei erlauntza inguru izango zen Añarben. Laxarok kontatzen digu eztia nola egiten zuten.

### **184. Argizaria egiten (ERR-007/012)**

Erlauntzetako abaraskak argizaria egiteko aprobetxatzen omen zen, eta argizaria, argizaiolak egiteko.

### **185. Etxean urik ez (ERR-007/013)**

Añarben bertan ez omen zuten ur-instalaziorik, baina iturria etxetik hamar metrora omen zuten. Erreka ere etxe ondotik pasatzen omen zen, eta hantxe garbitzen zuten arropa.

### **186. Arropa txandan-txandan janzten (ERR-007/014)**

Jantzi, ahal zuten bezala egiten zirela kontatzen du Laxarok, irribarretsu. Izan ere, mezetara joateko denentzat arropa nahikorik ez Añarben, eta arropa bata besteari uzten ibiltzen omen ziren anai-arrebak. Horretarako, batzuk lehendabizi joango ziren mezetara, eta handik ateratzean, bidean zain ziren anai-arrebei arropak aldatu, eta horrela geratzen omen zen hurrengo mezetara joateko moduan. Igandero joaten ziren mezetara, eta batzuetan baita Goizuetaraino ere, bi ordu eta erdiko bidea oinez egin eta gero.

### **187. Basolanetan, pinua aldatzen (ERR-007/016)**

Behin morroi lanetan aritu eta, Añarbera itzultitakoan ere, ibili zen Laxaro lanean, etxetik kanpo. Santi Mendikute delako Andoaindar batek deitzen omen zituen, basolanetarako. Hiru anaia aritzen omen ziren.

### **188. Luzuriagan lanean hasi eta utzi (ERR-007/018)**

Hogeita lau edo hogeita bost urte zituela hasi zen Laxaro Errenteriako Luzuriagan lanean, baina lana utzi behar izan zuen. Izan ere, bere anaia zaharrenak ez zuen Añarben geratu nahi izan, eta Laxaro bera joan zen hara, eta baserriko lanen ardura hartu. Baserria aparte xamar zegoen eta horrek ez zituen lanak errazten, baina ematen zuen aukerarik beste jarduera batzuetarako... Tartean, kontrabandorako. Horretan, baina, Guardia Zibila eta eguraldi txakurra izaten zituzten etsai.

### **189. Guardia zibilek Xanti anaia arrapatu zutenekoa (ERR-007/019)**

Kontrabandoan zebiltzanean taldean joaten omen ziren, baina gauzak okertuz gero, norberak bere larrua salbatu behar izaten zuen. Hiru alditan azaldu omen zaizkio guardia zibilak Laxarori basoan, nahiz eta bera ez duten sekula harrapatu izan. Hiru aldi horietako batean, Xanti anaia larri ibili omen zen, baina azkenean, lortu zuen ihes egitea.

### **190. Kontrabando lanetan (ERR-007/020)**

Bi urtez-edo ibili omen zen Laxaro kontrabando lanetan, eta ez omen zen lan erraza, guardia zibilak nonahi ateratzen ziren eta. Neguko hotzak ere ez omen zuen zaintzarik apaltzen.

### **191. Tristea da Errenteria hain aldatuta ikustea (ERR-007/025)**

Oso aldatuta ikusten du Laxarok egungo Errenteria, orain mende erdikoarekin alderatuta. Aldaketak beharrezko juzgatzen ditu, etsipen puntu batekin, baina berak ezagutu zuen Errenteria ezagutu zuenarentzat, aldaketa tristea dela dio.

### **192. Basurdeak etxe atariraino (ERR-007/027)**

Ehizan ibilitakoa da Laxaro. Basurdeak etxeko artasorotara sartzen zitzaizkien, eta haiek akabatzeko esperantzan gau batzuk egin izan ditu guardian, haien zain. Baina halakotan ez omen ziren azaltzen. Azeriak eta katagorriak ere erruz ikusten omen zituzten. Otsorik ez.

### **193. Sagarrondoak bota zituztenekoa (ERR-007/028)**

Sagarrondo asko zen Añarben, etxean dolarea izaki, sagardoa egiten zutelako. Baina urtegia betetzera zihoazela eta, denak bota omen zituzten.

#### **194. Añarbe baserria urpean da (ERR-007/029)**

Añarbe baserria Laxarok eta anaiak utzi zuten bezalaxe dago urpean, gaur egun. Ez zuten baserria hustu, ez zeukatelako gauzak nora eraman.

#### **195. Añarbe urez betetzen hasterako, bi urte joan ziren (ERR-007/030)**

Bi urte igaro omen ziren abisua eman eta Añarbe urez betetzen hasi zirenerako. Bi urte horietan zehar Laxaro eta anaia joaten ziren baserrira, erlauntzak han baitzituzten oraindik. Erleak Errenteriara ekarri zituzten gero, baina gaitzak jo zituen eta guztiak galdu ziren.

#### **196. 'Bertso berriak Añarbe baserriari Laxaro Iparagirrek jarriak' (ERR-007/031)**

Laxarok eta bere bi anaiak bertso sorta bana jarri zioten euren jaiotetxeari, urak estalita geratu zen Añarbe baserriari. 'Auspoa liburutegiko' 140. zenbakira bilduta daude bertsook. Hona Laxarok idatzi saileko laugarren bertsoa: Inguratuturik egon nitzaien zelai aldeko kaskura, / goiko ganbara iritxi bai-ez ta buelta danielan ura; / era txar artan ekusi eta ematen zuen tristura, / bazirudien luzatu nairik ote zeguen eskua.

#### **197. Kain eta Abel (ERR-007/032)**

Aitak bertso zahar asko zituen buruz ikasiak, eta etxean kantatzen omen zituen. Handik heldu zitzaion semeei zaletasuna. Laxarok gogora ekarritako bertso pare ederra kantatzen du honako pasarte honetan, Pedro Mari Otañoren 'Kubako gure anaiak' izeneko sortako lehendabiziko biak, hain justu.

#### **198. Bertso liburu galdua (ERR-007/033)**

Añarben ba omen zen bertso-liburu bat, Laxaroren amak Errenteriatik ekarria, gauzez irakurri ohi zutena, eta bertso zaharrak ikasten zituzten hortik. Bizilagunek, baina, liburua esku artean eduki nahi izaten zuten, eta eskatu egiten zieten. Joan etorri horietako batean, joan bai, baina ez zen berriz itzuli, eta liburu gabe geratu ziren.

#### **199. Ehundaka bertso buruan (ERR-007/034)**

Laxarok kontatzen du nola egoten ziren bertso-paper saltzaileak eliza atarian, eta jendeak paperak nola erosten zituen. Berak ere erosi izan zituen, eta baita buruz ikasi ere. Bi bider irakurtzea nahikoa omen zuen bertsoa buruan gordetzeko. Hala, ehun bertsoetik gora jakitera heldu omen zen, eta gero bere buruarekin aritzen omen zen, ariketa etengabe.

#### **200. 'Txirrita'ren heriotza (ERR-007/037)**

'Uztapide', 'Zepai', 'Sailburu', 'Telleri txiki'... dira Laxarok bere garaian ezagututako bertsolariak. 'Txirrita' ezagutzera ez zen iritsi. Goizuetara kantura joandako batean hil zen 'Txirrita', eta egun hartan, Laxaroren bi anaia zaharrenak bai, haiek Goizuetaraino joanak ziren.

## **201. Uztapide eta Zepairen bertsoak (ERR-007/038)**

Ezagutu dituen bertsolarien artetik bat bereizteko eskatu eta zalantza handirik ez du egiten Laxarok. Manuel Olaizola 'Uztapide' zena izan du beti bertsolari kuttun. Uztapideren bertsorik gogoan ba ote duen galdetuta, azken hau Zepairekin ari zela kantatutako batekin oroitu da, eta baita Zepaik berak Manueli emandako erantzunarekin ere.

## **202. Tiro artean perretxikotan (ERR-007/040)**

Gurasoek perretxikotara bidaltzen omen zituzten Laxaro eta anaiak, baina gerra piztua zen orduz gero, eta mendian gora abiatu eta tiro hotsik entzuten bazuten, segituan itzultzen omen ziren baserrira, perretxikorik ez zela esanez.

## **203. Frontera joan nahi ez (ERR-007/041)**

Gerra garaian soldaduak ez omen ziren A&ntilde;arbera iritsi; bai jendea, ordea. Kaletik mendira joandako gizasemeak sumatu omen zituzten A&ntilde;arbekoek, frontera joan behar izatetik libre geratu nahian edo.

## **204. Susperregiko Maria bigarrego ama (ERR-007/044)**

Susperregi baserrikoak auzoak baino zerbait gehiago ziren A&ntilde;arbekoentzat. Taberna izan da beti Susperregin, eta A&ntilde;arbekoak, handik pasatzen ziren aldiro, zerbait hartzera geratu ohi ziren.

## **205. Barrenak lehertuta (ERR-007/045)**

Hogeita bost urte inguru zituela, urdailean arazoak izan zituen Laxarok. Egun batez txartu egin zen arrunt, eta orduan ere hantxe izan zituen Susperregikoak laguntzeko prest. Bizkarka eraman zuten Susperregitik Perurenaraino, eta handik, ospitalera gero. Operatu eta handik urte betera berriz operatzera itzultzeko agindu omen zioten Laxarori, baina bera ez omen zen inoiz itzuli, eta ez zuen arazo gehiago izan.

## **206. Gure hizketa (ERR-007/047)**

Laxaro jabetzen da alde handia dagoela berea eta bere biloben hizkeraren artean.

## **207. Haurtzaro gogorra (ERR-007/048)**

Beren haur zireneko eta gaztetako ibilerak oso gogorrak izan zirela aitortzen digu Laxarok.

## **208. Gabierrota lehen (ERR-008/002)**

Gabierrotan jaio zen 4. zenbakian. Gabierrota garai hartan nolakoa zen deskribatzen du: inguruko etxeetan nor bizi zen, etxe beheko "la bodega fresca", Gabierrotako errota, aroztegia, angula-enpresa, mojen eskola...

## **209. Hainbat lekutan ikasten ibilia (ERR-008/003)**

Gurutzeko Alaben eskolan ikasi zuen han Jose Krutzek 7 urte izan zituen arte. Geroago, Aierbetarren eskolan ikasi zuen. 10 urterekin Bihotz Santuen fraideekin hasi zen ikasten. Aierbetarren eskola eta fraideen eskola non zeuden azaltzen du. Fraideak irakasle onak ziren eta asko ikasi zuen han.

### **210. Zumardi Handia (ERR-008/004)**

Zumardi handia ezagutu zuen Jose Krutzek eta inguru hura nolakoa zen azaltzen du: zubiak, lurrindegia, bidea, kiosko zaharra...

### **211. Ibaia garbitzen zutenekoa (ERR-008/007)**

Errekan ikasi zuten igeri egiten. Han bat ito egin zen eta beste bat ozta-ozta salbatu zuten. Lehen Madalen egunerako Fanderiako errotakoek erreka garbitzen zuten. Kontratistek idiekin erreka garbitzen zutenean, legarra atera eta harekin hormigoia egiten zuten.

### **212. Etxebizitzaren kultura aldatu egin da (ERR-008/009)**

Lehen errentan bizi ziren gehienak, eta Francoren garaian etxebizitzaren kultura aldatu zen.

### **213. Aita ebanista bizi guztian (ERR-008/010)**

Aita ebanista izan zen bizi guztian 10 urte zituenetik. Arrieta ebanisterian egin zuen lan: tailerraren kokapenaren historia kontatzen du.

### **214. Gerran Erreterria hustu egin zen, baina beraiek han geratu ziren (ERR-008/015)**

Gerra hasi zenean, amaren baserrira joan ziren beraiek Lartzabala; geroago, Villa Dominicana; eta azkenik, batzuek Frantziara alde egin bazuten ere, beraiek Erreterrian gelditu ziren. Orduan nazionalek hartu zuten Erreterria garaitzaileen jarrera zutela. Erreterria oso aldatuta egon zen garai hartan, hustuta. Herritar batzuk falangista bihurtu ziren.

### **215. Gurasoek ez zuten elkarteetan sartu nahi izaten (ERR-008/016)**

Gerra aurretik, batzokian bazegoen kultur giroa. Baina Jose Krutzen gurasoak ez ziren elkarteetan sartzeko zale. Amaren urteak uztailearen 18an ziren, baina berak 19an ospatzen zituen.

### **216. Osabaren oroimena oso bizirik (ERR-008/018)**

Gerra garaian, osaba fusilatu egin zuten. Gerra ostean, haren oroimena oso bizirik eduki zuten. Osaba futbolaria zen; lehen Erreterrian hiru futbol-talde zeuden eta haien arteko aldeak aipatzen ditu.

### **217. Etxeberrietako auzoaren sorrera (ERR-008/020)**

Gerra bukatutakoan, jende asko etorri zen Erreterriara. Etxeberrietako auzoa zergatik sortu zen azaltzen du: paper-fabrikari greba egon zenez, kontratistak kanpotik ekarri zituen langileak eta haientzako etxeak eraiki behar izan zituzten.

### **218. Eskola utzi eta egun bertan lanean hasi (ERR-008/022)**

14 urte zituela, eskola utzi zuen eta egun hartan bertan hasi zen lanean Elizalde burdindegian. Burdindegi hura nolakoa zen azaltzen du. Han enkarguak banatzen aritzen zen bizikletaz. Lehen oso auto gutxi ibiltzen zen errepidean eta jolasak asmatzen zituzten autoen inguruan.

### **219. Elizalde burdindegian lanean (ERR-008/023)**

Elizalde burdindegian zer lan izaten zituen aipatzen du. 12 urtez egon zen han. Nagusiaren laguntzailea izan zen.

### **220. Bezeroak lehen hobeto zaintzen ziren (ERR-008/024)**

1956an burdindegia jarri zuen bere kontura Foruen plazan eta han denetik saltzen zuen. Lehenengo bezeroa nor izan zen gogoan du. Bezeroak nola zaintzen zituen azaltzen du.

### **221. Bezeroek inportazioko materiala eskatzean, kontrabandoa (ERR-008/025)**

Tailerrak bezero zituen eta haiek zerbitzatzeko nola moldatzen zen azaltzen du. Kontrabandoan ere ibiltzen zen, inportazioko tresnak eskatzen baitzizkioten bezeroek. Aduana pasatzeko trikimailuak ezagutzen zituen.

### **222. Espainian izandako blokeo ekonomikoaren ondorioak (ERR-008/026)**

Gerra ostean hemen tresna txarrak zeuden, ez baitzegoen aurrerapenik ez lehengai onik ere. Altzairu onenak Suedia eta Alemaniakoak ziren. Gainera, Espainiako merkataritza blokeatuta zegoen.

### **223. Dendariak eta bezeroak elkarri laguntzen (ERR-008/027)**

Baserritarrak ere etortzen ziren Jose Krutzen burdindegira, batzuetan mesede eske eta hurrengoan zerbait erostera; elkarri laguntzen zioten garai hartan, harreman handia zegoen dendarien eta bezeroen artean. Gaur egun harreman hori galdu egin da. Tresna berriak nola erabili azaltzen zien Jose Krutzek bezeroei.

### **224. Lehengo salmenta-neurriak eta zorrak (ERR-008/028)**

Lehen diru gutxi zegoen: behar zena bakarrik erosten zen (dozena bat txintxeta, puntapax gutxi batzuk...). Zorrak eta ezin ordainduak bazeuden garai hartan, baina jendearen artean baino gehiago, kontratisten artean.

### **225. Errenteriako feriaren garai onak eta geroko beherakada (ERR-008/029)**

Foruen plazan lehen feria izaten zen eta jende asko ibiltzen zen han. Eguneroko produktua esnea izaten zen, baina fabrikak hasi zirenean esnea saltzen, galdu egin zen egunero feria egiteko beharra eta ohitura. Baserritarrak nondik etortzen ziren aipatzen du. Errenteria Oarsoaldeko hiriburu zenez, jende asko ibiltzen zen.

### **226. Errenteriako industriaren bizia (ERR-008/030)**

Errenterian lantegi asko zegoen eta Oiartzundik jende asko etortzen zen bizikletaz; horri esker atera omen dira hainbeste txirrindulari Oiartzunen. Errenteriako lantegietan produktu onak egiten ziren. Esmalte-fabrikaren filosofia zen gerra aurretik bezero izan zirenei bakarrik saltzea gerra ostean. Burdindegiko hornitzaileak gehienbat inguruko lantegiak ziren, baina bazeuden Espainia mailakoak ere. Madrilan ere bazituen bezeroak.

### **227. Aitagarreba abertzalea (ERR-008/031)**

Langile-mugimendurik ez zen egon 60. hamarkadara arte. Jose Krutzen aitagarreba "Solidarios vascosekoa" zen: PNVk kapitalismoaren alde egitearen kontra bazegoen ere, gerra garaian beste alderdi abertzalerik ez zegoenez, Agirre lehendakariaren guardia pertsonaleko ertzaina izan zen. Geroago, preso hartu zuten eta "Batallón de Trabajadoresen" egon zen urtebete baino gehiago.

### **228. Madalenetako failak (ERR-008/033)**

Lehen Madalenak oso desberdinak ziren: herriak parte hartzen zuen eta orduko jolasak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Urte batean, "Batallón de Trabajadoresen" zeuden valentziar batzuk failak egin zituzten, beraien herriko ohitura baitzen; faila haietan zer irudi egin zituzten azaltzen du.

### **229. Zumardian musika ostegunetan eta igandetan (ERR-008/034)**

50. hamarkadatik aurrera, gazte asko elkartzen ziren Zumardian musika entzuteko: igandetan banda izaten zen eta ostegunetan gramola. Neskatan nola egiten zuten aipatzen du. Emaztea Zumardian ezagutu zuen Jose Krutzek eta pixkanaka joan ziren elkarrekin ateratzen.

### **230. Neskek nola aukeratzen zituzten mutilak (ERR-008/035)**

Garai hartan neska ugari ezkontzen ziren haurdun. Etortzen zitzairen gizonarekin konformatzen ziren emakumeak. Gizartean izandako aldaketari buruzko iritzia ematen du.

### **231. 30 urte burdindegian lan egin ostean, erretiroa hartu zuen (ERR-008/037)**

30 urte aritu zen burdindegian lanean. 1982ko krisia gogorra izan zen eta burdindegia saldu behar izan zuen. 60 urte zituela erretiroa hartu zuen.

### **232. Hirigintza antolatzeko koordinakundea (ERR-008/040)**

Errenteria handitzen hasi zenean, hirigintza antolatzeko koordinakundea sortu zen: bilerak egiten ziren udaletxe aurrean, protestak... Lan eta esperantza handia zeukaten garai hartan, baina porrot egin zutela uste du, boteretsuen aurka egitea oso zaila baita.

### **233. Kanpotik etorritako jende-uholdea (ERR-008/042)**

Kanpotik Errenteriara etortzen zen jendea nola iristen zen azaltzen du. Hona iritsitakoan, familiakoan etxean gelditzen ziren hasieran; etxe batzuetan 20-30 lagun bizitzen ziren. Galiziatik jende asko etorri zen. Herritarrek harrera ona egin zieten, lagun egiten ziren. Kanpotik etorritakoen artean ezinikusiak zeuden.

### **234. Kanpoko jendea etorri zen garaiko kredituak (ERR-008/043)**

Kanpotik jendea etorri zenean, bertakoek lagundu zieten. Kredituen interesak garai hartan oso altuak ziren.

### **235. Erreterian erdara nagusitu; herri txikietan, ordea, euskara (ERR-008/044)**

Kanpotik etorritako jendeak euskaraz ikasi zuen herri txikietan; Erreterian, ordea, euskara alde batera utzi eta erdarara jo zuen jendeak. Lehen ikastolarik ez zen gainera; fraideek euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituzten umeak Jose Krutz umea zenean.

### **236. Sagardotegietako giroa Erreterian (ERR-008/046)**

Erreterian sagardotegi ugari egon izan dira, baina denak batera inoiz ez. Sagardotegian kupel bat egoten zen, eta hango sagardoa bukatzen zenean, itxi egiten zen. Lehengo sagardoa naturala zen eta mindu egiten zen. Sagardotegiko giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

### **237. Sagardotegian lotan gelditzen zirenak ere (ERR-008/047)**

Sagardotegian aste osoa pasatzen zutenak ere bazeuden garai batean. Donostiatik gizon bat etortzen zen Erreteriariko sagardotegira; Jose Krutzek haren ohitura xebreak kontatzen ditu.

### **238. Herriko pertsonaia xebreak (ERR-008/050)**

Erreterian izandako pertsonaia xebreak aipatzen ditu: Zaku, Lepo, Txarlot... Txarloten xebreakeriak aipatzen ditu.

### **239. Merkataritza txikiaren beherakada (ERR-008/053)**

Merkataritza txikia galtzen joan da: batetik, azalera handien eraginez, bestetik material hobeko tresnak erosten direlako orain eta denbora gehiago irauten dutelako.

### **240. Aita etxegina zen; hark egindako lanak (ERR-009/005)**

Aita kontratista zen, etxegina. Egin zituen eraikinak. Non bizi ziren. 12 senide ziren, bera zaharrena. Donostian ere egin zituen etxeak eta zubi bat; Casinoa eraldatu zuen. Ehun langile zituen bere kargu. Tunelak.

### **241. Aitaren bulegoan lanean (ERR-009/007)**

Aitak ordu asko pasatzen zituen lanean. Orduan kotxerik ez zuten, eta ez zen gautu arte bueltatzen. Semeak gidabaimena atera zuen gero. Diruzaina Julio Gaztaninza zen. Berak ere aitaren bulegoan egiten zuen lana. Alamedan, aitak egindako etxea. Ezkonberritan han bizi zen. Bulegoko lanak. Baztarrikak planoak egiten zituen.

### **242. Biterin jaio, etxe berrietan bizi (ERR-009/008)**

Biteri kalean jaio zen, zapata dendaren gainean. Hortik etxe berrietara pasatu zen; bederatzi urte arte. Alameda nolakoa zen orduan. Tranbia. Bankuak. Kioskoa. Umetan dantzan, igandetan. Nobioa ere han ezagutu zuen gerora.

### **243. Batzokiko giroa: antzerkia, pospolinak (ERR-009/013)**

Beste abesti bat kantatzen du, batzokian ikasia umetan, pospolinei entzunda. "Trinka-trinketa". Antzerkia egiten: Olaskoa, Idiazabal... Malen Loinaz, Eli Olaziregi... pospolinak. Taberna eta frontoia.

#### **244. Gerra hasi zenean, Beizamara (ERR-009/014)**

Gerra etorri zenean, Beizamara egin zuten alde. Bi hilabetera bueltatu ziren. Añabitartera joan ziren, baserrira; eta handik, zapi zuriarekin, oinez Perurenaraino. Donostian lau egun, bonbak botatzen hasi zirelako; gero Beizamara kotxez.

#### **245. Aita lanik gabe, bueltan (ERR-009/015)**

Batzokiko giroa desagertu egin zen. Dena kendu zuten. Aita lan gabe; kamioiak kendu zizkioten. Arazoak izan zituen. Bederatzi seme-alabak aurrera ateratzeko, gogor egin zuen lana.

#### **246. Eskolan Gurutzeko Alaben ikastetxean (ERR-009/016)**

Eskolan Gurutzeko Alaben ikastetxean ibili zen. Gabierrotan zegoen. Goiburu eta Alzola etxegileak. Mojen oroitzapen ona du. Kontabilitatea ikasi zuen. Mutilak zazpi urte arte. Eskulanak, arratsaldean: josten.

#### **247. Euskaraz ikasten, gerra aurretik (ERR-009/018)**

Frantsesa ere ikasi zuen pixka bat mojetan. 16 urte arte. Amak denda jarri zuen, eta ahizpa bat han; beste bat moja. Gerra aurretik euskara ematen zuten, partikular. Xabiartxo, Lutelestia... liburuak. Etxean beti euskaraz. Anai-arrebek erdararako joera. Euskaltzaletasuna.

#### **248. Familian bertsozaleak (ERR-009/019)**

Kantatzeko ohitura zuten etxean. Bertsozalea da bera. Gurasoek bertso zaharrak kantatzen zituzten. Uda Añabitarten pasatzen zuen, eta han ere bertsoan. Bertso zahar bat kantatzen du, amari ikasia. Ama ez zen asko ateratzen.

#### **249. Etxeko lanak (ERR-009/020)**

Hiru zaharrenak neskak izanik, amari laguntzea tokatu zitzaizen denei. Oiantzongo lehengusu bat eraman zuten etxera, berak 9 urte zituela, neskame. Argizaria ematen zuten lurrean. Etxeko lanak. Labaderoa zuten bodegan. Ura eta argia bazituzten etxean.

#### **250. Gurasoekin lanean; baratzea eta txerri-hiltzea (ERR-009/021)**

Aitarekin hasi zen lanean, eta amarekin josten ere aritzen zen. Aurrekontuak egiten zituen, fakturak. Baratzea ere bazuten; osaba batek zeraman. Oiloak zituzten. Txerria erosi egiten zuten, hiltzeko; Joxe Unzurrunzaga harakina joaten zen. Odolkiak. Urdaiazpikoa.

#### **251. Alamedan dantza eta Biterin paseatu (ERR-009/022)**

Erreterian musika igandero, Alamedan. Mutilekin dantza egitea bekatua zen. Arratsaldero bezperak, goizean meza nagusia. Mojak. Biteri kalean paseatu, eta mutilak ezagutu.

#### **252. Senarra nola ezagutu zuen (ERR-009/023)**

Biteri kalean ezagutu zuen nobioa 17 urterekin; 24rekin ezkondu. Zinema aretoak. Nobioak Carbones de Tenerife S.A.n egiten zuen lana. Ikatza handik ekartzen zuten; hura joaten zen kobratzera.

### **253. Ezkontza, 24 urterekin; arreo, bidaia (ERR-009/024)**

Erreterian ezkondu ziren. Soineko beltza, Donostian egina. Arreo etxean prestatzen zuten, Erreterian lihozko ehuna erositara. Bordatu. Bazkaria Panier jatetxean. Bidaia: Iruñea-Bartzelona-Palma de Mallorca. Lehengusuaren etxera.

### **254. Agustinak auzoa nolakoa zen (ERR-009/026)**

Agustinak auzoa nolakoa zen lehen. Pinudiak zeuden, zelai handiak. Baserriak: Etxeberri, Lertxundieta, Kotxuania eta Gaztelutxo. Gurdiak eta astoak.

### **255. Garai bateko plaza (ERR-009/027)**

Baserritarrak eta garai bateko plaza. Postuak. Harategia, arrandegia. Arrain aukera gehiago orain. Arrain motak. Antxo saltzen ibiltzen zen "arraiketaria". Auzoko etxe bakarretakoa zen beraiena.

### **256. Enkarguz egindako etxeak (ERR-009/028)**

Garai bateko etxeak. Aitak enkarguz egiten zituen etxeak. Merkeen eskaintzen zuenak irabazten zuen lehia. Saltzeko moda etorri zen; aurretik, alokairuan. Iriarte eta Loidi.

### **257. Sukaldea eta etxeko otorduak (ERR-009/029)**

Amarekin ikasi zuen sukaldean. Ikusitakotik. Ondo moldatu da. Ama bera ikasten ibili zen, sukaldean eta josten. Zer jaten zuten etxean: potajea egunero, barazkiak. Igandetan salda. Haragi egosia astelehenetan. Postrerik ez. Sagarra. Tolosako feriatik ekartzen zuten babarruna, sagarrak, gazta... Aitak kotxea zuen. Seme-alabei etxe bana eman zien.

### **258. Egun berezietako otorduak; janari denda (ERR-009/030)**

Egun berezietan, oilaskoa. Etxean zuten oilategia. Gabonetako afaria: aza-olioak eta bisigua. Aitari ez zitzaion aldatzea gustatzen. Bisigua errazago jartzen zen orain baino. Janari denda zuten. Ahizpak egiten zuen lana han.

### **259. Etorkinak eta lantegiak (ERR-009/031)**

Erreteria asko aldatu da. Lehen elkar ezagutzen zuten. Orain ez. Auzo berriak. Etorkinak. Trintxerperi Galizia deitzen zioten. Erreteriarako lantegiak aipatzen ditu. Gailera-lantegiak.

### **260. Olibet galletak; emakumeak lantegietan (ERR-009/033)**

Inguruetatik Erreteriara lanera. Olibet galletak bertara joanda erosten zituzten. Emakume asko zebilen han lanean; etxe aurretik pasatzen ziren. Emakumeak beti egin du lana. Esmalteetan, ehungintzan...

### **261. Inmigrazioa, gauza arrunta (ERR-009/034)**

Etorkinen etorrera normalizatzen zuten. Kanttala janari denda gainean Extremadurako batzuk bizi ziren. Etxea alokairuan hartzen zuten, bertakoek bezalaxe. Beraiek ere maizterrak ziren Alamedan, agustinetara joan aurretik.

## **262. Errenteriako etxegileak (ERR-009/036)**

Galtzaraborda eta Beraun auzoetako etxeak ez zituen aitak egin; beste era batekoak egiten zituen. "Frantsesa" deitzen zioten etxegilea. Ez du gogoan lehia gogorrik etxegileen artean. Anaiak-eta jarraitu zuten eraikuntzan.

## **263. Sei seme-alabetako lau etxean jaiok (ERR-009/037)**

Ezkondu ondoren lanean jarraitu zuen pixka batean. Seme-alaba gehienak etxean izan zituen berak. Bi, ama-etxean. Medikua etxera joaten zen. Pilar ahizpak laguntzen zion, San Antonio klinikan erizain egona baitzen. Beraiek 12 senide ziren, denak etxean jaiok.

## **264. Haurrak eduki eta oilo salda (ERR-009/038)**

Etxean haurra izateko prestaketak. Ur beroa. Epiduralik ez. Egun batzuk ohean. Laguntzailea zuen etxean, neskamea. Oilo salda hartzeko ohitura. Bularra ematea.

## **265. Garbitzeko ohiturak (ERR-010/004)**

Beraien etxeak Goiko kalera ematen zuen; etxearen atzeko aldean, ordea, mendia zegoen: baratzeak, Rosaren eskola, garbitegia... Beraiek etxean garbitzen zuten arropa eskuz. Etxeko altzariak eta lurra egurrezkoak ziren eta nola garbitzen zuten azaltzen du. Murillotarrek etxean egiten zuten xaboa eta haiei erosten zizkieten xaboi puskek. Arropa garbitzeko denbora behar izaten zen.

## **266. Umetako jolasak (ERR-010/005)**

Lehen etxe askotan ateak zabalik egoten ziren. Umetan kalean aritzen ziren jolasten: txingaka, sokasaltoan, "a la liga", kanikatan... Kalean aritzen ziren jolasten; kotxe gutxi pasatzen ziren lehen.

## **267. Kaleko dendetan erosketak egiten (ERR-010/006)**

Goiko kalean zer denda zeuden aipatzen du: limonada-denda, janari-denda... Behin, janari-denda hartan gertatutako anekdota kontatzen du. Miren joaten zen erosketak egitera; ez zuen dirurik erabiltzen, baizik eta erositakoa libreta batean apuntatzen zuen dendariak, astean behin dena batera ordaintzeko.

## **268. Aitaren zoria gerran (ERR-010/008)**

Aita Jose Antonio Agirrerren zaindaria izan zen, eta nazionalak sartu zirenean, kartzelara eraman zuten hasieran, eta geroago Langileen Batailoira.

## **269. Aitaren lana gerra aurretik eta gerran (ERR-010/009)**

Aitak Luzuriagan egiten zuen lan gerra aurrean; gerra hasitakoan, Bilbora egin zuen ihes. Aita gudari izan zen Bilbon eta Joxe Antonio Agirre lehendakariaren zaindari-lanetan aritu zen.

## **270. Gerrako momentu latzak (ERR-010/010)**

Gerran, aita kartzelara eraman zuten, eta baldintza txarretan egon zen han. Gero, zigor gisa, Langileen Batailoian egon zen. Azkenean, ia 4 urte etxetik kanpo eman ostean, etxera itzuli zen. Bitarte horretan, beraiek ez zuten haren berririk izan. Amak oso gaizki pasa zuen gerra garaian: senarraren berririk ez eta semea hil zitzaion. Familiak asko lagundu zion.

### **271. Mirenen izebak jasotako zigorra (ERR-010/011)**

Gerra garaian, amaren ahizpa bati ilea moztu zioten eta herritik ibilarazi zuten, antzerkia euskaraz egin izanagatik zigortzeko.

### **272. Emakumeen bilera "klandestinoak" (ERR-010/012)**

Emakumeak gerra garaian elkartu egiten ziren tertulia egitera, senarren zoriari buruz kezkatuta. Bilera haiek egitea ere debekatu egin zieten.

### **273. Mirenen amaren sufrimendua (ERR-010/014)**

Amak gerrako kontuak oso gogoan zituen eta Mireni kontaktzen zizkion: semea gaixo izan zuen, herrian laguntza ukatu zioten, eta azkenean semea hil egin zitzaion.

### **274. Aitaren izaera eta trebeziak (ERR-010/015)**

Aitak, "Batallón de Trabajadorestik" itzultitakoan, ospitale batera joan behar izan zuen, ez baitzegoen ondo. Aita zaku batekin etorri zen etxera, dena jasotzea gustatzen baitzitzaion noizbait behar izango zenerako. Aita abila zen konponketak egiten.

### **275. Aita gerratik itzultzeko egindako ahaleginak (ERR-010/016)**

Gerra bukatutakoan, aita etxera itzuli zenean, Luzuriagan hasi zen berriro lanean. Langileen Batailoira joan baino lehen, ama saiatu zen aita etxera itzul zedin laguntzen; baina jendeak trabak jarri zizkion eta ezin izan zuen etorri urte batzuk igaro arte.

### **276. Bikarioarekin balkoitik izandako elkarrizketa (ERR-010/019)**

Elizaren pareko etxean bizi ziren beraiek, eta bikarioekin harreman handia eduki izan dute. Bikario batekin izandako elkarrizketa kontaktzen du. Apaizgaiak ere ibiltzen ziren, han eta haien janzkera nolakoa zen azaltzen du.

### **277. Niessenen lanean aritu zenekoa (ERR-010/026)**

Niessenen muntaketan aritzen zen lanean. Denak emakumeak ziren bere inguruan. Fabrikak zer departamentu zituen azaltzen du. Komunera joaten zirenean, kontrolatu egiten zituzten.

### **278. Niessengo lan-ordutegia (ERR-010/027)**

Niessenen lanean zebilenean, zer ordutegi izaten zituzten azaltzen du. Bazkaltzera etxera joaten ziren.

### **279. Niessengo lanak eta soldatak (ERR-010/028)**

Emakumeak muntaketan aritzen ziren Niessenen; gizonak, ordea, prentsatzeko makinatan. Soldata zeren arabera jasotzen zuten azaltzen du.

### **280. Ezkondu arte Niessenen lanean (ERR-010/029)**

Ezkondu arte ibili zen Miren Niessenen lanean; greba bat ezagutu zuen bitarte horretan.

### **281. Zumardira musika entzutera (ERR-010/030)**

Gaztetan, ostegunetan gramola izaten zen zumardian eta igandetan banda. Euria egiten bazuen ere, aterkiarekin dantzatzen zuten.

### **282. Erlijioaren indarra mutil-lagunarekin ateratzen hasi zen garaian (ERR-010/032)**

Senarra zumardian ezagutu zuen Mirenek: pixkanaka hasi ziren elkarrekin planak egiten. Lehen erlijioak indar handia zuen: urtean behin misioak izaten ziren, konfesatu egin behar izaten zuten, kongregazioak zeuden...

### **283. Santa Klara kaleko ermita (ERR-011/002)**

Arantxa eta Pepi haurrak zirela, Santa Klara kalean bazen ermita bat. Bertan moja frantsesak zeuden, itxura guztien arabera, Lehen Mundu Gerra eta gero Erreteriarra etorriak. Hala ere, guztiek alde egin omen zuten 1933-ko uholdeek eragindako txikizioen ondorioz.

### **284. 1933ko uholdeak Erreterian (ERR-011/003)**

Erreteriarako 1933. urteko uholdeak izugarriak izan omen ziren. Egun bakarrean egin omen zuen urak gora eta behera, Korpus egunean, hain zuzen ere, baina nahikoa izan omen zen herriko bazter guztiak txikitzeko.

### **285. Uholdeak gertatu aurreko Alameda (ERR-011/004)**

Errekari oso toki gutxi emana zitzaielako gertatu omen ziren 1933ko uholdeak. Arantxa eta Pepiren esanetan, erreka zabaldu eta bidea estutu egin zituzten gerora, baina Erreteriarako zumardia itsusi geratu omen zen.

### **286. Erreteriarak kaletan barrena jostatzen (ERR-011/005)**

Haurrak zirela kalean jostatzen omen ziren Arantxa eta Pepi, gainontzeko haur guztiak bezalaxe.

### **287. Aldaba joka (ERR-011/006)**

Ateren bateko aldaba jo eta korrika atera ohi ziren haurrak orduan. Horri esaten zioten "aldaba joka" ibiltzea.

### **288. Elkartasun handiagoa zen lehen (ERR-011/007)**

Pepik eta Arantxak gogoan dute txikiak zirenean etxeetako ateak parez pare zabalik egon ohi zirela, eta bizilagunen arteko askoz ere harreman, konfiantza eta elkartasun handiagoa izaten zela.

### **289. Eskola pribatuak eta publikoak (ERR-011/009)**

Arantxa eta Pepi Hijas de la Cruz eta Herriko eskolara joan ziren, hurrenez hurren.

### **290. Arantza senideetan gazteena; Pepi, aldiz, zaharrena (ERR-011/010)**

Arantxarenean sei senide izan ziren, eta bera gazteena. Pepi, aldiz, bost senidetan zaharrena da. Garai hartan alde handia zen gazteena izatetik zaharrena izatera.

### **291. Hamalau urte bete eta lanera (ERR-011/011)**

Arantxa ikasketak utzi eta pixka batean partikularretan preparatzen aritu zen, baina hamasei urterekin hasi zen bere bi ahizparekin lanean, drogeria batean. Pepi, aldiz, fabrikan hasi zen hamalau urte betetzerako.

### **292. Garai batekoak bai drogeriak! (ERR-011/012)**

Arantxak Drogeria batean egin zuen lan, bere bi ahizparekin batera. Aldea ikusten du garai bateko eta egungo salgaien artean.

### **293. Drogeria fabriken hornitzaile (ERR-011/013)**

Produktu kimiko asko saltzen omen zen Arantxaren drogeriatik fabriketara: azido klorhidrikoa, azido sulfurikoa... Baita zianuroa ere!

### **294. Chimbo xaboia, onena (ERR-011/014)**

Sekulako estimazioa zuen Chimbo xaboiak; beste edozein xaboik baina handiagoa. Arropa herriko asketan garbitzen zela kontatzen dute Arantxak eta Pepik, eta lehortzen jarri, aldiz, belar gainean.

### **295. Pepi Pekinen lanean (ERR-011/016)**

Pepi hamabost urterekin hasi zen lanean, Pekin Fabrikan. Torlojuak egin eta errebisatzeaz arduratzen zen. Arantxak dion moduan, oso enpresa inportantea zen Pekin.

### **296. Igandetean komertzioa zabalik (ERR-011/017)**

Arantxak drogeria zabaldu behar izaten zuen igande goizetan, bederatzietarako. Ordu bata arte aritzen ziren lanean, eta arratsalde, itxi egiten zuten. Igande goizez dendak ixtearena, geroko kontua dela dio.

### **297. Lan banaketa Pekin fabrikan (ERR-011/018)**

Pepik dioenez, oso argi bereizita zeuden emakumezkoen eta gizonezkoen lanak Pekinen.

### **298. Hilabete opor (ERR-011/019)**

Hilabeteko oporraldia izaten zuten Errenteriako fabriketan, herriko jaietan hasita, Madalenetan. Dendak, aldiz, ez zituzten ixten, Madalenetan izan ezik, eta bestela konpondu behar izaten zuten opor egiteko.

### **299. Greba egin (behar izan) zutenekoa gogoan (ERR-011/022)**

Oso desberdin bizi izan zituzten Arantxak eta Pepik gogoan dituzten greba egunak, bata dendako langilea eta bestea fabrikakoa izaki.

### **300. patatak eta batatak fabrikan erretzen (ERR-011/023)**

1941a gosete urtea izan zen. Pepi orduantxe hasi zen lanean, Errenteriako Pekin fabrikan, eta gogoan du errazionamenduko patatak eta batatak berogailuan erretzen zituztela. Ez omen ziren txarrak geratzen.

### **301. Gerra aurreko protesta giroa (ERR-011/024)**

Pepik etxetik ikusten zuen gerra aurreko protesta giroa. Asaltoko Guardiak eta Guardia Zibila aipatzen ditu.

### **302. Kanpotarrak kanporatu nahi zituenarenak (ERR-011/025)**

Arantxak kontatzen du kanpotar asko etorri zela Errenteriara lanera, gerraostean. Errenteriarren batek esan omen zuen horiek guztiak herritik kanporatu behar zirela, eta ordainetan, negozioa hustu egin omen zioten.

### **303. Tiroak Alamedan; gerra heldu da. (ERR-011/027)**

Pepik gogoan du milizianoak Errenterian sartu zirenekoa, eta baita Irun erre zuteneko suak zerua gorritu zueneko ere. Arantxa eta Pepiren familiek ez zuten Errenteriatik alde egin. Bertan geratu ziren.

### **304. Egun baino genero hobea (ERR-011/029)**

Errenteriako Foru Plazan egiten zen merkatua. Baserritar asko jaisten omen zen bertara. Halaxe gogoratzen dute behintzat Arantxak eta Pepik. Bestelako komertzioetan ere oso genero ona zela oroitzen dute.

### **305. Olibet-eko galletak (ERR-011/030)**

Olibet galleten fabrika Errenterian zen eta estimazio handia zuen herrian.

### **306. Sukaldean (ERR-011/031)**

Arantxak gogoan du aitak nola garbitzen zituen karakolak, gatzarekin. Amak preparatzen omen zituen gero, baina egun ez omen lituzkete jango. Igandetan, salda garbantzuekin eta haragia jaten zituzten, piperrekin edo tomatearekin lagunduta.

### **307. Taloak eta gazta (ERR-011/032)**

Arantxak talo-zopen oroitzapen ona du. Pepik, aldiz, gosete garaian taloekin nazkatu zela dio. Edozer janari laguntzeko ona omen zen arto-irinez egindako taloa. Gaztak Tolosa ingurutik ekartzen omen zituen Errenteriara Arroxa delako batek.

### **308. Antxoak eta arkumea (ERR-011/034)**

Antxoa saltzaileek platerkadaka saltzen omen zituzten antxoak, eta kaleetan barrena ibiltzen omen ziren. Bijiliaz ere mintzo dira, baina egun ezarri nahi dietenaz! Hondarribitik atuna ekartzen omen zieten, eta baita barazki onak ere.

### **309. Madalen jaietako etxeko postreak (ERR-011/036)**

Arroz-esnea, pastelen bat, Pudinga... Halako postreak egiten ziren etxean eta

### **310. Txerriaren kurrixkekin izutua (ERR-011/037)**

Arantxak kontatzen du txerria hiltzen zutela haren etxean, eta txerriaren kurrixkekin beldurtuta joaten omen zirela ohera.

### **311. Igandetako janzkera (ERR-011/041)**

Igandetan, dantzara joateko, ahalik eta ondoen janzten zirela diote Pepik eta Arantzak, nahiz eta arropa erosteko dirurik sobera izan ez. Hala ere, arropa guztia jostunei eginarazten zitzaieela diote, ez zela neurrira eginda ez zegoen arroparik apenas saltzen, lanerako arropa ezik.

### **312. Ile apaindegira, behartu bezain sarri (ERR-011/042)**

Ile apaindegira joaten zirela kontatzen dute Pepik eta Arantxak. Ilean izurrak egitea omen zen modan orduan. Arantxaren amak eta amonak mototsean biltzen zuten ilea.

### **313. Gabonetan opari gutxi (ERR-011/043)**

Gabonetan, haurrak zirela, opari gutxi izaten omen zen Pepi eta Arantxaren etxeetan; premiazko gauzak, izatekotan. Haurrak kantuan eta eskean ateratzeko ohitura omen zen, eta opariak errege egunean jasotzen zituztela diote.

### **314. Perikoren denda eta "txikitilloak" (ERR-011/047)**

Perikoren dendarekin oroitu da Arantxa. "Txikitilloak" saltzen omen zituen, "Paxientxiak" ere deitzen zieten gailera batzuk. Bakailoa ere saltzen omen zuen Periko delakoak.

### **315. Gaur egungo Erreterria (ERR-011/051)**

Asko aldatu da Erreterria. Etxebizitza asko dago gaur egun eta berde gutxi. Gaur egun etxean arrotz sentitzen direla dio Pepik.

### **316. Euskararekin gora-beherak (ERR-011/052)**

Arantxa eta Pepik kontatzen dute nola bizi izan duten euskaldunak izatea, lehen eta orain. Arantxak barneratua du, euskaraz ez dakienaren aurrean, ez litzatekeela euskaraz egin behar.

### **317. Garai bateko Gabierrota (ERR-012/002)**

Gabierrota auzoan Gabi izeneko baserria eta errota ugari zeuden. Gabierrota oso desberdina zen lehen: soroak, aroztegiak, dendak... Inguru hura nolakoa zen deskribatzen du. Dendan zer neurri erabiltzen ziren aipatzen du.

### **318. Mojekin ikasten zutena (ERR-012/005)**

Mojekin matematikak, historia sakratua, diktaketak, eskulanak, kaligrafia... ikasten zuten. 13-14 urterekin bukatu zuen eskola eta orduan mahai-zapiak egin zituen.

### **319. Gerraren ondorio latzak familian (ERR-012/006)**

Gerrak ondorio latzak utzi zituen Begoñaren familian: aita eta osaba preso, osaba fusilatuta... Aita Oiartzunen eduki zuten preso. Etxean ez zen gai horietaz hitz egiten, oso gogorra egiten baitzitzaien.

### **320. Umetako jolasak eta orduko giro goxoa (ERR-012/007)**

Gabierrotan oso giro goxoa zegoen umeen artean. Orduko jolasak aipatzen ditu: ezkutaketa, sokasaltoa, kanikak, kromoak, dendak (hostoekin eta harriekin)... Amak trapuzko panpinak egiten zizkieten, eta aitak eskolarako estutxeak, diabloak...

### **321. "El puente peligroso" (ERR-012/008)**

Beraien etxe ingurua nolakoa zen azaltzen du. Fanderiara joan ohi ziren errekarara bainatzera: "el puente peligroso" deitzen zioten hari. Ume ugari joaten ziren bainatzera eta barruko arropa erabiltzen zuten.

### **322. Lartzabalena, amaren baserria (ERR-012/009)**

Ama Lartzabalgo baserri batekoa zen, sagardotegikoa, eta beraiek askotan joaten ziren hara: sagardoa egiten zuten eta Touringen partiduetan saltzen zuten gero. Zumardian sagardotegi ugari zeuden lehen. Lartzabalena, beraien baserriaren ondoan, Guardia Zibilaren kuartela zegoen.

### **323. Arantxa Galarragaren ile-apaindegian lanean hasi zenekoa (ERR-012/010)**

13 urte inguru zituela, eskola bukatu zuen eta 14 urterekin Arantxa Galarragaren ile-apaindegian hasi zen lanean. Garai hartan oso ospe ona zuen ile-apaindegi hark; hiru ahizpa ziren hango nagusiak: Arantxa, Miren eta Eli.

### **324. Ile-apaintzaile hainbat lekutan (ERR-012/011)**

Begoña 14 urterekin hasi zen Arantxa Galarragaren ile-apaindegian lanean; garai hartan, ile-apaindegira lanera joan behar ez zuenetan ere jende asko orrazten zuen. Handik urte gutxira, Begoña bere kontura hasi zen lanean Donostiako Prim kaleko ile-apaindegi batean eta irabaziak erdi bana banatzen zituen lokalaren jabearekin.

### **325. Lanbidea maitatzen ikasi zuen (ERR-012/014)**

Eginaren eginaz ikasi zuen lanbidea, ez zen inoiz ikastaroetara joan. Ile-apaindegian hasi zenean ez zuen gustuko lanbidea, baina gerora bai eta jende asko ezagutu zuen lanari esker.

### **326. Ile-apaindegiko giro goxoa (ERR-012/015)**

Emakumeak beregana joaten zirenean orraztera, berrikerian ibiltzen ziren eta oso giro goxoa izaten zuten. Emakume guztiak joaten ziren ile-apaindegira, nahiz gutxitan izan.

### **327. Ahizparen etxean jarri zuten ile-apaindegia (ERR-012/016)**

Prim kaleko ile-apaindegian ahizparekin aritu zen lanean eta hango nagusiari buruz hitz egiten du. 18 urte inguru zituela, ile-apaindegi hura utzi eta Erreterian jarri zuen bere ile-apaindegia ahizparen etxean; oso ondo joan zitzaion han. Begoñak, ordea, ezkondu eta haurdun gelditu zenean, ile-apaindegia utzi zuen eta ahizpak jarraitu zuen.

### **328. Senarra arrantzalea 50 urtera arte (ERR-012/020)**

Senarra arrantzalea zen, patroia. Familiatik zetorkion lanbidea. Hainbat itsasontzitan ibili zen lanean eta 50 urterekin hartu zuen erretiroa; 59 urterekin hil zen.

### **329. Arrantzaleen bizimodu gogorra (ERR-012/021)**

Senarra Gran Solera joaten zen arrantzara; lehenago Ternuan ibilia zen bakailaoa harrapatzen. 25-26 egun egoten zen etxetik kanpo eta seme-alabekin egoteko denbora gutxi izaten zuen. Lan-baldintza gogorrak zituen; itsasoan zegoen bitartean, Igeldoko igorlearen bitartez deitzen zuen etxera; alturako arrantzan ibiltzen zen eta zer arrain mota harrapatzen zuten aipatzen du Begoñak.

### **330. Itsasoaren arriskuak (ERR-012/022)**

Begoñaren senarra itsasontziko patroia zen, eta 14-15 arrantzale zituen itsasontzian bere kargu. Oso lan-baldintza gogorrak ziren haiek. Senarraren aita itsasoan galdu zen. Ekaitzak zeudenean, kezka handia izaten zuten eta babesa bilatzen zuten portuetan.

### **331. Hiru urte eta erdiren ostean, ezkondu (ERR-012/023)**

1960ko abenduan ezkondu ziren, hiru urte eta erdi elkarrekin ibili ostean. Nola hasi ziren kontatzen du.

### **332. Zumardiko giro polita (ERR-012/024)**

Erreterriako Zumardian igandetan oso giro polita egoten zen. Mutil-laguna itsasora joaten zenean, Begoña ez zen irteten, beste seriotasun bat zegoen orduan. Lehen dena bekatu zen.

### **333. Lehengo musu denak lapurtuak (ERR-012/026)**

Beraien garaian, musu denak lapurtuak izan ziren. Dena bekatu zela iruditzen zitzairen. Mariaren Alaben kongregazioa zegoen lehen: dantza lotua eginez gero, kongregaziotik kanpora bidaltzen zituzten neskak.

### **334. Ezkontzako eguna (ERR-012/027)**

Ezkontzarako prestaketa bereziak egiten ziren. Lezon ezkondu ziren eta Laborda apaizak abestu egin zien. Ezkontzako janzkerari buruz hitz egiten du: zer eta nola lortu zuen.

### **335. Josten ikasi izanaren erabilgarritasuna (ERR-012/028)**

Josten ikasi zuen gaztetan. Joaquin Tamayorenean ikasi zuen Zumardian, asteen bitan joaten zen. Beroki bat josi zuen han ikasitakoarekin. Gerora oso ondo etorri izan zaio orduan ikasitakoa.

### **336. Ama estraperloan (ERR-012/029)**

Begoñaren ama oso abila zen josten; estraperloan ere aritzen zen: Nafarroara joaten zen Elizondora eta gazta, babarrunak, babak... ekartzen zituen gero hemen saltzeko. Etxean, hala ere, gosea pasa zuten gerra ostean. Gaztaina garaian, amak egosi egiten zituen eta haiekin zopak egiten zituen.

### **337. Aita arotza (ERR-012/030)**

Aita arotza zen eta Arrieta aroztegian egiten zuen lan. Ebanista zen eta hark egindako altzari asko dituzte.

### **338. Olentzero ospatzeko ohitura etxean (ERR-012/032)**

Eguberriak oso bereziak izaten ziren Gabierrotan. Jaiotzarekin joaten ziren baserriz baserri. Kantuan egiten zuten eta Galiziako lagun batek erakutsitako kanta ere abesten zuten. Etxean beti ospatu izan dute Olentzero; orduan zer nolako opariak jasotzen zituzten aipatzen du. Lehen Olentzero baino gehiago ospatzen ziren Erregeak.

### **339. "Habla en cristiano" Erreterian (ERR-012/033)**

Gabierrotan euskaraz hitz egiten zuten beraien artean, baina norbaitek ulertzen ez bazuen "habla en cristiano" esan eta erdaraz egiten zuten. Etorkinen uholdea izan zenean Erreterian, euskaldunak moldatu ziren erdaldunengana; herri txikietan, ordea, alderantziz izan zen.

### **340. San Tomas eta Erreteriko feria (ERR-012/039)**

Lehen San Tomas eguna Donostian ospatzen zen; Erreterian ez, ordea. Ilandetan feria izaten zen Erreteriko Foruen plazan. Lehen lan asko eta diru gutxi zegoen.

### **341. Aita bidezaina (ERR-013/003)**

Aita bidezaina zen aldundian, makinaria. Makina txiki bat zeukaten eta harekin bideak egiten zituzten. Aitaren lan-ordutegiari buruz hitz egiten du. Kamioia nola kargatzen zuten azaltzen du.

### **342. Etxe inguruko baratzeak eta animaliak (ERR-013/005)**

Etxe inguruan hiru baratze zituzten. Animalia ugari zituzten txabola batean, baina askotan ahateak galipotaren gainean erortzen ziren. Animalia haiei esker gose garaian aurrera atera ziren. Baratzean denetik lantzen zuten. Baratzean zer tresna erabiltzen zituzten eta zer lan egin behar izaten zuten azaltzen du.

### **343. Inoiz hausten ez zen soinekoa (ERR-013/006)**

Inguruko baserrien izenak aipatzen ditu. Umetan oso bihurria omen zen Mila; eta, 3 urte zituenerako, eskolan hasi zen. Umetako bihurrikeria bat kontatzen du: gerezi bila joan zen batean, irristatu, eta zintzilik geratu zen arbolan.

### **344. Umetako jolasak (ERR-013/008)**

Gerra hasi arte, "a la culebrillan" jolasten zuten: jolas haren nondik norakoak azaltzen ditu. Kanikak erosteko dirua pixkaka-pixkaka lortzen zuten.

### **345. "A bules" eta sokasaltoa (ERR-013/009)**

"A bules" jolasaren arauak azaltzen ditu. Sokasaltoan primeran egiten omen zuten. Sokasaltoko kanta bat abesten du.

### **346. Gerra hasi zeneko estutasunak (ERR-013/012)**

Gerra hasi zenean, Milak 10 urte zituen. Uda guztietan, Idiazabala joaten zen familiartekoen etxera, eta han zegoen gerrak eztanda egin zuenean. Gerra

sortu zenean, denak mugitu ziren: Oiartzunen gizon batzuk fusilatu zituzten; ama eta familiarteko batzuk juxtu-juxtu libratu ziren fusilatzetik; eta, azkenean, Frantzian eta senide batzuen etxean eman zituzten hilabete batzuk. Bitarte horretan, Milak ez zuen ezer jakin Idiazabalen baitzegoen aitonaekin, osabarekin eta anaiarekin.

### **347. Gurutzeko Alaben oroitzapenak (ERR-013/015)**

Mila "Gurutzeko Alabak" mojekin ibili zen eskolan 10 urte bete arte. Garai hartako oroitzapenak gogoan ditu: moja bat oso maitea zuen, baina beste bat oso zakarra zen. Dena euskaraz ikasten zuten han: komunio txikia euskaraz egin zuen Milak; gerra ostean, ordea, dena erdaldundu egin zen.

### **348. Mokekin ikasitakoak (ERR-013/016)**

Milak mojekin ikasten zuenean, euskarazko liburua erabiltzen zuten. Bere ikasgai gustukoena geografia eta historia sakratua ziren. Eskulanak ere egiten zituzten.

### **349. Gose garaiko janaria (ERR-013/020)**

Milaren amak kilo asko zituen, eta zailtasunak izaten zituen erosketak berak bakarrik egiteko. Erosketak Zubillagan egiten zituzten. Gose garaian potajea jaten zuten gehienbat.

### **350. Fabrika handian lanean ezkondu arte (ERR-013/022)**

Fabrika handian maindireak, toallak, eskuzapiak... egiten zituzten. Emakume askok egiten zuten lan han. Lanik ez zegoen garaian ere, ez zituzten bota kalera. Fabrika barruan gosariak berotzeko su txikiak zeuzkaten. Milak bi txandatan egiten zuen lan; 17-24 urte zituen bitartean egin zuen han lan, ezkondu zen arte. Normalean emakumeek utzi egiten zuten lana ezkontzean, baina ez denek.

### **351. Etxekoen arteko maitasuna (ERR-013/024)**

Ezkondu ostean, oheko mantak oparitu zizkion amak Milari. Etxean oso ondo konpontzen ziren.

### **352. Gasolindegian josten ikasten (ERR-013/025)**

Amak erakutsi zion Milari makinan josten. 16-17 urte zituen bitartean, gasolindegian ikasi zuen josten eta gasolina ematen ere laguntzen zuen.

### **353. Etxekoen arteko batasuna (ERR-013/026)**

Etxean izaten zituzten otorduetako ordutegiari eta zereginei buruz hitz egiten du. Amak ezin izaten zituen etxeko lan batzuk egin, baina asko laguntzen zion Milari.

### **354. Etxean jaten zutena (ERR-013/027)**

Ama oso sukaldari ona zen. Etxean astean behin garbantzua jaten zituzten. Oilaskoa era askotan prestatzen zuten etxean. Egun berezietan arkumea jaten zuten.

### **355. Elkartasuna, baita ezezagunekin ere (ERR-013/080)**

Gerra garaian, Langileen Batailoia Aiako Harrian ibiltzen zen lanean. Oso baldintza txarretan bizi ziren haiek; Milaren amak beti prestatzen zion jateko

zerbait haietako bati eta ezkutuan bidaltzen zion Milaren bidez. Gerora, laguntasun handia izan zuten gizon harekin.

### **356. Bakea eta elkarri laguntzea behar (ERR-013/082)**

Bakea eta elkarri laguntzea behar direla dio.

### **357. Aitaren langintza (ERR-014/002)**

Aitak baserrian egiten zuen lan, baina tarteka, baita Pasai Antxoko portuan ere.

### **358. Eskolan eraztunak dantzan (ERR-014/004)**

Seberianok esaten duenez, euskaldunari gazteleraz eta erdaldunari euskaraz eginarazten zion Dolareberriko maisuak. Hizkuntza kontuekin zorrotza omen zen, eta haurrak elkar salatzen behartzen omen zituen. Eraztuna zeraman haur euskaldunak euskaraz mintzatzen sumatzen zuen besteren bati pasa behar izaten zion eraztuna. Egunaren edo astearen bukaeran eraztuna zeukanak zigorra jaso behar izaten zuen. Erdaldunekin gauza bera egiten omen zuen maisu hark.

### **359. Motibazio falta eskolan (ERR-014/005)**

Irakasleak emandako testu-ereduak kopiatu eta kopiatu aritzen omen ziren eskolan. Hala pasatzen omen zuten goiza sarritan, eta hargatik, Seberianok ez zuen ikasketei heltzeko gogo berezirik.

### **360. Eskolatik bueltan, etxeko lanak (ERR-014/006)**

Eskolatik etxera itzuli eta etxeko lanak egin behar izaten zituzten Seberianok eta haren anaia-arrebek. Esaterako, iturrira ur bila joan.

### **361. Jostailu gutxi (ERR-014/007)**

Kanikak, eurek egindako pilotak, "marru-marruketa" edo gordeketa izaten ziren Seberianoren eta inguruko haurren jostaketak.

### **362. Txori ehizan (ERR-014/008)**

Txori ehizan asko ibilitakoa da Seberiano, txiki-txikitatik. Amari zepoak erosteko eskatzen omen zioten, baina baita berak lazoak egiten ikasi ere!

### **363. biskarekin txori ehizan (ERR-014/009)**

Txotxak biskatan busti eta txori ehizan ibilitakoa da Seberiano. Karnabak harrapatzen nola moldatzen ziren kontatzen du.

### **364. Txori asko lehen, oraingo aldean (ERR-014/010)**

Orain baino askoz ere txori gehiago zegoela lehen, hori esaten du Seberianok. Udaberrian espezie guztietako kumeak ugaritzen omen ziren, eta hura izaten zuten Seberiano eta haren lagunek txori-kabi bila abiatzeko garaia.

### **365. Anaiaren eskopetarekin (ERR-014/011)**

Tortoila asko izaten omen zen lehen. Jateko hegazti ederra omen zen, erraziokoa. Gaur ez da lehen bezain sarri ikusten, Seberianoren ustez. Tortoila eskopetarekin tiroz jota bota beharra zegoen, baina. Anaiak eskopeta erosi omen zuen, eta hura lanera joaten zenean aprobetxatzen zuen Seberianok,

hamabi urte besterik ez zituela, eskopeta hartu eta erreka inguruan bere ehiza-saioak egiteko.

### **366. Garaian garaiko txori-ehiza (ERR-014/012)**

Abuztuaren erdialdean ehiza garaia hasten omen zen, eta orduan tortoila eta galeperra bota ohi zituzten, galepperretarako txakurrik ez izanagatik ere. Urria hasieran usoa etortzen omen zen. Negu aldera zozotan ibiltzen zirela dio. Oilagorretan ere franko ibili izan zen, Urdaburu inguruan, jardun horretarako txakur egokia behin etxeratu zuela.

### **367. Lanpernak eta lapak biltzen (ERR-014/013)**

Lanpernak eta lapak biltzen ere ibilia da. Gogoan du nola behin lanperna zakukada handia hartzea egokitu zitzaien, eta Pasai Donibaneko lagunek, haren berri eman, eta ez omen zieten sinistu.

### **368. Amuarrainak, aingirak eta ezkailuak (ERR-014/014)**

Eskuz arrantzatzen ibiltzen zen. Amuarrainak harrapatzeko ez zuen amurik behar. Aingirak berak, sardexka batekin zizatuta lehorrerutzen omen zituen, eta ezkailuak, aldiz, sakontasun urriko erreka hertzetan igeri egin zaleak, ihesbideak eskuarekin oztopatu eta hala ateratzen omen zituzten uretatik.

### **369. Almejak biltzen (ERR-014/016)**

Almejak biltzen ibili izan da Seberiano, nahiz eta horretan aditua izan ez.

### **370. Barkuak istinkatzen (ERR-014/017)**

Pasaiako portuan lanean aritu zen garaian, barkuak "kalafateatzen" edo istinka-lanak egiten aritu behar izaten zuen, gabarra batzuetan igota.

### **371. Lehendabiziko lanak (ERR-014/018)**

Kontratista batek eman zion Seberianori baseritik kanpoko lehendabiziko lana. Egungo Donostiako udaletxeko sotoak hondarrez husten aritu behar izan zuen, eta hilabete inguru egin zuen han. Ez zuen gustuko lana hura. Handik, Errenteriako zerrategi batean lanean aritzera pasa zen, eta zerrategian hiru urte inguru egin zituen, gustuko lanean eta gustuko lan-giroan.

### **372. Egurra Segura eta Oriotik (ERR-014/019)**

Gazte zelarik, Errenteriako zerrategi batean aritu zen lanean. Egurra, zuhaitz enborrak, bertan erosten omen zuten: Segura eta Oriotik, batez ere. Gehienetan haritza erosten omen zuten, baina baita Jaizkibelgo pinua edo kanpoko beste egur klaseak ere. Behin enborrak erosita, haietatik oholak atera, eta kanpora saltzen zuten egurra, altzarigintzarako.

### **373. Arrain-kaxak egiten (ERR-014/020)**

Gaztetan lan egiten zuen zerrategian bi zerra omen zituzten: bata handia eta txikia bestea. Azken honekin, eta pinurik baldin bazen, arrain-kaxak egiteko oholak ateratzen zituzten. Arrabota eta tupinaz gain, ez omen zen tresneria gehiago zerrategian. Egur-garraiorako, ordea, kamioia.

### **374. Pasai San Pedrora lanera (ERR-014/021)**

Errenteriako zerrategian baino gehiago irabaziko zuela-eta, Pasai San Pedroko portuan hasi zen lanean, barkuak konpontzen eta ontzietarako hozkailuak egiten.

### **375. Lan gogorra, ontzi konpontzailearena (ERR-014/023)**

Pasaiako portuko lanean egun txarrak izaten zirela aitortzen du. Euria ari zuenetan busti beste erremediorik ez zuten izaten, eta ontzi barruko lanetan, aldiz, bero handia izaten zen, udan batez ere.

### **376. Arrazola eta Uranga, lantegiko nagusiak (ERR-014/024)**

Arrazola eta Uranga delakoak ziren lanerako kontratatua zuen lantegiko nagusiak, eta lantegiari berari izena ematen ziotenak. Hogeita hamar langiletik gora aritzen omen ziren normalean, baina Erkizia delakoa omen zen ontzi-konpontzen aritzen zen inguruko lantegirik handiena.

### **377. Guria kooperatiba, Zumaian (ERR-014/025)**

Arrazola eta Urangaren lantegia utzi eta Zumaiko Guria kooperatiban hasi zen lanean Seberiano.

### **378. Ontzigintzaren gainbehera (ERR-014/027)**

Guria kooperatibako esperientzia kontatzen du Seberianok. Bestalde, Pasaiako portuan ontzigintzaren gainbeheraren arrazoi batzuk ematen ditu.

### **379. Egurrezko ontziak gutxiago iraun (ERR-014/028)**

Egurrez egindako barkuak ez omen zuen txapazkoak bezainbeste irauten. Konponketak ere gehiago behar. Hargatik uste du Seberianok garai batean egun baino ontzi gehiago eta ondorioz, lan gehiago zegoela ontzigintzan.

### **380. Zerbitzua Afrikan (ERR-014/029)**

Afrikan egin zuen soldadutza, Xauenen, bi urtez. Kargudunengan eragin apur bat bazuen lagun bat egin zuen, eta ez zitzaizkion lanik txarrenak tokatu.

### **381. Ofizialen txerria (ERR-014/030)**

Seberiano soldadutzan zela, ekonomatoko langile moduan jardun zuen denbora batez. Behinola, txerri bat hiltzeko eta ofizial guztien artean banatzeko agindua eman omen zuten. Txerriki haietako asko Seberianok berak banatu behar izan zituen. Hala ere, izan omen zen txerrikiak itzuli zituen ofizialik, eta horiek gatzetan ederki gordeta izan zituzten Seberianok eta haren lagun batek, gosetzen ziren garaian zer jan izateko. Hilabete batzuetan behintzat, ez zuten txerrikiaren faltarik izan.

### **382. Sekuestroa (ERR-014/031)**

Bi urtez egon behar izan zuen Gobernu Espainolak okupatutako lurralde Afrikar haietan.

### **383. Frontea Bidegurutzetan (ERR-014/032)**

Hamar urte zituen Seberianok Gerra Zibila piztu zenean. Frontea baserritik 20 metrora omen zuten. Gogoan dauka oraindik Frente Popularraren megafoniatik entzuten zirenak.

### **384. Kanoikada artean lanean (ERR-014/033)**

Kanoikadak Bidegurutzeta baserri gainera pasatzen omen ziren, San Markotik Oiartzunera eta Oiartzundik San Markora.

### **385. Oilaskoak ganbaran (ERR-014/034)**

Milizianoak ez omen ziren sekula sartu Bidegurutzetan, baina jatekoa eskatzera maiz joaten omen ziren. Seberianoren etxean sobran ere ez omen zuten, baina. Eta gezurretan ibili behar izaten zuten.

### **386. Bordaxarrekoak preso (ERR-014/035)**

Seberianok 10 urte besterik ez bazituen ere, gogoan du nola nazionalak Bordaxarreko gizonetako guztiak hartu eta San Markoko gotorlekura eraman zituzten. Haietatik bi anaia, Ezkaba mendiko gotorlekuan hil omen zituzten gero.

### **387. Nazionalak sartu zirenekoa (ERR-014/036)**

Buruan iltzatuta geratu zaizkio Seberianori tropa nazionalak sartu ziren eguneko hainbat irudi. Gogoan du, Frente Popularrekoak aurreko egunean erretiratu zirela.

### **388. Aitona susmagarri (ERR-014/038)**

Seberianoren familiako inork ez zuen gerran parte hartu. Hala ere, aitona fusilatu egin nahi izan zutela kontatzen du.

### **389. Sagardotegian tokan (ERR-014/041)**

Igande goizetan joaten omen ziren sagardotegira, baso bat sagardok sosa balio zuen garaian. Han toka-jokoan aritzen ziren.

### **390. Astoarekin Nafarroara (ERR-014/045)**

Gerraostean Oiartzungo errota gehienak prezintatuta edo zigilatuta egon ziren, beste hainbat tokitan bezala. Errazionamendu garaiak ziren, eta astoa artoz kargatu eta Nafarroara joan behar izaten zuen, Lesakarako errotaren batera, etxera irina ekartzeko asmoz. Behin hamahiru urte bete eta gero, Goizuetara joan behar izaten zuen, zeregin berarekin, baina Lesaka baino eskuragarriago geratzen zitzaion, eta bakarrik egiten zuen bidaia.

### **391. Babarrunak erregimenari entregatzen (ERR-014/046)**

Gerraostean baserritarrek jatekoa entregatu behar izaten zioten erregimenari, eta jateko hura zen gero errazionatuta banatzen zena. Gogoan du bere etxeok babarruna nola entregatu behar izaten zuten.

### **392. Ogi zuria Frantziatik (ERR-014/047)**

Errazionamendu garaian asko usatzen zen estraperloa, Bidasoa aldean batez ere. Seberianori, tarteka, Irungo lagun batzuek ekartzen zioten ogi zuria, Frantzia barrena ibili ohi zen tren-makinista baten bitartez.

### **393. Animalia hilketak kontrolatua (ERR-014/048)**

Errazionamendu garaian baserrietan akabatzen ziren animalien kontrola eramaten zen. Seberianoren esanetan, hori gaur egun ere hala da.

### **394. Platerkada zen antxoa-neurria (ERR-014/049)**

Seberianok bere egungo eta garai bateko elikadura ohituren berri ematen du. Esate baterako, euren baserria mendian egonagatik, arraina saltzera bertaraino joaten zitzaizkiela kontatzen du.

### **395. Baserrian denetik egin behar (ERR-014/051)**

Baserrian denetatik egitea egokitu omen zitzaion: orotariko lanak.

### **396. Belar-metak egiten (ERR-014/052)**

Belarra moztea eta iratze bila joatea sarritan tokatzen omen zitzaion, baina horrez gain, belar-metak egitea normalki berari egokitu ohi zitzaion lana izaten zen.

### **397. Jipoa eman eta dirua kendu (ERR-014/055)**

Ilunpetan ibiltzeko beldurrik ez zuten izaten. Hala ere, kontatzen du, entzuten zirela norbait bidera atera, jipoitu eta dirua lapurtu zioten jendearen kasuak.

### **398. San Juan sua (ERR-014/058)**

San Juan bezperan, gauez, sua pizten zutela dio Seberianok. Gero, artasoroaren inguruan bueltaka ibiltzen omen ziren, sua makil baten puntan hartuta.

### **399. Alpagata, gure oinetakoa (ERR-014/059)**

Tarteka botak edo abarkak jantzita ibiltzen baziren ere, oinetakorik ohikoenak alpagatak izaten zituzten.

### **400. Ergoien auzoaren fama txarra (ERR-014/061)**

Oiartzungo Ergoien auzoak ospe txarra zuela dio. Berak entzun izan zuen, jendea bertan elkarrekin haserretu eta labainkadak emateraino heldu izan zela.

### **401. Harrika eman! (ERR-014/062)**

Igande arratsetan neska-laguntza egitea bezain ohikoa omen zen Oiartzunen harrika ibiltzea. Seberianoren esanetan, ez zuten fede txarrez egiten, dibertitzeagatik baizik.

### **402. Ermiten jirako festak (ERR-014/063)**

Ermiten jirako festak izaten zituen Seberianok gogokoen: Hondarribiko Guadalupekoak zein Santiagotxokoak, Irungo San Martzialekoak... Horietan guztietan egiten ziren oturuntza eta egun pasak nahiago izan ditu, Errenteriako jaiak berak baino.

### **403. Kalabaza jaso (ERR-014/066)**

Behin, Oiartzungo Hirubiden, Seberianok dantzatzeko eskatu zion neska bati, baina ezezkoa luzatu zion neskak. Hala ere, Seberianok ez zuen etsi, eta

hurrengo piezan berriz ere joan zen neska berarengana, "faborezka" beti ere, berekin dantzatu nahi ote zuen galdezka. Hirugarrengoan baietz esan omen zion.

#### **404. Guardia zibil bikotea bezala (ERR-014/067)**

Seberiano gaztea zenekoak, ez ziren, nonbait, elkarrenganako maitasuna publikoki adierazteko garaiak. Neska-laguntzatan ere hamaika bitxikeria ikusitakoa omen da.

#### **405. Apaizaren menpe (ERR-014/069)**

Apaizen jarrera karga izaten omen zen askotan. Karga pisuegia, gainera, Seberianok dioenez. Izan ere, derrigortutako guztia txarra izaten dela dio berak.

#### **406. Su bedeinkatua etxerik etxe (ERR-014/070)**

Ur bedeinkatua beti izaten zuten Bidegurutzeta baserrian. Ura ez ezik, Seberiano bera etxerik etxe bedeinkatutako sua banatzen ibili omen zen bi urtez. Pazko bezperakoa omen zen ohitura hori. Ardagai bat su bedeinkatutan piztu eta hura banatzen omen zen, etxez etxe.

#### **407. Altza eta Erreterriako euskara (ERR-014/071)**

Seberianoren ustez nahiko euskara garbia egiten da Erreterria eta Altza inguru horretan. Hondarribiarren eta Oiartzuarren hizkeran sumatzen du alderik handiena.

#### **408. Arragua lehen politagoa orain baino (ERR-015/002)**

Jaiotetxea ez du gaur den bezalakoa gogoratzen. Arragua, lehen, gaur egun baino politagoa zela dio. Afari-meriendak egiten zituzten familian auzoko sagardotegian, jatekoa etxetik eramanda.

#### **409. Gaztañora bizitzera (ERR-015/003)**

Sorkunde hiruzpalau urte zituela joan zen familiarekin Gaztañora bizitzera. Orduetik ez omen da auzoa gehiegi aldatu, Sorkunderen osabak eraikitako etxe batzuk gora-behera. Azkenik, orduko Gaztañoko komertzio eta zerbitzuen berri ere ematen digu: "Catorce de agosto", "El ciego"...

#### **410. Ama sukaldari bikaina (ERR-015/004)**

Ama sukaldari bikaina zuen Sorkundek. Behin, Gaztañoko "El ciego" esaten zioten tabernatik lanerako deitu zutela, bakailaoa prestatu omen zuen. Hurrengo egunetan bakailao hura dastatutako norbait bueltatu omen zen, oturuntza errepikatu asmoz, baina ordukoan bakailaoa ez zen Sorkunderen amak egina, eta bezeroak, noski, igarri egin zion. Sorkunderi ere esaten diote ama zen adinako sukaldaria dela.

#### **411. Aitak "koronilla" egiten zion herriko parrokoari (ERR-015/005)**

Aita pelukeroa zuen, Erreterriako Erdiko kaleko Arruabarrena bizartegian lanean aritzen zena. Sorkundek dioenez herriko parrokoa propio joaten zen aitarengana, burugainekoa edo "koronilla" egin ziezaion.

#### **412. "Lore bat" apretak (ERR-015/006)**

Espartinak saltzen ibili zen Sorkunderen aita ile-apaindegiko lana utzi eta gero. Dendaz denda ibiltzen omen zen, enkarguak hartzen, eta gero Lezoko "Lore bat" fabrikatik bidaltzen omen ziren beharrezko ziren guztiak. Sorkunde eta ingurukoak espartinak josten aritu izan ziren.

#### **413. Aierbe ahizpen eskolan (ERR-015/008)**

Aierbe ahizpen eskolan ibili zen Sorkunde; Dorotea, Anastasi eta Esperanza ahizpen eskola partikularrean. Jotzaile fama zuten irakasle haiek. Dorotea emakume handia omen zen, eta makil lodi bat ibiltzen omen zuen. Anastasi, aldiz, argala izan eta makil finagoa dantzatzen omen zuen. Sorkundek ez du inoiz jo zutenik gogoan. Neskak eta mutilak bereizita egoten omen ziren.

#### **414. Eskolan ezin euskaraz egin (ERR-015/009)**

Irakasleren bati, emakumezkoa itxuraz (Aierbetarren bat izan zela dirudi), ilea moztu eta kaletik ibili omen zuten diktadura garaian, eskolak euskaraz emateagatik. Bestalde, Sorkundek bere izenarekin epaitegian izandako arazoak kontaktzen ditu.

#### **415. Francori kantari (ERR-015/010)**

Sorkunderen aitak ez zuen nahi izaten seme-alabak Franco agurtzera joan zitezen. Sorkundek-eta ez zuten joateko gogo berezirik izango, noski, baina irakasleak joateko eskatzen omen zien, inor azaldu ezean gerta ziezaiokeenaren beldur. Sorkundek goitik behera du gogoan Francori kantatzen zioten abestia.

#### **416. Eskolako lagunak (ERR-015/011)**

Sorkundek hamar urte betetzerako zeregin asko zen haren etxean eta bi orduz bakarrik joaten zen eskolara. Hala ere, ederki gogoratzen ditu orduko bere ikaskideak.

#### **417. Aierbe ahizpen eskola nolakoa (ERR-015/012)**

Aierbe ahizpen eskola nolakoa zen kontaktzen du Sorkundek, bai eta bertan zer egin ohi zuten ere.

#### **418. Dotrina parrokian (ERR-015/013)**

Jose Maria Mujika parrokoarekin ikasten zuten dotrina, herriko parrokian bertan. Han ere ezin omen zen euskaraz egin.

#### **419. Industria asko Erreterian (ERR-015/014)**

Herriko parrokoak lortu omen zion lana Sorkunderi Pekin fabrikan. Inguruko herrietatik jende asko joaten omen zen Erreteriarra lanera. Industria asko zegoen.

#### **420. Pekin fabrikan lanean (ERR-015/015)**

Elektrizitate instalazioak osatzeko piezak egiten omen zituen Sorkundek Pekin fabrikan. Itxura guztien arabera kate lanean aritzen ziren. Prentsan egiten omen zuen lan Sorkundek, beste hamasei lankiderekkin batera. Gogoan du zein zen bere langile zenbakia, 118, Eta baita zein ordutegi eta egutegi zeuzkan ere.

#### **421. 'Charlot' (ERR-015/016)**

Erreterian ba omen zen 'Charlot' esaten zioten gizon bat. Sorkundek hura eta haren emaztea "traste" samarrak zirela dioen arren, oso argia omen zen 'Charlot' delakoa. Parrokiko ordularia berak konpontzen omen zuen, eta paper fabrikan lana eskaini omen zioten, baina berak ez omen zuen onartu.

#### **422. Enkargatu gaiztoak (ERR-015/017)**

Pekin fabrikan bereizita egiten zuten lan emakumeek eta gizonezkoek. Hala ere, enkargatua gizonezkoa zuen Sorkundek, eta bere esanetan, aski gaiztoa zen. Gogoan du beste enkargaturik ere.

#### **423. "De usted" bai; "berorrika" ez. (ERR-015/018)**

Oso inguru erdalduna izan zuen Sorkundek. Hiru edo lau lagun ezik, gainontzekoak erdaldunak omen zituen.

#### **424. Antzinasuna Pekin fabrikan (ERR-015/019)**

Langile gazteek gainontzekoek baino gutxiago kobratu ohi zuten, nahiz eta helduek bezainbeste lan egin. Antzinasuna kobratzen hasi baino lehen utzi zuen lana Sorkundek. Sarritan enkargatua lan martxa neurtzera gerturazten omen zitzaien.

#### **425. Greba eguna Pekin fabrikan (ERR-015/020)**

Greba egun bat ere ezagutu zuen Sorkundek Pekinen. Ez du ongi gogoan zergatik egin zuten, baina bai Guardia Zibilak etorri eta zer esan zieten: "edo lanera, edo etxera". Eta etxera joan ziren. Ez denak, ordea.

#### **426. Mutilek ez zuten etxeko lanik egiten (ERR-015/022)**

Ama falta, eta alabak lan egin behar etxean. Sorkundek bere fabrikako lana utzi behar izan zuen anaiak zerbitzatzeko. Hogeita hiru urte zituen Sorkundek, eta jai egunetan ez zuen kalerako indarririk izaten, hain egoten zen nekatua!

#### **427. Bi urte jarraian beltzez jantzita (ERR-015/023)**

Ama hil eta urte beteko dolua ekarri zuen Sorkundek. Dolu-aldi hura amaitzear zela, izeba hil zitzaion, baina. Eta beste urte bete ibili behar izan zuen beltzez jantzita. Dolu-aldia amaitzean, gazteleraz "alivio" esaten zitzaion doluaren arintze moduko garaia tokatu ohi zen, urte erdikoa, eta arropa beltzak beste kolore batzuekin tartekatzeko aukera ematen omen zuen, kolore beltza guztiz alboratu artean. Kosta zitzaion Sorkunderi, bi urte eta erdi haiek igarota, berriz prenda beltzik erosten.

#### **428. Lana beltz baina goserik ez (ERR-015/025)**

Diktadura urtetan egin behar izan zuen Sorkundek anaien otordu eta etxeko lan guztien kargu. Oilaskoak eta untxiak bazituzten etxean, eta lana beltz egin behar izaten zuten arren, ez omen zuten beraiek gose handirik pasa.

#### **429. Dantzan eta puzkerka (ERR-015/027)**

Sorkunderen lagun taldean bazen bat Dantxarineatik bromarako tresna, jostailu edo gaiak ekartzen zituen. Behinola, lagun bati gozoki moduko bat eman eta puzkerrak bota eta bota jarri omen zuen.

### **430. Limoi-ura eta txizagura (ERR-015/028)**

Sorkunderen lagunartekoek, behin, Errenteriako Zumardiko eserlekuetan limoi-ura bota zuten. Eurak "petrilan" eseri ziren gero, eta ez omen zuten barre gutxi egin atzealdea busti zuten guztien aurpegiari begira.

### **431. Alameda zinean doministikuka (ERR-015/029)**

Behin lagun-talde handia joan ziren Alameda zine aretora. Lagun batek doministiku egin arazteko hautsak bota omen zituen areto barruan eta azkenik ate eta leiho guztiek zabalik bukatu omen zuten.

### **432. Errenteriako Zumardiko dantza giroa (ERR-015/032)**

Igande arratsaldetan Zumardira jaisten omen ziren gazte gehienak dantzaldira. Sorkunde eta haren lagunentzat ezagunekin elkartu eta mutilekin egoteko unea izaten zen hura.

### **433. Senargaiarekin (ERR-015/035)**

Senargaia ezagutu eta urte eta erdi egin zuten nobio moduan. Igeldoko ibilerak kontatzen ditu Sorkundek. Lagun guztiak hasi ziren senargaiarekin ibiltzen eta lagunartea bera ahuldu egin zen.

### **434. Ezkontza soinekoa (ERR-015/036)**

Errenteriako parroko aldare nagusian ezkontzea egokitu zitzaien sorkunde eta haren senargaiari, apaizak antolatutako zozketan. Ezkontzako soinekoa koinata batek josi zion, jostuna baitzen. Beste koinata bat, aldiz, ile apaintzailea zuen.

### **435. Arropa jostunak josten zuen (ERR-015/037)**

Garai batean ez omen zen aurrez jositako arroparik erosten ia, norbere neurrira egindakoa enkargatu baizik, eta jostunek egun baino lan gehiago izaten omen zuten.

### **436. Pepita Juradorekin josten ikasi (ERR-015/038)**

Pepita Jurado jostunarekin ikasi zuen Sorkundek emakume-arropa josten. Gizonentzako ez omen zuten deus ere egiten. Oso lagun onak izan ziren Pepita eta Sorkunde.

### **437. Errenteriako jaietan (ERR-015/039)**

Oso zoriontsuak oroitzen ditu Sorkundek bere gazte garaiko herriko jaiak: Madalenak. Musika apur bat besterik ez zuen berak behar ongi pasatzeko. Jaiak egunez bizitzen ziren, gauerdiko amaitzen baitzen guztia. Egitarauan dantza, musika eta soka-muturra ez ziren falta izaten.

### **438. Ezin tabernetan sartu (ERR-015/040)**

Neskek ezin izaten zuten tabernetan sartu, mutilen batek lagunduta izan ezean, limonada bat hartzeko aitzakian edo. Biteri kaleko "Jardín" tabernara joan zaleak ziren Sorkunde eta haren lagunak, oso txokolate ona ematen baitzuten bertan. Hala ere, bakarrik ezin, eta mutilen batek gonbidatu arte itxaron behar izaten zuten.

#### **439. Azokan denetarik (ERR-015/042)**

Erosketak plazan eta dendan egiten zituen Sorkundek. Plazan denetik topatzen zuten. Esnea etxera ekartzen zieten. Ogia ere ekarri izan zieten etxera, baina azken urteetan eurak jaitsi izan ziren bila, Lekuonatarren okindegira.

#### **440. Gerrako oroitzapenak (ERR-015/044)**

Bost urte zituen Sorkundek Gerra Zibila hasi zenean. Oroitzapen batzuk badira burutik joaten ez zaizkionak: soldaduak eskopetekin, koltxoia etxeko leihoetan, eta Bilboko babeslekua. Izan ere, Sorkunde eta haren familiak Bilbora ihes egin baitzuen gerra piztearekin batera; denak aita ezik, preso hartu eta Gasteizera eraman baitzuten. Bilborako bidaiari oso gaizki pasa zuen Sorkundek, itsaso txarra zegoen eta.

#### **441. Plazan barazki saltzen (ERR-015/047)**

Sorkunde, haurra zela, saltzaile ibili zen herriko plazan, beste hainbat emakumeren moduan. Etxeko barazkiak eta arrautzak saltzen zituen, eta baita amak Tolosa edo Ordiziatik ekarritako jeneroa ere: sagarrak, nagusiki.

#### **442. Batzokiko panpina (ERR-015/048)**

Sorkunde oso neska berritsua omen zen txikitari, euskaraz ederki egiten zuena. Gogoan du oraindik panpina bat oparitu ziotela batzokian, baina ez daki ziur zergatik.

#### **443. Pospolinak dena libre (ERR-015/049)**

Txikitari hasi eta gazte garaietaraino pospolin moduan dantzan ibili izan zen Sorkunde. Berak ez omen zuen pospolin arroparik, baina lagun baten izebak birentzat omen zuen, eta hark uzten zizkien. Sorkundek aitortzen du Donostiako jaietara pospolin jantziarekin joan eta ekitaldi guztiak debalde gozatzeko balio izaten ziela.

#### **444. Madalena eguna (ERR-015/050)**

Errenteriako jaietako egun nagusia da Madalena eguna. Sorkunderen etxean familiarteko otorduak prestatzen zituzten egun horretan, eta amak kroketak egin eta oilaskoa erretzen zuen.

#### **445. Gaztañon baratzeak nagusi (ERR-015/051)**

Errenteriako Gaztaño auzoan gehiengo batek lantzen omen zuen baratzea, bakoitzak zegokion lur eremuan. Sorkunderenean ama arduratzen omen zen horretaz.

#### **446. Kontrola saihesten (ERR-015/052)**

Gerraostean, errazionamendua tarteko, errotetarako bideak zaintzapean izaten ziren. Sorkunde eta haren adineko haurrak jolas plantak egiten, disimuluan iristen omen ziren errotaraino, irina ezkutuan, eta bueltakoan taloak etxeratzea lortzen zuten. Tren geltokiko zaindarien kontrolak nola saihesten zituzten ere kontatzen digu Sorkundek.

#### **447. Gosea inguruan (ERR-015/053)**

Sorkundek dio, inguruan sumatzen zutenaren aldean, heurek ez zutela gose handirik pasa. Gogoan du, plazan barazki eta fruta saltzen aritzen zelarik, eta tarteka-marteka sagarren bat ahoratzen bazuen, ingurukoak zelatan sumatzen zituela. Izan ere, zain egoten omen ziren Sorkundek zuztarra noiz botako, atzetik joan eta hura hartzeko.

#### **448. Tuberkulosia (ERR-015/055)**

Gerraostean jende asko hil zen tuberkulosiak jota. Sorkundek kasu asko ditu gogoan, bere inguruan zendutako jendearenak.

#### **449. Elkartasuna auzoan (ERR-015/056)**

Gaztañon norbait hiltzen zenean auzokoek elkartasun handiz erantzun ohi zutela gogoan du Sorkundek.

#### **450. Lourdesera bidaia (ERR-015/057)**

Urte askotan zehar joan omen zen Sorkunde Lourdesera, autobusa hartuta, han primeran pasatzen zuten eta. Ur bedeinkatua ekartzen zuten auzoko jendearentzat.

#### **451. Hileta erritoak (ERR-015/058)**

Ehorztetxerik gabeko garaiak ezagutu ditu Sorkundek. Hildakoa kutxan sartu eta auzoek bizkarrean hartuta jaisten zuten etxetik elizaraino, eta handik, hilerrira eraman gero.

#### **452. Makillatu bai, baina etxetik kanpo (ERR-015/060)**

Sorkunde mari-apain samarra omen zen gaztetan, eta makillatzea gustatzen zitzaion. Hala ere, etxean ez zioten halakorik egiten uzten, eta behin etxetik aterata egin behar izaten zituen apaintze lan horiek.

#### **453. Hilerokoa (ERR-015/061)**

Sorkunde gaztea zenean hainbat esamesa bazen hilerokoaren inguruan. Lagun giroan, nesken artean hitz egiten zuten gai horri buruz, baina mutilekin inoiz ez.

#### **454. Urtebetetzea, bataioa eta urteurrena, dena egun berean (ERR-015/065)**

Lehenengo semea iraila hasieran izan zuen Sorkundek, ezkondu eta urte betera. Aitaren urte betetze eguna ere data horien jiran zenez, ospakizun hirukoitza egin omen zuten.

#### **455. Bakarrik erditu (ERR-015/068)**

Sorkundek kontatzen du nola emaginaren laguntzarik gabe erdituta ere, arriskurik ez den.

#### **456. Erreterria asko aldatu da (ERR-016/002)**

Fernanda Migel Alduntzin kalean jaio eta bizitu zen. Etxe aurrean baratze handi bat omen zen, eta Onbide etxea ikusten zen handik. Apaizak bizi ziren han: don Jose Luis, don Jose, don Benito... Don Benitoren oihuak ongi gogoan ditu Fernandak, eta baita neska-mutilak jostaketan nola ibili ohi ziren ere: artilezko pilotak eginda, soka-saltoan bide erdian...

#### **457. Erremolatxa panpina modura (ERR-016/003)**

Fernandaren aita sarritan joaten omen zen jaiotetxera, Añabitarte baserrira, hango lanak egiten laguntzera. Familia guztia joaten zen aitarekin, eta Fernandak Añabitarteko oroitzapen oso ederrak ditu. Oso ongi pasatzen omen zuen han lehengusuekin jolasean. Kontatzen du, esaterako, panpinarik ez zela garai hartan izaten, baina erremolatxa batekin nahikoa zutela haiek panpina moduan ibiltzeko.

#### **458. Oilategia, erletxea eta sagastia (ERR-016/005)**

Añabitarte baserri inguruan oilategia, erletxea eta sagastiak zeudela gogoan du Fernandak, eta baita gereziondoak ere. Sagarrari hozka egiten zioten aurrea harrik ba ote zuen ziurtatzeko; halakorik ez bazen, zuztarreraino jaten omen zuten.

#### **459. 'Donosti sagarra' (ERR-016/006)**

Oso sagar dotorea eta jateko ona izaten omen zen 'Donosti sagarra' deitzen zuten hura. Gorria, marratua eta berdea. Orduz gero ez du berriz ere halakorik ikusi Fernandak.

#### **460. Beti lapurrerian (ERR-016/007)**

Gerezi arboletara maiz igotzen ziren haur denboran Fernanda eta ingurukoak. Apur bat koskortzerakoan, ordea, etxeakoetara igotzetik besteenetara igotzera pasa ziren, eta lapurrerian hasi. Gerezi gorri eta beltzak ziren nagusi. Marrubiak, aldiz, ziri batekin pasa eta etxera eramaten omen zituzten.

#### **461. Motorra amets (ERR-016/008)**

Umetan, edonora joan behar zutela ere, oinez joaten ziren. Gaztetan, ordea, motorrean ibiltzen ikastea zuen Fernandak amets. Baita ikasi ere! Fabrikatik atera eta hiru lagun joaten omen ziren motorrean ibiltzen ikastera.

#### **462. Eltzekaria egunero (ERR-016/009)**

Babarrun gorria izaten omen zen Añabitarteko otordurik ohikoena. Aste guztian eltzekaria izaten zuten, baina baita kalean ere, Fernandaren etxean.

#### **463. Buruan zapia eta gona luzeak (ERR-016/010)**

Buruan zapirik ibiltzen ote zuten galdetu eta ezetz dio Fernandak. Euren amak ere ez. Fernanda haurra zelarik, amona batzuk soilik ditu gogoan, buruan zapia ibiltzen zutenak. Eta, noski, gona luzeak.

#### **464. "Zortzi korapillo ingo'izkiñat lepuan nik hiri" (ERR-016/011)**

Pasadizo politak kontatzen dizkigu Fernandak. Lehenik, bista bajatu samarrik zuen emakumearena, satora jaisten zena alaba kalean ote zen ikustera.

Nonbait, alabaren lagunek, amak bista onik ez zuela jakin eta adarra jotzen omen zioten. Emakumea ez zen isilik geratzekoa, baina. Emakume honen senarraren kontuak kontatzen ditu ondoren, eta azkenik, Bixente 'igeltsero'renak.

#### **465. Inaxio 'Txarlot' (ERR-016/013)**

Inaxio 'Txarlot' Errenteriako gizaseme zelebre edo ezaguna omen zen. Fernandak haren berri ematen digu. Gaiztakeriak egiten zizkioten. Errenteriako aldizkari batean karikatura bat egin ziotela gogoan du, Inaxio honi: "Relojero y electricista muy rápido y sin tibiezas. Te deja el reloj en marcha y encima le sobran piezas."

#### **466. Langileen kooperatiba (ERR-016/015)**

Doña Rosa Esnaola izan zuen irakasle Fernandak. "Las Rosas" esaten omen zioten eskola hari. Haren azpian, langileen kooperatiba izan omen zen, gerra garaian itxi egin zutena.

#### **467. Rosaren eskola (ERR-016/016)**

Bost urte inguru zituela hasi zen Fernanda eskolan. Mutilak gelaren alde batean jartzen omen zituzten eta neskak bestean. Rosa bera zen bere irakaslea, eta Rosaren alaba, Asunción, baserritarrei eskolak ematen aritzen omen zen.

#### **468. 'Cara al Sol' bi besoak altxata (ERR-016/017)**

Sarri tiratzen omen zion Rosa andereñoak Fernandari belarri eta masailetatik, zauriak eragiteraino, askotan. Espainiako bandera igo eta 'Cara al Sol' kantatu behar izaten zutenean jasotzen omen zituen handienak. Izan ere, bere lagun-mina erdi lo joaten omen zen eskolara, eta Fernandak bi besoak jasota kantatzen zuen, lagunaren partez jaso nahi izaten baitzuen, nonbait.

#### **469. Dotrina euskaraz ematetik gazteleraz ematera pasa nahi (ERR-016/018)**

Dotrina euskaraz ematetik gazteleraz ematera pasa nahi izan zuen Rosak, Fernandaren irakasleak, baina gurasoek mehatxu egiten omen zioten, gazteleraz eman ez gero haurrak eskolatik aterako zituztela esanez.

#### **470. Rosarekin irakurtzen (ERR-016/019)**

Gaztelerazko testuak irakurtzen zituzten eskolan. Rosak, irakasleak, eserita irakurtzen omen zuen, baina sarritan logaleak erasaten zuen, Fernandak dioenez. Halakoetan, haurrek orrialdeak irakurri gabe aurreratzeko aprobetxatzen omen zuten.

#### **471. Eskolako terrazan mahatsak jaten (ERR-016/021)**

Rosaren irakaslearen eskolan terraza handi bat omen zen, eta honek askotan bidaltzen zuen Fernanda hura erraztera. Fernandak erratza pasatzen zuen terrazan, baina baita hango mahats zuriak jateko ongi aprobetxatu ere!

#### **472. Hamaika urte eta hamabi orduko lanaldia (ERR-016/023)**

Hamaika urterekin eskola utzi eta neskame lanetan hasi zen Fernanda, Errenterian bertan, Goiko kalean. Hamabi orduko lanaldia izaten zuen.

### **473. Ura eta azukrea buruko kizkurrei eusteko (ERR-016/025)**

Etxekoandreari asko gustatzen zitzaion semeak nola orrazten zizkion Fernandak. Txikienari ile-kizkurak azukrearekin gogortzen omen zizkion. 85 pezeta irabazten zuen hilabete osoa lanean aritu eta gero. Fernanda ez zen soldatarekin kexu.

### **474. Auzoan giro ona (ERR-016/026)**

Fernandak bizilagunen arteko giro ona du gogoan. Jai arratsaldetan, amonak karta jokoan aritzen omen ziren harraska ondoan, egurrezko kaxekin antolatutako mahai baten bueltan. Haurrak, aldiz, haien jiran jostaketan. Udan, hainbat bizilagunek aulkiak kalera atera eta gauerdira arte egoten ziren hitz eta pitz.

### **475. Etxeko atea beti zabalik (ERR-016/028)**

Atea beti zabalik egoten omen zen Fernandarenean, eta horrek erraztu egiten zuen bizilagunekiko tratua.

### **476. Ehiza zakur kumeak (ERR-016/029)**

Ehiza zakurrak ziren beti Fernandaren etxean. Aitarenak ziren zakurrak. Kumeak egiten zituzten eta aitak saldu.

### **477. Ijitoak jateko eske (ERR-016/030)**

Tarteka ijitoak joaten zitzaizkien etxera jateko eske, eta Fernandaren amak zeukanetik ematen zien; eskas zuenetik, ezin.

### **478. Telefono bakarra auzoan (ERR-016/031)**

Maria Huizi delakoaren etxean telefonoa ba omen zen; bakarra, auzo guztian. Fernandaren etxerako enkarguak emateko deitzen bazuten, Mariak leihotik leihora ematen zien abisua, garrasi betean.

### **479. Donostiara neskame nahi eta ezin (ERR-016/033)**

Hamaika urterekin hasi eta hamalau bete arte aritu zen Fernanda Errenteriako familia baten etxean neskame. Berak Donostiara joan nahi zuen eta han neskame lanetan jarraitu, baina amak fabrikara bidali zuen: Errenteriako Pekin fabrikara. Han hogeitaz aritu zen lanean.

### **480. Enkargatu izendatu (ERR-016/034)**

Hari metrikoko torlojuak egiten aritu zen Fernanda Errenteriako Pekin fabrian. Gero enkargatu izendatu zuten, eta oso garai onak bizi zituela dio, barre algara handiak egiten baitzituen langileekin.

### **481. Guardia zibila zaintzaile (ERR-016/035)**

Fernanda ezkontzear zela, eta ondorioz, fabrika uzteko puntuan, Pekinen zaintzaile lanetan jarri zuten guardia zibil erretiratuari adarra jotzea otu zitzaion. Azkenik, bere txantxa lankideek ordaindu behar izan zuten.

### **482. Aitak baino soldata hobea (ERR-016/037)**

Etxean sartzen zen diru guztia amari ematen omen zioten denek. Fernandaren aitari lotsa ematen omen zion alabak bere soldata ikustea, ez ziotelako askorik

ordaintzen. Gainera, Fernandak aitak baino diru gehiago etxeratzen zuen. Izan ere, fabrikako lanetik aparte lan gehiago egiten baitzituen Fernandak.

#### **483. Aita perretxikoak hazten (ERR-017/003)**

Landarbasoko kobazuloetan perretxikoak hazten zituen aitak, baserrian lana egiteaz gainera.

#### **484. Baserriko bizimodua (ERR-017/004)**

Zazpi senidetan gazteena. Behiak eta behorrak zituzten. Kalera joaten ziren egunero esnea eta barazkiak saltzera. Auto gutxi zegoen. Alkatea motoan ibiltzen zen.

#### **485. Esnea saltzera kalera (ERR-017/005)**

Izeba soltera joaten zen etxez etxe saltzera, Erreteriarra; ama eta arrebak ere bai. Azkenaldian emaztea, kotxearekin. Goizeko seietan jaikitzen ziren behiak jeztera. Behorrekarekin joaten ziren. Gero zaldi karroarekin eta ondoren autoz. Gero eta gastu handiagoa. Zaldi karroa baserri gutxitan zuten. Erreterian 5-6 zeuden.

#### **486. Eskolara Tolareberrira (ERR-017/007)**

Ordubeteko bidea zuten oinez. Gutxi joaten ziren kalera, elizara. Tolareberrira joaten zen eskolara. Don Pedro apaiza zen maisuetako bat; gogorra ei zen. 12 urte arte ibili zen han, eta gero Erreterian ibili zen. Euskarari ez zitzaion garrantzirik ematen. Erdara ikastea inportantea zen, eta horregatik jarraitu zuen ikasten.

#### **487. Tolaretik eskola publikoetara (ERR-017/008)**

Tolaren eskolan euskaraz hitz egiten zuten, baina idatzi erdaraz. Gaurko euskara zaila egiten zaio. Eskola publikoetan dena erdaraz ikasi zuen.

#### **488. Mutikotako jolasak (ERR-017/010)**

Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Inguruko mutilak elkartu, eta boletan egiten zuten. Pilotan aritzen ziren. Baloirik ez zen izaten. Habietatik txorikumeak harrapatzen zituzten: zozoek, birigarroak, okilak... Tiragomarekin ere ibiltzen ziren txoritan.

#### **489. Ehiza eta arrantza (ERR-017/011)**

Hegaberak lazoarekin harrapatzen saiatu izan da. Arrantzan, amurruinak eskuz, Landarbasoko errekan.

#### **490. Gereziak batzen, arbolara igota (ERR-017/012)**

Fruta arbola asko zuten: muxikak, aranak, gereziak... gustura ibiltzen zen arbola gainean. Gerezi arbolatik eroritakoak ere ezagutzen ditu. Gerezi motak.

#### **491. Sagar arbolak (ERR-017/013)**

Sagar arbola asko zegoen. Gutxitzen joan da. Erreterian hiru sagardotegi zeuden. Saltzeko zaila zen eta lana ematen zuen sagarrak. Gerezia saltzen zen ondoen plazan. Sagar motak.

#### **492. 17 urterekin Donostiara lanera (ERR-017/014)**

14 urterekin eskola utzi, eta baserrian hasi zen lanean. 17 urterekin Donostiako Udalean hasi zen, anairen orde. Pinua landatzen ere ibilia da.

#### **493. Bizikletan lanera (ERR-017/016)**

Bizikletan joaten zen Donostiara lanera, 17 urterekin. Anaia zaharrenak soldadu joan ziren gerrara; bitartean bizikleta ibiltzeko esaten zioten. Orain erregeak bezala bizi garela dio.

#### **494. Sukaldeko lanak emakumeek (ERR-017/017)**

Sukaldean ez du ikasi; emakumeek egin dute beti lan hori. Babarruna jaten zuten egunero, eta jaietan garbantzia. Pitarra edaten zuten, etxean egina.

#### **495. Sagardoa eta pitarra egiten (ERR-017/018)**

Sagardoa egiteko Otsozulueta joaten ziren. Garlian eramaten zuten sagardoa. Gurdia erori zitzaion bidean behin. Baldeka hustutzen zuten kupelera. Sagardoa kanpokoentzat izaten zen; etxekoentzat pitarra.

#### **496. Errotara, artoarekin (ERR-017/019)**

Taloak egiten zituzten. Nora joaten ziren errotara. Nafarroara ere joaten ziren, gerra garaian.

#### **497. Gerrako kontuak (ERR-017/021)**

Gerra hasi zenean 7 urte zituen. Tiroketak gogoratzen ditu. Arreba balak zauritu zuen. Soldaduak ere izan zituzten etxean. Lubakiak. Bi anaia soldadu joan ziren, kintak harrapatuta, eta bat hil egin zen.

#### **498. Aita kartzelara eraman zuten (ERR-017/022)**

Etxean soldaduak izan zituztenean, kafesnea prestatu zieten. Gorritakoek aita kartzelara eraman zuten, Hernanira, Errenteriako bi mutili Nafarroara pasatzeko bidea erakusteagatik.

#### **499. Bordaxarko mutilen heriotza (ERR-017/024)**

Bordaxarko batzuk hil zituzten gerra garaian. Zapirain. Ehizako eskopetak ezkutatu egin zituzten, eta horregatik.

#### **500. Bilerak (ERR-017/026)**

Usaskun bilera izaten zen igandetan. Hantxe ezagutu zuen emaztea, hernaniarra.

#### **501. 8-9 urte nobiotan (ERR-017/028)**

8-9 urte egin zituzten nobiotan. Orain ezkondua ere ez dute hainbeste irauten. Ikutu ere egin gabe ibiltzen ziren.

#### **502. Ezkondu zirenekoa (ERR-017/030)**

Ezkondu gabe elkarrekin bizitzea bekatu handia zen. Martutenen egin zuten bazkaria, eta Bilbon pasatu zituzten zortzi egun. Ereñozun ezkondu ziren.

### **503. Egiluze sagardotegia (ERR-017/032)**

Egiluzen sagardotegia dago. Amak erosi zuen tolarea. Auzokoentzat ere egin izan dute sagardoa. Tolareko lanak.

### **504. Sagardotegiko giroa I (ERR-017/034)**

Sardinak eta tortilla jartzen zuten. Mozkortu eta gaua bertan pasatzen zuenik ere bazen. Emakumeak azpiko arroparekin etortzen ziren, senarrentzat, sagardotegira.

### **505. Sagardotegiko giroa II (ERR-017/035)**

Bertsotan hasten ziren edandakoan, eta baita borrokan ere bai. Gizon borrokazale baten anekdota.

### **506. Antzinako sagardogintza (ERR-017/039)**

Sagarra pisiarekin jotzen zuten sasoi batean. Idiekin estutzen zuten prentsa batzuek. Aurrerapenak.

### **507. Sagardotegi asko zeuden lehen (ERR-017/041)**

Itxitako sagardotegiak aipatzen ditu. Erreterian sagardotegi bakarra da beraiena.

### **508. Pinuaren gainbehera (ERR-017/045)**

Pinuak dezente balio zuen lehen. Orain ez. Egurrak balioa galdu du.

### **509. Egurra txikitzen, okindegietarako (ERR-017/047)**

Baserriko bizimodua. Egurra mozten zuten okindegiterako. Gurdian eramaten zuen anaiak. Bizimodua asko aldatu da.

### **510. Ur korronea, aldaketa onena (ERR-017/048)**

Gurdibideak. Oinetakoak aldatzen zituzten Erreteriarira iristean. Ur korronea izan da berarentzat aldaketarik onena etxean. Beraiek bazueta argindarra, baina ez zutenak ere ezagutu zituen.

### **511. Kalera esnea partizera; astotokiak (ERR-018/002)**

Baserritik ateratzen zuten bizimodua. 4-5 behi zituzten. Ama esnea saltzera joaten zen Erreteriarira. 5 senidetan zaharrena zen. Astoarekin joaten ziren kalera lehenengo, eta gero karroarekin. Astotokiak zeuden, eta ordaindu egiten zuten astoa han uzteagatik. Astotokiak non zeuden.

### **512. Astoarekin kalera (ERR-018/003)**

Santxoenea kaleko astotokia. Baserri askotakoak joaten ziren astoarekin kalera. Zazpi urterako behiak jezten ibiltzen zen.

### **513. Eskolara Tolareberrira (ERR-018/004)**

Tolareberrira joaten zen eskolara. Uda partean itulean ibili beharra zuen. Gloria zen maistra. Don Pedro maisua famatua zen, baina bera ez zen harekin ibili. Gogorra ei zen. Makilarekin jotzen zituen ikasleak. Neskak eta mutilak aparte zeuden gelan.

#### **514. Euskara debekatua eskolan (ERR-018/005)**

Euskaraz somatuz gero, txartela ematen zieten. Debekatuta zuten euskaraz hitz egitea. Gurasoek ez zekiten erdaraz.

#### **515. Eskola eta baserria uztartu behar (ERR-018/006)**

Eskolan zer ikasi zuten. Azkarra zela esaten zioten. Eskolara joan aurretik eta ondoren baserriko lanetan aritzen zen. Bazkaltzeko etxera joaten zen.

#### **516. Umetako jolasak (ERR-018/007)**

Umetako jolasak: kaniketan, marru-marruketan... Baloirik ez zuten, pilota bai.

#### **517. Txoritan, mutikotan (ERR-018/009)**

Txoritan ibiltzen ziren neguan, elurra egiten zuenean. Tranpa jartzen zieten txoriei. Tiragomarekin ere ibiltzen ziren. Eskopetarik ez zuten. Orduko txoriak aipatzen ditu. Jan egiten zituzten harrapatutako txoriak.

#### **518. Urik ez zuten etxean (ERR-018/010)**

Errekan amorrainak zeuden. Urik ez zuten eta errekan garbitzen zituzten arropak. Ur bila astoarekin joaten ziren. Argindarra bazuten. Ez zuten arrantzarako afiziorik.

#### **519. Soldaduskan bi urte, baldintza eskasetan (ERR-018/012)**

Bideak txarrak ziren. Oinez ibiltzen ziren. Portura ere oinez joaten zen hasieran, gero bizikletan eta motoan hurrengo. 22 urterekin hasi zen portuan lanean. Soldadutzan bi urte egin zituen; boluntario, meatzeetan lanean. Lastozko teilatua zuen etxe batean egon zen, komunik gabe. Ahuntza jan zuten, beraiek hilda.

#### **520. Soldaduskako kontuak II (ERR-018/014)**

Soldadu egon zen tokiko baldintzak. Bi kide hantxe ezkondu ziren, eta bertan geratu.

#### **521. Pekinen lanean, soldadu joan aurretik (ERR-018/015)**

Portuan hasi zen lanean, 22 urterekin. Pekinen egon zen lanean hiru urtez, soldadu joan aurretik. Zergatik ez zen bueltatu esplikatzeko du. Puntapasak egiten zituen, makinan.

#### **522. Portuko lanetan, karabineroen zaintzapean (ERR-018/016)**

Portuko lanak. Karga-deskargan ibiltzen zen. Ontzietako bodegak handiak ziren. Platanoa, egurra, ikatza... denetik iristen zen portura. Karabineroek kontrola egiten zuten; behin txapelean gorde zuten kafea, eta baita harrapatu ere.

#### **523. Kontrabandoko tabakoa (ERR-018/017)**

Estraperloko tabakoa ekartzen zuten Kanariar uharteetatik. Karabineroak erosi egiten zituzten.

#### **524. Bazkaria etxetik, eta tabernan berotu (ERR-018/018)**

Astero kobratzen zuten, larunbatero. Portuan ondo kobratzen zuten, lantegietan baino gehixeago. Orduategia. Janaria etxetik eramaten zuten, eta tabernan berotzen zieten. Batzuek hotza ere jaten zuten, tabernan gasturik ez egiteagatik.

#### **525. Orduko garraioak (ERR-018/019)**

Auto gutxi zebilen. Trena beti ezagutu du. Erreterian tranbia ere bazezilen, Donostiarako.

#### **526. Portuan eta baserrian lanean (ERR-018/020)**

Baserrian ere beti zen lana, eta portuan ez zegoenean lagundu egiten zuen. Belarra segaz ebakitzen zuten. Baratzea eta soroa. Babarruna zen eguneroko otordua.

#### **527. Txikierdin, bolatokian; emaztea ere bertan ezagutu (ERR-018/022)**

Txikierdira joaten ziren erromeriara. Ez zen dantzan ibiltzen, baina bolatokian bai. Bolotan galtzen zuenak erronda ordaintzen zuen. Orduko sagardotegiak. Mezetara jaisten ziren Erreteriarara, baina parrandara ez. Erosketak amak egiten zituen. Txikierdin ezagutu zeun emaztea; zintzo ibiltzen ziren nobio garaian.

#### **528. Dantza lotua bekatu (ERR-018/023)**

Dantza lotuan ibiliz gero, kongregaziotik botatzen zituzten. Dena bekatu zen. Orain, berriz, apaizak berak ematen du musu.

#### **529. Ezkondu zirenekoa (ERR-018/024)**

Lau urte egin zituzten nobiotan, eta Oiartzunen ezkondu ziren. Arzakenean elkartu ziren senideak eta izeba-osabak. Dirurik ez zuen ezkondu zenean, etxean entregatzen zuen eta. Ezkontza bidaia.

#### **530. Baserriko maiorazgoa (ERR-018/027)**

Zaharrena etxerako izaten zen, maiorazgoa, eta bera baserrira ezkondu zen. Gurasoekin erdibana egiten zituzten diru kontuak. Portuan lanean jarraitu zuen, erretiroa hartu arte. Baserriko lanekin ere jarraitu zuen.

#### **531. Esnea saltzen jarraitu zuten (ERR-018/029)**

Esnea saltzen jarraitu zuten. Orain bi egunetik behin joaten zaizkie esne bila. Kalera joaten ziren lehen. Ama lehenengo eta emaztea gero. Kamioia esne bila joateko, esne litro dezente izan behar ziren.

#### **532. Esnea saltzen jarraitu zuten II (ERR-018/031)**

Nolatan utzi zioten esnea kalera eramateari. Semeak esne behiekin jarraitu du. Esne gutxi zutenek beraiek eramaten zuten esnea.

#### **533. Ganadu lanak (ERR-018/040)**

Ganaduari pentsua baino artoa eta babarruna ematen zioten, baita belarra ere. Erremolatxa eta arbia ere bai. Higitaiarekin txikitzen zuten. Garoa biltzen zuten basoan.

### **534. Sagardoa egiten, tolarean (ERR-018/041)**

Sagardoa egiten zuten urtero. Tolarea zuten. Eskuz egiten zen dena. Etxeko sagar motak. Sagardogintza. Otordu denak sagardoarekin egiten zituzten lehen, baita gosaria ere. Orduko gosaria.

### **535. Apaizari berorika (ERR-018/045)**

Ohiturak. Errespetua zitzairen gurasoei eta apaizei. Parean pasatzean txapela eransten zuten eta berorika hitz egiten zieten. Hika hitz egiten du semeekin eta anaiekin.

### **536. Auzoko jaiak eta bertsolariak (ERR-018/047)**

San Isidrotan izaten dira auzoko jaiak. Lehen Asentziotan izaten ziren. Idi dema izaten zen. Lasarte, Lizaso, Gorrotxategi, Joxe Agirre... bertsolariak joaten ziren. Uztapidezalea zen.

### **537. Gaubeilak eta hiletak (ERR-018/051)**

Gaubeila egiten zen baserriren batean norbait hiltzean. Ogia eta gazta ematen zieten. Abixua baserriz baserri ematen zuten. Goizez izaten ziren hilera elizkizunak. Hamaiketako ematen zuten gero.

### **538. Hileta egunean, hamaiketako (ERR-018/053)**

Sindicato tabernan ematen zuten hamaiketako, hileta zegoenean. Zer jaten zuten. Batzuek mozkortu ere egiten ziren. Abisua ematen ibilitakoei afaria ematen zieten.

### **539. San Isidro eguna (ERR-018/055)**

San Isidro egunean meza eta bazkaria. Prozesioa. Lur sailak bedeinkatu egiten ditu apaizak.

### **540. Gabonetako kontuak (ERR-018/057)**

Erregetan arropa edo janaria zen oparia. Baserriz baserri kantuan ibiltzen ziren; dirua elizarako izaten zen.

### **541. Zamalbideko eliza berria, auzolanean egina (ERR-018/060)**

Zamalbideko eliza zein zen lehen. Auzolanean egin zuten berria, auzotarren artean. Dirua nondik lortu zuten. Inaugurazioa nolakoa izan zen.

### **542. Gerrako kontuak (ERR-018/066)**

Zazpi urte zituen gerra hasi zenean. Kaletik beraien baserrira jendea joan zen, beldurrez. Bala soinua gogoratzen du. San Marcostik tiratzen zuten batzuek.

### **543. Medikua zaldian etxeraino (ERR-018/068)**

Gerraosteko gosetea. Baserrian bazuten taloa, babarruna, patata, esnea... Telefono bakarra zen auzoan, eta norbait gaixotuz gero medikuari deitzen zioten handik. Zaldi gainean ibiltzen zen medikua, oiartzuarra. Lapasa medikuak izan zuen lehen autoa.

#### **544. Sendabelarrak eta erremedioak (ERR-018/070)**

Berbena belarrarekin enplastoak egiten ziren. Pasmu belarra. Osinaren ura tentsioarentzat ona zen. Pattarra edaten zuten, hagineko minez egonez gero.

#### **545. Jaio zeneko Erreteriarren itxura (ERR-019/002)**

Foru plazan jaio zen. Inguru hori lehen nolakoa zen azaltzen du.

#### **546. Lehengo jolasak lehengo Erreteriarren (ERR-019/004)**

Bere jaiotetxearen inguruan C&iacute;rculo Liberal, kooperatiba eta merkatu-plaza zeuden. Plaza hartan jolasean aritzen ziren. Baloiak erosi egiten zituzten estankotan denen artean dirua bilduta.

#### **547. Sindikatuak antolatu langileak (ERR-019/009)**

14 urte zituela bukatu zuen eskola, eta lanean hasi zen orduan, hasieran estoldak garbitzen, geroago ibaia garbitzen, Kaputxinoetako fabrika... Sindikatuarekin harremana zuten: lanerako txandak antolatzen zituzten, sistema birakaria eta denek lan egiteko modukoa izan zedin. Sistema hari buruz hitz egiten du.

#### **548. Gerra aurretik ibaia garbitzen (ERR-019/010)**

Ibaia gerra aurretik garbitzeko, Ondarretako kartzelatik etortzen ziren presoak. Ibaia arrasteluarekin eta saskiarekin garbitzen zuten, garbiago baitzegoen lehen.

#### **549. Lehengo arrainak eta arrantza ibaian (ERR-019/011)**

Lehen ibaian zer arrain zegoen aipatzen du. Lehen angulak ez ziren orain bezain beste estimatzen, baina jaten ziren. Arrantza gutxi egiten zuten eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du. Kanaberak utzi egiten zizkieten arrantza egiteko.

#### **550. "Real Compañía Asturianako" lana (ERR-019/013)**

16 urterekin "Real Compañía Asturiana" hasi zen lanean. Orduko zereginak azaltzen ditu.

#### **551. Festa-giroan bandera erre zitzaienekoa (ERR-019/015)**

Gerra aurrean ere Madalenetan ospatzen ziren herriko festak. Oraingoan antzekoak izaten ziren. Francoren garaian, festetan Espainiako bandera jarri behar izaten zen balkoietan, eta behin Jesusen familiaren balkoikoak su hartu zuen. Foru plazan egoten zen jai-giro guztia.

#### **552. Sagardotegi-giroa Erreteriarren (ERR-019/017)**

Erreteriarren lehen zeuden sagardotegiak aipatzen ditu. Ohitura bazuen sagardotegira lagunekin joateko, baina bederatziak alderako itxi egiten zituzten denak. Bertso-giroa egoten zen sagardotegietan.

#### **553. Makazaga eta Valverde inprentak (ERR-019/019)**

Makazaga inprenta non egon zen azaltzen du. Valverde Makazaga baino garrantzitsuagoa izan zen, ospetsuagoa: eskolako materiala Valverdetik erosten zuten.

#### **554. 1936ko greba lan-baldintza hobek eskatzeko (ERR-019/020)**

"Real Compañía Asturiana" lanean hasi zenean, sindikatu ugari zeuden. Langileak afiliatu egiten ziren haietan. Lehen grebak egitea egun batetik bestera erabakitzen zen. 1936ko maiatzean greba egin zuten, lan-baldintza hobek eskatzeko.

#### **555. Sindikatuen bilerak (ERR-019/022)**

1936ko maiatzeko greban, fabrikako sindikatu guztiak batera joan ziren. Bilerak egiten ziren orduan Casa del Pueblon, UGTren lokalean. Fabrikako sindikatu guztiak elkartzen ziren han eta fabrikako gorabeherez hitz egiten zuten.

#### **556. Grebak nola erabakitzen ziren (ERR-019/023)**

Erreterian lehen fabrika asko zeuden eta haietako ugari aipatzen ditu. Grebak egun batetik bestera erabakitzen ziren eta gaur egun baino eraginkorragoak izaten ziren. Lan-baldintza hobek eskatzen zituzten, eta grebak egitea erabakitzeko zer prozesu egoten zen azaltzen du.

#### **557. Gerra hasi zeneko giroa (ERR-019/025)**

Gerra hasi zeneko eguna gogoratzen du: Pasai Antxoko festak ziren eta handik bueltan zetozela hasi ziren tiroak. Faxisten auto bat harrapatu zuten herrian eta igande osoa udaletxeko plazan egon zen, denek ikus zezaten. Soldaduak geroago hasi ziren Erreterian sartzen. Etxean balak ez sartzeko, koltxoak jartzen zituzten leihoetan. 18 urte zituen berak orduan.

#### **558. Gerra hasiera Erreterian: ihesa eta erresistentzia (ERR-019/026)**

Gerra hasieran, jende asko ihesi joan zen herritik Bilbo aldera. "Guardia de asaltoak" Erreterian sartu zirenean, ama bat eta bere bi seme hil zituzten. Erreterian erresistentzia pixkanaka antolatu zen.

#### **559. Erreteriako erresistentzia (ERR-019/029)**

Gerran Erreterian erresistentzia antolatu zen tropen kontra, eta Jesusek trintxerak egiten lagundu zuen. Frontea pixkanaka lekualdatzen joan zen.

#### **560. 18 urterekin gerrari aurre egin behar (ERR-019/030)**

Jesusek trintxerak egiten laguntzen zuen eta lana nola antolatzen zuten azaltzen du. Garai hartan jabetzen zen zer gertatzen zen, egunkaria irakurtzen baitzuen.

#### **561. Errepublikaldarrikatu zeneko ospakizunak Erreterian (ERR-019/032)**

Erreterian errepublikazaleek beren lokalak zeuzkaten. Errepublika aldarrikatu zen egunean, jendeak asko ospatu zuen Erreterian. Orduan abestutako kantak aipatzen ditu.

#### **562. Errepublikazalea gaztetatik (ERR-019/033)**

Etxean eta fabrikan ikusi eta ikasitakoarekin sortu zitzaion Errepublikaren aldeko jarrera.

### **563. Gerran frontean egotetik preso izatera (ERR-019/034)**

1936ko gerran hainbat frontetan ibili zen borrokan: Aian, Eibarren, Elgetan, Zornotzan, Bilbon, Santanderren... Santanderren zegoela, italiarrak sartu ziren eta han gelditu zen: preso eduki zuten hainbat lekutan hainbat urtez.

### **564. Preso zegoeneko bizimodua (ERR-019/035)**

Garai hartan, lanak egitera behartzen zituzten, azpiegiturak eta eraikuntzak egiten eta konpontzen. Preso zegoela, zer baldintzatan bizi ziren azaltzen du: lo-lekuak, jatekoa... Preso zegoela, batak bestea zaintzen zuen.

### **565. Falangisten alkandora eramateagatik jasotako jipoia (ERR-019/037)**

Behin nazionalek hiriburu bat hartu zuten, eta Jesusek falangisten alkandora zeukan jantzita; nazionalek hura ikusi, jipoia eman eta alkandora kendu zioten. Lagun soldadu bati gertatutakoa jakinarazi eta hark alkandora oparitu egin zuen nazionalek harrapatu baino lehen.

### **566. Batailoia eta heriotza-zigorak (ERR-019/041)**

Bere konpainian, ideologia ugaritako gizonak zeuden: komunistak, PNVkoak, CNTkoak... "Primer Batallon mixto de Ingenieros" izena zuen konpainia hark. Preso egon zenean, Angel Osesen epaiketa izan zen, eta bi heriotza-zigor eman zizkieten. Momentu gogorak izan ziren.

### **567. Gerratik itzuleran Francoren aldekoek lehentasunak (ERR-019/043)**

1944an itzuli zen herrira preso izatetik. Herria aldatuta ikusi zuen. Kaputxinoetan hasi zen lanean berriro. Gerran Francoren alde egondako soldaduek lehentasuna zuten lana bilatzeko eta etxeak erosteko.

### **568. "Tortuga" futbol-taldeko jokalaria (ERR-019/045)**

Herriko giroan gutxitzen joan zen Espainiako banderaren presentzia. Gaztea zela, futboleko jokatzeko zaletasuna zuen eta gerra hasi baino lehen "Tortuga" taldean jokatzeko zuen.

### **569. Gerraostean sindikatuen bilakaera (ERR-019/046)**

Gerratik itzuli eta Kaputxinoetan lanean hasi zenean, sindikatu bertikalak bakarrik zeuden eta orduan ezin zen ezer egin. Gerora, sindikatuak legeztatzen hasi ziren pixkanaka. CCOOn baja eman zueneko kontaketa du. Handik gutxira, 62 urte zituela erretiratu egin zen.

### **570. Errenteriara kanpotik etorritako langileak (ERR-019/061)**

1960tik aurrera jende-uholde handia etorri zen lanera Errenteriara. Etorri izanak ez dio berari bizimodua aldatu. Kanpotik etorri zirenek estutasun ekonomikoak izan zituzten aurrera ateratzeko. Alemaniara lanera joandakoei buruz hitz egiten du.

### **571. Erreteriatik frontera joan zen bakarria Jesus (ERR-019/067)**

Gurasoak eta 5 senide ziren familian. Bera bakarrik joan zen Erreteriatik frontera. Behin erreketek batek amari mehatxu egin zion.

### **572. Erreteriarako eta Oiarzungo mutilen artean harrika (ERR-019/068)**

Erreteriarako beti izan da herri ospetsua: batetik, fabrikengatik; bestetik, musikarengatik. Erreteriarako mutilak gaizki konpontzen ziren Oiarzungo mutilekin, harrika ibiltzen ziren. Oiarzungoak Erreteriarara joateko beldur egoten ziren, nola hartuko zituzten ez zekitelako. Oiarzungoak arotzak ziren; Erreteriarakoak, ordea, fabriketako langileak. Eta horrek desberdintasunak sortzen zituen haien artean.

### **573. Elizarekiko eszeptikoa (ERR-019/072)**

Lehen eta orain Elizak indar handia du. Pazkoa zenean, lehen txartela eman behar izaten zen jakiteko zein joaten zen mezetara. Jesusen etxean ez zioten behartzen elizara joatera, baina beste etxe batzuetan bai. Umetan infernuko beroarekin beldurra sartu zioten; eta gerora fundizioan lan egitea tokatu zitzaion. Berak ez du inoiz sinetsi izan Elizak esandakoa.

### **574. Gerra Francoren alde egon zirenen abantailak (ERR-019/074)**

Langabezian egon zen gerratik itzuli zenean. Lana lortzeko lehentasuna izan zuten gerra Francoren alde egondakoek: Dibisio Urdinean egon izanagatik soldata jaso zuten soldaduek eta pentsiorako kontatzen zieten urte horiek; Jesusen gerra emandako 8 urteek ez zuten kontatzen.

### **575. Guardia Zibilekin izandako arazoa (ERR-019/075)**

Guardia Zibilekin kuartela Erreterian egon zen lehen. Behin ikuskatze militarra egitera joan zen eta jaioteguna gaizki idatzi zioten, baina errieta Jesusentzat izan zen.

### **576. Kontzentrazio-esparrura bisitan ezin joan (ERR-019/077)**

Behin Santanderrera txangoan joan zen familiarekin, bera egondako kontzentrazio-esparrua ikustera. Orduko anekdota kontatzen du.

### **577. Umetako jolasak (ERR-020/002)**

Umetan beti jostatzen aritzen ziren: txingoka, sokasaltoan, mikoka, marru-marruka... Marru-marruka nola jolasten zuten azaltzen du. Mutil batzuk batzokira joaten ziren, eta han esandakoak gero neskei kontatzen zizkieten.

### **578. Gerra garaian Bilbora itsasontziz (ERR-020/004)**

Gerra hasi zenean, Bilbora joan ziren, Fanderian bizi ziren gehienak bezalaxe. Bilbora itsasontziz joan ziren eta hondoa jo zuen; Bilbora ezin iritsi egon ziren, baina azkenean ondo iritsi ziren. Bilbon izeba baten etxean bizi izan ziren etxe eder batean; urtebete egon ziren han. Fanderiarako beste gazte batzuk Bilbon zer zeregin izan zituzten aipatzen du.

### **579. Umeek gutxiago sentitu egoeraren larritasuna (ERR-020/005)**

Gerra garaian, Bilbon egon ziren bitartean, aitak Alde Zaharrean egiten zuen lan. Bilbon zeudela, umeak zirenez, ez zuten hainbeste sentitzen egoeraren larritasuna. Mirenen familiako inork ez zuen gerran zuzenean parte hartu behar izan.

### **580. Aierbe ahizpekin gustura ikasi zuen (ERR-020/007)**

Gerra hasi aurretik, Aierbe ahizpekin ikasi zuen Mirenek, Dorotearekin hain zuzen ere. Han gustura ikasten zuen, andereño lasaia zen eta euskaraz irakasten zuen. Eskolan arbela erabiltzen zuten. Neskek eta mutilek denek batera ikasten zuten han.

### **581. Aitak lana topatzeko izandako trabak (ERR-020/009)**

Lehen Erreterria herri txikia zen eta denek ezagutzen zuten elkar. Aita lanetik bidali zuten abertzalea izateagatik; orduan Gabierrotako etxe batera joan ziren bizitzera eta aita Pasaiaiko portuan hasi zen noizean behin lanean. Apaizek ez zuten nahi Mirenen aitari inork lana ematerik; azkenean, Joxe Urangak eman zion lana; haren aroztegian aitak zer lan egiten zuen azaltzen du.

### **582. Mojen gaiztakeriak gogoan (ERR-020/011)**

Hasieran Mirenek mojekin, Gurutzeko Alabekin, ikasi zuen. Moja haiek oso gaiztoak omen ziren. Gogoan du neskak nola zigortzen zituzten.

### **583. Liho-fabrikako lan-baldintzak (ERR-020/016)**

Liho fabrika handian zer lan egiten zuten azaltzen du. Lan hura gustuko zuen. Emakume askok egiten zuen lan fabrika hartan. Lanerako bi txanda zeuden eta igandetan bakarrik izaten zuten jai.

### **584. Bekaturik gabe ere konfesatu egin behar (ERR-020/018)**

Igandetan musika entzutera joaten ziren, bandak jotzen baitzuen; ez zuten ia dantzatzen, gero konfesatu egin behar izaten zuten eta. Hilero joaten ziren konfesatzera, baina ez zuten bekaturik izaten. Mutilekin dantza eginez gero, apaizek zer esaten zieten aipatzen du.

### **585. Natura zaintzen eta errespetatzen ondo ikasiak (ERR-020/025)**

Beraiek ez ziren txorietan ibiltzen, aitak ez baitzien uzten. Loreak ere ez zituzten biltzen, zeuden lekuan hobeto baitzeuden. Umetan ondo erakutsi zieten natura zaintzen eta errespetatzen.

### **586. Arrain freskoa jaten zuten (ERR-020/027)**

Fanderian erreka zegoen lehen: mutilek ondo ikasi zuten han igerian; neskek ez hain ondo, ordea. Erreka hartan angulak zeuden. Lehen angulak ez ziren garestiak; arraina oro har merkea zen. Arraina erostera nora joaten ziren aipatzen du; arrain hura freskoa izaten zen, egunekoa.

### **587. Lehen izaten zituzten menuak (ERR-020/029)**

Lehen arraina asko jaten zuten, merkea baitzen. Arraina ugariagoa zen lehen itsasoan. Lehen otorduetan barazkiak, babarrunak, salda eta garbantzuak jaten zituzten normalean; igandetan eta ospakizun berezietan menua aldatu egiten zen. Gabonetan oilaskoa jaten zuten. Gerra ostean behin txerria tokatu zitzairen zozketan, eta handik urtebetera jan zuten.

### **588. Errenteriako merkatu-plaza (ERR-020/030)**

Lehen ere bazen merkatu-plaza Errenterian. Baserritarrek jenero asko eta ona saltzen zuten. Baserritarrek astoak non uzten zituzten azaltzen du.

### **589. Etxeko sagardoa edaten (ERR-020/032)**

Emakumeak lehen ez ziren tabernatan eta sagardotegietan sartzen. Sagardoa etxean egiten zuten. Egunero pitarra edaten zuten otorduetan; eta horrez gain, sagardoa botilaratu egiten zuten.

### **590. Baratzeari esker lortutako jeneroa (ERR-020/034)**

Mirenen familiak baratzea izan zuen; han zer landatzen zuten azaltzen du. Barazkiez gain, loreak ere landatzen zituzten baserri gehienek. Baratzeko jeneroa etxean jaten zuten; Mireni ez zitzaion aza gustatzen, baina jan egin behar izaten zuen. Ogi zuria jaten zuen, ogi ona.

### **591. Errazionamendu garaian errotara ezkutuan (ERR-020/035)**

Gerra ostean gosete handia izan zen, eta errazionamendua iritsi zen. Irina ezkutuan ekartzen zuten errotatik. Ez zituzten inoiz harrapatu, bai baitzekiten nondik ibili. Irin horri esker, taloak egiten zituzten.

### **592. Gerra ostean, koipea zeukan janaria nahi (ERR-020/037)**

Gerra ostean, taloa jaten zuten egunero. Osaba-izebek asko lagundu zieten garai hartan, baserritik janaria bidaltzen baitzieten. Janariak grasa izatea nahi izaten zuten, horrela gehiago betetzen baitziren.

### **593. Arropa ondo zaintzen zuten (ERR-020/038)**

Lehen arropa gutxiago izaten zuten. Gogoan du udako soineko bat: hura ez zikintzeagatik eta ez zimurtzeagatik, ez zen esertzen. Jostunak egiten zituen soinekoak.

### **594. Apaizek erabakitzen zuten nor fusilatu (ERR-020/047)**

Aitaren osaba fusilatu egin zuten gerra garaian. Bilerak apaizek egiten zituzten, erabakitzeko nor fusilatu behar zen.

### **595. Franco etortzen zeneko banderen tamaina (ERR-020/050)**

Gerra ostean, giroa asko aldatu zen Errenterian. Franco etortzen zen bakoitzean, Espainiako bandera jarri behar izaten zuten balkoietan: beraien etxean bandera txiki bat jartzen zuten balkoi handian. Errenterian karlista asko zegoen, eta nazionalak Bilbo hartu zutenean gerran, elizara joaten ziren ospatzera.

### **596. Gerra ostean, gazteak elkartzen hasi ziren pixkanaka (ERR-020/051)**

Karlista baten alaba PNVko mutil batekin hasi zen ateratzen. Orduko anekdota kontatzen du. Gerra bukatutakoan, urte batzuetan giroa ez zen ona izan Erreterian, baina denborarekin, pixkanaka gazteak elkartzen hasi ziren.

### **597. Erramun Astibia osaba zuen (ERR-020/057)**

Erramun Astibia olerkaria Mirenen osaba zen. Kaputxinoa zen. Tuberkulosiak jota hil zen: gaixotu zenean, amak botikak bidaltzen zizkion, baina hari ez zitzaizkion iristen eta ez zioten uzten bisitarik izaten ere. Zergatik? Abertzalea zelako. Osaba Tuteran hil zen 33 urte zituela, baina Lizarran egon zen lehenago.

### **598. 1933an Erreterian izandako uholdeak (ERR-020/059)**

1933an, uholde handiak izan ziren Erreterian. Fanderiatik dena ikusten zuten urez estalita, izugarria izan zen. Gizon bat hil egin zen.

### **599. Aita gerran eta beraiek Bizkaiko hainbat herritan (ERR-021/003)**

Gerran, aita Itxarkundiaga batailoian egon zen. Bitarte horretan, Bizkaiko hainbat herritan egon ziren beraiek: Lekeition, Santurtzin... Aita gerratik itzultitakoan, portuan aritu zen lanean; eta, geroago, fabrika handian suginlanetan.

### **600. Aierbetarren eskolan ikasitakoa (ERR-021/004)**

Gerra hasi zenean, Mari Terek 5 urte zituen. Ordurako Aierbe ahizpen eskolan ikasten hasia zen; eskola hura non zegoen azaltzen du. Maistrak Faustina, Dorotea eta Anastaxi ziren; anaiak ere laguntzen zien. Mari Tereren ama gaixotu egin zenean, baina, eskolako ordutegia egoera berrira moldatu behar izan zuen. Orduko ikasmaterialaz hitz egiten du. Lehen garrantzi handia ematen zitzaion letra onarekin idazteari.

### **601. Gerra garaian, Bilbon harrera paregabea (ERR-021/006)**

Gerra hasi zenean, 5 urte zituen Mari Terek. Hasierako egun haietako oroitzapenak kontatzen ditu: etxetik joan behar zutenean, Mari Tere etxeko txoriaz kezkatuta zegoen. Erreteriatik jende askok egin zuen alde. Beraiek Bilbora joan ziren eta jendea oso ondo portatu zen beraiekin. Gerora ere mantendu izan dute harremana gerran harrera hain ona egin zien jendearekin.

### **602. Gerratik itzultitakoan, amonaren etxera (ERR-021/016)**

Gerran Bilbon egon ziren eta handik Erreteriara itzultitakoan, amonaren etxera joan ziren bizitzera. Garai batean aitonak egin zuen etxe hura.

### **603. Aitarekin komunikazioa, Langileen Batailoian egon zen bitartean (ERR-021/017)**

Erreteriara itzuli zirenean, noizean behin aitaren berri izaten zuten, gutun bidez komunikatzen baitziren. Guda bukatu zenean, aita Langileen Batailoian egon zen. Etxera itzuli zenean, alokairuan bizitzera joan ziren Gaztainora.

#### **604. 'Radio Pirenaica' entzuten (ERR-021/019)**

Aita gerratik itzuli zenean, Radio Pirenaica entzuten zuten familia elkartuta. Mari Tereren osaba kartzelan egon zen Ondarretan.

#### **605. Familian joera politiko desberdinak (ERR-021/020)**

Aita eta ama abertzaleak ziren, baina amaren ahizpa bat karlisten desfileetan ateratzen zen igandero.

#### **606. Batzokiko kultur giroa (ERR-021/021)**

Mari Tereren gurasoak batzokira joaten ziren. Mari Terek euskal dantzak ikasi zituen batzokian umetan. Han izandako dantzako irakaslea aipatzen du. Arku-dantzaren doinua abesten du. Batzokian antzerkiak egiten ziren, tertuliak izaten ziren.

#### **607. Politikaren gainera, familiaren lokarriak (ERR-021/022)**

Familian batzuk abertzaleak eta besteak karlistak ziren; baina elkarri lagundu zioten garai latzetan. Familiakoen artean errietak izaten zituzten ahizpa karlisten desfileetan ateratzen zenean.

#### **608. Herritarren arteko salaketak (ERR-021/023)**

Amak asko maite zuen ikurrina eta gerra garaian lepoan eramaten zuen; horrez gain, lagun batzuek leporako bitxi bat eman zioten zaintzeko. Gerora, herrian bitxia lapurtu izana leporatu zioten amari. Bitxien jabea amaren alde atera zen orduan. Ama salatu zuen emakumearen jarrerari buruz hitz egiten du.

#### **609. Gerra ostean euskarak atzerakada handia (ERR-021/025)**

Gerra garaian Bilbon egon ziren, eta Errenteriara itzultitakoan giroa oso aldatuta zegoela konturatu ziren: kanpoko jende asko etorri zen. Euskarak atzerakada handia izan zuen garai hartan Errenterian. Baserritarrei "Pellos" deitzen zien kanpotik etorritakoek mespretxu gisa, eta horregatik baserritar asko erdarara jotzen hasi ziren.

#### **610. Aitaren lanak gerra aurrean eta gerra ostean (ERR-021/026)**

Aita "Marquezen" aritu zen lanean gerra aurretik; gerra ostean, han jarraitu zuen lanean, baina gerora kaian hasi zen lanean itsasontzietatik iristen ziren bananak eta ikatz-zakuak banatzen.

#### **611. Aita zakuak banatzen ibiltzen zenekoa (ERR-021/027)**

Aita ikatz-zakuak banatzen aritzen zen, dena bizkar gainean eramanda. Zakuen barruan eramaten zuen materiala zertarako erabiltzen zen azaltzen du.

#### **612. Gaztaino auzoan jolasean (ERR-021/028)**

Haurtzarotik Gaztaino auzoan bizi izan zen Mari Tere. Berari pilotan jokatzea asko gustatzen zitzaion; sokasaltoan ere aritzen ziren. "A la Habanan" nola jolasten zuten azaltzen du.

### **613. Eskolara arratsaldez bakarrik (ERR-021/031)**

Gerratik itzulitakoan, arratsaldez bakarrik joaten zen eskolara, ama gaixo baitzegoen. Orduan ikasten zutena aipatzen du: frantsesa, takigrafia...

### **614. Etxean zituzten animaliak (ERR-021/033)**

Etxean animaliak zituzten: untxiak, hegaztiak, oilarra... Oilar hari buruz hitz egiten du. Mari Tereri asko gustatzen zitzaizkion animaliak. Untxiak nola zaintzen zituzten azaltzen du.

### **615. Etxeko txakur bihurria (ERR-021/034)**

Txakur bat eduki zuten, baina oso bihurria zen: zaunka asko egiten zuen, alde egiten zuen...

### **616. Etxean egindako garbigailua (ERR-021/036)**

Mari Tereren senarra mekanikoa zen eta garbigailu bat plagiatu zuen lagun argiketari baten laguntzaz. Hura aurrerapen handia izan zen, ordura arte dena eskuz garbitu behar izaten baitzuten. Arropa nola garbitzen eta lehortzen zuten azaltzen du.

### **617. Amaren gaixotasuna eta harentzako sendabideak (ERR-021/038)**

Gerra ostean, eskolara joaten bazen ere, etxeko lanez bera arduratzen zen. Ama gaixo egoten zen eta zer sendabide izaten ziren garai hartan azaltzen du; "Mari Zikinengana" joaten zen barruko zikina ateratzera barraskiloen bidez.

### **618. Gurasoak liho-fabrikari lanean (ERR-021/039)**

Amak liho-fabrikari egiten zuen lan, eta gerora aita ere han aritu zen: aitaren eta amaren fabrikako zereginari buruz hitz egiten du.

### **619. "Productos El Quijoten" lanean (ERR-021/040)**

Mari Tere 16 urterekin hasi zen lanean "Productos El Quijoten": han zer egiten zuten azaltzen du. Mari Tere enpresa hartako bulegoan aritu zen lanean, eta lan hori nola lortu zuen aipatzen du.

### **620. 'Productos El Quijote'ko zereginak (ERR-021/042)**

Mari Terek Productos El Quijoten lan egin zuenean, Canariasekin lan-harremana zuten eta itsasontziz iristen ziren produktuak Errenteriara. Matematikako ariketak buruz eta erraz egiten zituen Mari Terek. Orduan izaten zituen zereginak aipatzen ditu.

### **621. Ezkondu aurreko lanaren baldintzak (ERR-021/047)**

"Productos el Quijoten" egin zuen lan gaztetan, baina ezkontzean lana uztera behartu zuten. Garai hartan ez zioten kotizatu; 65 urterekin konturatu zen horretaz eta horrek zekartzan ondorioez.

### **622. Bezperen ostean, Zumardira dantzara (ERR-021/049)**

Senarra Zumardian ezagutu zuen, bandak jotzen zuen garaian. Garai batean moda egon zen Pasaiara joateko musika entzutera. Bezperatara joan ostean joaten ziren Zumardira; Bezperatan zer egiten zuten azaltzen du.

### **623. Mutilen eta nesken jokaerak dantzari (ERR-021/050)**

Zumardian dantza egiten zuten; gustuko mutilak ikustean zer egiten zuten azaltzen du. Neskak ez ziren mutilengana joaten, alderantziz bakarrik baizik. Erreterian inguruko herrietan baino lehenago utzi zuten dantza lotua egiten.

### **624. Sagardotegietako giroa lehen (ERR-021/052)**

Zinera gurasoekin joan izan da gehienbat Mari Tere. Neskak Madalen egunean bakarrik sartzen ziren tabernara. Orduko sagardotegietako giroa nolakoa zen azaltzen du.

### **625. Gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldeak (ERR-021/053)**

Esmalte-fabrikari emakumeek egiten zuten lan gehienbat. Gizonen eta emakumeen soldaten artean aldeak zeuden lehen. Soldata astero jasotzen zuten eta Mari Terek amari ematen zion jaso bezala.

### **626. Lehenengo berokia eta orduko barruko arropak (ERR-021/054)**

Lehen arropa gutxiago erosten zen. Manta batekin egin zuten Mari Tereren lehenengo berokia. Amona jostuna zuen eta jostundegia zeukan: neskak hara joaten ziren josten ikastera. Amonak ez ezik, amak eta izebak ere josten zioten arropa Mari Tereri. Orduko barruko arropak deskribatzen ditu.

### **627. Lehenengo planak mutil-lagunarekin (ERR-021/056)**

Senarra Zumardian ezagutu zuen. Hasiera hartan elkarrekin egiten zituzten planak aipatzen ditu: paseatu, mendira joan...

### **628. Antisorgailuak erabiltzea bekatu zen (ERR-021/057)**

Lehen dena zen bekatu. Orduko antisorgailuei buruz hitz egiten du: tenperaturaren sistema, besteak beste. Antisorgailuak erabiltzea bekatu zen. 5. semea izan zuenean, apaizarekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

### **629. Bekatu egin ote zuten beldurrez (ERR-021/058)**

Musu ematea bekatu zenez, ezkutuan ibiltzen ziren. Senarrak behin konfesatzean izandako anekdota kontatzen du. Beldur izaten ziren, ez baitzekiten bekatu egin ote zuten.

### **630. Erditzearen arriskuak (ERR-021/059)**

Lehen informazio gutxi zeukaten sexuaren gainean. Ez zuten antisorgailuei buruzko ezagutza argirik, eta beti beldurrez egoten ziren haurdun geldituko zirelakoan. Haurdun gelditzearen alde txarretako bat erditzeko minak izaten ziren, ez baitzegoen garai hartan epiduralik. Mari Terek 5 seme-alaba izan ditu: lehenengo hirurak etxean eta azken biak ospitalean. Berak izandako erditzeei buruz hitz egiten du. Erditzeak naturalak izaten ziren.

### **631. Erditu osteko atsedena eta lanak (ERR-021/061)**

Umea izan ostean, amak pixkanaka berreskuratzen zuen indarra. Lehen pixoihalak izaten ziren eta libixbarekin garbitu behar izaten zituzten beti.

### **632. Txupeteari buruzko aholkua (ERR-021/064)**

Haurren medikuak txupeteari buruz eman zien aholkua gogoan du. Lehen zeuden farmaziak aipatzen ditu.

### **633. Ezkontzako bazkaria eta bidaia (ERR-021/066)**

3 urtez mutil-lagunarekin ateratzen ibili ostean, ezkondu egin ziren. Ezkontza nola ordaindu zuten aipatzen du. Eztei-bidaian Bilbora eta Tarragonara joan ziren. Ezkontzako bazkaria Arzaken egin zuten: orduko menua eta aitonarekin izandako anekdota kontatzen du.

### **634. Ezkontzako soinekoa (ERR-021/067)**

Ezkontzako soinekoa izebak josi eta oparitu zion. Soinekoa nolakoa zen azaltzen du.

### **635. Aita baserrian eta kanpoan lanean (ERR-022/002)**

Antionioren aita baserrian aritzen zen lanean, baina bi edo hiru egunean behin, Errenteriatik Artikutzaraino zihoan linea elektrikoaren mantenuaz arduratzen zen.

### **636. Sagarrondo asko Aitzondon (ERR-022/004)**

Sagar asko ematen zuten Aitzondoko sagarrondoek. Antonioren amak saldu egiten zituen gehienak.

### **637. Sagar klase asko (ERR-022/006)**

Sagardoa egiten zuten Aitzondon, dolarea bazuten eta. Hasiera batean sagarra jo egiten zutela dio Antoniok. Gerora, ordea, sagarra txikitzekeo makina eskuratu omen zuten; hari ere eskuz eragin beharra zegoen, baina.

### **638. Aita hil zenekoa (ERR-022/008)**

Behin, gerraostean, Antoniok eta aitak sagarra jotzeko egokia izan zitekeen burdin puska bat topatu zuten, Zamalbidetik meza entzutetik zetozela. Egurrezko pisoiak baino eraginkorragoa izan zitekeela iruditu, nonbait. Bonba bat zen, ordea. Antonio hari txertatzeko kirtenaren bila joan zenean, aita mailuarekin burdin-puskari kolpeka hasi zen, hura askatu nahian. Orduantxe bonba lehertu eta aitak bizia galdu zuen.

### **639. Soldaduak fruta bila (ERR-022/009)**

San Marko gotorlekuan soldatuak egoten omen ziren Gerra garaian, eta Antoniok gogoan du hurbiltzen zirela baserrira, sagarrak jatera.

### **640. Mezetara, guztiaren gaintetik. (ERR-022/011)**

Aitzondon Jainkoarenganako fede asko zen eta gerrarekiko gutxi.

### **641. Baserriaren laurden bat txikituta (ERR-022/013)**

Gerra Zibilean frontea ibili zen Aitzondo baserritik gertu. Baserriaren lautik bat txikituta geratu omen zen.

### **642. eskola (ERR-022/015)**

Lubeltza Berri baserrian eskola omen zen, eta hara joaten zen egunero Antonio. Hango irakasleak, apaiza nonbait, gogor hartzen zituen haurrak, eta Antoniok dioenez, euskaraz sumatzen bazituen, batez ere.

### **643. Eskolan eraztunarekin (ERR-022/016)**

Eskolan euskaraz egiteagatik eraztuna elkarri pasarazten ote zieten galdetuta, baietz esaten du Antoniok. Gainera, eguna amaitzerakoan eraztunaren jabe zenak jipoia jasotzen omen zuen. Irakaslea arduratuko zen hortaz. Apaiza.

### **644. Eskolan gauza gutxi ikasi (ERR-022/017)**

Antoniok ez zuen eskolan gauza handirik ikasi. Hala aitortu digu.

### **645. Igandeko meza euskaraz (ERR-022/018)**

Eskolan irakasle lanetan aritzen zen apaizak berak ematen omen zuen sarritan igandetako meza, euskaraz, nahiz eta eskolan gazteleraz eginarazi denei.

### **646. Apendiz hasi eta enkargatu bukatu (ERR-022/020)**

Donostiako Udaleko brigadan lanean urte asko egin zituen Antoniok. Enkargatu ere izendatu zuten, eta ingeniari baten esanetara ibiltzen hasi behar izan zuen, gainontzeko langile eta Udalaren izenean egiten ziren lan guztiak bere kargu zirelarik.

### **647. Aberia baldin bazen, Antonio deituko zuten (ERR-022/022)**

Donostian iturgintza arazorik izatera Udaletxetik nor deitzen zuten galdetuta, erantzuna argi du Antoniok.

### **648. Ehizan (ERR-022/024)**

Eskopeta hartu eta txori ehizan dezente ibilitakoa da Antonio, baserrian bizi izan zen denboran. Usotan, zozotan, birigarrotan...

### **649. Perretxikotan (ERR-022/026)**

Perretxikoak bildu zein jateko zaletasun handia izan du Antoniok. Aitzondo inguruan ibiltzen omen zen, baina baita Artikutzan barrena ere.

### **650. Aitzondoko oroitzapen onak (ERR-022/028)**

Jaiotetxeko oroitzapen onak ditu Antoniok.

### **651. Niessenen jarrera gerra ostean (ERR-023/005)**

Frankismoaren garaian, Errenteriako fabriketako nagusiek izandako jokaerari buruz hitz egiten du: Niessen zen Errenteriako fabrika handienetarikoa; jabea alemana zen, I. Mundu Gerran Alemaniatik ihes egindakoa. Wilhelm Niessenek abertzale ugari babestu zituen Errenterian. Asteburu batzuetan soldadu alemaniarrek Hendaiatik Donostiara joaten ziren arratsalde pasa, eta zigarroak banatzen ibiltzen ziren: behin Errenteriako Bar Versallesko kartela puskatu omen zuten soldaduek, I. Mundu Gerra galdu zuteneko oroitzapena ekartzen baitzien.

### **652. Gerran Erreteriatik alde egin beharra (ERR-023/008)**

Gerra hasi baino urtebete lehenago jaio zen Joseba. Gerran etxeko leiho bat puskatu zieten bala batekin eta 30 urtean ez zuten aldatu kristal hura. Gerran etxea nola zaintzen zuten aipatzen du. Gerra bukaeran, Donostiara joan ziren amaren lehengusu baten etxera. Erreteriatik jende askok egin zuen alde gerra garaian.

### **653. Oiloak balkoian eta tresnak ukuiluan (ERR-023/009)**

Etxe azpian ukuilua zeukaten eta han sagardo-barrika izaten zuten. Ukuilu hura apaizarena zen, baina auzo guztiari uzten zion erabiltzen, bakoitzari tartetxo bat emanaz. Ukuilu hartan ez zuten animaliarik edukitzen. Ukuilu atzean, baratzea zegoen. Lehen balkoietan oiloak eta oilandak haztea oso ohikoa zen gerra ostean.

### **654. Erreteriariko feriarren bizia eta amaren joan-etorriak (ERR-023/010)**

Ama urte askoan joan zen trenez Tolosara eta Ordiziara jeneroa erostera, gero hura Erreteriariko plazan saltzeko; zer jenero ekartzen zuen aipatzen du. Amarentzat gaztarik onenak Aguraingoak izaten ziren. Erreteriariko plazan bizi handia egoten zen feria zen egunetan; baimen berezia zeukan herriak feria haiek ospatzeko, baina denborarekin feria egiteko ohitura galtzen joan zen.

### **655. Aitaren irakurzaletasuna (ERR-023/020)**

Josebaren aitari asko gustatzen zitzaion irakurtzea; garai hartarako, liburutegi ona zeukan etxean. Gerra garaian, ordea, liburu batzuk bota egin zituen beldurragatik; gerora damutu egin zen hori egin izanaz. Hainbat aldizkaritan zegoen harpidetuta eta liburuak normalean Donostian erosten zituen. Aitari asko gustatzen zitzaion Donostiara joatea. Josebak oraindik gordeta dauzka aitaren liburu batzuk altxorrek izango balira bezala.

### **656. Frantziatik ihes egindako fraideak hemen (ERR-023/021)**

Umetan fraideetan ikasi zuen Josebak, dena erdaraz. Fraide haiek Frantziatik ihes egindakoak ziren, eta Gipuzkoan hainbat eskola ireki zituzten.

### **657. Euskara eta erdara noiz eta norekin (ERR-023/022)**

Josebak fraideekin ikasi zuenean, erdaraz ikasi zuen. Komunioa prestatzeko, bi talde zeuden: bata euskarazkoa eta bestea erdarazkoa; baina baserritarrek bakarrik ikasten zuten euskaraz. Jaunartze handia egin behar zuenean, aitak proposatu zien fraideei Josebak euskaraz ikastea dotrina, baina ezetz erantzun zioten; horregatik, Rosa maistrarengana eraman zuen Joseba, eta eskolatik hiru hilabetez atera zuen bitarte horretan. Etxean Josebak beti egin izan du euskaraz, baina kalean erdaraz, baita lagun euskaldunekin ere. Gerora, apaiz zela, Goierrira joateko eskatu zuen, horrela euskara sendotzeko.

### **658. Fraideen metodologia vs Rosa maistraren metodologia (ERR-023/024)**

Rosa maistrarekin ikasi zuen Josebak hiru hilabetez, komunio handirako prestatzeko. Han neska-mutilek batera ikasten zuten, eta aldeak zeuden fraideek erabiltzen zuten metodologiarekiko. Erretereriako zenbait familia aberatsetako seme-alabak Donostiara trenez joaten ziren batxilerra fraideekin ikastera.

### **659. Niessenek Erretereriako fraideengan zuen konfiantza (ERR-023/025)**

Erretereriako fraideen ikastetxea maila onekoa zen garai hartan. Niessen urtero joaten zen zuzendariarengana ikasle onenen izenak eskatzera. Lehen gau-eskolak zeuden oinarritzko eskola bukatutakoan ikasten jarraitu nahi zutenentzat.

### **660. Erretereriako eta Donostiako ikasketak (ERR-023/026)**

Josebak 7-12 urte zituen bitartean ikasi zuen Erretereriako fraideekin. Gerora, Donostian 3 urtez ikasi zuen arte- eta lanbide-eskolan.

### **661. Seminarioan 11 urtez ikasi zuen (ERR-023/027)**

1960an egin zen apaiz, seminarioan 11 urte egin eta gero. Seminarioan beti erdaraz ikasi izan du. Saturraranen ikasi zuen 1949-1953 bitartean. Zenbait seminario gerra garaian kartzela eta ospitale bilakatu zituztela kontatzen du.

### **662. Saturraranen euskara asko landu zuten (ERR-023/028)**

Saturraranen egon zen bitartean, Ondarroarekin harreman handia izan zuen. 2 urtetan ostegun arratsaldetan Resurreccion Maria Azkuek oparitutako euskarazko gramatika ikasten zuten. Euskara asko landu zuten garai haietan.

### **663. 'Jakín' aldizkaria (ERR-023/030)**

Aita Villasantek Jakín aldizkaria sortu zuen. Lehenengo 20 urteetako ale guztiak gordeta dauzka Josebak.

### **664. Elizan euskara zaindu izan da (ERR-023/033)**

Frankismo garaian euskara debekatuta zegoen. Donostiako seminarioan ostegunetan euskarazko eskolak ematen hasi ziren 50. hamarkada bukaeran. Jesuitak hasi ziren lehenengo aldiz euskara lantzen Comillasen. Prestakuntza handia lortu zuten Comillasen ikasitako apaizek.

### **665. Kaputxinoak, Ramon Astibia eta euskara (ERR-023/034)**

Ramon Astibiari buruz hitz egiten du. Nafarroan fraide Kaputxinoak hasi ziren lehen aldiz euskara irakasten Lizarran. Haiei buruz poesiak idatzi zituen Ramon Astibiai; gerora, omenaldia egin zitzaion bere jaiotetxean plaka bat jarrita, baina frankismo garaian kenarazi egin zuten. Kaputxinoek euskararengatik arazo ugari izan dituzte historian zehar.

### **666. Aita bertsozalea (ERR-023/036)**

Aitak hainbat bertsolari ezagutu zituen, bertsozalea zen, bertso asko zekizkien buruz. Erreterian Makazaga inprenta zegoen: orduko bertsolarien hitzak argitaratzen zituen.

### **667. Erreterriako bertso-saioak (ERR-023/037)**

Juanito Zabaleta bertsolaria ezagutu zuen. Festetan bertso-saioak izaten ziren Erreterian; orduan etortzen ziren bertsolarien izenak aipatzen ditu.

### **668. Madalen kaleko festak (ERR-023/038)**

Madalen kaleko festak oso garrantzitsuak izaten ziren Erreterian. Orduko giroa nolakoa izaten zen aipatzen du.

### **669. Espainiako bandera ez jartzeko protesta (ERR-023/039)**

Francoren garaian, debekatua zegoen balkoietan ikurrinak jartzea. XX. gizaldi hasieran, Espainiako bandera ez jartzeagatik, zapi txuri bat jarri zuten, erdian Jesusen Bihotzaren irudia zuena; horrek haserrea ekarri omen zuen karlisten eta nazionalisten artean. Apaiz bat bidali egin zuten Erreteriatik Agurain aldera, abertzalea izateagatik.

### **670. Erreterriako industriak erakarritako jendea (ERR-023/040)**

Erreterian beti egon izan da industria asko eta horregatik etorri zen jende asko kanpotik lanera eta bizitzera. Orduan etxe asko egin ziren Erreterian. Emakumeak lanera joateko nola moldatzen ziren azaltzen du.

### **671. Erreterriako biztanleen gorakada (ERR-023/041)**

Erreterriak gerra garaian 9.000 biztanle baino gehiago zituen, eta pixkanaka igotzen joan da herriko populazioa. 1965 inguruan, 48.000 ere biztanle izan ziren. Orduko etxeak ordaintzeko kredituek nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

### **672. Erreterria hirigintza-planik gabe handitu zenekoa (ERR-023/042)**

Etorkinak Erreterriara etortzen hasi zirenean, asko handitu zen herria; hirigintza-planik ez zen egon orduan eta nola-hala egin ziren etxeak.

### **673. Apaiztu zenetik egindako lanak (ERR-023/045)**

25 urterekin apaiztu zen eta orduan 3 urte pasa zituen Goierriin. Geroago, Madrila joan zen Historiako doktoregoa egitera. 1967an Erromara joan zen. 1970an Gasteizko eta Donostiako seminarioan eskolak ematen hasi zen. Gerora, Donostiako EUTGn historiako irakasle izan zen. Apaiz-lana Erreterian egin izan du beti. Izandako ikasle batzuei buruz hitz egiten du. 65 urterekin erretiroa hartu zuen.

#### **674. Aita gerran preso hartu zutenekoa (ERR-024/014)**

Aita, gerran zegoen bitartean, preso ekarri zuten Iruñera; orduan amak opari bat egin nahi izan zion eta Iruñera familia osoa joan zen aita ikustera. Aita Santanderren hartu zuten preso, ez baitzuen errenditu nahi izan; eta denbora askoan ibili zen Langileen Batailoian.

#### **675. Aitak gerran ikusitakoak (ERR-024/020)**

Aitak 4 bat urte eman zituen gerran: gazte bat hil zutela ikusi zuenekoak kontatzen zuen.

#### **676. Gerran aitak entzundako meza (ERR-024/021)**

Aita gerran zegoela, hainbat orduz ibiltzera behartu zituzten; eliza batean sartu ziren lo egiteko; mantak bi lagun artean banatzen zituzten. Halako batean, elizatik aterarazi zituzten meza emateko; apaizak esandakoak aipatzen ditu. Meza bukatutakoan, janaria lapurtzeko aprobeztatu zuen aitaren lagun batek.

#### **677. Gerra ostean aitak lana bilatzeko izandako arazoak (ERR-024/029)**

Aita gerratik itzuli zenean, Goiko kaleko etxean jarri ziren bizitzen. Etxea utzi bezala zegoen. Aita portura joan zen lan bila, baina atzera bota zuten: oso noizean behin bakarrik deitzen zuten lanerako. Ama arropa garbitzera joaten zen.

#### **678. Auzoen arteko borrokak Erreterian (ERR-024/032)**

Gerra garaian, auzoetako bandak sortu ziren eta haien arteko borrokak egoten ziren: harrika ibiltzen ziren elkarren kontra. Borroka haiek non izaten ziren azaltzen du. Behin Joxe Mariren anaiari bekainean eman zioten harriarekin.

#### **679. Bar Txokoko lapurreta (ERR-024/033)**

Bar Txokon, mutil gazteen kuadrilla batek lapurreta egin zuenekoak kontatzen du.

#### **680. Auzoko taldeen buruzagiak (ERR-024/035)**

Auzoko taldeen buruzagiak zein izaten ziren aipatzen du. Haiei errespetu handia zitzaien.

#### **681. Fletxen eta pelaioen desfileak Erreterian (ERR-024/037)**

Fletxak eta pelaioak desfile militarrik egiten aritzen ziren Erreterian: mutil koskorrik izaten ziren eta haiek jotzen zuten doinua oraindik gogoan du Joxe Marik. Desfile haiek zirenean, Espainiako banderak jartzen ziren balkoietan; beraiek, ordea, ez zuten etxean banderarik jartzen.

#### **682. Parapetoekin sortzen zuten artea (ERR-024/039)**

Gerra garaian, Goiko kalean porlan zaku hutsak ekartzen zituzten, haiekin fardoak egin eta parapetoak egiteko. Zaku haiei grapak kentzen zizkieten umeek, gero kateak egiteko. Erreterian tiro-hotsak entzuten zituztenekoak kontatzen du.

### **683. Metrailadoraren zuloak garbitokian (ERR-024/041)**

Gizon batek metrailadore bat konpondu zien nazionaliei; arma harekin probak egiteko, garbitokiaren kontra bota zituzten tiroak. Tiro haiek eragindako zuloak ez zituzten behin ere itxi.

### **684. Kakalarria sartu eta trenbidera joan zirenekoa (ERR-024/043)**

Umeak RENFEko geltokira joaten ziren, eta han balaz betetako kaxak ikusten zituzten. Behin, Joxe Mariri eta beste lagun bati kakalarria sartu, eta trenbidera joan ziren; oraindik bukatzeko zeudela, trena agertu zen. Orduan izandako bizipen harrigarria kontatzen du.

### **685. Aierbetarrek gerran jasotako zigorra (ERR-024/047)**

Aierbe anai-arrebei nazionalistak izateagatik gerran egin zietena kontatzen du.

### **686. Anaia, ile-apaintzaile ona (ERR-024/053)**

Anaia zaharrena barberua izan zen lanbidez, eta Joxe Mariren ilea izan zen lehenengo moztu zuena: orduko pasadizoak kontatzen ditu.

### **687. Primo de Rivera eta Alcalá-Zamora Erreterian (ERR-026/001)**

Jesusek Primo de Riveraren diktadura ezagutu zuen, nahiz eta garai hartako oroitzapen gutxi izan, umea baitzen orduan. Hala ere, diktadorea behinola Erreterian izan zela oroitzen du. Niceto Alcalá-Zamora, Espainiako Bigarren Errepublikako lehen presidentea ere, Erreteriara etorri zela du gogoan, eta zergatia argi ez duen arren, esaten du Erreterian garai hartan zegoen fabrika pilagatik izango zela; hainbeste, ze "Manchester City" izendatu zuten batzuek.

### **688. "Irakasleak baino gose gehiago pasa" (ERR-026/002)**

Bigarren Errepublika garaian, 1931 eta 1936 urte bitartean, alderdi politiko eta sindikatuak legeztatzearekin batera, Jesusek bereziki gogoan du irakasleen baldintzak hobetu egin zirela. Denbora gutxirako, ordea. Bost urteren buruan Espainiako Gerra Zibila piztuko baitzen.

### **689. Erreteriako alderdi politiko eta sindikatuak Espainiako Bigarren Errepublika garaian (ERR-026/003)**

Jesusek aipatzen dituen alderdi politiko eta sindikatuek presentzia zuten Erreterian, Bigarren Errepublika garaian: Izquierda Republicanak, Euskadiko Partidu Komunistak, Partidu Sozialistak... Sindikatuek ere, UGTk, CNTk edo Solidaridad de Obreros Vascosek (Eusko Langileen Alkartasuna). Jesus Solidaridad de Obreros Vascos sindikatuko afiliatua zen.

### **690. Estolda-garbitzetik fabrikara (ERR-026/005)**

Jesus estolda-garbitzen hasi zen lanean, eta aitak afiliatu zuen Solidaridad de Obreros Vascos (Eusko Langileen Alkartasuna) sindikatuan, nahiz eta bera (aita) UGTkoa izan. Sindikatuan lantxo batzuk ere egiten zituen tarteka, eta baita ibaia garbitzen ere. 1934. urtean Real Compañía Asturiana fabrikan hasi zen lanean.

### **691. Greba sei orduko lanaldiaren alde (ERR-026/006)**

1936ko maiatzean greba deitu omen zuten Real Compañía Asturianan. Txandaka aritzen ziren langileak, eta sei orduko lanaldia, soldata igoera eta hiru opor egun gehiago eskatu omen zituzten. Patronalarekin negoziazioetan ari zirela, 1936ko Espainiako Gerra Zibila piztu zen.

### **692. Mitinak egoitzetan eta zinema aretoetan (ERR-026/007)**

Gerra Zibila piztu baino lehen, Federica Montseny (Madril, 1905 - Okzitaniako Tolosa, 1995) eta Aurora Arnaizen (Sestao, 1913 - Mexiko Hiria, 2009) mitinak bildu zituen Errenteriako Cine Reinak, Frente Popularrak, ezkerreko alderdiek osatutako koalizioak deituta. Jesusek harrez gero ibili du buruan sartuta Montseny eta Arnaizen esaldi bana.

### **693. Fronte Popularra (ERR-026/009)**

1936ko hauteskundeetarako ezkerreko hainbat formazioz osatutako koalizioa nola osatuta zegoen ongi gogoan du Jesusek.

### **694. Lagun Artea eta Círculo Liberal elkarteak (ERR-026/012)**

Lagun Artea eta Círculo Liberal bi elkarte edo sozietate ziren. Lehenengoa kultur gunea ere ba omen zen, liburutegia zuena, eta liburuak irakurtzera, behinik behin, nahi zuen oro sar zitekeen. Círculo Liberalen antzerki emankizunak izaten ziren, besteak beste. Karlistek ere inguru berean omen zuten lokala, Cine Reina inguruan, eta abertzaleek, batzokia.

### **695. Karlistak eta Jeltzaleak (ERR-026/013)**

Jesulentzat erro bereko bi adar ziren Karlistak eta EAJkoak. Agian, EAJkoak Karlistak baino aurrerakoixeagoak, azken hauei, Errenterian, Kabernikolak esaten baitzieten.

### **696. Biteri eskola publikoak (ERR-026/014)**

Biteri eskola publikoan ikasi zuen Jesusek. Gogoan du nola Bigarren Errepublika garaian irakaslea etorri eta gelan sartu orduko horman zintzilik zegoen gurutzea kendu zuen. Jesusen esanetan horrek ez zuen errenteriarren artera istilurik ekarri.

### **697. 1934ko urriko grebak (ERR-026/015)**

1934ko urrian "Asturiasko iraultza" izenarekin ezagutzen den altxamendua izan zen. Jesusek dio Errenteria eta inguruetan eragin txikia izan zuela. Baina Loiolako kuarteleko soldaduak atera omen ziren kalera, ordena jartzera, eta Guardia Zibilek jende asko eraman omen zuten preso, tartean, batzuk, Guadalupera.

### **698. Emakumeen bilerak eta batzarrak (ERR-026/017)**

Jesusek ezagutu ditu emakume bilerak eta mugimenduak, CNTkoen ateneoan zein batzokian. Izan ere, gizartea, orduan, egun baino askoz gehiago mobilizatzen zela dio Jesusek. Errepublika garaian emakume kargudunik ezagutu ote zuen galdetuta, zalantza egiten du. Alderdi politikoetan izango zela dio, eta lantegietan enkargatu modura ere, baina beste emakumeen enkargatu beti; inoiz ez gizonezkoaren enkargatu.

### **699. Fabrikako enkargatua (ERR-026/018)**

Jesusek ez du bere langile garaiko enkargatuaren oroitzapen bereziki txarririk. Orduan gauzak ez omen ziren gaur egun bezala. Gaur alde handiagoa omen dago langile eta enkargatuen artean. Jesus lanean aritzen zenean, enkargatua tabernara joaten zen langileekin, lana bukatutakoan. Besteak adina zen.

### **700. Gerra Zibila piztu zenekoa (ERR-026/020)**

Jesusek beldurrez jaso zuen gerra piztu zeneko abisua. Beldurrez eta hemezortzi urterekin. Hamarretik zortzik ihes egin zuela dio, izututa, Txikierrdin eta Jaizkibelen zegoelako frontea. Gerra hasi, altxamendu militarrekin, eta greba orokorra aldarrikatu omen zen. Jesusek gogoan du larunbatez lana utzi eta ez zela fabrikara zortzi urtean itzuli. Gerrak lau urte iraun bazuen ere, beste hainbeste behar izan zuen Jesusek fabrikari sartzeko, nazionalekin borrokatutakoek izaten baitzuten lanpostuetarako lehentasuna. Bestalde, gerrak iraun artean, Erretereriako fabrikak armamentua egiteko baliatu zituzten nazionalak.

### **701. Parapetoak kalean (ERR-026/021)**

Ederki gogoan du Jesusek oraindik ere non altxa ziren parapetoak Erretererian, gerra garaian. Altamiraraino heltzen zena bata, Gaztaño artekoa bestea, Gabierrotakoa, Lezoko zubixokoa... Paper fabrikatik ateratako pastarekin betetako zakuz eginak, guztiak.

### **702. Frente Popularraren armamentu eskasa (ERR-026/022)**

Gerra zibilean Oiartzun aldetik sartu ziren nazionalak Erretererian, Arkaletik jaitsita, nonbait. Frente Popularrekoak zain zituzten, baina lehendabiziko egunetan behintzat, oso armamentu eskasarekin.

### **703. Frente Popularrarekin Erretereriatik Eibar aldera (ERR-026/023)**

Jesusek kontatzen du zergatik erretiratu zen Frente Popularreko jendea Erretereriatik ekialdera. Izan ere, nazionalak inguratuta geratzeko arriskua zuten, eta hargatik abiatu omen ziren Eibar aldera.

### **704. Kanpai asko eta gordeleku gutxi (ERR-026/025)**

Gerra zibila piztu aurretik Erretererian eta inguruan eraikita zeuden tunelak eta halakoak ziren bonbardaketetatik babesteko toki bakarrak. Besterik ez omen zen.

### **705. Eusko Gudarosteko parte, Zumaian (ERR-026/027)**

Gerra zibilean, Nazionalak Erretererian sartu aurreko gauean ihes egin zuen Jesusek, motxila txiki bat sorbaldan eta beldurra soinean. Zumaiaraino heldu zen bera, beste jende askorekin batera, eta han bi egun egin ondoren, Eusko Jaurlaritza osatu berriak antolatutako Eusko Gudarosteko parte izatera pasa ziren.

### **706. Santanderreraino atzeraka oinez (ERR-026/028)**

Zumaian Eusko Gudarostean izena eman eta Aiara abiatu zen Jesusen konpainia, frontea osatzera. Erreteretan zetozenekin bat egin zutenean, Eibarrera egin behar izan zuten atzera, Akondia mendira, eta handik, gero, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku... eta kostaldetik, atzeraka-atzeraka, Durangoraino

sartu ziren. Durangon bi bonbardaketa jasan zituzten. Lehenak pilotan ari ziren dozena bat lagun akabatu zituen. Bigarrenak bi-hiru moja, soldaduak kuartela eginda zeuden komentukoak. Durangotik Santanderrera bidea egingo zuten, azkenik, erretretan beti, Jesusek dion moduan.

### **707. Kanoikadak Versallesetik Audelera (ERR-026/029)**

Fusila arma bakar, mendirik-mendi, herririk herri ibili zen Jesus Gerra Zibilean. Gogoan du, hala ere, jaioterritik irten aurretik eta Frente Popularrekoak Loiolako kuartelaren jabe egin ondoren, kanoiak Errenteriarara sartu eta kanoikadak jaurtitzan ibili zirela Oiartzun aldera, Audelera.

### **708. Egun argiz eutsi, ta gauean ospa (ERR-026/030)**

Konpainia mistoa zen Jesusena. Fusilekin tiroka ibiltzen ziren batzuk eta trintxerak egiten bestek. Ehun eta hamar lagun inguru, guztira. Bando Nazionalak askoz armamentu sendoagoa zuen eurek baino, eta aurrez esan izan duen gisan, atzera eginez igaro zuten gerra. Egunez eutsi eta gauez ospa egitea izaten omen zen seguruena.

### **709. Donostian bezala, Santanderren ere nazionalek bidea itxi (ERR-026/031)**

Eusko Gudarosteko konpainiarekin Eibarretik Santanderrera iritsi zen Jesus. Gogoan du, herririk-herri, egindako bidea.

### **710. Gerrako arrantxoak eta loa (ERR-026/032)**

Dilistak, arroza, babarrunak... denetik jaten omen zuten Gerra Zibileko borrokaldiek iraun bitartean. Hala ere, Bilbo "erori" zenean, goseak pasa zuten astebete. Uda partea zen, ordea, eta fruta-arbolek eskaintzen zuten zer jan. Eskerrak horri.

### **711. Herrira itzuli eta etxea hutsik topatu (ERR-026/033)**

Gerra Zibilean herrietan geratu zen jendea ihesi joandakoen etxeetan sartu eta hustu egiten zituztela dio Jesusek. Hustutako etheen jabeak itzuli eta etxea hutsik topatzean, isilik egon behar, ordea.

### **712. Pontejosera atxilo (ERR-026/035)**

Pontejoseko abiazio basera eraman zuten atxilo Jesus, Santander inguruan, eta handik bidali ahal izan izan zien familiakoei lehendabiziko eskutitza, fronteak zelarik ez baitzuen aukerarik izan.

### **713. "Hemen amaitu da guztia. Bakoitzak ahal duena egin" (ERR-026/038)**

Pagasarrin esan omen zien kapitainak "ahal zuenak ahal zuena" egiteko, eta bakoitza bere aldetik abiatu omen ziren, Jesus eta konpainiako gainontzeko soldaduak. Jesus Santanderren hartu zuten preso, eta handik, Pontejoseko base militarra.

### **714. Pontejosen Alemanak jaun eta jabe (ERR-026/040)**

Pontejoseko base militarrean militar alemanen araudia gailentzen omen zen.

### **715. Abioiak bonbaz hornitzen (ERR-026/041)**

Lehenik bonbak prestatzen eta abioiak bonbaz hornitzen gero, halaxe ibili ziren Jesus eta Pontejosera atxilo hartutako gainontzekoak. Hegazkinetako bonbak airean aktibatzen omen ziren, "istripuak saihesteko".

### **716. Batzokiko mitinak eta pilota-partiduak (ERR-027/004)**

Gogoan du batzokian gerra aurretik Manuel Irujok mitina eman zuenekoa; bera ere han zen, eta badaude egun hartako argazkiak. Irujok gaztelaniaz hitz egiten zuen gehienbat, euskaraz ez baitzen oso ondo moldatzen. Pilota-partiduak ere izaten ziren igande arratsaldetan batzokiko frontoian.

### **717. Batzokiko antzerki-taldeak (ERR-027/005)**

Batzokian antzerki-taldeak egoten ziren, eta oso onak omen ziren. Iñakiren osaba bat antzerki-taldeko zuzendari izan zen eta errespetu handia zitzaion, baina gazte hil zen.

### **718. Familia osoa abertzalea eta gerran ihes egin behar (ERR-027/006)**

Aitaren aldetik, familia osoa zen abertzalea. Donostian bizi zen aitaren anaia, eta gerran ihes egin behar izan zuen bere seme zaharrenarekin. Semea Ingalaterrara joan zen Bilbotik, "niños de la guerra" delakoen itsasontzian. 19 urte eman zituen han.

### **719. Mojekin ikasi zuenekoa (ERR-027/008)**

Gerra hasi zenean, 6-7 urte zituen Iñakik. Eskolan mojekin ikasi zuen. Moja batzuk gogoan ditu: Sor Laura, Sor Maria Begoña, Sor Gabriela... Mojen eskola non zegoen azaltzen du. Mojekin gustura ikasten zuen.

### **720. Euskara eskolan, etxean eta kalean (ERR-027/009)**

Mojekin euskaraz ikasten zuten dotrina behintzat. Etxean aitak euskaraz hitz egiteko esaten zuen, eta lagunartean ere euskaraz egiten zuten besteak euskaraz bazekien behintzat.

### **721. Kalean jolasean arrosarioaren elizkizuna hasi bitartean (ERR-027/010)**

Kalean jolasean ibiltzen ziren: pilotan, futbolean, saltoka... Urrian arrosarioaren hilabetea izaten zen; eta egunero elizkizuna izaten zen. Elizkizuna hasi arte, jolasean ibiltzen ziren.

### **722. Futboleant jokatzeko irrika, baita aldapan zeuden zelaietan ere (ERR-027/011)**

Futboleant oso gustura aritzen ziren: ostegun arratsaldetan jai izaten zuten eskolan, eta futbol-partidak antolatzen zituzten. Futboleant hainbat lekutan ibiltzen ziren, batzuk leku xebreak ziren.

### **723. Jolasteko ohiturak eta auzoen arteko "gerrak" (ERR-027/013)**

Eskolako lagunak ibiltzen ziren jolasean: mutilak mutilekin eta neskek neskekin. Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten eskolan eta "gerrak" egiten zituzten auzoen artean: harrika ibiltzen ziren. Leku askotan jolasten zuten umetan.

### **724. Herrian izandako aldaketak: eraikuntza gehiago eta ibaiak beste ibilbide bat (ERR-027/014)**

Herria asko aldatu da beraiek txikiak zirenetik. Ibaia beste leku batetik pasatzen zen; baina ibilbidea desbideratu egin zuten, lehen uholde handiak izaten baitziren.

### **725. Ama plazan salmentan ibiltzen zen (ERR-027/015)**

Iñakiren ama plazan salmentan ibiltzen zen: Ordizia eta Tolosako feriara joaten zen jeneroa erostera, eta Errenteriako plazan saltzen zuen gero. Seme-alabek amari laguntzen zioten gauzak plazara eramaten eta handik etxera ekartzen.

### **726. "Patxiku kanpa" eta baratze lanak (ERR-027/016)**

Iñakiren etxe inguruan, animaliak edukitzen zituzten etxe baten atzeko zelaian. Zelai hura "Patxiku kanpa" zen eta uholdeak bustitako piezak lehortzeko erabiltzen zuen fabrika batek. "Patxiku kanpa" baratze moduan ere erabiltzen zen; baina Iñakiren familiak ez zuen baratzean lan egiten.

### **727. Apaiza baratzean eta sagardoa botilatan sartzen (ERR-027/017)**

Apaiza baratzean lanean ibiltzen zen. Apaiz hari sagardoa asko gustatzen zitzaion, eta urtero ekartzen zioten sagardo ona Arangurendik; Iñakiren aitak eta beste batzuk lagundu egiten zioten sagardo hura botilatan sartzen. Iñakiren aitak, hura ikusitakoan, sagardo-kupela ekarri zuen etxera, egunero pitarra edan ahal izateko.

### **728. Gerrako tiroketak eta babeslekuak (ERR-027/019)**

Gerran, erreketek herrian sartu aurretik, aitak ihes egin zuen abertzalea izateagatik zerbait egingo zioten beldurrez. Erreketean agintariek baserri bat hartu zuten, eta handik errepublikanoen kontrako tiroketak egin zituzten. Iñakiren etxean nola-hala babesten ziren; baina, hala ere, tiro bat sartu zitzaion etxera. Gerra garaian, sotoan egoten ziren babesteko.

### **729. Herrian fusilamendu ugari eta ihes egin zuen jende mordo (ERR-027/021)**

Erreketek eta falangistek batzokia hartu zuten eta trantsiziora arte ez zuten utzi. Errenteriako batzokian eduki zituzten atxilotuta bi apaiz eta gero fusilatu egin zituzten. Errenterian jende askok ihes egin zuen itsasoz. Iñakiren aita Bilbora joan zen ihesi anaiarekin eta ilobarekin batera; ez zen frontean egon.

### **730. Errenteriatik Donostiara ihesi, etxean lapurtuko zieten arriskuarekin (ERR-027/022)**

Iñaki eta bere senideak Donostiara joan ziren gerra garaian osabaren etxera, eta han egon ziren hilabete batzuk. Donostian, Urbieta kalean bizi ziren. Errenteriatik alde egin zuen jendearen etxeetan arpilatzeak (sakeoak) egon

ziren. Apaizak (karlistak ez zirenak) kale-jantzian egoten ziren, zerbait egingo zieten beldurrez.

### **731. Gerrako desfileak Erreterian (ERR-027/024)**

Umea izan arren, gogoan ditu gerrako kontuak: erreketek herrira sartu zirenekoa, besteak beste. Igandero militarren desfilea izaten zen herrian. Gerora, herritarrek ere parte hartzen zuten desfileetan: "Flechas y Pelayos" izena zuten desfile haiek.

### **732. Eliz mutil izan zenekoa (ERR-027/026)**

Umetan eliz mutil izan zen eta mezan laguntzen zuen. Egunero izaten ziren mezak.

### **733. Gerrako eta gerraosteko elikadura (ERR-027/027)**

Gerra garaian, aita kanpoan zela, amak zaindu zituen 7 seme-alabak. Gerra garaian janaria bazegoen, baina 1940tik aurrera gosete handiak izan ziren. Errazionamenduko ogia lortzen zuten eta taloa egiten zuen amak. Taloa egiteko irina ehotzera ezkutuan joaten ziren errotara. Inoiz guardia zibilek ama kontrabandoko zerbaitekin harrapatu zutenean, kendu egin zioten. Gose garaian, baba jaten zuten.

### **734. San Juan eta Hondarribitik Erreteriarra arraina saltzera (ERR-027/028)**

San Juandik eta Hondarribitik etortzen ziren arrain-saltzaileak: batzuk oinez, besteak trenez. Igande goizetan feria izaten zen Erreterian, inguruko herri guztietatik etortzen ziren. Arrain asko egoten zen orduan. Saltzaileen artean harreman ona zegoen.

### **735. Padre Olaso entzuteko erosi etxeko lehenengo irratia (ERR-027/029)**

Etxean nahiko berandu izan zuten lehenengo irratia. Iñakiren aitari don Alberto Onaindia apaiza (Padre Olaso) entzutea asko gustatzen zitzaion: astero Londondik aztertzen zuen Euskal Herriko egoera politikoa. Apaiz hura entzuteagatik erosi zuen aitak irratia.

### **736. Gerraosteko giro politikoa eta Koldo Mitxelenarekin harremana (ERR-027/031)**

Gerraostean sinbolo asko debekatuta zeuden, baina Iñakiren aitak ez zuen alde batera utzi politika; Koldo Mitxelena umetatik ezagutu zuen eta harreman estua zuten. Iñakik ere ezagutu zuen Koldo Mitxelena.

### **737. Inprentako lana eta 'Txirristaka' bezeroa (ERR-027/039)**

Mendaro Txirristakak berak asmatzen zituen bertsoak ekartzen zituen inprentara. Jendea barrez aritzen zen bertso haiekin. Inprentako lana nola izaten zen azaltzen du.

### **738. Inprentako lan prozesua eta etortzen ziren bertsolariak (ERR-027/040)**

Makazaga inprentan bertso-liburuak egiten zituzten. Lan-prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du. Hainbat bertsolari joaten ziren inprentara bertsoak argitaratzeko: Txirristaka, Zabaleta anaiak, zapiraindarrak...

### **739. Makazaga inprenta baita gerra aurretik ere (ERR-027/042)**

Makazaga inprentan ez zuten zuzenean saltzen, baizik eta enkarguak egiten zituzten. Inprenta hura gerra aurretik ere bazegoen, lehenago aldundiarena zen.

### **740. Inprentako ortografia euskara batua ez zegoen garaian (ERR-027/043)**

Inprentan letrak banaka-banaka jartzen ziren, eta ortografia ondo zaintzen zuten. Makazagak maila oneko ortografia zuen, baita euskaraz ere. Makazagak ematen zuen molde bakoitzaren onespena.

### **741. Inprentaren kokapena eta hango lan-baldintzak (ERR-027/044)**

Makazaga inprenta non zegoen eta inguruan zer denda zeuden azaltzen du. Inprentan larunbatetan ere lan egiten zuten.

### **742. Inprentatik bankura lanera (ERR-027/048)**

Makazagaren inprentatik Urruzolaren inprentara pasa zen lanera. Gerora, soldadutzara joan zen; handik itzultitakoan, 22 urte zituela, bankuan hasi zen lanean eta han ibili izan da erretiroa hartu arte.

### **743. Ama etxean lanean (ERR-028/002)**

Maritxuren amak etxean izaten zuen nahiko lan eta Maritxuk, alabetan zaharrena izaki, lagundu behar izaten zion. Ongi gogoan ditu arropa garbitzeko auzoko harraskara egindako bidaiak. Amak ezin zuenetan joaten zen Maritxu.

### **744. Hamabi urte betetzerako haurtzain (ERR-028/003)**

Maritxu haurtzain hasi zen lanean, hamabi urte bete zituenerako. Hala ere, kontatzen du, lana eskaini zionak laster jarri zuela eskaierak garbitzen eta enkarguak egiten. Hamalau urte bete artean ibili omen zen horrela, eta gero, Timoteo Etxeberriaren tindategian hasi omen zen, plantxatzen.

### **745. Umetako auzoko ibilerak (ERR-028/004)**

Erreterria oso aldatua ikusten du Maritxuk. Gogoan ditu inguruko zelai eta baratzeak, izan ere, aitari erretzeko papera lapurtu eta arto-bixarrak erretzera haietan ezkutatzen baitziren. Kaleko haurren arteko futbol norgehiagokak ere gogoan ditu, neska-mutilak, denak elkarrekin aritzen zirenekoak.

### **746. Zuaznabarreko errotako amona (ERR-028/014)**

Gerra osteko gosearekin gehiago gogoratzen da Maritxu. Erreterriako Zuaznabarreko errotakoak aitaren lehengusuak zituzten, eta hango amonak beti ematen omen zien zer edo zer etxerako.

### **747. Aita sagar garraio Bedaio aldetik Erreteriarara (ERR-028/015)**

Carrera delako bat zen Erreteriarako dolareetako baten arduraduna, eta Maritxuren aita harentzat sagarra ekartzen ibiltzen omen zen. Maritxuk gogoan ditu sagar pilaren azpian ezkutuan ekarri ohi zuten jatekoarekin zein komeria ibiltzen zituzten.

### **748. Arrautza bakarreko tortilla (ERR-028/016)**

Maritxuk dio gerra ostean familia osoarentzat kozinatu behar izaten zuten amek meritu izugarria zutela. Gogoan du, esaterako, amak sei-zortzi lagunentzako patata tortilla arrautza bakarrarekin egin behar izan zueneko.

### **749. Etxeko jostuna (ERR-028/017)**

Maritxuk josten ikasi eta zerbitzu handia eman zuen etxean. Gogoan du oraindik ere ahizpetako bati josi zion txaketa. Analetako batek marinan bete zuen zerbitzua, eta hark petatean ekarritako arrokekin traje bat josi omen zuen beretzako.

### **750. Arropa epeka erosten (ERR-028/018)**

Zapatak eta arropa epeka ordaintzen ziren askotan.

### **751. Don Angel eta Don Markos (ERR-028/019)**

Dena bekatu zen garaian egokitu zitzaizen gazte izatea Maritxu eta bere adin bueltako guztiei. Behin, hiru "R"ko pelikula bat ikustera joan omen ziren (La muchacha del trapecio rojo), Maritxuren ahizpak, Edurnek, urteak betetzen zituela eta. Hura eta gero, konfesatu egin behar! Konfesatzeko, alde ederra zegoen Don Markosengana edo Don Angelengana joanda. Maritxuren ahizpa Don Angelengana joan zen, Don Markosenean ilera luzeegia zegoela eta. Ederki damutu zitzaion, absoluziorik ere ez baitzion eman!

### **752. Hogeitun urte bete arte dantzara joan ezin (ERR-028/020)**

Maritxuren amak ez zien Erreteriarako Alamedara dantzara joaten uzten. Hogeitun urteak beteta joan ziren lehen aldiz. Maritxuk pentsatzen du mutilekin ibiltzen hasteari izango ziola beldur amak. Izan ere, ezkon aurreko sexu harremanak oso gaizki ikusiak zeuden, eta zer esanik ez ama ezkongabea izatea.

### **753. Lagunartea hezkuntza sexualerako eskola (ERR-028/021)**

Hezkuntza sexualik batere ez omen zuten etxean jasotzen, eta eskolan are eta gutxiago. Izatekotan, lagunartea izaten zen hezkuntza sexualari buruz zer edo zer jakiteko eremu egokiena.

### **754. Atzera Erreteriarara, neska bide erdian utzita (ERR-028/022)**

Erreteriarako zumardian dantzan maiz ibilitakoa da Maritxu, adin batetik aurrera bada ere. Neska-laguntzak gogoan ditu, eta arriskutsu xamarrak batzuk, gainera! Izan ere, Erreteriarako mutilak kexu izaten ziren neska oiartzuarrak lagunduz gero, mutil oiartzuarrek harrika hartzen zituztela.

### **755. Beltzez ezkondu nahi ez (ERR-028/024)**

Maritxuk ez zuen beltzez ezkondu nahi izan, bere lagun guztiek hala eginda edo egingo bazuten ere. Trajearekin ezkondu zen. Traje zurixka batekin.

### **756. Kakorrazarekin egindako azpiko arropa (ERR-028/025)**

Maritxuk bere ezkontzarako bularretakoak berak egin zituen, kakorrazarekin. Nylonezko lehendabiziko galtzerdiak saltzen hasi zirenean ezkondu zen gainera, "karrera" bat egin eta konpontzera eramaten ziren garaian.

### **757. Ezkontza ospakizuna, familia eta lagunekin (ERR-028/026)**

Ezkontza osteko bazkaria Mendiola jatetxean egin zuten, Erreterian, familiarekin eta lagun batzuekin. Maritxuk oraindik etxean ditu ezkontza eguneko lagunak opariak: platerak, kopa txikiak...

### **758. Ezkon-bidaian aita-amaginarrebak ezagutu (ERR-028/027)**

Ezkon-bidaia Gasteizen hasi, gero Sevillara joan trenean, eta handik kamioneta batean, Huelvara, El Granadara, senarraren herrira, haren gurasoak ezagutzera. Maritxuk lotsa handia pasa omen zuen El Granadara iristean, herri guztia omen zegoen-eta haiek noiz iritsiko zain, jakin minez. Sevilla aldean bero handia pasa arren, oso gustura ibili zen Maritxu bere ezkon-bidaian.

### **759. Lehendabiziko kotxeak (ERR-028/028)**

Erreterian autoa erosten lehenengotarikoak Xenpelar plazan denda zeukatzen hiru anai-arreba izan omen ziren, Maritxuk dioenez.

### **760. Legeak lana uztera behartu (ERR-028/030)**

Behin ezkonduz gero legeak emakumeak lan mundutik nahi eta nahi ez apartatzen bazituen ere, Maritxu aritu omen zen ezkondu eta beste urte betez, tindategian lan asko zutelako. Ondoren, hiru seme-alabetan zaharrena jaiotzear zela, utzi egin zuen lana.

### **761. Hiru seme-alaben jaiotzak (ERR-028/031)**

Lehendabiziko bi seme-alabez Gizarte Segurantzako ospitalean erditu zen Maritxu, eta hirugarrenaz, San Inazio klinikan, oraindik etxean erditzea oso gauza arrunta zen garaian. Amak izan zuen azkenekoa, Maritxuren anaia gazteena, alegia, zaspikia izan omen zen, eta Maritxuk gogoan du amak zein pazientziarekin zaindu zuen semerik gazteena, hazten hasi zen artean, bai eta nabarmen hazi ere! Denborarekin, anaia zaspikia izango zen guztietan handiena.

### **762. Erretereriako Xenpelar plazako igandeetako feria (ERR-028/033)**

Ospea eta sona omen zuen Igandero Erretereriako Xenpelar plazan egiten zen feriak. Denetik izaten omen zen. Gaur egun oraindik ere antolatzen omen da, baina postu gutxiago daude, eta lehen ohikoak ziren kontu batzuk aldatuta daude. Maritxuk gogoan du, esaterako, amak babarrunak lekatan ekartzen zituenekoa, prezio merkeagoa ordaintzearen truke.

### **763. Kanpotarrak erruz (ERR-028/034)**

Gerra ostean kanpotar asko heldu zen Errenteriara, eta haien etorrerarekin batera, herriko paisaia bera ere asko aldatu zen. Maritxuren esanetan, garai hartan, zuhaitz bakoitzeko etxe berri bat altxa omen zuten, eta Galtzaraborda bezalako inguruak oso itsusi geratu zirela dio.

### **764. Senarra kanpotarra (ERR-028/035)**

Senarra kanpotarra du Maritxuk, Huelvatik etorria. Denborarekin Maritxuren senarra izango zenak ba omen zuen jaioterriko ezagun bat Ondartxo auzoan bizi zena, eta gela bat utzi edo alokatu omen zion, Errenteriara etor zedin. Etorri eta berehalaxe hasi omen zen lanean, eraikuntzan.

### **765. Senarrak euskaraz ongi ikasi (ERR-028/036)**

Huelvatik Errenteriara etorri, eta Maritxuren senarrak euskaraz egiten ederki ikasi omen zuen.

### **766. Mezatan lau atso (ERR-028/037)**

Maritxu saiatzen da egunero mezetara joaten. Hala ere, ikusten du, gaur egun oso jende gutxik duela joera bera: "lau atsok", berak dioen moduan. Seme-alabak ez zaizkio mezetara joan zaleak atera, baina berak jarrera guztiak errespetatzen ditu.

### **767. Gaur egungo haurren hezkuntza (ERR-028/038)**

Maritxuk gauza onak eta txarrak ikusten dizkio egungo gurasoen euren seme-alabei ematen dieten hezkuntza motari. Txarren artean dauka haurrak gauza material gehiegirekin saritzea.

### **768. Aita bisitan joan kontzentrazio-esparrura (ERR-029/001)**

Pontejosan (Kantabria) kontzentrazio-esparruan preso egon zeneko kontuak. Baserri moduko batean egiten zuten lo, eta eguna alemanekin pasatzen zuten. Preso zela, etxekoei gutun bat idatzi zien, eta aita bisitan joan zitzaion, baina ezin izan zuten elkar ikusi bisitak galaraziak zeudelako. Aitak arropa eta oilasko errea eraman zituen Jesusentzako. Mandatuak egiten zituen mutil baten bidez jaso zituen arropak Jesusek. Oilaskoa, berriz, mandatariak jan omen zuen ezin baitzen jatekorik sartu kontzentrazio-esparruan. Egunerokoan zer jaten zuten kontatzen du.

### **769. Kontzentrazio-esparruko jana eta arropa (ERR-029/002)**

Kontzentrazio-esparruan zer jaten zuten kontatzen du. Espainiarrekin baino hobeto jaten zuten alemanekin. Presoen arropak (uniformea) nolakoak ziren.

### **770. Arropa garbiketa eta zorriak (ERR-029/003)**

Kontzentrazio-esparruko eginkizunak: bonbak prestatu, arropa garbitu... Arropa garbitzeko hegazkinetako gasolina erabiltzen zuten. Gasolinarekin azkar garbitzen eta lehortzen zen arropa, eta zorriak hil egiten ziren. "Etxera etorri arte ez nuen zorririk kendu gainetik" dio Jesusek.

### **771. Pontejostik Santandergo La Magdalenara (ERR-029/005)**

Asturiasko ofentsibak iraun zuen bitartean egon zen Jesus Pontejosen (Kantabria). Frankistek 1937ko abuztuan hartu zuten Santander, eta urrian bukatu zen ofentsiba. Erasoaldia bukatu zenean, Santandergo La Magdalena jauregiko kontzentrazio-esparrura eraman zuten. Presoek zalditegian egiten zuten lo. Kaleak, Norteko estazioa eta Sardinero inguruak konpontzen aritu ziren. Jatekoa, "rantxuan".

### **772. Beste bi errenteriar ere preso (ERR-029/006)**

Jesusekin batera beste bi errenteriar egon ziren preso Santanderren: Florencio Juanikotena eta Antonio Astigarraga 'Kagantxo'. Konpainia ezberdinetan zeuden.

### **773. Urtebete pasa Santanderren (ERR-029/007)**

13-14 hilabete egin zituen Santandergo La Magdalena kontzentrazio-esparruan. Bonbardaketen ondorioz Santanderren puskatuta zeuden kaleak eta eraikinak konpontzen aritzen ziren presoak.

### **774. Hazteria (ERR-029/010)**

Hazteria (sarna) harrapatzen zuten presoak aparteko pabiloi batera eramaten zituzten. 'Zotal' izeneko garbikaria ematen zien hazteria (sarna) sendatzeko.

### **775. Familiarekin harremana, preso zela (ERR-029/012)**

Santanderren preso egon zen denboran, familiarekin gutun bidez komunikatzen zen. Bisitak jaso zitzaizkion, baina oso zaila zen (ez baitzegoen dirurik). Gertu bizi zirenek eta aberatsek jasotzen zituzten bisitak. Aukera zuten etxeoengandik paketeak jasotzeko (arropa, batez ere).

### **776. Santandertik Bilbora, Eskolapioetako kartzerala (ERR-029/013)**

Santandertik Bilboko Eskolapioetako kartzelara eraman zuten. Trenez egin zuten Santandertik Bilborako bidaia bost presok, Guardia Zibilak eskolatuta. Eskolapioetan urte eta erdi pasatu zuen. Epaitu gabe, zaintzapeko askatasuna eman zioten.

### **777. Zaintzapeko askatasuna (ERR-029/015)**

Jesus ez zuten epaitu. Bere kasua artxibatu egin zuten (causa sobreseída), eta, gero, zaintzapeko askatasuna ezarri zioten. 1939an bueltatu zen Errenteria-Oreretara, eta urtebetean Guardia Zibilaren kuartelera joan behar izaten zuen astero. Jesusek ez zuen herrian ibiltzeko baimenik (salvoconducto).

### **778. 1939an, herrira buelta (ERR-029/016)**

1939an Errenteria-Oreretara bueltatu zenean herriko egoera nolakoa zen azaltzen du. Lan gutxi zegoen, eta zegoen apurra frankistek eta soldadu ohiei ematen omen zien aurrena. Alabergako etxeak ere horrela banatu zituztela dio.

### **779. 1939ko Erreteria-Orereta (ERR-029/017)**

Preso egon ondoren, gurasoen etxera bueltatu zen. 26 urte zituen Jesusék. Ordutik aurrera hasi zen herria hazten.

### **780. Kanpotik jendea etorri (ERR-029/018)**

Gerraostean, kanpotik jende asko joan zen lanera Erreteria-Oreretara. Etxegintzan, portua egiten, lantegietan... lan asko zegoen. Beraun eta Iztieta auzoen sorrera aipatzen du. Lan ohiturei (ordu asko lanean) eta bizimoduari buruzko kontuak.

### **781. Gerra aurreko karnabalak (ERR-029/023)**

Reina zineman dantzaldia izaten zen karnabalean. Ordaindu egin behar izaten zen dantza egiteko. Gero, debekatu egin ziren karnabalak. Mozorroak alokatu eta saldu egiten zituen denda bat ba omen zen herrian. Kaleetan, txarangak ibiltzen ziren.

### **782. Espainiako bandera balkoietan (ERR-029/024)**

Herriko jaietan eta elizako ospakizunetan Espainiako bandera jartzen zuen jendeak balkoian.

### **783. Corpus Eguneko ospakizunak (ERR-029/025)**

Corpus Christi Eguneko ospakizuneei buruzko kontuak. Aldareak herriko zer tokitan jartzen zituzten aipatzen du. Portalak, tabernak, kaleak... maindire zuriekin estaltzen ziren. Debekatuta zegoen tabernetara joatea, karta-jokoan ibiltzea...

### **784. Sondikara, Langileen Batailoietara (ERR-029/026)**

Herrira bueltatu eta denbora batera, Langileen Batailoietara joateko deitu zuten Jesus. Sondikako abiazio eremura bidali zuten. Barrakoietan egon ziren.

### **785. Aita hil (ERR-029/027)**

Sondikan, Langileen Batailoietan zela, Jesusen aita hil egin zen. Aitaren hiletara joateko baimena eskatu zuen, baina 15 egun beranduago eman zioten baiezko erantzuna. Bi egun egin zituen etxekoekin.

### **786. Anaia gerran eta arreba pulmoniak jota galdu (ERR-030/002)**

Gerra Zibilak 20 urteko anaia ostu zion Euxebiren familiari; 25 urteko ahizpa, aldiz, pulmoniak. Euxebiren ahizpa etxean eduki zuten gaixorik, eta medikua etortzen zitzaien bertara, Oiartzundik. Ahizpa azkenetan zela, apaiza bertaratu zitzaien.

### **787. Heriotza osteko beila, meza, eta lur ematea. (ERR-030/003)**

Ahizpa hil zenean auzokoak joan zitzaizkien Zabalatarrei etxera, beila egitera. Zabalatarrak ere joaten ziren beila egitera, auzoan heriotzarik gertatzen bazen. Beila hildakoaren familiari dolua adierazi eta familiari animoak emateko izaten zen. Beilak gau osoa irauten zuen askotan, eta denbora tarte horretan, kafea hartu, kontuak esan eta erreztatu egiten zutela dio. Biharamunean, meza izaten zen eta gorpuari lur ematen zitzaion.

### **788. Hamar urterekin behi-aurrean (ERR-030/004)**

Hamar urte betetzerako, hamaika lan egina zen baserrian. Esaterako, behi-aurrean frankotan ibilia da, lurra goldatzen. Baita belarra biltzen edo lastoa erremolatxa eta arbi zatiekin nahasten ere... Berak dioen moduan, aziendaren "neguko bizitza" prestatzen.

### **789. Aita egur garraio (ERR-030/005)**

Euxebiren aitak egurra eramaten zuen Garmendia okindegira, sua egiteko. Egurra mendian bildu, eta egunean bi joan-etorri egiten omen zituen.

### **790. Donostiako kaleetan ibiltzen ohitua (ERR-030/006)**

Hamaika urte zituela ahizpa zaharragoarekin Donostiara joaten hasi zen, esnea partitzen laguntzera. Etxez etxe ibiltzen ziren, bezeroen erosotasunagatik, "parrokiari" eusteko. Euxebi esne partitzen hasi aurretik, Oiartzungo Altzibar auzoko txofer batek eramaten zituen Donostiara ahizpa eta inguruko beste hainbat baserritar, autobus txiki batean. Lan horietan hasi zenerako, aldiz, Erreterian tranbia hartuta joaten ziren Donostiara, mandoa zuhaitz bati lotuta utzita. Euxebi Gros auzoko kaleetan barrena ibiltzen zen batik bat; ahizpa, aldiz, alde zaharrekoetan.

### **791. Lezon ezkondu eta Lesakara bazkaltzera (ERR-030/008)**

Euxebik hamahiru urte zituela ezkondu zen haren seniderik zaharrena, baina bera ezkontzara joateko gazteegi, nonbait, eta mandoa hartuta Donostiara bidali zuten esne partitzera. Euxebik dio, bera ezkondu zen garaian gurasoak ez zirela ezkontza ospakizunetara joaten; ezkonberriak, amabitxi eta aitabitxia eta senideak joaten omen ziren. 1940. urtean ezkondu omen zen Euxebiren ahizpa, Lezoko Gurutze Santuaren basilikan, baina gose urteak zirela eta, Lesakara joan ziren bazkaltzera, han Erreterian edo Lezon baino hobeto emango zietelakoan.

### **792. Argindarra, ura eta su baxua (ERR-030/009)**

Gogoan dauka jostaketan ez zirela gehiegi ibiltzen. Argirik eta urik ez zen Trabalekun, eta ur bila egunean hainbat aldiz joan behar izaten zuten errekarra, marmita buru gainean hartuta itzultzeko gero. Argindarra Euxebik sei edo zazpi urte zituela ekarri zuten baserrira; indar eskasa, ordea. Sukalde "ekonomika" jarri zutenean, hamabi urte inguru izango zituen.

### **793. Belaztegiko amona Tomaxa irakasle (ERR-030/012)**

'Belaztegiko amona Tomaxa' esaten zioten emakume bat izan zuten irakasle Euxebik eta bere senideek. Jaunartzea egin arte aritzen omen ziren Tomaxarekin, arratsalde, eta dotrinaren arrimuan idazten, irakurtzen eta oinarrizko eragiketak egiten ikasi zuten, gutxi-asko.

### **794. "Gerra onena baino, bake txarrena hobeto da" (ERR-030/014)**

Gerra Zibila piztu zen garaian, Trabalekun ezarri zuten frontea bi bandoek. Euxebik gerraren oroitzapen gutxi du, baina dituen apurrak, denak txarrak.

### **795. Erreterian ezkondu eta Martutenera bazkaltzera (ERR-030/016)**

Ongi gogoan ditu bere ezkontza eguneko atzera-aurrera guztiak. Erreterian ezkondu zituen Don Robertok. Trabalekutik kalera oinez abiatu ziren, soinekoa eskutan, gero ezagun baten etxean arropak aldatu eta parrokiarantz abiatzeko asmoz. Ezkontza hamaiketarako hitzartuta izanagatik, goizeko mezara ere joan ziren senar-emazte gaiak, jaunartzeko, eta baraurik. Ezkondu eta gero, Martutenera bazkaltzera. Ezkontzeko soinekoa esne-partitzaile batek egin zion, bi urtez Frantzian jostun ibilitakoa. Euxebiri neurriak hartu eta manikira pasatzen omen zituen gero; lagun hark hala egiten zuen lan. Bi hilabetez ari izan omen zen esne-partitzaile donostiarra Euxebiren soinekoa josten, eta Euxebik lagundu egiten zion, tarteka.

### **796. Haimaika seme-alaba, denak etxean jaiok (ERR-030/017)**

Haimaika seme-alaba ditu eta guztiak etxean jaiotakoak dira. Lehena, ahizparenean, baina gainontzeko denak, Trabalekun, praktikantearen eta ahizpen laguntzarekin.

### **797. Praktikantearen lanak erditzetan (ERR-030/018)**

Umea jaiotatik praktikantearen bila joan behar izaten zen lehenik. Euxebirengana ez zen sekula berandu iritsi. Euxebik ez du inoiz analisirik egin haurdun egon den bitartean, eta guztia ongi joan izan zaiola dio, nahiz eta bi haur galdu. Praktikanteak erditzeten laguntzen zuen. Haurrari zilbor-hestea moztu, haur-laguna (ume-ondoa, plazenta) baztertu eta haurra garbi-garbi uzten zuen amaren besotan. Ostera ere egiten zuen etxera bisitarik, ama eta haur jaiotak berria zer moduz zeuden ikustera.

### **798. Edoskitzea, haurrak lehen bi hilak bete arte, egun osoz (ERR-030/019)**

Seme-alabei lehendabiziko bi hilabeteetan egun osoz eman izan zien bularra Euxebik. Bigarren hilabeteetik aurrera, ordea, lanean hasi ohi zen bera, eta haurrei etxeko behien esnea ematen zieten, tututik, Euxebi etxean falta zen garaian. Amaren laguntza izan du beti Euxebik haurrei kontu egiteko garaian, eta baita seme-alaba zaharrenean ere. Haurrak gaixotzen baziren, Erreteriarra zein Oartzunera eramaten zituzten. Sarna, eskarlatina, paperak edo eta txarranpina (elgorria) pasatakoak dira, besteak beste, Euxebiren seme-alabak.

### **799. Trabalekun ez da seme-alabarik bizi (ERR-030/021)**

Bere ustez gaur egun ez dago etorkizun handirik baserritik bizi nahi duenarentzat. Haimaika seme-alabetatik hamar ezkondata baldin baditu ere, bakar bat ez da baserrian geratu.

### **800. Garai batetik hona dena aldatu da (ERR-030/022)**

Bizitza asko aldatu da Euxebiren ustez, garai batetik gaur arte; jendearen izaeratik hasi eta lan egiteko modura. Auzolana gutxitu egin da.

### **801. San Juan Xarreraino mendiz mendi, batere giharretako minik gabe. (ERR-030/023)**

Ardiei kontu egitera bidaltzen zuten Euxebi, honek sei urte betetzerako. Hala ere, esneki gutxi egiten zuten ardi haien esnearekin. Igantziko San Juan

iturrira (San Juan Xarrera) abiatu ziren batean dastatu omen zuen mamia lehen aldiz.

### **802. Aranoko San Roke baseliza (ERR-030/024)**

Aranoko San Roke baselizaraino bi ordu eta erdi inguruko bidea zuten Trabalekutik, eta Euxebi hiru bider-edo joan zen haraino. Urtean behin ematen omen dute han meza, abuztuaren 16an. Bestalde, Munoaundiko errosarioak eta Txikiardiko diru-bilketak gogoan ditu Euxebik.

### **803. Erramu hostoa eta ur bedeinkatua (ERR-030/025)**

Euxebik gogoan du, gazteago zenean, trumoia entzun ordurako kandela piztu eta erramu hosto bat botatzen zela sutara. Ura, aldiz, Aste Santuan bedeinkatzen zuten, eta urtean zehar baliatu, etxean inor hiltzen bazen.

### **804. "Umeak beti berera jotzen du" (ERR-030/026)**

Barrez hasten da Euxebi haurrak zireneko bihurrikeriei buruz galdetuz gero. Ahal duela, umeak beti berera jotzen duela dio Euxebik, eta haren ustez, ez ikusiarena egin behar izaten da sarri hurrekin, eguna errieta ematen pasako baikenuke bestela. Kontu irrigarriak gogora etortzen zaizkion aldiro, barrez lehertu ohi dela aitortzen du Euxebik. Eta alferrik da saiatuta ere; ezin izaten dio eutsi. Behin, anaia txikiari barre egiteagatik jo zuen aitak. Euxebiren ustez, merezia izan zuen. Mezetan barregura sartu izan zaionetan ere ez du ederki pasa izan, esan bezala, berak ez baitu barrea saihesteko abilitaderik.

### **805. Haurrak gaizki eginez gero, kargu hartu behar zaio (ERR-030/027)**

Gaurko egunean helduekiko errespetu gutxi sumatzen du Euxebik haur askorengan. Ez da jotzearen aldekoa, hori ez. Baina bai gaizki egiten dutenean kargu hartzearen aldekoa, haurrak zuzen heztekotan, behintzat.

### **806. Oletan gizaseme asko eta emakume gutxi (ERR-031/003)**

Pilar hamar urterekin etorri zen Errenteriako Oleta baserrira bizitzera, izeba-osaben etxera. Bost seme zituzten Pilarren izeba-osabek eta aiton amonak ere Oletan bizi ziren. Artzain batzuek ere negua igarotzen omen zuten bertan. Makina bat talo erretakoa da Pilar, Oletan biltzen zen jende guztiarentzat. Izeba eta Pilar bera ziren Oletako emakume bakarrak eta lan asko egina dela kontatzen du.

### **807. Hamazazpi urte zituela ama azaldu (ERR-031/004)**

Errenteriako Oleta baserrian osaba-izebekin bizi zela, Pilarren ama azaldu omen zen, alaba erreklamatz. Hamazazpi urte zituen orduan Pilarrek, adin nagusitasuna erdietsi gabea, beraz, eta amarekin joan behar izan zuen, gogoaren kontra, Lesakara. Zortzi egun negar malkotan igaro ondoren, Oletara bidali zuten bueltan.

### **808. Soldaduen otorduak Ibarako plazan (ERR-031/006)**

Txikia zen Pilar gerra zibila piztu zenean, baina ongi gogoan ditu soldaduen otorduak, herriko plazan.

### **809. Hamar urte betetzerako lanean (ERR-031/009)**

Hamar urte betetzerako lana beltz egitea tokatu zitzaion Pilarri. Oheak egin, sutarako egurra garraiatu... Anaiordeen artean adinkiderik izan arren, ez zuen Pilarrek jostaketarako tarte handirik izaten. Errenteriara jaitsi behar izaten zuen ere, plazara, barazkiak saltzera.

### **810. Baserritik plazara karroan zein astoarekin (ERR-031/011)**

Pilar bakar-bakarrik jaisten zen Oleta baserritik Errenteriako plazara. Batzuetan karroan, astoarekin bestetan. Oletan, barazkiaz gain, fruta omen zen asko eta ona. Igandetean jende asko ibili ohi zela dio Pilarrek. Halakoetan egiten zituzten tratu onenak eta salmenta oparoenak.

### **811. Zekorrek esnea du pentsurik onena (ERR-031/012)**

23 urterekin ezkondu eta tratura plazara jaisteari utzi zion Pilarrek. Aziendarekin lanean aritzeari lotuko zitzaion gero, ordea, eta zekorrek hazten jardun zuen, senarrarekin batera. Egun utzita dituzte eginbehar horiek, pentsua ikaragarri garestitu zelako eta halako lanetan etekinik ez zelako. Pilarrek azaldu digu, bidenabar, zekorrek elikatzen ibili eta hiltegiara heldu bitarteko prozesua nola izaten zen.

### **812. Gaztetan adabakiak josten; ezkondu ondoren soinekoak (ERR-031/014)**

Errenteriako Olaziregi botikaren gaineko pisu batean ikasi zuen josten Pilarrek. Etekin handia atera zien ikasketa haiei, bai eta etxeko josteko makina zaharrari ere, alabei soinekoak josten baitzizkien, eta egun ere ibiltzen baita bateren zein bestearen gutuziak betetzen. Puntua egiten ere ikasi zuen, eta asko ibilia da horretan ere.

### **813. Ezkontzako dotea neska koskorretan prestatzen (ERR-031/015)**

Pilarrek gogoan du, izebek esaten ziotela, eurak neska koskorrek zirenerako hasten zirela dotea prestatzen. Izan ere, ezkongabe izatea ez baitzegoen ondo ikusia, eta denen burutan omen zegoen ezkontzea, noiz edo noiz. Pilarri osabak erosi omen zizkion doterako behar izango zituenak, Errenterian.

### **814. Soineko beltzarekin ezkondu (ERR-031/016)**

Errenteriako parrokian ezkondu zen Pilar. Senideak joan ziren bazkaltzera, eta lagunak bat edo beste. Soineko beltzarekin ezkondu zen Pilar.

### **815. Espartin eta abarkekin egunero (ERR-031/017)**

Espartinak laster urratzen omen ziren eta abarkekin gehiago ibilia da Pilar. Gogoan du, igandetean, mezetara joan behar zutenetan, baserritik Errenteria arteko bidea abarkekin egiten zutela, eta behin herrira ailegatuta oinetakoak nola aldatzen zituzten, elizan zapatekin sartzeko.

### **816. Gaizki hezitako haurra gurasoen errua da (ERR-031/019)**

Kezka handia azaltzen du Pilarrek egungo haurren heziketarekiko. Batere errespeturik gabe sumatzen ditu gazteak, eta gurasoak, sarritan, haurraren beraren beldur.

### **817. Zamalbide ingurua asko aldatu da garai batetik hona (ERR-031/020)**

Pilarren iritziz oso zaila dago gaur egun baratzeak ematen duena saltzetik bizitzea. Udalek diru asko eskatzen omen dute herriko plazan postua jartzeagatik. Gainera, egun, edonon dago barazkiak erosteko aukera, nahiz eta kalitateari erreparatuta, tokian tokiko baserrian ekoiztutakoa bezalakorik inon ez dagoen. Garai batean ez omen zen egungo errepide eta zubirik. Hala ere, Pilarren ustez, halakoak eraikitzearen kontra azaltzea alferrik omen da. Horiek altxatzeko dirua beti izaten da.

### **818. Egun ezin da baserriko lanari soilik emanda bizi (ERR-031/022)**

Etiket kanpo lana edukita, etxerako izaten dela baserriatik ateratzen den etekin murrizta, eta horrenbestean, tira. Baserriko lanari soilik emanda, aldiz, gaur egun bizimodua ateratzen oso zaila dela esaten du.

### **819. Heriotza asko denbora gutxian (ERR-031/024)**

Hogei urte betetzerako bost gorputz ikusi zituen Pilarrek etxetik ateratzen, hamar urteren gora-beheran. Kolore beltzeko arropak jantziz adierazten zen hildakoekiko dolua: lutoa.

### **820. Goiz jaikitzen ohitua eta siesta gutxi egindakoa (ERR-031/025)**

Zamalbiden eskurago izanagatik ere, goizeko seietako meza entzutera jaisten zen Pilar, Errenteriara, etxeko "martxak" hala eskatzen baitzuen. Goiz ibiltzera ohitua izanaz gainera, siesta gutxi egindakoa da Pilar. Izan ere, zerbitzari lanak eginda bizi izan da Oleta baserrian, hamar urte zituela Ibarrik Errenteriara bidali zutenetik. Hilabeteen bost duro eta eguneroko aterpea eta jatekoaren truke aritzen zen lanean. Behinola, aurreratutako diru guztia atera omen zuen aurrezki kutxatik gabardina bat erosteko, eta batere gabe geratu omen zen.

### **821. Aita armadaren kamioi batek jota hil zen (ERR-032/003)**

Aitak alanbre-fabrikan egiten zuen lan. 1939an armadaren kamioi batek buruan jo zuen eta bertan hil zen.

### **822. Alpargata-fabrikan lanean (ERR-032/006)**

Alpargata-fabrika batean egin zuen lan lehenengo Manuelek. Fabrika hura non zegoen azaltzen du. Han egindako alpargatak zapata-dendatan saltzen ziren.

### **823. Umetako jolasak (ERR-032/009)**

Umetan zer jolasetan aritzen ziren azaltzen du: "txorrotaina", futbolean, kanikatan, txoritan...

### **824. Umeak helduen gerrako portaera imitatzen (ERR-032/010)**

Umetan beraiek ez zuten izaten ika-mikarrik beste kaleetako umeekin; baina beste batzuen artean izaten ziren borrokak, gerrako portaerak imitatzen.

### **825. Ama esmalte-fabrikan lanean (ERR-032/011)**

Manuelen amak etxetik kanpo egin behar izan zuen lan aita hil zenean: esmalte-fabrikan hasi zen lanean orduan. Anai-arrebek ere laguntzen zioten amari etxeko garbitasuna egiten.

### **826. Don Pedro Indaberearen zigorrak (ERR-032/013)**

Herriko eskola publikora joan zen Manuel; han don Pedro Indaberea apaiza izan zuen maisu: hark jo egiten zituen ikasleak. Umeak jotzeko makilak baserritarrei eskatzen zizkien. Haren zigor batzuk aipatzen ditu. Dena erdaraz ikasten zuten.

### **827. Errekan arrainak harrapatzen (ERR-032/018)**

Errekan arrainak harrapatzen ibiltzen ziren eta horretarako zer tresna erabiltzen zuten eta non erosten zuten aipatzen du.

### **828. Eskolako hamaiketakoa (ERR-032/019)**

Lehen ez zegoen diru askorik. Eskolara hamaiketakoa eramaten zuten, eta bestela, 15 xentimorekin erosten zuten Pakiren dendan.

### **829. Futbolean jokatzeko zaletasuna (ERR-032/025)**

Manuel Luistarren kongregazioaren futbol-taldean hasi zen jokatzeko, gerora Irunen, eta azkenik Pasaian. Talde haietan jokatzeko zuenean, entrenamendu kaxkarrak izaten zituzten: nolakoak izaten ziren azaltzen du. Partiduak beste herri batean izaten zirenean, taldeak jartzen zuen hara joateko autobusa. Garai hartako botek eta baloiek ez zeukaten gaur egungoek bezalako kalitatea.

### **830. Taldeen arteko ika-mikak eta arbitroen erantzukizuna (ERR-032/026)**

Manuelek futbolean jokatzeko garaian ere izaten ziren borrokak. Behin arbitro batek Touring futbol-taldeko 4-5 jokalarik kanporatu zituen; partidua bukatutakoan, guardia zibilarekin atera behar izan zuen, jendea atzetik segika baitzuen harriak. Ika-mika handiak zeuden taldeen artean.

### **831. Futboleko jokalariek lehen (ERR-032/027)**

Futbolean jokatzeko zuenean, aurrelaria zen Manuel; jokalarien artean zer funtzio zeuden azaltzen du.

### **832. "Gutxiago bidaiatu eta egunkari gehiago irakurri" (ERR-032/034)**

Francoren aldeko hitzaldiak entzun behar izan zituzten gaztetan. Haietako batean gertatutako anekdota kontatzen du.

### **833. Aita Landarbasoko mendi-guarda (ERR-033/003)**

Maritxuren aita Landarbasoko aurrezki-kutxaren lurretako mendi-guarda zen. Zer eginkizun izaten zituen azaltzen du: iratzea, pinu sartzea, langileen jornalak...

### **834. Lur ospelak (ERR-033/004)**

Maritxuren aita Landarbasoko aurrezki-kutxaren lurretako mendi-guarda zen. Lur-sailei buruzko azalpenak: lur ospelak ziren, eta belarrak ez zuen indar handirik.

### **835. Gereziak saltzera Hernanira eta Donostiara (ERR-033/005)**

Baratzean biltzen zutena etxerako izaten zen. Maritxuren aitak fruta-arbolak txertatzen zituen. Gereziondo asko zituzten. Gerezi denboran, gerezia saltzen zuten Hernanin eta Donostian. Gerezi motak.

### **836. Joalea soroan, animaliak izutzeko (ERR-033/006)**

Azkonarrek eta azeriek artoa jaten zien. Haiek izutzeko, soroan joalea jartzen zuten, eta, somatzen zituztenean, etxetik lokarriarekin astintzen zuten. Txakurrekin eta zepoekin azkonarrak harrapatzen saiatzen ziren. Ohitura: animalia harrapatuz gero, inguruko baserrietara joaten ziren hura erakutsi eta trukean dirua jasotzeko.

### **837. Azerien erasoak (ERR-033/008)**

Azeriak oiloak harrapatzera joaten ziren gauetan.

### **838. Eskolara, komunio garaian bakarrik (ERR-033/009)**

Ahizpa zaharrena ez omen zen eskolan ibili, Abaltzizketako amonaren ikasi omen zuen. Gainerako anai-arrebak eskolan ibili ziren, baina komunio egiteko garaian bakarrik. 12 urterekin egin zuen komunioa. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten.

### **839. Eskolara, oinez (ERR-033/010)**

Tolare Berri eskolara joateko oinez ordubeteko bidea egin behar izaten zuten. Bazkaltzeko denboran, etxetik eramandako bazkaria tabernan berotzen zien.

### **840. Tolare Berri eskola (ERR-033/011)**

Tolare Berri eskolan zer ikasi zuen: matematikak, irakurtzen, dotrina... Dena erdaraz ikasten zuten. Maistra errenteriarra zen. Etxean, amarekin aritzen ziren irakurtzen. Maritxuren ama eskolan ibilia zen.

### **841. Umetako baserriko lanak (ERR-033/012)**

Neska kozkorretan baserriko zer lan egiten zituen aipatzen du. Behiei eta ardiei kontu hartzen, itulan, segarekin belarra mozten... Hasieran, izua ematen zion idi-parearen aurrean jartzeak. Akuilua erabiltzen zuten idiak eta behiak gobernatzeko.

### **842. Baztanga pasatu zuenekoa (ERR-033/013)**

Baztanga (viruela) pasatu zuenekoa kontatzen du. Sukarra, azkurea, eta granoak pasatu zituen. Ohean sartu aurretik, baserriko lanetan lagundu eta enkarguak egitera joan behar izan zuen.

### **843. Ezin josten ikastera joan (ERR-033/014)**

Baserriko bizimodua. Maritxuren aita lanean "fuerte" aritzen zen, eta beraiei ere ematen zizkien eginkizunak. Segan, behiekin bazka egiten, animaliak

gobernatzen... aritzen zen Maritxu. 17 urterekin josten ikastera joateko baimena eskatu zuen etxean, baina baserrian bere beharra zegoela eta ezin izan zuen joan.

#### **844. Neskame, Erreteriara (ERR-033/016)**

20 urterekin, baserriatik kalera jaitsi zen lanera. Erretereria-Oreretako Zumardian bizi ziren Otegitarren etxera joan zen neskame. Egunean bi ordu jostera joaten zen. Bere eguneroko eginkizunak zein ziren aipatzen du.

#### **845. Kanpoko bizitzaren berri jakin nahi (ERR-033/017)**

Baserria laga eta neskame joateak zer suposatu zuen berarentzat azaltzen du. Beti nahi izan zuen "kanpoko berri jakin".

#### **846. Josten ikastera (ERR-033/018)**

Otegitarren etxean neskame egon zen denboran, josten ikastera joaten zen Joakina izeneko jostun batengana.

#### **847. Hernanira, neskame (ERR-033/019)**

Otegitarren etxeko neskame lana utzi eta baserrira bueltatu zen. Amak esan zion etxetik hasteko kortea ikasten, baina lau ordu bidean behar zituen... Gauzak horrela, Hernanira joan zen neskame. Etxeko lanak egin eta bi ordu joaten zen josten ikastera.

#### **848. Usaskuko bilerak (ERR-033/021)**

Usaskun bilera izaten zen igandetan. Soinua izaten zen arratsaldetan. Taberna ere bazen. Usaskun erromeria egiteari utzi ziotenean, Fraideen etxean (Iturralde) izaten zen.

#### **849. San Antoniotan, Ereñotzura (ERR-033/022)**

San Antoniotan Ereñotzura joaten ziren. Jende asko biltzen zen festetan. Santuari bikotea eskatzera joaten ziren. Bere senarra izango zena nola ezagutu zuen kontatzen du.

#### **850. Dantza lotua (ERR-033/023)**

Dantza lotuan gutxi egiten zen, baina Erretereria inguruan hasiak ziren, Abaltzisketan ez (Maritxuk senideak zituen han). Kongregazio eta konfesio kontuak. Dantza eskeak nola izaten ziren.

#### **851. Erromeriatik etxera buelta (ERR-033/024)**

Amak etxera bueltatzeko ordua jartzen zion. Amarekin hitz egindakoak. Auzoko lagunekin bueltatzen zen etxera.

#### **852. Ilunpetan ibiltzearen gorabeherak (ERR-033/025)**

Ilunpetan linterna izorratu zitzaieneko pasadizo bat kontatzen du. Mendi-bidetan ibiltzeko argia behar izaten zuten. Goizean, seiretako mezara joaten ziren Ereñotzura. Farolak eta kandilak erabiltzen zituzten argia egiteko.

### **853. Ura eta argindarra (ERR-033/026)**

Baserrian, etxe barruan, ez zuten urik baina ehun metrora iturria zuten. Gogoan du argindarra nola jarri zuten baserrian. Aurretik, etxea argiztatzeko: farolak, kinkeak, argizariak...

### **854. Beheko sua eta jakiak (ERR-033/027)**

Sukaldean beheko sua zuten. Sukaldeko tresnak: eltzeak, pertzak... Jatekoa: talo asko jaten zuten. Arrautzak Hernanin saltzen zituzten, eta ateratako diruarekin azukrea, olio... erosten zuten.

### **855. "Ze ustek egunero izaten dala hemen oilua!" (ERR-033/028)**

Oiloa egosita jan ohi zuten; haren saldarekin zopa. Amari entzundako ateraldi bat kontatzen du. Oiloa ez zen eguneroko jakia izaten.

### **856. Babarrunak (ERR-033/029)**

Beheko sua egun guztian piztuta egoten zen. Babarrunak nola prestatzen zituzten azaltzen du.

### **857. Arropa garbiketa (ERR-033/030)**

Arropak non eta nola garbitzen zituzten azaltzen du. Gero, eguraldiaren arabera, kanpoan edo estalpean zabaltzen zuten arropa. Lagarto edo txinbo xaboiak erabiltzen zituzten. Lixiba non erosten zuten azaltzen du.

### **858. Haria eta galtzerdiak (ERR-033/032)**

Ardiaren ilearekin haria egiten zuen txaramilan Maritxuren aitak. Hari harekin amak galtzerdiak egiten zituen. Artilearen inguruko lanak: garbitu, kardatu ("txirribilatu")...

### **859. Abarkak (ERR-033/033)**

Behiaren larruarekin abarkak egiten zituen Maritxuren aitak. Behia nola larrutzen zen azaltzen du. Gero, larrua lehortzen utzi behar izaten zen abarkak egin aurretik.

### **860. 12 urterekin zapatak erosi (ERR-033/035)**

12 urte zituela, amak zapatak erosi zizkioneko oroitzapena. Ondo zaintzen zituen zapatak, pare bakarra zuen eta.

### **861. Ezkontza eta etxeko kontuak (ERR-033/038)**

18 urte zituela senargaia ezagutu eta 22 urterekin ezkondu zen. Errenterian ezkondu ziren. Ezkontzako trajea: bera josten ibili zen jostunak egin zion. Ezkontzerako etxea erosi zuten.

### **862. Gidabaimena atera (ERR-033/041)**

31 urte inguru zituela atera zuen gidabaimena Maritxuk, beste bi emakumerekin batera.

### **863. Landarbasoko kobazuloa (ERR-033/043)**

Landarbasoko kobazuloari buruzko kontuak. Amari entzunak.

#### **864. Aranora, irin bila (ERR-033/046)**

Errotak itxita zeudeneko kontuak. Aita eta ama gaez Aranora joaten ziren, irin bila. Etxean bazuten eskuzko errota bat artoa txikitzeko.

#### **865. Etxeko gaztak (ERR-033/047)**

Etxean gazta egiten zuten. Hiru gazta mota aipatzen ditu: "txarrokoa" edo eltzeko gazta (gazta-ustela), gogorra eta berria. Ardi-esnearekin egiten zuten gazta. Udaberri hasieran egiten zituzten gaztak.

#### **866. Gazta egiteko prozesua (ERR-033/048)**

Gazta nola egiten zuten azaltzen du. Ardi-esnea epeldu, arkumearen gatzagia bota eta nahastu egiten zuten. Mamia hartzen zuenean, gatz pixkat bota eta malatxarekin (gorosti egurrez egin) nahasten zuten berriz. Gero, eskuekin landu, labanarekin ebaki eta "zubitzean" estu-estu sartzen zuten. Eskuekin atxurtzen zuten gero. Ur beroa bota eta lehortzen uzten zituzten. Txurka: gazta jasotzeko pieza. Gaztari kolorea emateko: altza egurra.

#### **867. Taloa egiteko prozesua (ERR-033/051)**

Taloak nola egiten diren azaltzen du.

#### **868. 'Calzados Boni' eta alpargata tailerra (ERR-034/002)**

Joxe Santa Maria kalean bizi zen, 'Calzados Boni' espartin-dendaren ondoan. Alpargatak egiteko tailerrera Santxoenea kaletik sartzen zen. Dendako nagusiak zein ziren aipatzen du.

#### **869. Umetako jolasak (ERR-034/003)**

Umetan herriko plazan ibiltzen ziren jolasean. Lagunak aipatzen ditu. Umetako jolasak: kanikak, xiba, trapuzko baloiak, "a vainas"...

#### **870. Santa Klara kalea (ERR-034/005)**

Santa Klara kalea eta inguruak nolakoak ziren kontatzen du.

#### **871. Ferratokia eta euliak (ERR-034/006)**

Joxe bizi zen etxearen ondoan ferratokia zegoen. Baserritarrek ganaduarekin joaten ziren ferratokira, eta euli asko izaten zen inguruan. Amak ferratokira bidaltzen zuen euliak harrapatzera. Gero, euliak amutarako erabiltzen zituen osabak.

#### **872. Ferratokiko lanak (ERR-034/007)**

Joxe bizi zen etxearen ondoan ferratokia zegoen. Askotan joaten zen bertara nola ferratzen zuten ikustera. Ferratze-lanari buruzko azalpenak.

#### **873. Euli asko (ERR-034/008)**

Ferratokiaz aparte, etxeetan ere euli asko izaten zen. Kalean abere asko ibiltzen zen. Euliak harrapatzeko zintak.

#### **874. Korporazioa eta txistulariak (ERR-034/010)**

Igandetan, udal ordezkariak korporazioan joaten ziren mezara. Txistulariak eta 'Alkate soinua'.

### **875. Falangeko kontuak (ERR-034/012)**

Derrigorrezkoa zen falangera joatea. Joaten ez zenari lan ordu bat deskontatzen zioten. Joxeri nagusiak ordaintzen zion multa, eta tailerlean gelditzen zen.

### **876. Rosaren eskola (ERR-034/014)**

Eskolako kontuak. Rosaren eskolan ibili zen umetan. Neskek eta mutilek banatuta ikasten zuten. Maistrak jo egiten zituen.

### **877. Dotrina eta elizaren indarra (ERR-034/016)**

Eskolan eta elizan ikasi zuen dotrina. Garai hartako apaizak: don Markos eta don Felipe. Gaztelaniaz ikasten zuten dotrina. Elizara joaten ez zen familia bati buruzko aipamena. Konfeszatza joan behar.

### **878. 14 urterekin, lanean hasi (ERR-034/018)**

Joxeren osaba Elbuar elektrikako bazkide zen, eta hark bilatu zion lana Fermin Lesaka ebanisterian. 14 urterekin lanean hasi zen. Astegunean, hamar ordu egiten zituen lana: larunbatetan, zortzi.

### **879. Dibujoko klaseetara (ERR-034/019)**

Negu partean, lanetik atera eta dibujo ikastera joaten zen Biteri Eskolara.

### **880. Fermin Lesakarenean jarraitu (ERR-034/021)**

Aitaren lantegian lanean hasteko eskaintza egin zioten; baina, azkenean, Fermin Lesaka ebanisterian jarraitu zuen lanean.

### **881. Zigarroak eta basoerdiak (ERR-034/024)**

14 urterekin lanean hasi zen. Eskolatik atera eta lanera joaten zen. Ordurako, ordea, zigarroak erretzen eta basoerdiak edaten hasia zen.

### **882. Sagardotegiak (ERR-034/025)**

Errenteria-Oreretan sagardotegiak non ziren aipatzen du. Sagardotegiko giroari buruzko azalpenak. Jatekoa etxetik eramaten zuten. Tokan jokatzeko zuten: galtzen zuenak erronda ordaindu behar zuten.

### **883. 'La Bodeguilla' eta txikiteoa (ERR-034/026)**

Dibujoko eskolatik atera eta txikiteora joaten zen lagunetik. Biteri kaleko 'La Bodeguilla' tabernako zerbitzaria gustatzen zitzaion (gerora bere emaztea izango zena). Txikiteoko ohitura.

### **884. Soldata etxean entregatu (ERR-034/027)**

Soldata etxean entregatu behar izaten zen. Gero, amak paga ematen zion.

### **885. Goiko kaleko festak (ERR-034/029)**

Goiko kaleko festei buruzko kontuak. Su artifizialak, lasterketak eta bertsolariak izaten ziren.

### **886. Pasai Donibanera, dantzara (ERR-034/031)**

Andregaiia bilatu aurretik, Pasai Donibanera joaten ziren dantzara. Igandetan izaten zen dantzaldia, eta oinez joaten ziren hara. Gramola.

### **887. Tabernak (ERR-034/032)**

Sanjuandarrek kanturako ohitura zuten. Orduko tabernak: Kandido, Portu, 'Los Santos', 'Alto aquí'... Kakahueteak, algarrobak eta txufak.

### **888. Dantzarako zaletasuna (ERR-034/033)**

Igandetako Errenteriako dantzaldia. Antxora ere joaten zen dantzara. Mutilak joaten ziren neskengana dantza eskean.

### **889. Soldadutza Santanderren (ERR-034/034)**

Santanderren egon zen soldadu. Permisoak. Asistente moduan egon zen. Ebanista zelako hartu zuten.

### **890. Ebanista lanak (ERR-034/039)**

Ebanista lanaren garapena. Lan egiteko modua. Lan tresnak: sarjentak, zepiloak, trintxak, esku-zerra...

### **891. Nobio garaia (ERR-034/043)**

Nobio garaiko kontuak. Familiarekin harremana nola izaten zen. Elizaren eragina: ezkutuan ibili beharra.

### **892. Ezkontza eta eztei-bidaia (ERR-034/046)**

Oiartzungo parrokian ezkondu ziren. Gurutze Berrin egin zuten banketea. Eztei-bidaia: Donostia, Bilbo eta Santander bisitatu zituzten. Goiko kalean jarri ziren bizitzen.

### **893. Etxea bilatu (ERR-034/047)**

Bikote kontuak. Bizilagun batzuek eskaini zien etxebizitza, eta hara joan ziren elkarrekin bizitzera. Ohitura: logelak alokatzen ziren, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin.

### **894. Kanpotik jende asko etorri (ERR-034/048)**

Kanpotik jende asko etorri zen lanera. Galiziatik, Cácerestik... jende asko joan zen Errenteria-Oreretara. Etxe asko egin zen.

### **895. Garai bateko Errenteria-Orereta (ERR-034/049)**

Garai bateko Errenteria-Orereta nolakoa zen kontatzen du.

### **896. Esne-saltzaileak (ERR-034/050)**

Baserritarrak fruta saltzera jaisten ziren kalera. Esne-saltzaileak eramaten zien esnea etxea. Txerri-jana ematen zioten esne-saltzaileari: txerria hildakoan, odolkiren bat edo saiheski puska oparitzen zien.

### **897. Kanean gosea (ERR-034/051)**

Gerraosteko egoera du hizpide. Kanean, gosea pasatzen zuten. Baserritarrak hobeto moldatzen ziren.

### **898. Baratze koskorra (ERR-034/052)**

Gerraosteko egoera du hizpide. Kanean, gosea pasatzen zuten. Baratze koskor bat zuten: bainak, tomateak, letxugak... landatzen zituzten. Anaiarekin txufak landatu zituenekoa kontatzen du.

### **899. Errazionamenduko ogia (ERR-034/053)**

Gerraosteko egoera du hizpide. Errazionamenduko ogia: opil txiki bana izaten zuten jateko. Amak goizean ematen zien ogia.

### **900. Amak 40 kilo galdu (ERR-034/054)**

Gose denbora du hizpide. Fanderia aldeko baserri batera esne bila joan izan zen. Joxeren amak 40 kilo galdu zituen gose denboran.

### **901. Dolarea (ERR-034/057)**

Paraiso taberna izan zeneko lokalean dolarea zegoen lehen. Sagarrak erosi eta sagardoa egitera joaten zen jendea. Pitarra.

### **902. Denda eta negozioak (ERR-034/059)**

Herriko enparantza inguruan zer denda zeuden.

### **903. Txotxongiloak eta bertsolariak (ERR-034/061)**

Igandetan, txotxongiloak izaten ziren. Bertsolariak ere izaten ziren. Bertsopaperak salgai egoten ziren.

### **904. Komun publikoa eta iturria (ERR-034/062)**

Leku Zaharra taberna inguruko komuna eta iturra.

### **905. Asto tokia (ERR-034/063)**

Baserritarrek astoak non uzten zituzten kontatzen du. Herriko plazari buruzko azalpenak. Baserritar batek asto tokian gerrikoa nola jartzen zuen kontatzen du.

### **906. Amari buruzkoak (ERR-034/066)**

Amari buruzko kontuak. Hainbat etxe garbitzen egiten zuen lana. Osaba batek tuberkulosia zuen, eta Joxeren ama joaten zen hura zaintzera. Aitaren arreba baten haurra ere Joxeren amak hazi zuen.

### **907. Zaku eta Lepo buruhandiak (ERR-034/072)**

Herriko pertsonaia ezagun batzuetan oinarritutako buruhandiak egin zituzten Langileen Batailoietan ibilitakoek. Izenak: Zaku, Lepo...

### **908. Errenteriako erdara-girora ohitzen (ERR-035/005)**

Lezotik Errenteriara etorri zirenean, alde handia nabaritu zuten, auzoan erdaraz egiten baitzen gehienbat. Joxe Marik 12 urte bete bitartean, hala ere, dotrina euskaraz ikasi zuen eta horri esker euskara mantendu izan du. Gainerako ikasgaiak gaztelania hutsean egiten zituzten.

### **909. Aierbetarren eskolan ikasia (ERR-035/006)**

Aierbetarren eskolan ikasi zuen Joxe Marik, Faustinarekin hain zuzen ere. Ikasgelatan adin ugaritako ikasleak elkartzen zituzten, eta ez zen erraza izaten denak adi egotea aldi berean. Liburu bakarra erabiltzen zuten: entziklopedia. Idazteko idazluma eta tinta erabiltzen zuten.

### **910. Euskaraz egiteko lotsa (ERR-035/007)**

Auzoan eta eskolan erdaraz egiten zuten. Amaren baserrira joaten zenean ere, osabak esaten zion lehengusuekin erdaraz egiteko. Hika egitea gaizki ikusia zegoen, ijitoen hizkera omen baitzen.

### **911. Umetan baserri-giroko jolasak gustuko (ERR-035/011)**

8-10 urterekin, baserri alderako jolasetan ibiltzeko joera zuten: fruta lapurtzen, habiak bilatzen... 14 urterekin, zinera edo Touring ikustera joaten ziren. Fruta-arbolak baserri inguruetan egoten ziren, ez Pontika auzoan. Pekingo melokotoiak lapurtzea gustatzen zitzaaien gehienbat.

### **912. Aingirak harrapatu eta gero jan (ERR-035/012)**

Umetan errekez erreka ibiltzen ziren aingirak harrapatzen sardexkarekin. Kontuz ibili behar izaten zuten aingirak kosk egin ez ziezaien. Aingirak frijituta jaten zituzten gero etxean.

### **913. Arraina lapurtzen gose garaian (ERR-035/014)**

San Juandik kamioiak etortzen ziren Lezora arrain-kaxaz beteta, eta haietatik lapurretan ibiltzen ziren umeak.

### **914. Gose garaiko oroitzapenak barruan gelditu ziren (ERR-035/015)**

Gose garaian San Juanera joan ziren ama eta Joxe Mari patata bila, baina ez zieten ezer saldu nahi izan. Gose garaiko oroitzapenak barruan geratu zaizkio Joxe Mariri.

### **915. Goseari aurre egiteko moduak (ERR-035/016)**

Gose garaia errazago eraman zuten Pontikan, han baratze txiki bat baitzeukaten. Eskolako oporrak iristen zirenean, Joxe Mari amaren baserrira joaten zen; gogoan du zer jaten zuten han.

### **916. Mendira lanera etxeko jatekoarekin (ERR-035/018)**

Mendira joaten zirenean, zakote-ontzi bakarretik jaten zuten denek. Mendira etxean hildako txekorra eramaten zuten jateko. Lurra nola lantzen zuten azaltzen du.

### **917. Baserrian lana janariaren truke (ERR-035/019)**

Eskolako oporrak zirenean, amaren baserrira joaten zen Joxe Mari: han ondo jaten zuen, baina lana ere franko egiten zuen. Baserrian zer lan izaten zituzten aipatzen du.

### **918. Intsolazioa izan zueneko (ERR-035/020)**

Behin Joxe Mari baserrian lanean zebilela, intsolazioa izan zuen. Kalekoa izanda, ez zegoen ohituta hainbeste denbora eguzkitan pasatzen; eta gainera, ez ziren behar bezala babesten eguzkitik.

### **919. Fraileren lantegiko lan-prozesuak (ERR-035/023)**

Fraileren lantegian egin zuen lan eskola bukatutakoan: han baldosak egiten zituzten. Baldosak nola egiten zituzten azaltzen du: lan-prozesua eta materiala.

### **920. Fraileren lantegiko lan-baldintzak (ERR-035/024)**

Fraileren lantegian egiten zituzten baldosak etxegileek erosten zituzten. Joxe Mari peoi-lanetan aritzen zen, lan gogorak egiten zituen eta 13-22 urte zituen bitartean ibili zen han. Fraileren lantegiko bezero batzuk aipatzen ditu.

### **921. Fraideei adarra jotzeagatik jasotako errieta (ERR-035/026)**

Behin, Joxe Marik fraideei lantegitik adarra jo zieneko kontakatu du; errieta izugarria egin zioten gero lantegian.

### **922. Lehengo umeen heziera (ERR-035/027)**

Gurasoek errieta egiten ziotenean, ez zioten jotzen. Gaur egungo umeak lotsagabeagoak direla uste du. Behin Joxe Mari berandu iritsi zen etxera batere abisatu gabe; gurasoak kezka-kezka eginda zeuden eta aitak Joxe Mari jo zuen aldi bakarra izan zen hura.

### **923. Luzuriagan lanean hasi zenean, poliziaren galdeketa (ERR-035/029)**

22 urtera arte Fraileren lantegian ibili zen lanean, eta handik Luzuriagara joan zen lanera. Lan hura Jose Luis Lekuona apaizari esker lortu zuen; handik gutxira, ordea, poliziarengana joan behar izan zuen galdeketa batera.

### **924. Luzuriagan egindako lanak (ERR-035/030)**

22 urterekin Luzuriagan lanean hasi zenean, besteek sortutako zakarra biltzen ibiltzen zen; geroago, zulagailua erabiltzen ikasi zuen; handik artezteko makinara pasa zuten. Artezteko makina bakarra zegoen fabrika eta denetariko lanak egiten zituzten han, baina ez zuten nahi izan Joxe Mari lehen mailako ofizialen kategoriara igo.

### **925. Lan-baldintzak hobetzeko borroka (ERR-035/031)**

Luzuriagako lan-baldintzak oso gogorak ziren, eta borroka egin behar izan zuten hobetzeko. Lan-baldintzak hobetzen hasi zirenean, baina, lankide txarra tokatu zitzairen, eta azkenean Joxe Marik lana uztea erabaki zuen. Luzuriagan artezteko makinan egiten zuen lan eta makina hura 24 orduz egoten zen martxan; horren zergatia aipatzen du.

### **926. Sindikatu klandestinoen garaia (ERR-035/032)**

Lan-baldintzak hobetzeko borrokan aritu ziren garaian, sindikatuak klandestinoak ziren. Sindikatuen pankartak jartzen ari ziren gau batean guardia zibilekin topo egin zuten eta haiekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

### **927. Hodi-fabrikako lan-baldintzak (ERR-035/033)**

Luzuriaga 1966an utzi zuen, eta orduan hodi-fabrikari hasi zen lanean ofizial kargua zuela. Hodiak nola lantzen zituzten aipatzen du. Luzuriagan baino lan-baldintza hobekia izan zituen lantegi hartan hasieratik.

### **928. Errenteriaren ospea denboran zehar (ERR-035/035)**

Errenteriari "Manchester txikia" eta "Liverpool txikia" deitzen zitzaion duela 100 urte; izen horren zergatia aipatzen du. Gerora, ordea, ospea aldatu egin da eta herri gatazkatsua izatearen ospea hartu du. Azken hamarkadatan nahita azpimarratu izan dira Errenteriaren alde negatiboak.

### **929. Gerra hasi zeneko beldurrak (ERR-035/036)**

Gerra hasi zenean, Joxe Marik 3 urte zituen, baina gogoan du amaren beldur-aurpegia: bonbek nahi gabe baserri baten kontra joko ote zuten beldur zen.

### **930. Gabierrotako auzo-elkartearen sorrera eta hasierako ekintzak (ERR-035/039)**

Errenteriako Gabierrota auzoko auzo-elkartea sortu zuen Joxe Marik; hasiera hura nolakoa izan zen eta elkarteak egindako ekintzak zein izan ziren kontatzen ditu. Biteri eskolako ikasleen gurasoen elkartean ere parte hartu zuen.

### **931. Familiako ia denak Bilbora gerra garaian (ERR-036/002)**

Gerra hasi zenean, Aretxabaletan bizi ziren. Lehenengo, aita joan zen Bilbora; eta geroago, ama eta 3 seme-alaba; 4. semeak 2 urte zituen orduan eta neskamearen baserrian utzi zuten han zain zezaten. Aretxabaletatik Elorriora joan ziren mendiz.

### **932. Bilbo eta Durango pasa ostean, Garagartzara buelta (ERR-036/003)**

Gerra garaian Bilbon egon zirenean, kobazulo batean babesten ziren hegazkinen bonbatatik. Bilbotik Durangora joan ziren: han etxearen zelaiko "kobazulo" txiki batean babestu ziren Durangoko bonbardaketa izan zenean. Handik Garagartzara itzuli ziren, eta senideak familiartekoen etxeen artean sakabanatu ziren; beraien etxea hustuta zegoen.

### **933. Gerra ostean batetik bestera ibili zen Erreterian finkatu arte (ERR-036/005)**

Durangotik Garagartzara bueltatu zirenean, aita "Batallón de Trabajadoresen" egon zen; gerora, Ondarretako kartzelara eraman zuten eta 5 urte eman zituen han. Erreteriarra bizitzera joan ziren arte, Garbiñe ez zen bizi izan amarekin, osabarekin baizik. Osaba osasunez oso ondo ez zebilenez, Madrila joan zen hango ospitale batera; orduan Garagartzara joan zen Garbiñe, baina ez zuen denbora asko eman han. Handik Aztiriara joan zen lehengusu batzuen etxera eta 13 urte zituela etorri zen Erreteriarra.

### **934. Aztirian eta Erreterian ikasitakoa (ERR-036/007)**

Erreteriarra joan zenerako, 13 urte zituen. Aztiriako eskolan ikasi zuen lehenago Garbiñek, euskaraz; Erreteriarra iritsitakoan, Aierben eta Miren Gezalaren eta Isabel Albisuren eskolan ikasi zuen 16 urte bete zituen arte. Han zer ikasten zuten aipatzen du.

### **935. Aitaren lanagatik familia osoa Erreteriarra (ERR-036/008)**

Familia osoa Erreteriarra etorri zen aita kartzelatik atera ostean, Lanona enpresako zuzendari-lanetan hasi baitzen. Lanona fabrikan plantxak eta piezak egiten zituzten, besteak beste.

### **936. Erreteriarra etorritakoan nabaritutako aldea (ERR-036/009)**

Erreteriarra etorri zirenerako, 5 anai-arreba ziren. Garbiñerentzat aldaketa handia izan zen Aztiriatik Erreteriarra etortzea: hasiera batean, ia ez zekien erdaraz eta lagun gehienek ez zekiten euskaraz. Garbiñeren euskara, gainera, Arrasateko hizkera zen eta Erreteriarriko hizkeraren aldean oso desberdina zen; horri buruzko anekdota kontatzen du.

### **937. Aztiriako bizimodu zoriontsua (ERR-036/011)**

Erreterian bizi zen arren, ahal zuen guztietan Aztiriara joaten zen Garbiñe. Aztirian oso pozik bizi izan zen. Han ikasten ibili zenean, apaiza zuten maisu. Baserrietan bizi ziren inguru hartan, baina izaten zuten jolasteko denbora. Garbiñe beti kantari aritzen omen zen.

### **938. Mendian eta baserrian fruta biltzen (ERR-036/012)**

Aztiria mendiz inguratuta zegoen. Umetan, askotan ibiltzen ziren mendian fruta biltzera; behin liztor batek kosk egin zionekoa kontatzen du. Igandeetan, Bezperatara joaten ziren elizara; handik ateratzen zirenean, etxean fruta nahikoa eduki arren, Gabiria aldeko baserri batera joaten ziren fruta lapurtzera.

### **939. Arkumea maitea zuten (ERR-036/013)**

Baserrietan animaliak izaten zituzten Aztirian. Beraien baserrian behiak eta txerria izaten zituzten; baina auzokoek urtero arkume txiki bat oparitzen zieten. Arkume hura hiltzen zutenean, atsekabe handia izaten zuten; izan ere, txakurra bezalakoa zen, alde guztietara laguntzen zituen. Arkumearekin izaten zituzten abenturak kontatzen ditu.

#### **940. Errenteriara iritsi zeneko paisaia (ERR-036/014)**

Aztiriatik Errenteriara etorri zenean, alde handia nabaritu zuen. Garai hartako Errenteria oraingoa baino txikiagoa zen. Lehen zelaia zeuden gaur etxeak dauden lekuan, eta zelai haiei buruz hitz egiten du.

#### **941. Aita abertzalea (ERR-036/016)**

Garbiñeren aita gerra aurrean alkate izan zen Aretxabaletan PNVren aldetik. Gerra ostean ere abertzale izaten jarraitu zuen, baina ez zuen jendaurrean agertzen.

#### **942. Errenterian egindako lehenengo lagunak (ERR-036/017)**

Errenteriara iritsi zenerako, bertako neska bat ezagutzen zuen, Aztiriako apaizaren iloba baitzen. Lehenengo lagunak izenak aipatzen ditu. Josten eta bordatzen ikasten aritzen ziren. Han bordatu zituen bere ezkontzako arreorako maindireak.

#### **943. Lagunekin aisialdian (ERR-036/018)**

Lagunekin kalera irtetean, kalean gora eta behera paseatzeko ohitura izaten zuten. Neskak ez ziren inoiz sartzen tabernatan. Gaueko 10etarako etxean egon behar izaten zuen, baita mutil-lagunarekin ateratzen zenean ere.

#### **944. Mutil-lagunarekin hasi zenekoa (ERR-036/019)**

Udan Errenterian ostegunetan eta igandetan gramola izaten zen. 16-17 urte zituela hasi zen Garbiñe mutil-lagunarekin irteten kuadrillan. Geroago, bi bikote ibiltzen ziren elkarrekin.

#### **945. Lagunen artean egiten zituzten planak (ERR-036/021)**

Lagunak kuadrillan elkartzen zirenean, gertuko mendietara edo itsasaldera joaten ziren. Ez zuten ohiturarik Donostiara joateko. Errenterian, Alamedaren atzeko partean ez ziren ibiltzen, han beste giro bat baitzegoen: liberalagoa, aurreratuagoa.

#### **946. Euskaraz etxean bakarrik (ERR-036/022)**

Lagunartean dena erdaraz egiten zuten. Kalean dena erdara entzuten zen. Euskara etxerako uzten zen.

#### **947. Apaizak absoluzioa eman nahi izan ez zionekoa (ERR-036/023)**

Gazteak zirenean, Mariaren Alabak kongregazioa zegoen eta han arau batzuk zeuzkaten. Garbiñe apaizarengana konfesatzera joan zen batean, apaizak absoluzioa eman nahi izan ez zionekoa kontatzen du. Bekatua: zinean ikusi behar ez zuen pelikula ikustea.

#### **948. Arropa estreinatzeko egunak eta galtzak jantzeko pausoa (ERR-036/028)**

Arropa berria egun berezietan estreinatzen zuten: Madalenetan, Santu Guztien Egunean... Lehen emakumeak ez ziren depilatzen. Beti gonak erabiltzen zituzten neskek. Garbiñe mendira joateko jantzi zituen lehenengo aldiz galtzak.

### **949. Ezkontzako oroitzapenak (ERR-036/030)**

23 urte zituela, Joaquin Bengoetxearekin ezkondu zen Garbiñe;e. Erreterriako parrokiaren ezkondu ziren eta Panier Fleurin bazkaldu zuten. Familiakoak eta lagun gertukoak elkartu ziren ezkontzan. Ezkontzako soinekoa Pasaian egin zion jostun batek.

### **950. Senarrarekin izandako bizimodua (ERR-036/033)**

Senarrarekin beti erdaraz egiten zuen; umeak jaiotzen hasi zirenean, euskaraz hasi ziren egiten. Senarra Erreterriakoa zen. Ezkondu eta senarraren gurasoek zeukaten etxean jarri ziren bizitzen. Senarrak kamioiarekin egiten zuen lan, paketeak banatzen; geroago eskolako autobus-zerbitzua ematen hasi zen.

### **951. Erreterriako hiri-autobusa martxan jartzeko lanak (ERR-036/034)**

Senarra hil zitzaionean, Garbiñe;ek jarri zuen martxan hiri-autobusa Erreterrian. Hasieran autobus bat erosi zuten, eta harekin eta lehendik zuten autobus txikiarekin konpontzen ziren; pixkanaka autobus gehiago erosten joan ziren.

### **952. Hasiera gogorra hiri-autobusa jartzean (ERR-036/035)**

Erreterriako hiri-autobusa jarri zueneko hasiera oso gogorra izan zen: langileek ez zuten asko irauten. Ibilbidea, ordutegiak, geltokiak... dena zegoen egiteko eta Garbiñeri tokatu zitzaion hori dena egitea. Bide batzuk zuloz beteta zeuden eta hura konpondu arte denbora pasa zen. Hasieran jendeak ez zuten autobusa hartzeko ohitura. Lehen autobusak Pegaso enpresan erosten zituzten.

### **953. Hiri-autobusa aurrera ateratzeko trabak (ERR-036/036)**

Autobusen zerbitzua martxan jartzen hasi zenerako, Garbiñek 6 seme-alaba zituen eta ume-zaintzaile bat hartu zuen haiekin lagun ziezaion. Udalarekin harremana izan zuen Garbiñek lanagatik, baina garai batzuetan traba asko jarri zizkieten. Udaletxeko langileei buruz hitz egiten du. Autobus-geltokiak egitea Garbiñeren kontura joan zen.

### **954. Hiri-autobusak uzteko erabakia (ERR-036/037)**

Autobusen ibilbidea hedatzen joan zen pixkanaka. Udalak trabak jartzen zizkion Garbiñeri eta azkenean uztea erabaki zuen.

### **955. Autobusekin emandako zerbitzuak (ERR-036/038)**

Garbiñe;ek Erreterriako hiri-autobusaren zerbitzuaren ardura utzi zuenean, beste zerbitzu bat ematen hasi zen autobusekin: eskolatan, txangoetan... Semeak ere etxeko negozioan hasi ziren lanean orduan.

### **956. Autobusen enpresa aurrera ateratzeko jasotako laguntza (ERR-036/039)**

Garbiñe;eren hiru ume gazteenek ikastolan ikasi zuten. Autobusen munduan egin izan du lan Garbiñe;ek; koinatuak eta senarraren lagunek asko lagundu izan diote. Semeak hazi zirenean, lasaiago ibili zen Garbiñe;e, lagundu egiten baitzioten.

### **957. Giro mugitua Erreterian (ERR-036/046)**

Erreterian, mugimendu politiko asko egon izan da, iskanbilak. Garbiñek guardia zibilekin izandako gorabeherak kontatzen ditu. Zenbaitetan, autobusak puskatu izan dizkiote Erreteriarako iskanbiletan.

### **958. Soldadutza, Zaragozan eta Pirinioetan (ERR-037/001)**

Sindikatik (Langileen Batailoietan egon zen) Zaragozara joan behar izan zuen soldadutzara. Aurreneko hilabeteetan armarik gabe ibili ziren. Zaragozatik Pirinioetara joan ziren; Gironako partera. Menditik sartzen ziren makiei aurre egitea zen beraien eginkizuna. 1944an lizentziatu eta etxera bueltatu zen.

### **959. Lizentziatuta etxera (ERR-037/002)**

1937an preso hartu zutenetik, hainbat kontzentrazio-esparrutan, kartzelan, Langileen Batailoietan eta soldadu ibili zen Jesus. 1944an lizentziatu eta etxera bueltatu zen. Hasieran, kalera ateratzeko beldurra izan zuela dio: "konfiantza pixkat hartu arte". Herritik ateratzeko, baimena (salvoconducto) eskatu behar izaten zuen Irungo komandantzia militarrean.

### **960. Errazionamendu garaian, ogi falta (ERR-037/003)**

Hainbeste urte etxetik kanpo pasatu eta gero, etxera buelta nolakoa izan zen aipatzen du. Errazionamendu garaia zen. Ogi falta izan zuten. Iztieta erriberan txabola eta baratzea zuten, eta handik ateratzen zituzten bainak, babarrunak... Txerriak ere hazten zituzten.

### **961. "Kaputxinoetara" lanera bueltatu (ERR-037/005)**

Etxeratu eta berehala, lehengo lantegi berera itzuli zen lanera, "Real Compañía Asturiana de Minas"era. Bertan jarraitu zuen lanean erretiroa hartu arte. Sindikatu bertikala zegoen.

### **962. Peoi hasi eta laborategian bukatu (ERR-037/006)**

"Real Compañía Asturiana de Minas"en aritu zen lanean erretiroa hartu arte. Santandertik mineralak ekarri eta lantegian urtu eta tutuak, plantxak... egiten zituzten. Peoi lanetan hasi eta laborategian bukatu zuen Jesusek.

### **963. Laborategiko lana I (ERR-037/007)**

"Real Compañía Asturiana de Minas"eko laborategian zer lan egiten zituen kontatzen du. Mineraletako berun eta zink portzentajeak aztertzen zituen.

### **964. Laborategiko lana II (ERR-037/009)**

"Real Compañía Asturiana de Minas"eko laborategiko lana. Mineralek zenbat berun portzentaje zuten jakiteko mineralak nola funditzen zituzten azaltzen du.

### **965. "Real Compañía Asturiana de Minas"ko lan-prozesua (ERR-037/010)**

"Real Compañía Asturiana de Minas" lantegiko lan-prozesua. Minerala nondik etortzen zen, lana nola egiten zuten... Lantegiaren eraikin batean beruna lantzen zen, eta, bestean, berriz, albaialde eta mineo (pintura egiteko). Laborategiko lanerako, muturreko maskara eta mantala janzten zituzten.

### **966. Esnea, toxikoa kentzeko (ERR-037/011)**

"Real Compañía Asturiana de Minas" lantegiko kontuak. Lantegiaren eraikin batean beruna lantzen zen, eta, bestean, berriz, albaialde eta mineo (pintura egiteko). Beruna lantzen zuten langileek, nahi adina ardo eraman zezaketen (beraiek ordainduta). Eta pintura egiten aritzen ziren aldeko langileei, berriz, egunean litro bat esne ematen zien (lantegiaren kontura izaten zen). Esnea toxikoa kentzeko ematen omen zien.

### **967. Lanaldia eta soldata (ERR-037/012)**

"Real Compañía Asturiana de Minas"eko laborategian 10 urte egin zituen. Peoitzen aritzea baino lan garbiagoa zen laborategikoa. Laborategiko langileek lantegikoek baino ordu gutxiago pasatzen zituzten lanean. Larunbatetan lanera joaten ziren. Soldata kontuak.

### **968. Botoa ematera joateko, egun erdia jai (ERR-037/013)**

"Real Compañía Asturiana de Minas"eko kontuak. Lehen, hauteskundeak aste barruan izaten ziren, eta botoa ematera joateko lantegiak egun erdia jai ematen zien. Jesusek ez zuela botatu behar esan, eta bera bakarrik joan zen lanera. Gerora, langileek botoa ematera joateko jai hartu ahal izateko hautes-mahaiaren agiria erakutsi behar izan zuten justifikante modura.

### **969. CCOOeko afiliatu izateari utzi (ERR-037/017)**

Jesus CCOO sindikatuan egon zen afiliatua. Desadostasuna: CCOOek Moncloako Ituna sinatu zuen. Erabakia ez zen batzarkideekin batera hartu, eta bere desadostasuna erakusteko, Jesusek afiliatu izateri utzi zion.

### **970. Gabierrotako haur parkea eta futbol zelaia (ERR-038/002)**

Errenteriako Gabierrota auzoko "Laguntasuna" auzo elkarteak ofizialki zein urtetan formalizatu zuten kontatzen du Joxe Marik, bai eta Errenteriako lehenengo haurrentzako parkea eta Gabierrotako futbol zelaia nola sortu zituzten ere.

### **971. Auzo elkartekoak eta tailerretako langileak futboleko elkarren aurka (ERR-038/003)**

Errenteriako Gabierrota auzoko "Laguntasuna" auzo elkarteak harreman ona omen zuen auzoko tailerretako jendearekin. Izan ere, bizilagunak sarritan joan izan ziren tailerretara auzoko azpiegiturak asetzeko laguntza eske, eta tailerretatik erantzun ona jaso izan zuten beti.

### **972. Gabierrota auzoko jaiak (ERR-038/004)**

Joxe Mari ez da jaien antolaketan buru-belarri ibilitakoa, baina gogoan du Gabierrotako jaietan giro erdalduna zela nagusi, auzoan urte osoan zehar gertatzen zen bezalaxe. Joxe Mari gizartearekiko konpromisoaz ere mintzo da, eta arlo horretan, bereizketa egiten du bertako jendearen eta kanpotarren jarreraren artean.

### **973. Oso errealtate erdalduna zen Erreterian (ERR-038/005)**

"Laguntasuna" auzo elkarteko bilera guztiak gazteleraz egiten omen ziren. Euskaraz ez zekienarekin gazteleraz egin behar izaten omen zuen euskaldunak, elkar ulertuko bazuten, behintzat. Joxe Mariren esanetan, "Laguntasunak" Gabierrota auzoko elkarbizitzaren alde egin zuen ahalegina, eta ez zen bereziki euskararen alde egindako lanagatik nabarmendu.

### **974. Diktadura garaian Erreteriarako Udaleko zinegotzi (ERR-038/006)**

Joxe Mari bi urtez aritu zen Erreteriarako Udaleko zinegotzi lanetan, 1974 eta 1976 bitartean. Herriko elkarte guztien oniritziak babestuta onartu omen zuen kargua, hauteskunderik burutu gabe. Joxe Marik berak azaltzen digu zinegotzien hautaketa nola egiten zen garai hartan.

### **975. Ahalik eta alkate onena irudikatzen (ERR-038/007)**

Joxe Mari Erreteriarako Udaleko zinegotzi zen garaian Udal korporazioko kideek Erreteriarako alkateak nolakoa behar lukeen irudikatzeko ariketa egiten omen zuten, eta bat omen zetozen guztiak, balizko alkatearen profila definitzerakoan. Ez zien horrek gehiegi balio izan, ordea. Izan ere, zinegotziek ez baitzuten alkatearen izendapenean eragiteko ahalmenik.

### **976. Erreterian poliziarekin gatazkan (ERR-038/008)**

Urte gatazkatsuetan bete zuen zinegotzi lana Joxe Marik, eta Guardia Zibilaren gehiegikeriarekin behin baino gehiagotan egin omen zuen topo. Horren bi adibide kontatzen ditu: Lehendabizikoa, "Kaputxinos" esaten dioten auzotik, zubi baten eraikuntza medio, zinegotziei laguntza eske joan zitzaizkienekoa, eta bigarrena, atxilo hartu zuten gazte baten ama negar malkotan joan zitzaizenekoa.

### **977. Erreterian alkateak erregimenekoa behar zuen (ERR-038/009)**

Joxe Mari zinegotzi lanetan aritu denbora tartean, 1974tik 1976ra, alkate aldaketa egokitu zen. Ramon Mujika omen zegoen lehendik eta Julian Yuste jarri omen zuten gero. Udalen batean gai jakin batekin adostasunik izaten ez bazen, probintziako gobernadore zibilak hartzen omen zuen erabakia.

### **978. Hirigintza arazoak Erreteriarako Udalean (ERR-038/010)**

Hirigintza eta Kultura arloetan aritu zen Joxe Mari, Erreteriarako Udaleko zinegotzi izan zen garaian. Enrique Múgica Herzogekin topo eta talka egitea egokitu zitzaion, Joxe Mariren hitzetan hura abokatu lanetan baitzebilan, eraikitzaile zenbaiten defentsan, eta Udalaren kaltetan. Arazo asko izan omen zen Udalean, 70. Hamarkadan etxe asko eraiki baitzen Erreterian, eta eraikitzaileek eta haien abokatuek zaharkituriko legedietako hutsune legalak baliatuz jokatzeko baitzuten. Joxe Marik etxebizitza berrien baimen eta hornikuntza arazoak medio bizi izan zituen une larriak kontatzen ditu, eta nola Erreteriarako alkate Julian Yustek, alkatetzari uko egin zion Beraun, Alaberga eta Galtzaraborda auzoetako bizilagunek etxean urik ez zutela-eta egindako protestaldi batean, 1976. urtean.

### **979. Zinegotzi lanetik sosarik ez baina oturuntza ederrak bai, ordea! (ERR-038/011)**

Joxe Marik dio, zinegotzi izan zen garaian, soldatarik ez jaso arren sekulako oturuntzak egiten zituztela, eta maiz samar, gainera. Bestalde, bera lanean aritzen zen enpresan ez zioten kargurik hartzen zinegotzi lanak egitera irten behar baldin bazuen. Añarbeko urtegia eraikitzen ari zirela, hango lanak ikuskatzeko aitzakiarekin behinola egindako egun-pasa borobila kontaktzen du. Gosari ederra Susperregin lehenik, Añarben barrena perretxikotan ibili gero, Fagollaga jatetxean bazkari legea, eta amaitzeko, Erreterriako Gau Txori elkartearen, goizez bildutako onddoak afaldu omen zituzten. Horrelako egun-pasak ez omen zituzten maizegi egiten; hilabetearen behin-edo, soilik.

### **980. Auzo elkarteak elkartu Udalaren osaketan eragiteko (ERR-038/012)**

Erreterrian auzo elkarteek bat egiten omen zuten Udalaren osaketan eragiteko. Joxe Marik dio, Udalean beti izan dela interes pertsonalak defendatu izan dituen langilerik, eta horiek euren postuetatik kentzeko ahaleginean biltzen omen ziren auzo elkarteak.

### **981. Zinegotzi lanean "alderdien" eraginik ez zen nabaritzen (ERR-038/013)**

1974 eta 1976 urteetan zehar eginiko zinegotzi lana ez omen zegoen inongo korrante edo ideologi politikori lotua. Francoren heriotza eta gero kezka eta beldurra izan omen zituen Joxe Marik, arlo politikoa ziurgabetasun handia sumatzen baitzuen. Joxe Marik eta harekin zebilen Udal korporazio osoak karguak utzi eta hurrengo hauteskundeak ospatu bitarte Udalaren kargu egiteko sortu zen behin behineko komisioaren berri ere ematen du. Paula Casadok egin zuen komisio horren buru.

### **982. Eskolan irakurtzen, idazten, oinarrizko eragiketak egiten eta dotrina ikasi (ERR-039/003)**

Maitxok irakurtzen, idazten, oinarrizko eragiketak egiten eta dotrina ikasi zituen eskolan. Irakurri, gazteleraz egin izan zuten beti, ezer gutxi ulertzen bazuten ere. Eskolako materiala bertan geratzen zen beti; ez zegoen etxera eramaterik. Ezagutza mailaren baitan taldekatzen ziren ikasleak eta ez adinaren arabera. Eskolara joatea derrigorrezkoa ez izateak ikasten zuten eta ez zutenen arteko aldea areagotzen zuen, Maitxoren ustez. Amak interes berezia izan zuen bere seme-alabak eskolara joan zitezen, eta ahalegintzen zen horretan. Aitak, baserrian aritzeaz gain, etxetik kanpo ere egiten zuen lan, eta horrek lagundu zien Maitxo eta anai-arrebei eskolara joateko tarte gehiago hartzen.

### **983. Baserriko lanetan jo eta ke, Txikitari hasi eta ezkondu arte (ERR-039/004)**

Baserriko lanetan laguntzen goiz hasi zen Maitxo, bospasei urterekin eskolan hasi orduko. Hala ere, eta jostailurik ez izan arren, hartzen omen zuten jostaketarako astirik, gurasoek atsedean hartu bitartean. Kaniketari aritzeko, esaterako, haritzaren "kuskuluekin" jostatzen omen ziren, eta kromoekin ere aritzen zirela gogoan du Maitxok.

#### **984. Amonak oso bizitza gogorra (ERR-039/005)**

Arkaitza baserrian jaioa da Maitxo, eta baserri bereko alabak ziren ama eta amona ere. Maitxok amona ezagutu zuen; amaren ama. Oso bizitza gogorra izandako emakumea: bitan alargundua, semea gerran galdu zuen eta bakar-bakarrik atera behar izan zuen familia aurrera.

#### **985. Aita zentral hidraulikoko langile (ERR-039/006)**

Maitxoren aitak Aizpitarteko kobazuloetatik gertu zegoen zentrolean egiten zuen lan. Artikutzatik behera zetorren uraren indarra probestuz Donostia eta inguruak elektrizitatez ornitzeaz arduratzen zen zentrala.

#### **986. Mezetara Oiartzunera baina dotrina ikastera Erreteriarra (ERR-039/009)**

Mezetara joateko gertuago zuten Oiartzungo eliza Erreteriarra baino. Arkaitza baserria Erreteriarra lurretan egonik, ordea, Erreteriarra parrokia joan behar izan zuten dotrina ikastera. Oiartzungo eliza gertuago izanagatik ere, goizeko lau eta erdiak aldera jaiki behar izaten zuten igandetako lehen mezara iristeko.

#### **987. Mezetara joatea derrigorra zen (ERR-039/010)**

Maitxok gogoan du gaizki ikusia zegoela mezara berandu joatea, eta apaizak latinez esaten zuela meza, herriari bizkarra emanda. Mezara joatea, derrigorra zen orduan, eta gurasoek joatera behartzen zituzten.

#### **988. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen (ERR-039/011)**

Bera gaztea zela, oso gaizki ikusia zegoela emakumeak tabernara edo sagardotegira sartzea. Horregatik, harrituta geratu zen behin, Aranora joan eta hango emakumeak herriko tabernan atzera eta aurrera ikusi zituen.

#### **989. Sagardoa egiteko dolarea etxean (ERR-039/012)**

Maitxoren aitak dolarea eraiki eta sagastiak landatu omen zituen etxean, sagardoa egin ahal izateko. Pitarra egiten omen zuten: erdia sagar zukua eta beste erdia ura. Amonak, gainera, ez zuen urik edaten, haren lehendabiziko senarra mendiko iturri batetik ura edan eta tifusak jota hil zela pentsatzen baitzuen.

#### **990. Ordukoak, egungoak baino negu hotzagoak (ERR-039/013)**

Egungoak baino hotzagoak oroitzen ditu Maitxok txikia zeneko neguak. 1956koa gogoratzen du bereziki gogorra, izan ere, otsaila osoan zehar iraun baitzuen orma. Oiloen arrautzak jelatu eta lehertzerainoko hotza izan omen zuten urte hartan.

#### **991. Igandetan bazkaltzeko garbantzak (ERR-039/014)**

Igandeak bereziak izaten ziren Maitxo haurra zen garaian. Meza eta gero, erosketa edo enkarguak hartu eta baserrira itzultzen ziren, inguruko baserrietako auzoekin, berrietan. Hala ere, etxean egin beharren bat suertatzen bazen, berdin-berdin egiten zuten lan, jai eguna izan arren. Igandetan zein otordu izaten zituzten ere gogoan du Maitxok.

### **992. Azeria eta azkonarra baserritarren etsai (ERR-039/018)**

Azeriek oiloak eta arkumeak eramaten omen zituzten, sarri samar. Hargatik, uxaldiak antolatzen omen ziren, eta halakoetan ohikoa izaten zen azeria tiroz botatzea. Maitxoren esanetan, egun, azeria babestua dagoenez, ezin da tiroz jo, baina baserri eta etxeetan azaltzen jarraitzen duela dio. Azkonarrak, bestalde, arto sailak ondatzen omen zituen. Maitxok gogoan du azkonarra harrapatzea lortzen zutenak, animalia akabatu eta baserriaz baserri erakusten ibiltzen zirela gero, eta dirua ematen ziela jendeak, auzoari egindako mesedearen truk.

### **993. Argindarra ez zen Arkaitzara iristen (ERR-039/023)**

Hamabost-hogei urte bitarte izango zituen Maitxok argia Arkaitzara iritsi zenean. Ordura arte kandlekin, petrolioarekin edo karburoarekin konpondu ziren. Maitxok behin baino gehiagotan pentsatu izan du, ordea, haur zirelarik hartzen zuten arriskuaz, esaterako, baserriko ganbara belar lehorrez gainezka eduki eta hara kandela bat eskutan igotzen zirenean. Izan ere, amak kontatzen omen zien, eurak haur zirela, kandela mesanotxearen gainean piztuta ahaztu, lo hartu, eta sehaskak su hartu izan ziola. Bestalde, neguan, lehenago iluntzen duela, batetik, eta argindarrik ez zela, bestetik, goizago oheratzen zirela oroitzen du Maitxok.

### **994. Asteburutan Txikierdiko tabernan lanean (ERR-039/024)**

Hemezortzi urte inguru zituela, Txikierdiko tabernan aritu zen lanean. Goizeko seietako meza eta gero autoan eramaten omen zuten, eta bertan bilerak egiten zirenez, iluntzera arte aritzen zen lanean. Maitxok gogoan du basoerdiak eta freskagarriak edaten zirela gehien Txikierdiko bileretan.

### **995. Senargaiarekin egoteko lana utzi (ERR-039/025)**

Maitxo lanean hasi zenerako, gerora senar izango zuen gizona ezagutzen zuen jada. Hala ere, astean zehar ia ezin zuten elkar ikusi eta asteburutan lanean segituz gero, aste osoa igarotzen zen elkarren berri jakin gabe. Txikierdiko tabernan lanean lau urte egin eta utzi egin zuen Maritxok, azkenerako.

### **996. "Lehen apaizaren eta egun medikuaren mende bizi gara" (ERR-039/026)**

Senargaiarekin hasi eta inguruan sumatzen zituen aholku eta gomendioei buruz galdetuta, elkarrizketa egin zitzaion garaitsu horretan Maitxok Jose Luis Gorrotxategi bertsolariari entzundako arrazoi bat etorri zaio gogora: "Lehen apaizaren eta egun medikuaren mende bizi gara." Eta Maitxoren ustez, egia borobila da hori. Izan ere, Maitxok aitortzen du, gazte garaian konfesatu behararen eta apaizaren mehatxuaren beldur bizi izan zirela. Gaur egun ez da harritzen elizaren gainbehera ikusita, eta eliz-gizonei egozten die, gauzak diren bezala ez erakutsi izana.

### **997. "Brodatzeta beti gustatu izan zait" (ERR-039/027)**

Ezkon-bizitzari ekiteko prestatu zuen dotetik izararen bat edo beste ba omen du estreinatu gabe. Gerora ere, brodatzen aritu omen da, betitik gustatu izan zaiolako, batetik, eta bestetik, eskolaz kanpoko klasetan ikasi zuelako, mojekin.

### **998. Arkaitzan erlauntzak daude egun (ERR-039/030)**

Arkaitza baserrian, Maitxoren jaiotetxean, erlauntzak zituen anaiak elkarrizketa garaian. Maitxo oso gustura itzultzen da jaiotetxera eta erle artean lanean aritzeko batere arazorik ez duenez, han ibiltzen da, ezta egin dezaten behar den hartan lagunduz.

### **999. Errenteriakoa baina oiartzuarren kutsua hizkeran (ERR-039/032)**

Maitxori eta bere anai-arrebei beti esan izan diete oiartzuarren kutsua dutela hizkeran. Oiartzuarrek, aldiz, sumatzen zuten alderik euren eta Arkaitzakoek egiten zuten hizkeraren artean.

### **1.000. 'Berria'ko harpidedun (ERR-039/033)**

Euskara batua ulertzeko batere arazorik ez du Maitxok; izan ere, 'Berria' egunkariko harpidedun dira etxean 'Egunkaria'koak ere baziren), eta euskal prentsa irakurtzen du. Hasieran kosta egin zitzaioala dio, baina behin ohitu eta gero, ez du erdarazkoaren beharrik.

### **1.001. Zapirain anaiak (ERR-040/001)**

Zapirain Anaiak Bertsopaper Lehiaketa antolatzen da Errenterian. Juan Krutz Zapirain eta Joxe Zapirain bertsolarien omenez. Joxe Mariren aitona zen Juan Krutz.

### **1.002. Brabanteko Genobebaren bizitza bertsoan emana (lehen zatia) (ERR-040/002)**

Juan Krutz Zapirain bertsolaria Joxe Mariren aitona zen, eta Brabanteko Genobebaren bizitza bertsoan eman zuen; hori du bere lanik ezagunena.

### **1.003. Brabanteko Genobebaren bizitza bertsoan emana (bigarren zatia) (ERR-040/004)**

Juan Krutz Zapirain bertsolaria Joxe Mariren aitona zen, eta Brabanteko Genobebaren bizitza bertsoan eman zuen; hori du bere lanik ezagunena. Joxe Marik bertso sailari buruzko xehetasunak ematen ditu. Amona Mikaelak, Juan Krutzen emazteak, alegia, senarrak kantatutako bertso guztiak idatzi zituen paperean; ehun eta hirurogeita hiru, hain justu.

### **1.004. Juan Krutz Zapirainen bertso asko gerra garaian galdu (ERR-040/005)**

Gerra garaian izaten ziren erregistroetan eramanda galdu omen zen Juan Krutz Zapirainen bertso asko eta asko.

### **1.005. Juan Krutz Zapirain bertsolariaren bizitzari buruzko zenbait datu (ERR-040/006)**

Azken Portun jaio zen Juan Krutz, Maria Lezo kale inguruan nonbait, baina Bordaxarren bizi ziren berez. Izan ere, Juan Krutzen ama herriko ezagun baten etxera jaitsi zen erditzera. Juan Krutzek hiru bat hilabete besterik ez zituela galdu zuen ama.

### **1.006. Joxe Mariren berraitona eta guardia zibilak (ERR-040/007)**

Joxe Marik gogoan du Juan Krutz Zafirainen aitak, anaiaren hilketa medio guardia zibil bikote batekin izandako tira-bira.

### **1.007. Joxe Zafirain bertsolaria (ERR-040/009)**

Joxe Marik Joxe Zafirainen ditxo batzuk gogora ekarri eta kontatzen ditu. Bizitza gogorra izan zuen Joxe Zafirainek: gazterik alargundu zen eta semeak hilak zituen.

### **1.008. San Markotik Ondarretara preso (ERR-040/010)**

Gerra Zibila pizturik zela, Joxe eta Juan Krutzen sendi osoa Bordaxarreko sukaldean bazkaltzen ari zen batean, San Marko gotorlekuko soldaduak bertaratu eta bederatzi semeak eta aita eraman zituzten. Haietatik lau, Ondarretako presondegian sartu zituzten; lau horietatik bi, Jose Antonio eta Jose Ramon, hil egin zituzten gero. Joxe Marik dio Jose Ramonen hil aurreko lau bertso hunkigarri badaudela "Zafirain Anaiak" liburuan bilduta. (Auspoa liburutegia, 123-124-125)

### **1.009. Joxe Zafirainen bertsoak biltzen (ERR-040/011)**

Anaia Juan Krutzen moduan, Joxe Zafirainek ere ez zekien idazten. Aitzondo baserriko Maria Pilarrek eta Joxeren seme batek, Manuelek, jaso omen zituzten idatziz Joxe Zafirainen bertsoak. Aita (Antonio) Zabala ere ibili omen zen haren bertsoak biltzen, batetik bestera, Auspoa Saileko liburua argitaratzeko. Hala ere, Joxeren bertso asko galdu da, Joxe Mariren esanetan.

### **1.010. Joxe Zafirain apaizari erantzuten (ERR-040/012)**

Aste Santuan, gogo-jardunak egitera jaisten omen ziren baserritarrak Errenteriara, eta beraz, baita Joxe Zafirain bera ere. Joxe Marik kontatu digunez, pulpitutik ari zen apaizak haren gustukoa ez zen zer edo zer esanez gero, Joxek behetik erantzun egiten omen zion, inguruko guztiek aditzeko moduan.

### **1.011. Joxe Mariren aita 'Txirrita'rekin bertsoan (ERR-040/014)**

Joxe Mariren aita, Juan Krutz Zafirainen semea, alegia, bertsozalea omen zen eta bertsoan aritzen zena. Joxe Marik kontatu digunez, behin batean, Errenteriako Azken Portu auzoko "Masti-berri" tabernan kantatu omen zuten elkarrekin Joxe Mariren aitak eta Joxe Manuel Lujanbio Txirritak.

### **1.012. Azken Portun eta Pontikan jostatzen (ERR-040/016)**

Egungo Maria Lezo kalean bazen Azken Portu izeneko baserri bat, garai batean auzoari izena eman ziona. Pontika auzoa, aldiz, gaur egun ere bada, oraindik ere. Inguru hartan jostatzen omen ziren umetan Joxe Mari eta haren lagunak.

### **1.013. Errenteriako ikastolako gida-batzordean (ERR-040/018)**

Errenteriako ikastolako gida-batzordean aritu zen Joxe Mari. Hasera batean hiru urtetarako konpromisoa hartu bazuen ere, laugarren bat bete zuen gero. Eraikuntza lanez arduratu zen batez ere Joxe Mari, eta bera aritu zen garaian, Anabitarteko eraikuntza tamainaz bikoiztu eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat bi eraikuntza berritik altxa zituzten.

### **1.014. Perretxiko biltzaile amorratua (ERR-040/019)**

Berastegin egindako oporraldi batean bildutako onddo handi batek piztu zuen Joxe Marirengan mikologiarekiko zaletasuna, eta 1976. urtetik Aranzadi Elkarteko kide da. Errenterian antolatu izan du erakusketa mikologikorik.

### **1.015. Pilotarako zaletasuna (ERR-042/005)**

Eskupilotan jokatzen zuten umetan pareta baten kontra; gero eskua handituta edukitzen zuen. Consuelori asko gustatu izan zaio beti pilotan jokatzeari. Erraketarekin jokatzen hasi zenean, erraketak nolakoak ziren azaltzen du; mutilen kontra jokatzen zuen, eta mutilek pala izaten zuten orduan. Frontoia nolakoa zen aipatzen du.

### **1.016. Erreparazioko mojekin ibilia (ERR-042/006)**

17 urte zituela, Donostiako Erreparazioko mojekin hasi zen ikasten eta hogeitaka urte bete arte egon zen han. Hango ordutegia azaltzen du: arrosarioa errezatu, antzerkia... Errenteriako neska batzuk joaten ziren hara.

### **1.017. Umetatik esku-pilotan jokatzen (ERR-042/009)**

Umetatik jokatu izan du pilotan Consuelok. Eskupilotan jokatzen zuenean, eskuan ez zuten ezer jartzen eta eskua handitu egiten zitzaion.

### **1.018. Pilotan jokatzeke janzkera (ERR-042/011)**

Pilotan jokatzeke zer janzkera izaten zuen azaltzen du.

### **1.019. Mugaren beste aldetik ekartzen zuen jeneroa (ERR-042/013)**

Frantziara pilotan jokatzeri joaten zenean, hainbat gauza pasatzen zituen kontrabandoan: alkohola, arrautza, ogiak, kafea, azukrea, patatak, botikak... Mugaz bestalde pasatzeko pausoak aipatzen ditu. Erosketak egin eta ez zioten ezer esaten muga pasatzean hasiera batean; gerora, mugatu egin zizkioten erosketak.

### **1.020. Eskola publikoan gustura ikasi zuen (ERR-042/015)**

Eskola publikoan ikasi zuen eta oso ondo egon zen. Hainbat maistra eduki zituen eta haien izenak aipatzen ditu. 16-17 urtera arte joan zen eskolara.

### **1.021. Arrosarioak eta barruko arropa egiten (ERR-042/017)**

Arrosarioak egiteko zer material behar izaten zuen aipatzen du: Jesusen bihotzak, gurutzeak, kateak, perlak eta alanbreak. Arrosarioak egiteko prozesua nolakoa izaten zen aipatzen du. Bularretakoak ere egiten zituen lehen kakorrazarekin. Barruko arropa saltzeko erabiltzen zituen lemak gogoan ditu.

### **1.022. Txistua jotzen abila (ERR-042/033)**

Txistua jotzen du.

### **1.023. Barazkiak eta esnea kalez kale saltzen (ERR-043/004)**

Barazkiak eta esnea saltzen zituzten kalean. Zazpi urte ingururekin hasi zen ahizpa zaharrenari kalera laguntzen. Astoa erabiltzen zuten garraiorako. Esmalteria plazaren atzealdean zegoen ukuiluan lagatzen zuten lotuta eta kalez kale saltzen ibiltzen ziren. Enkarguak ere jasotzen zituztenez, etxetik irteterako guztia salduta egoten zen.

### **1.024. Saiburu bertsolariari txanda-pasa ferratokian (ERR-043/006)**

Saiburu bertsolaria ferratokiko bidean atzetik aurrera pasa zueneko anekdota kontatzen du.

### **1.025. Irabazitako diru apurra bestelako jakiak erosteko (ERR-043/010)**

Barazkiak eta esnea saltzen irabazitako dirua, etxerako bestelako jakiak erosteko erabiltzen zuen. Soberan ez zen dirurik sekula geratzen. Errazionamenduko ogia anaia zaharrenak eramaten zuen, gainontzekoentzat taloak egiten zituzten etxean.

### **1.026. Eskuz garbitzen ziren arropak errekan (ERR-043/011)**

Argindarra betidanik ezagutu izan duen arren, Morrontxo baserrian ez zegoen urik. Errekan garbitzen zituzten arropak.

### **1.027. Jaiero musika Erretereriako plazan (ERR-043/014)**

18 urterekin ezagutu zuen Erretereriako plazan bere senarra izango zena. Igandero egoten zen musika bertan. Astea zehar ere, gramolako musika entzun zitekeen. Senarrak begia baino, bista botako ziola dio isekari.

### **1.028. Baserriko lanetan laguntzeko erabiltzen zuen senargaiaren bisita (ERR-043/015)**

Morrontxora joaten zen senargaia baserriko lanekin laguntzera. Orduko gazteak ez bezala, paseoan edo dantzan ez ziren sekula ibili Balentina eta Pedro (senarra).

### **1.029. Ezkontzea eta esposatzearen arteko desberdintasuna (ERR-043/016)**

Ezkontzeko aitari ez zion baimenik eskatu beharrik izan. Ordurako burua makal zuela kontatzen du. Aurreztutako diru apurrarekin, Erreterian ezkondu zen Balentina. Ezkontzea eta esposatzearen arteko desberdintasuna azaltzen dio elkarrizketatzaileari ironiaz.

### **1.030. Soldauen kamioiean eraman zuten bataiatzera (ERR-043/023)**

1936. urteko uztailak 25ean jaio zen. Soldadu kamioi batean eraman omen zuten Lezoko elizara bataiatzera. Izan ere, Erreteriako eliza, gerrarako munizioz beteta zegoen eta bertan ezin zitekeen elizkizunik ospatu. Anaia eta ahizpa zaharrena izan ziren aita-ama pontekoak. Hurrengo haurren erditzean hil zen bere ama. Orduan ere, soldaduen kamioia erabili zuten gorpuak garraiatzeko.

### **1.031. Anaia zaharrenak soldadu zegoela izan zuen amaren heriotzaren berri (ERR-043/024)**

Balentina bataiatu eta hurrengo egunean eraman zuten anaia zaharrena, 17 urterekin, gerrara. Soldadu zegoela izan zuen hark amaren heriotzaren berri. Nola gertatu zen kontatzen du.

### **1.032. Orduko bizimodua txakurrek ere ez dute merezi (ERR-043/025)**

Orduko bizimodua oso gogorra zen. Gauza onik ez zitzaioela sekula gertatu dio. Balentina Lezora ezkondu zenean esaterako, bi kotxe baino ez zeuden. Orokorrean, luxu gehiegi sumatzen du gaur egun. Orduko bizimoduarekin alderatzerik ez dago oraingoa.

### **1.033. "Bizitzak ez dit niri ezer irakatsi; nik neuk ikasi behar izan dut" (ERR-043/027)**

Nekea eta lana egon dira bere bizitzan etengabe. Bizitza etsipenez datorren bezala hartzen ikasi du batez ere.

### **1.034. Eroski sortu zenekoa (ERR-044/007)**

Gipuzkoan lehen kooperatiba txiki asko zeuden; Caja Laboralek denak batu zituen eta Eroski sortu zuten orduan.

### **1.035. Lehengo eta oraingo emakumeak uste baino antzekoagoak (ERR-044/008)**

Emakumeek lana utzi egin behar izaten zuten ezkontzen zirenean. Bazegoen modu bat lanean jarraitzeko, baina garai hartan Luixitak ez zuen aukera hori aprobe txatu. Erreterian emakumeak ohituta zeuden etxetik kanpo lan egiten. Gaur egun emakumeari buruz esaten direnei hitz egiten du eta lehengo bizimoduarekin alderatzen du.

### **1.036. Lehengo bizimoduari buruzko uste okerrak (ERR-044/009)**

Lehengo bizimoduari buruzko uste okerreari buruz hitz egiten du: lehen Erreterian ez zen hain arrunta seme-alaba asko edukitzea. Berak 6 seme-alaba izan zituen 5 urtean, baina ez zen ohikoa.

### **1.037. Antisorgailuei buruz asko hitz egiten zuten (ERR-044/010)**

Lehen asko hitz egiten zuten antisorgailuei buruz lagunen artean. "Errezetak" ematen zizkioten batak besteari eta bazekiten nola gal zitekeen umea.

### **1.038. Umeek benetan ematen dituzten gastuak (ERR-044/011)**

Hurrek ez dute ezer eskatzen: maitasuna eman eta gosea kendu behar zaie. Umeak hazteko gastuak helduek bilatzen dituzte, baina ez dira behar-beharrezkoak. Gaur egun guraso izateko moduari buruzko iritzia ematen du.

### **1.039. Haurdun dauden emakumeekiko errespetua (ERR-044/013)**

Lehen haurdun zeuden emakumeei barre egiten zitzairen, "bekatua" egin zuela agerian baitzegoen. Behin Luixitak bere semeari garbi azaldu zion zergatik ez zen barre egin behar horrelakoetan.

### **1.040. Lehengo janaria eta oraingoa (ERR-044/016)**

Igandetan feria izaten zen Foruen plazan: emakume itsu bat etortzen zen biolinarekin tangoa jotzera. Feriako giroaz hitz egiten du. Asto-tokiak non zeuden azaltzen du. Lehen janaria naturala eta bertakoa zen; gaur egungoak ez du zaporerik haien aldean.

### **1.041. Erreterriako eskolak (ERR-045/001)**

Gaztea zenean Erreterrian zein eskola zeuden kontatzen du Luixitak: "herriko eskola", "mojak", "do&ntilde;a Rosa"ren eskola, "Aierbekoa", "las canarias"... Irakasle batzuen izenak ere gogoratzen ditu: don Pedro, don Adolfo, se&ntilde;orita Gloria...

### **1.042. Bezperatara joan ordez, zinera. (ERR-045/002)**

Luixitaren aitak bere alabak jai arratsaldetan bezperatara joan zitezela nahi izaten zuen. Amak, zinerako dirua ematen zien, ordea.

### **1.043. Haurtzaro askea Gaztainon (ERR-045/004)**

Luixitak Erreterriako Gaztaino auzoan pasa zuen ia haurtzaro osoa, hiru urterekin aldatu baitziren hara, Biteri kaletik. Txikitan gaizto porrokatuak zirela onartzen du. Gainera, ez omen zen Luixitari korrika gailenduko zitzaionik. Etxeko lanekin lotura zuten jolasak ez zituen maite, baina kaniketan eta beste hainbat jolasetan jostatzen ziren, askatasun handiz, beti ere, Gaztainoko inguruak aproposak baitziren horretarako.

### **1.044. Baserriko lanak ikasi baserritar izan gabe (ERR-045/005)**

Luixitaren etxeko sotoan animaliak zituzten eta gogoan du arkume bat haztera ere iritsi zirela, biberioia emanda. Baratzea ere bazuten, eta txikitatik ikasi zuten hango lanak egiten, aitak erakutsita. Txitak arrautzetatik atera aurretik etxeko sutondora eramaten zituzten, eta han jaiotzen omen ziren guztiak.

### **1.045. Gabonetan Gaztainotik Madalen kalera Olentzerorekin (ERR-045/006)**

Luixitak betidanik ezagutu izan du Olentzero Gabonetan. Gabon gauean, bost Olentzero inguru jaisten omen zituzten Gaztainotik herri gunera, Madalen kalean barrena eskean ibiltzeko asmoz, euren auzoan dirurik ematen ez zutelako. Gerra garaian, Olentzero debekatua egonagatik, Luixita eta bere lagunek herrira jaisten jarraitu zuten, Olentzero eta guzti, eta aguazilengandik ihesi ibiltzen omen ziren. Gurasoek ere parte hartzen zuten halakoetan, Olentzeroak garraiatzeko egituren prestaketa lanetan laguntza emanaz, batez ere.

### **1.046. Txerri-hiltzea (ERR-045/007)**

Bi edo hiru urtez hil omen zuten txerria etxean. Luixitaren aitak gehiagotan ez egitea erabaki zuen, errentagarri ez zitzaiela eta.

### **1.047. Erreterian oiloak balkoietan (ERR-045/008)**

Gerra garaian jende askok gosea pasa zuela diosku Luixitak, eta kalean bizi zirenek, baserritakoek baino gehiago. Erreterian, baserritik jaitsitako jende ugari bizi omen zen kalean, eta etxeak balkoia bazuen, normala omen zen animaliairen bat edukitzea bertan. Baratzeak ere nonahi prestatzen ziren, baimena lortuz gero. Gaztainoko etxe gehienetan, baserriak ez izanagatik, baserriko lan martxa eramaten zutela dio Luixitak.

### **1.048. Bizilagunen arteko hartu-emana (ERR-045/009)**

Oso harreman ona zen Gaztainoko auzoen artean, eta asko laguntzen zuten elkar. Luixitak dio, lehenbiziko "komuna komunista" han ezagutu zuela berak.

### **1.049. Koltxoiak leihoetan; Azkoitira ihesi (ERR-045/010)**

Bost urte inguru izango zituen Luixitak gerra piztu zenean, eta orduko oroitzapen konkretu batzuk soilik ditu gogoan: soldaduak auzora heldu zirenekoa eta Azkoitira joan zirela ihesi, amonarenera.

### **1.050. Aitak 'Garmendia' okindegiko lana utzi (ERR-045/011)**

Luixita haurra zela, aitak Erretereriako Garmendia okindegian egiten zuen lan, "Alamedan", baina nagusiekin izandako desadostasun batzuk bitarte, haserretu eta lan hura utzi egin zuen. "Villaverde" okindegian hasi zen lanean gero, eta hantxe aritu zen erretiroa hartu arte.

### **1.051. Luixita poz-pezik joaten zen eskolara (ERR-045/012)**

Bost urterekin hasi zen Luixita eskolan, pozik, eta gogoan du irakurtzen ikasteko erabiltzen zuten metodologia. Berak oso azkar ikasi omen zuen, amak zein amonak egunero eramaten baitzuten egunkaria etxera.

### **1.052. Kanturako sena eta zaletasuna (ERR-045/013)**

Ama Azkoitiko abesbatzako abeslari eta aita oso bertsozalea omen zituen Luixitak. Zenbait kanta gogoan ditu, bai eta hainbat bertso-doinu ere. Ezin du jasan jendeak edozein modutara kantatzea.

### **1.053. Hamabi urte bete arte eskolan (ERR-045/014)**

Denetarik egiten omen zuten eskolan, eta antzerkiak eta kantuak ditu bereziki gogoan Luixitak. Behin hamabi urte beteta, haur-zain joateko utzi behar izan zuen eskola. Hala ere, ez zitzaion lan hori gustatzen eta Niessen fabrikan hasi zen lanean.

### **1.054. Hamalau urte bete eta Niessen fabrikan lanean hasi (ERR-045/015)**

Behin hamalau urte beteta fabrikaz fabrika lan bila hasi zen Luixita. Lan-txandatan aritzen ziren lantegitan sartu ahal izateko, ordea, hamasei urteak beteta eduki behar izaten zen. Urte betez bila ibili ondoren, Azkenerako, aitaren bitartez, Niessen fabrikan sartzea lortu zuen, eta Luixitaren atzetik bere bi ahizpak ere bertan lanean hasiko ziren gerora. Luixitaren fabrikako eginbeharrak taladroari lotutakoak izan da beti. Fabrikan gizonezkoak eta emakumeak aritzen ziren arren, berezita zeuden batzuen eta besteen lanak eta soldatak.

### **1.055. Lehen greba eguna, Hamabost urterekin (ERR-045/016)**

Lehen greba eguna egitea hamabost urterekin egokitu zitzaion Luixitari, eta etxean geratzea baino gehiago ez zuen egin, graba bera zer zen ez baitzekien. Gerora, baina, delegatu sindikal izan zen eta konturatzen hasi, berak dioen bezala, langilea bera dela askotan langileriaren etsairik handiena.

### **1.056. Gurean kanpotarrak etorkinari kargu hartzen dio (ERR-045/017)**

"Prima" bidezko lana zer zen azaltzen digu Luixitak, eta baita etorkin izateari eta herri batean sustraitzeari buruz duen iritzia ere.

### **1.057. Etorkinen bizi-baldintzak Erreterian. (ERR-045/018)**

Gogoan ditu Luixitak bere lankide izandako hainbat kanpotarren bizi-baldintza gogorrak. Soldatak euren jatorrizko herrietan utzitako familiei bidaltzen zizkieten, eta hala, euren ezer gutxi geratzen zitzaien Euskal Herrian bizitzeko.

### **1.058. Gurasoek galleta-fabrikan egiten zuten lan (ERR-046/002)**

2 urterekin hasi zen eskolan lantzeki, Gurutzeko Alabekin; izan ere, gurasoek galleta-fabrikan egiten zuten lan. Gose handia pasa zuten etxean gerra ostean: amak fabrikatik lapurtzen zituen galletak etxerako; izeba bat galletak lapurtzen harrapatu zuten eta kalera bidali zuten.

### **1.059. Gurasoak lanean eta beraiek eskolan (ERR-046/004)**

Umetan gutxi ikusten zituzten gurasoak. Arratsaldean eskolatik irtetean, Goiko kalera joaten ziren eta han egoten ziren ama lanetik irten arte. Asteburuetan aita ile-apaindegian egiten zuen lan gizona ilea mozten.

### **1.060. Inakiren aitonen ezizenak (ERR-046/005)**

Inakiren aitona aldarea zeukan parrokan eta horregatik Jaungoiko maitia ezizena jarri zioten. Beste aitona gauzaina zen, eta Inazio naparra deitzen zioten. Aitak prozesioko figurak eramaten zituen.

### **1.061. Txorizale amorratua (ERR-046/009)**

Aitonak 3 baratze zeuzkan; aitak txoriak eta untxiak zeuzkan. Hortik etorri izan zaio lñakiri txoriekiko zaletasuna: eduki izan dituen txori motak aipatzen ditu. Txoriak nola hartzen zituen azaltzen du. 18 urterekin hasi zen txoriak hartzen.

### **1.062. Mojekin eta Aierbetarrekin ikasia (ERR-046/011)**

Umetan Gurutzeko Alabekin ikasi zuen eta gero Aierbe anai-arreben eskolara joan zen. Aierbetarrak irakasle onak ziren. 12 urterekin eskola utzi zuen, epileptikoa zelako. 14 urterekin lanean hasi zen.

### **1.063. Alemaniara joateko arrazoiak (ERR-046/016)**

Alemaniarra lanera zergatik joan zen azaltzen du. Berekin batera nor joan zen aipatzen du.

### **1.064. Alemaniatik itzultitakoan, lana bilatzeko arazorik ez (ERR-046/021)**

Alemaniatik itzultitakoan, ez zuen arazorik izan lanik topatzeko. Azkenean, Paisan hasi zen berriro lanean 1966an eta 55 urterekin erretiroa hartu arte han egin zuen lan.

### **1.065. Emaztearekin musika-akademian erakusten (ERR-046/022)**

Paisa lantegian lan egiten zuen bitartean, emaztearekin musika-akademian klaseak ematen zituen. 20 ikasletik gora izaten zituzten akademian. 40 urte zituela hasi zen solfeo oinarrizko gauzak erakusten. Akademian pianoa erakusten zuten gehienbat.

### **1.066. Musika-akademiako ikasleak (ERR-046/024)**

Solfeoarekin hilean 5 pezeta kobratzen zituzten hasieran, eta geroago 10 pezeta. Orereta ikastolako ikasleak etortzen ziren gehienbat; 4 urterekin hasten ziren etortzen. Jende heldua ere etortzen zitzaien.

### **1.067. Kupel Tokin elkartzeko ohitura (ERR-046/031)**

Lehen zumardian sagardotegi bat zegoen eta han elkartzten ziren "los veinte del Kupel Toki": haien izenak aipatzen ditu. Han elkartu eta berriketan aritzen ziren. Sagardoa ez zen urte osoan izaten, sagardo garaian bakarrik baizik.

### **1.068. Erretereriako sagardotegiak (ERR-046/033)**

Lehen Erreterian zeuden sagardotegiak aipatzen ditu. Kupel Tokin sagardo garaian zer jaten zuten aipatzen du. Parranda handiak bota izan dituzte.

### **1.069. Olentzero ateratzen hasi zirenekoa (ERR-046/036)**

12 urte zituela atera zuten Olentzero lehenengo aldiz Erreterian. Orduan zer kanta abesten zituzten aipatzen du. Luistarren lokalean entseatzen zuten.

### **1.070. Juanitaren lehenengo soldata (ERR-049/007)**

Hamabi pezeta hileko izan zuen lehenengo soldata. Ordu batzuk sartu behar izan zituen lanordutik kanpo, ezkontzeko arreo edo ezkonsaria ordaintzeko lain aterako bazuen, josten baldin bazekien ere, ez baitzuen brodatzea maite.

### **1.071. Aldea zegoen Erreneriako eta Lezoko dantzaldien artean (ERR-049/008)**

Lan asko eginagatik, noizean behin ateratzen zuen denbora dantzara joateko. Batzuetan Erreneriako zumardian edo "alameda"n bertan antolatzen ziren dantzaldietara joaten zen lagunekin, eta beste batzuetan inguruko herriren batera. Errenerian dantza molde guztiak omen ziren libre, Lezon ez, ordea.

### **1.072. Gaztelera nagusi Erreneriako kaleetan barrena (ERR-049/009)**

Juanitaren gazte garaian kalean gaztelera zen nagusi eta euskaraz hitz egiteari "pellada" esaten zitzaion.

### **1.073. Aita abertzalea (ERR-049/010)**

Aita abertzalea zuen Juanitak eta sarritan joaten ziren batzokira. "Pospolina" izan zen Juanita, batzokiko dantza taldean, eta gerra aurreko urteetako oroitzapen goxoa gordetzen du.

### **1.074. "Pospolin" garaiko doinuak (Txori polita) (ERR-049/011)**

Juanitak "pospolin" moduan ibili zeneko doinuren bat edo beste badu gogoan, tartean "Txori polita" delakoa, baina oroitzapenak nahasita dituela dio. Izan ere, berak dioen moduan, haur izatetik heldu gisa jokatzera azkarregi igaro behar izan zuten, eta ahantzi egin zituen haur garaiko hainbat kontu.

### **1.075. Gerra piztu eta Erreneriatik Bilbora (ERR-049/012)**

Juanitak ongi gogoan du gerra piztu zenekoa. Familia osoak egin zuen alde Bilbora, Pasaiaiko portuan ontziratuta. Aita gudari joan zitzaien eta Bilbon, etxe onean egokitzeko zortea izan zuten, "Villa Egileor" zelakoan. Handik Sopuertara joango ziren gero.

### **1.076. Bonbardaketa arriskuaren aurrean tuneletara (ERR-049/013)**

Bonbardaketen mehatxua jasanezina zela kontatzen du Juanitak. Amona bera Bilbon bizi izan ziren hilabeteetan hil zitzaien, eta ehorzketa egunean ere korrika irten behar izan omen zuten hilerritik.

### **1.077. Erreneriara itzuli bezain laster aita preso eraman zuten (ERR-049/014)**

Ongi gogoan du Juanitak, Erreneriara itzuli eta egun gutxira, guardia zibil bikote batek aita preso nola eraman zuen, gauerdian, Ondarretara. Astean bitan joan izan zitzaion aitari bisitan, bai eta sarritan bakarrik joan ere, atxilo egin zituen lau urtetan zehar. Gaur da eguna, Donostiara maiz joanagatik ere, barrenak Ondarretara gerturatzen uzten ez diona. Eaterako, bertan dela jakinda ere. Juanitak ez du sekula bertatik bertara ikusi Eduardo Chillidaren "Haizearen orrazia".

### **1.078. Aitaren lagun aberatsa eta Erreneriako Arbelaiz harategia (ERR-049/015)**

Juanitaren aitak, ziega berean preso zegoen lagun aberats bat egin omen zuen Ondarretako kartzelan. Irundarra omen zen laguna eta, Gabonetan, haren familiak emandako turroia jaten omen zuten kartzelan. Gogoan du, bestalde,

Errenteriako Arbelaiz harategikoek nola laguntzen zituzten zailtasun ekonomikoekin zebiltzan hainbat eta hainbat familia.

### **1.079. Nolakoa zen Ondarretako kartzela (ERR-049/016)**

Lehenik, bisitarien otarre eta halakoak gainbegiratzeko gunea omen zen. Sarrera handi bat ere gogoratzen du Juanitak. Aita hirugarren solairuan zela ere oroitzen du, eta harengana korrika joaten zirela, barrote artetik "atta, atta"! deika.

### **1.080. Gerra garaiko eta gerra osteko otorduak (ERR-049/017)**

Gerra garaiko eta gerra osteko errazionamenduak ezagutu zituzten.

### **1.081. Kozinatzea gustuko eta josten jardun behar (ERR-049/018)**

Nahiago luke Juanitak gaztetan sukaldeko lanetan aritzeko aukera eduki izan balu. Jostea ez zuen gustuko, baina horretan aritu behar, diru apur bat irabaziko bazuen.

### **1.082. Ezkon aurretik eta ondoren konfesatzea ez zen gauza bera (ERR-049/019)**

Juanita kexu da bere gazte garaian emakumeak oso mugatuta zeudelako. Zinemara bakarrik joatea, tabernetan sartzea, mutilekin ibiltzea... Gaizki ikusiak zeuden guztiak, emakume batek eginez gero. Neska eta mutilen arteko ezkontza aurreko musua ere bekatu omen zen. Juanitak eta haren lagunek eman ematen zituzten, ordea, nahiz eta gero konfesatzera ziztuan abiatu behar izan. Barrez oroitzen ditu kontu horiek Juanitak, baina aldi berean onartzen du, konfesatu beharra traumatikoa izan zela beretzat, gazte garaian behintzat. "Ejercicios espirituales" delakoekin eta misioekin ere akordatzen da, saio haietan pulpitutik zuzentzen zitzairen fraide argal batekin, bereziki. Sexu hezkuntza urria jaso zutela ere kontatzen du, eta haren faltan, pikardia nagusi zela dio.

### **1.083. 'Auxilio Social' eta 'Servicio Social' (ERR-049/020)**

Auxilio Social delakoan Cara al Sol kantatu beharra izaten zuten. Biteri kalean omen zegoen egoitza eta behar zuenari jaten ematen omen zioten. Juanita sarritan izan zen bertan. Servicio Social, aldiz, derrigorrezkoa omen zen ezein baimen mota lortu nahi zuen ororentzat. Hala ere, Juanitari ez zitzaion azken honetara joan beharrik egokitu.

### **1.084. Etorkin asko Errenteriara (ERR-049/021)**

Ondartxo eta inguruetan zelaiak eta baratzeak nagusi ziren garaiak ezagutu zituen Juanitak. Gero, etxeak eraiki eta galiziar ugari etorri omen zen Errenteriara.

### **1.085. Ezkondu eta lana utzi (ERR-049/024)**

Ezkondu eta lana utzi behar izan zuten Juanitak eta haren inguruko emakume askok, mila pezeta jasota.

### **1.086. Ezer gutxirekin pozik (ERR-049/025)**

Jostailu eta gailu gutxi ezagutu zituen Juanitak bere haurtzaro eta gaztaroan. Oparirik txikiena ere asko estimatzen zuten.

### **1.087. Errenteriako eta inguruko herrietako hizkerak (ERR-049/026)**

Errenteriako, Lezoko eta Donostiako hizkerak antzekotzat jotzen ditu. Hondarribikoak beste "kanta" bat duela dio, eta ingurukoetatik, Oiartzungoa izan zaio beti ulertzen zailena. Tolosa aldekoarekin ere sumatzen du alderik. Bere hizkerari erdal kutsua ote darion pentsatzen du. Hala ere, berak egiten duen euskara eta ilobek egiten dutena asko gustatzen zaizkio.

### **1.088. "Sociedad de Tejidos de Lino" ehundegiko lana (ERR-050/014)**

Maritxu ehundegi batean aritu zen lanean, "Sociedad de Tejidos de Lino" izenekoan, nahiz eta bere garaian kotoiarekin aritzea gehiagotan egokitu. Goizeko seietan hasi eta arratsaldeko ordu biak arte aritzen zen, zortzi orduko txandan. Lanean euskara hutsean aritzen omen ziren eta emakume gehiago zegoen gizona baino.

### **1.089. Hileta ospakizunak eta dolua (ERR-050/017)**

Hileta ospakizunen ostean, bederatziruarenean eta urte bete igarota ere elizkizunak ospatzeko ohitura omen zen.

### **1.090. Zinea eta antzerkia (ERR-050/018)**

Errenteriako Onbide zinemara joaten ziren tarteka, baita Donostiara ere, antzerkia ikustera, tranbia "txuria" hartuta.

### **1.091. Aiton-amonen baserrira (ERR-050/019)**

Umetan sarritan joaten omen ziren aiton-amonen baserrira, gurasoek hango lanetan lagundu behar izaten zuten eta.

### **1.092. Etxean erditu eta haurrak berehala bataiatu (ERR-050/020)**

Don Jose Gantzarain omen zen Errenteriako praktikantea, etxerik-etxe emakumeei erditzen laguntzen hainbat aldiz ibilitakoa. Haurra jaio eta berehala bataiatzeko ohitura omen zen, zer gerta ere.

### **1.093. Apaizari errespetu handia (ERR-050/021)**

Inor gaixotzen bazen, apaiza gaixoaren etxera joaten omen zen bere laguntzaile eta guzti. Gaixoaren etxerainoko bidean gurutzatzen zituzten guztiek, haur zein helduek, belaunikatu egin behar omen zuten, apaiza aurretik igaro arte.

### **1.094. Lehenengo irrati eta telebistak (ERR-050/023)**

Etxeko lehen irratiak anaiak ekarri zuen. Bestalde, Maritxuk ez du iritzi onik telebistari buruz.

### **1.095. Soldata osorik etxera (ERR-050/024)**

Astean hogeita lau pezeta irabazten zuen Maritxuk fabrikan lanean hasi zenean, eta bere anai-arrebek bezala, soldata osorik eramaten zuen etxera, gurasoei lagundu beharra zegoela ongi asko baitzekiten guztiek.

### **1.096. Koltxoiak hustu, garbitu eta betetzen (ERR-050/025)**

Haren etxean koltxoiak garbitu eta berritzeko zer ohitura zegoen kontatzen du maritxuk.

### **1.097. Etxeko garbiketa (ERR-050/026)**

Egunero garbitu behar izaten zen sukaldeko lurra, eta belauniko egin beharreko lanak ziren haiek, etxeko gainontzeko zoruetaoak bezalaxe.

### **1.098. Erreterriako euskara eta hizkuntza kontuak (ERR-050/028)**

Inguruko herrietako hizkerari erreparatu eta Maritxuk sumatzen du Erreterrian hitz egiten zenarekin alderik. Horrez gainera, hizkuntza kontutan ohiturak aldatu omen dira: lehengo "konprenitu", "ulertu" omen da gaur, eta "agur" esaten da orain, lehengo "aio" esan ordez. Norabait sartu, denda batean, adibidez, eta "Kaixo" esan beharrean "Ave María purísima" indarrean zen garaiak ezagutu zituen Maritxuk.

### **1.099. Erreterriako fabrikak eta industria (ERR-050/030)**

Papelera Espainola, Sociedad Tejidos de Lino, Olibet gailera-fabrika, "Alcoholera", Niessen, Pekin... Horiek guztiak eta gehiago ditu gogoan Maritxuk.

### **1.100. Euskalduna eta espainola (ERR-050/032)**

Maritxuri inork ez omen dio sekula euskaraz hitz egitea galarazi. Bere euskalduntasuna ukatzen ez badu ere, espainola sentitzen da. "Euskararekin bakarrik ezin da urrutira joan; espainolarekin bai". Maritxuren ustea hala da, eta argi adierazten du, gezurretan ibiltzea ez baitu maite.

### **1.101. Hamaika urte bete arte eskolan (ERR-051/002)**

Rosaren eskola esaten zioten batean hasi zen Joxe, baina handik, Zamalbideko baserri batean eskolak ematen zituen apaiz batengana joaten hasi zen, bere borondatez. Zortzi egun besterik ez omen zituen egin han. Apaiza karlista omen zen, eta Joxek marraztutako ikur batzuk zirela eta, oraindik ere gogoan duen zaplaztekoa jo omen zion apaizak. Gurasoek herriko eskolara itzularazi zuten berehala.

### **1.102. Eskolan euskaraz egiteagatik arazorik ez (ERR-051/004)**

Gerra piztu aurreko urteetan euskaraz irakasten zen tokirik bazela gogoan du Joxek, baina behin gerra hasi orduko eskolak gazteleraz izaten zirela dio. Hala ere, ez omen zuen sekula arazorik izan eskolan euskaraz mintzatzeagatik.

### **1.103. Soldaduskan euskara mesederako (ERR-051/005)**

Joxek, soldadutza egiten ari zela, baimena eskatu zion kapitainari armamentuari buruzko ezagutzak euskaraz azaltzeko gazteleraz ez zekiten

euskaldunei. Kapitainak eskaria onartu zion, eta Joxeren azalpenei esker, ezagutza horiei zegokien azterketa gainditzea eta etxera bisitan itzultzeko baimena lortu zuen euskaldun askok.

#### **1.104. Dotrina euskaraz ikasi nahi (ERR-051/007)**

Joxek euskaraz ikasi nahi izan zuen dotrina, On-Bide zine areto ondoko elizan, eta ondorioz, jaunartzea ere euskaraz egin zuen.

#### **1.105. Gerra piztu eta herriz herri ibili behar urte eta erdiz (ERR-051/008)**

Gerra hasi eta, Joxeren aita Erreterian geratu bazen ere, Bizkaira eraman zituzten Joxe bera, anaia eta ama. Bizkaitik Laredoraino heldu ziren, eta handik, itsasontzi batean, Frantziara igaro: Baiona, Arroxela, Saint Martin de Ré... Ibiliko herri guztiak ongi gogoan ditu Joxek, bai eta urte eta erdi horretako hainbat gertaera ere: barkura igo nahian uretara jausi zenekoa, aita preso eraman zutenekoa...

#### **1.106. Aita lanean hasi bitartean "Auxilio Social"era jateko eske (ERR-051/009)**

Erbestetik itzuli eta aitarekin bat egin ostean bolada gogorra pasa zuen Joxeren sendiak. Aita lanerako deitu zutenean utzi zioten "Auxilio Social"era joateari.

#### **1.107. Hamalau urte betetzear eta lanean hasi (ERR-051/011)**

Erreterriako Olibet gaileta-fabrikan hasi zen lanean Joxe, hamalau urte betetzear zela, eta bertan aritu zen 17 bete arte. Tailer batean hasi zen gero, eta 21 urterekin soldadutza egitera bidali zuten.

#### **1.108. Errazionamendu txartelen beharrik ez (ERR-051/012)**

Errazionamendua zer zen ongi gogoan du Joxek: jatekoa eskuratu ahal izateko, txartel batzuk banatzen omen ziren, baina Joxeren sendikoek ez omen zuten halakoen beharrik, errazionamenduko ilaran ongi ezagunak ziren eta. Hain ezagunak ze, txartela eskatu ere ez zieten egiten.

#### **1.109. Erreteriatik Nafarroako baserrietara jateko eske (ERR-051/013)**

Joxeren ama Nafarroa aldera joaten omen zen hango baserrietan jatekoa eskatzera. Joxe bera ere inoiz joandakoa da, eta gogoan ditu poliziak Irunen jartzen zituen kontrolak.

#### **1.110. Artoa txikitzaera Oiartzungo Ugaldetxo auzora (ERR-051/014)**

Joxek, arto-irina egiteko, Oiartzungo Ugaldetxo auzoko errota batera eramaten zuen artoa.

### **1.111. Babesetik irten eta bonba batek akabatu (ERR-051/015)**

Joxe eta haren sendikoak Sestaoko etxe batean egon omen ziren babesturik bolada batez, gerra garaian. Behin, etxeko jabea babes-tokitik atera omen zen bonbardaketa baten erdian, hegazkinek alde egin zutela uste zuela eta. Une horretan, bonba bat ondora jausi zitzaion eta hantxe akabatu zen gizona.

### **1.112. Celestino Gaztelumendi, Oiartzunen fusilatua (ERR-051/016)**

Fusilamentuei buruz galdetu eta aitaren lehengusua etorri zaio gogora Joxeri, Celestino Gaztelumendi.

### **1.113. Karlista baten maizter (ERR-051/017)**

Joxeren aita atxilo eraman zuten Bilbora, Gerra Zibilean. Joxeren sendikoak maizterrak ziren, eta etxeko nagusia, Karlista. Joxeren aburuz, gizon harekin izandako harremanak aitaren atxilo-aldi murriztarekin zerikusia izan zuen. Mesede trukea izan ote zen pentsatzen du egun.

### **1.114. Kale erdian belauniko (ERR-051/019)**

Apaiza bere laguntzaileekin inora joaten gurutzatu eta haien eskuko kanpai hotsa adituz gero, norberak zegoen hartan belaunikatu beharra zuen. Igandetan antzeko zerbait izaten zen erreketek jantziekin desfilatzen zuten gazteak kalean topatuz gero.

### **1.115. Izara bat bandera espainolaren ordezt (ERR-051/020)**

Bizi lagun batek utzi zion bandera espainola Joxeren amari balkoian jartzeko, banderaren partez izara bat jarrita baitzeukaten.

### **1.116. "Elizaren kontrolak inkisizioa zirudien" (ERR-051/021)**

Elizara nor joaten zen eta nor ez jakiteko txartel batzuk omen ziren. Itun berriaren salmenta bera ere kontrolatuta egon omen zen bolada batean. Era berean, elizaren baimenik gabe edo elizaren ardurapekoak ez ziren hainbat eta hainbat aktibitate debekaturik zeuden.

### **1.117. Ahaleginak jendeak gazteleraz hitz egin zezan (ERR-051/022)**

Gerra garaian, Joxek eta anaiak gazteleraz hitzik ez zekitela egin zuten herritik alde, eta itzuleran, "Si eres español, habla en español" zioen kartelarekin egin omen zuten topo, parez-pare, Hondarribian.

### **1.118. Falangistak Lartzabalgo futbol zelaiaren jabe (ERR-051/023)**

Falangekoak Lartzabal auzoko futbol zelaiaren jabe eginda omen zeuden, eta Joxe eta bere lagunak, han jokatu baino, euren futbol taldea, "Unión Txiki", desegitea erabaki zuten. Joxe, gerora, Oiartzungo "Garbi Alai" taldean jokatzeko hasiko zen.

### **1.119. Txikierdiko bilerak bereziak ziren (ERR-051/024)**

Txikierdiko bileren oroitzapen ederrak ditu Joxek. Ume garaitik ezagutzen zuen inguru hura, aita oiartzuarra baitzuen. Dena den, Joxe ez dugu neska-laguntze gehiegi egindakoa, sagardotik edan ondoren nahiko lan izaten baitzuten Erreteriarra oinez itzultzen.

### **1.120. Auto istripua Lartzabalen (ERR-051/025)**

Joxe lagunekin Lartzabal auzoan futbolearen entrenatzen ari zen batean, bi autok talka egin omen zuten aurrez-aurre. Militarrek omen zihoazen bi autoetan, eta Joxek dioenez, bi lagun gutxienez hil ziren auto istripu hartan.

### **1.121. Falangistak Karlistak baino ugariago (ERR-051/026)**

Joxeren iritziz Erreterria eta inguruan sekula ez da Karlista gehiegi izan; falangistak bai, ordea, asko.

### **1.122. Soldadutza luzeak buruari eragiteko balio du (ERR-051/027)**

Joxek Etxaurin egin zuen soldadutza. Hogeita bederatzi hilabete eman zituen han. Bertan elizari buruz hausnarketa egiteko nahikoa asti izan zuen, baita bere ondorio garbiak ateratzeko ere.

### **1.123. Hamahiru urterekin lanean hasi eta hirurogeita bostekin erretiroa hartu (ERR-051/028)**

Erreterriako Olibet gailera-fabrikan lanean hasi bazen ere, mekanika kontutan aritu izan da beti Joxe. Ez da toki berean luzaro aritzekoa izan, bederatzi lantoki ezberdin ezagutu baititu. Beti gauza berriak ikasteko grina izan du, eta bere karrerako azken urteak onenak izan direla aitortzen du. Beste hamar urte gehiago egingo omen zituen planoak marrazten, utzi izan baliote.

### **1.124. Bizitza bat ontzigintzari lotua (ERR-051/029)**

Joxeren iritziz lan sakrifikatua baina ongi ordaindutakoa izan da ontzigintzan egitea egokitu izan zaiona. Mekaniko aritu zen garaian, sarritan gauzez lanean geratu behar izaten zuten, bai eta iganderen batean edo bestean ere.

### **1.125. Armadoreek jartzen dituzte barkuen izenak (ERR-051/031)**

Ontzigintzan aritu zen garaian hiru barku eraiki zituztela kontatu digu Joxek. Haien izenak ez ditu ahazteko: "Zanga", "Stuka" eta "Maskato".

### **1.126. Gerra garaian eskolarik ez (ERR-051/033)**

Gerra garaian haurrak kalean ibiltzen omen ziren jolasean bonbardaketa abisua ematen zuten arte.

### **1.127. Aitaren gerrako ibilerak gogoan (ERR-051/034)**

Joxeren aita "zapadores-minadores" errejimentuan ibili omen zen gerran, eta sarritan egokitu omen zitzaion bi bandoen artean lanean jardun beharra, arrisku bizian.

### **1.128. "Aita etxean dago!" (ERR-051/036)**

Aita preso eduki zuten bitartean Joxeri ez zioten hura bisitatzera joaten utzi. Asko sumatu zuen haren falta, eta poz handia hartu zuen etxeratu zenean. Kasualitatez, Joxeren ama bisitan joan zitzaion egun batean askatu zuten aita.

### **1.129. Lamiakoko aireportuko hegazkinak (ERR-051/037)**

Gerra garaian Sestaon egin zuen egonaldia Joxeren familiak, eta handik Lamiakoko aireportuko hegazkinak bistaratzen zituzten. Han pilotu errusiarrek bazirela gogoan du.

### **1.130. Errenteria erdi hutsik (ERR-051/038)**

Gerra garaian ihesi ibili ondoren Errenteriarra itzuli zirenean, erdi hutsik topatu zuten herria, baina osorik.

### **1.131. Lehengusuarekin baserrian jostatzen (ERR-051/039)**

Lehengusuarekin jostatzen zen Joxe, sagarrak lapurtzen, txori habiak bilatzen, "marrus"ean, kaniketan... Baina futbola izan du beti gustukoan; Irungo Real Unión taldearen jarraitzaile ziren, bera eta lagunak.

### **1.132. Errenteria eta inguruko dantzalekuak eta zinea (ERR-051/040)**

Oso dantzazalea izan ez bada ere, tarteka Igeldora joaten ziren Joxe eta haren lagunak, dantzara. "Mesedez" esanda hurbiltzen omen ziren neskengana, dantza eske. Errenteriako "Danubio" dantzalekura, Irungo "Fantasio"ra eta Hondarribira ere joaten omen ziren, eta zinerako joera ere bazuten. Joxeren Aita eta ama zinera abonatuta omen zeuden.

### **1.133. Gabonetan kantari (ERR-056/003)**

Etxean Santiyo egunean denak bildu, eta oso egun berezia izaten zela oroitzen du Polonik. Gabonetan baserriz baserri kantari joaten ziren.

### **1.134. Aste Santuan triste (ERR-056/004)**

Igandero Oiartzunera zazpietako mezara joaten zirela kontatzen du Polonik. Ama lanak zirela eta gutxiagotan joaten zen mezara. Aste Santuak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

### **1.135. Umetan eskolan eta jolasean (ERR-056/005)**

Eskolan zortzi bederatzi urterekin hasi eta hamahiru urterekin utzi zuen. Neska eta mutilak elkarrekin joaten zirela kontatzen du Polonik. Idatzi, irakurri eta matematika apur bat ikasten zutela dio. Ahal zenean jolasten zutenean kontatzen du, hala ere, taberna zela eta, etxean entretenituta egoten zirela dio.

### **1.136. Osparkizun gutxi gaztetan (ERR-056/006)**

Gaztetan ospakizun gutxi egiten zituztela gogoratzen du Polonik. Ohiturarik ez zuten santuak eta urtebetetzeak ospatzeko.

### **1.137. Ezkonduta baserrian lanera (ERR-056/007)**

Senarra mendian lanean ibiltzen zela ezagutu zuen. Ezkondu zenean senarrarekin eta haren amarekin bizi izan zen baserrian. Baserrian eta seme-

alabak zaintzen egon zen denbora gehienez. Baserria zahartuta geratu zenean berria egin eta taberna jarri zuten. Hala ere, senarra idi-demetan aritu izan zen afizio bezala.

#### **1.138. Haurdunaldiak eta erditzeak etxean (ERR-056/008)**

Haurdunaldian medikura oso gutxi joaten zela kontatzen du. Birritan edo joan zen, eta lehenengo seme-alabak etxean jaio ziren.

#### **1.139. Txerriak hiltzen (ERR-056/009)**

Txerria hiltzeko ohitura zuten etxean. Txerriak tabernarako erabiltzen zituztela kontatzen du Polonik.

#### **1.140. Ama Gaztañokoa, aita Alegiakoa (ERR-058/003)**

Ama Gaztañokoa auzokoa du, haren aita Aranokoa zen, eta ama Azkoitikoa. Aita Alegiakoa zen, gero Pasai Donibanera joan zen bizitzera. Aitaren ama bizkaitarra zen, erdalduna. Aita, atiarra.

#### **1.141. Txikitatik izan al duzu harremana ipuinekin? (ERR-058/005)**

Txikia zenean ez zuen ipuinik jaso, etxean ez baitzuten ipuinik kontatzen. Kantuan aritzea, ordea, asko gustatzen zitzaion amari. Hala ere, ipuinak kontatzen ez baziren ere, hamaika istorio eta kontakizun entzun zituen etxean. Ahozko transmisioaren garrantzia Euskal Herrian.

#### **1.142. Gurasoak kontalari onak ditu (ERR-058/007)**

Guraso biak kontalari onak dira, baina batez ere aitak pasadizoak, anekdotak eta kontakizunak kontatzen ditu, ez ipuinak. Itsasontzian tximino bat jan zutenekoa. Amak askotan kontatzen ditu Errenteriako industriaren ingurukoak.

#### **1.143. Institutuan euskarazko eskolak lehen aldiz (ERR-058/009)**

Pio Baroja eskolan egin zituen ikasketan Joxe Marik, etxe ondoan. Dena gaztelaniaz ikasi zuen. 77an Erreteriako institutuan euskaldunez osatutako gela bat sortu zuten, eta haiei eskola batzuk euskaraz ematen hasi ziren. Euskaraz ikasketak egitea harrigarria zen orduan, eta ikaskideekin euskaraz hitz egiten ohitzen hasi ziren denak.

#### **1.144. Etxepare 14 urterekin ikasi (ERR-058/011)**

77an, institutuan hasi eta euskarazko eskolak ematen hasi ziren zenbait. Modu honetan, hizkuntza ohiturak aldatzeaz gain, erreferentzia kultural euskaldunak izaten hasi ziren, esaterako, Etxepare. Euskararen eta euskal kulturaren berreskurapena.

#### **1.145. 'Intxixu' antzerki-taldeko kide (ERR-058/012)**

Gaztetxoa zenean politikan eta futbolekin aritzen zen. 16 urte betetzean antzerkia egiten hasi zen, Oiartzungo 'Intxixu' taldean, Patri Urkizuren gidaritzapean. Errenterian mugimendu handia zegoen.

### **1.146. Jendea antzerkiaren bidez alfabetizatzen zen (ERR-058/013)**

1969an sortu zen Oiartzungo 'Intxixu' antzerki-taldea. Honen sorreraren bueltan ibili zen Eugenio Arozena. Antzerkiak eta kantagintzak garrantzia handia hartu zuten. Donostian, Jarrai taldea. Hizkuntza estadarren beharra nabarmentzen zuen antzerkiak.

### **1.147. Intxixu antzerki-taldearen ibilbidea (ERR-058/015)**

1985ean izan zuen Intxixu antzerki-taldeak haren azken lana, Mario Benedettiren Pedro eta Kapitaina. Euskarazko antzerkian sartu zenean, gaztelaniazko papera eman zioten lehena. Barrutiaren Gabonetako Ikuskizuna. Iparragirre. Orreaga. Karlistaden Kronikak.

### **1.148. Lehen antzerkiak Erreterian (ERR-058/016)**

Joxe Marik gogoan du Erreteriarra Kilikariak joan zirenekoa, baita Karlistaden Kronikak joan zirenekoa ere. Orduan, oraindik ez zen 'Intxixu' antzerki taldean sartu. Txoxongiloak.

### **1.149. Antzerkitik ipuin-kontaktara (ERR-058/017)**

Koldo Amestoy kontalariaren eragina. Hasiera batean Joxe Mari literatura unibertsaleko ipuinak kontaktzen hasi zen, baina ez zuen arrakastarik izan. Tradiziozko ipuinetara jo zuen, eta oso harrera ona izan zuen. Idatzita dauden ipuin asko irakurtzeko eginak daude, Barandiaranenak, ordea, entzuteko eginak. Ipuin-kontaktarako baliabideak.

### **1.150. Nola hasi zinen ipuin-kontaktetan? (ERR-058/019)**

AEKko euskara irakaslea zen. Mikel Markezekin hara eta hona joaten hasi zen, haren kontzertuen aurretik istoriotxoak kontaktzen. Horrenbestez, hasiera batean helduak bakarrik izaten zituen entzule. Barandiaranen ipuinak kontaktzen hasi zen, baita Gleanorenak ere.

### **1.151. Ipuinak askotan unibertsalak dira (ERR-058/021)**

Askotan tradiziozko ipuin bat dela uste badugu ere, istorio asko errepikatu egiten dira kultura ezberdinetan, ipuinen ezaugarria baita unibertsalak izatea. Hori bera gertatzen da, adibidez, Joantxo Hartza eta Lapurren Leizea ipuinekin. Kulturaz kultura ipuinen aldaerak daude.

### **1.152. Ahozko tradizioa alboratzea (ERR-058/023)**

Ahozko kontaketa, kasu askotan, bazertu egin da, zokoratu, 'ezjakin' itxuraren beldur. Euskal kulturaren zutabe garrantzitsua da ahozko literatura. Globalizazioaren eraginez, fikziozko pertsonaien izenak berdinduz joan dira.

### **1.153. Bertsio bera, modu ezbedinean kontatu (ERR-058/024)**

Istorio bera bada ere, oso ezberdinak diren bi tokitan ezin da istorio bat modu berean kontatu. Imaginarioaren globalizazioa. Kultura bakoitzak duen ipuinaren bertsioaren alde egin behar du, nortasuna defendatu.

### **1.154. Transmisioa nonahi (ERR-058/026)**

Transmisioa egunero gerta daiteke, parrandan ere bai. Behin Aranoko emakume bat ezagutu zuen parrandan, Aranoko istorio bat kontatu ziona. Mendaroko bi ipuin-kontalarirekin gertatutakoa. Ipuinaz haratago, kontestuak, testuinguruak duen garrantzia.

### **1.155. Ipuinak ez dira haurrentzat bakarrik (ERR-058/028)**

Ipuinak haurrentzat bakarrik direla oso sartuta dago gizartean. Beste disziplinetan, ordea, ez da horrela pentsatzen. Horrela pentsatzeak kulturaren arazo bat dagoela adierazten duela uste du Joxe Marik. Ipuin bera ezin duzu berdin kontaktu hartzailea umea edo heldua denean.

### **1.156. Hizkuntza: imajinazio eta jolas eremua (ERR-058/030)**

Imajinazioarekin eta kontraesanekin jolastea gustuko du Joxe Marik, entzuleekin jolastu eta dinamika sortzeko. Nerabeekin, helduekin edo umeekin jolasa oso ezberdina da.

### **1.157. Txupagorritxu (ERR-058/032)**

Txanogorritxoren bere bertsioa egin eta Txupagorritxu izena jarri zion. Caceresen egon zen jardunaldi batean kontatu zuen lehen aldiz, euskaraz. Istorioa denek bazekiten, euskara ulertzean zegoen erronka.

### **1.158. Hartzailearen arabera pertsonaien izaera aldatu (ERR-058/033)**

Ez da gauza bera haurrei edo nerabeei ipuin bera kontatzea. Hori dela eta, Joxe Marik pertsonaiaren izaera aldatu egiten du hartzailearen arabera. Gazteen aurreiritziekin jolastea gustatzen zaio.

### **1.159. Ahozko ondarea, altxorra (ERR-058/035)**

Amak haren gurasoe kontatukoak gogoratzen ditu oraindik, Kukubiltxo, Aranoko kontuak...

### **1.160. Antzerkia eta kontalaritza, muga-mugan (ERR-058/037)**

Antzerkitik kontalaritzara aldea dago, izan ere, antzerkian mezua transmititzeko tresna gehiago daude ipuin-kontalaritzan baino. Hala ere, askotan zaila da bata bestetik bereizten.

### **1.161. Antzeztea edo ipuina-kontatzea, zer zailago? (ERR-058/039)**

Antzerkia testuan oinarritzen den bezala, ipuin-kontalaritza ez da testu finko batean oinarritzen, edukia berbera izanda ere, testuak aldaerak izaten baititu kontaketatik kontaketara.

### **1.162. Ipuin bat nola kontatu? I (ERR-058/041)**

Jolas moduan planteatzen du istorio bat kontatzea Joxe Marik. Hasieratik entzulea harrapatzea, jakinminez egotea. Adin bakoitzari dagokion sarrera erabiltzeak erakargarriagoa egiten du kontakizuna.

### **1.163. Ipuin bat nola kontatu? II (ERR-058/042)**

Aurreiritziak alde batera uztea komeni da, hartzaile bakoitza desberdina delako. Tonua, erritmoa kontrolatzen jakin behar da. Batez ere, istorioaren eskema argia izatea komeni da, gogoratzeko erraztasun handiagoa izateko.

### **1.164. Memoria bai, hizkuntza baliabideak ere bai (ERR-058/043)**

Memoria landu behar da, modu honetan iritsi baitira guregana ahoz aho kontatutako ipuinak. Hala ere, ipuinak hitzez hitz ez dira ikasten, edukia delako gogoratzen dena. Hizkuntza baliabideak izatea ere lagungarria da.

### **1.165. Esamoldeak, diskurtsoa aberasteko bidea I (ERR-058/045)**

Esamoldeek kontaketa edo diskurtsoa aberastu egiten dute. Garai bateko hitzunek oso modu naturalean erabiltzen dituzte gaur egun galtzear dauden esamolde batzuk. Onomatopeiekin berdin.

### **1.166. Esamoldeak, diskurtsoa aberasteko bidea II (ERR-058/046)**

Lehenengo esamoldeak hartu eta modernizatzearen prozesua. Txan Magoaren kasua. Batzuetan kontakizunak ez du formularik behar.

### **1.167. Hitzik gabeko komunikazioa (ERR-058/048)**

Hitzez haratago doazen elementuek ere komunikatzeko gaitasun handia dute, esate baterako, isiluneek, keinuek, erritmoak, begiradak... Espazioa erabiltzen jakiteak asko aberasten du kontaketa.

### **1.168. Ahozotasuna gutxi lantzearen ondorioak (ERR-058/050)**

Ahozotasuna oso gutxi lantzen da eskoletan, eta hori eguneroko bizitzan islatzen da. Hizkuntza erregistroen faltaren aurrean, gazteek gaztelaniara jotzen dute.

### **1.169. Ahozko azalpenak emateko ezintasuna (ERR-058/051)**

Ikasleei ez zaie irakasten ahoz gauzak nola azaldu. Hori dela eta, azalpenak ematen hasi eta ez dute ordena egokia jarraitzen, erakutsi ez zaielako. Hori ikusita, askotan ikasleek idatzizkoa hartzen dute oinarritzat, baina hau ez da bide egokia.

### **1.170. Ahozotasuna lantzeko modurik onena, kontaketa? (ERR-058/053)**

Gazteek ez ezik, gizarteak duen arazo bat da ahozko baliabideen falta. Ipuina kontatzen hasi eta entzuleak hizkuntza ahaztu eta istorioan murgiltzea du helburu Joxe Marik.

### **1.171. Ipuin-kontalaritza egoera diglosikoan (ERR-058/054)**

Askotan ipuinak elebitan kontatzen direla pentsatzean, bigarren hizkuntza hori ingelesa edo frantsesa dela uste da (hizkuntza estandarizatu bat). Euskaldunen kasuan, ordea, gaztelania da 2. hizkuntza hori, berdin

katalanekin eta galiziarrekin. Egoera diglosikoak ipuin-kontalaritzan eragiten du.

### **1.172. Pertsonaien izaera euskaraz eraikitzea (ERR-058/055)**

Euskara egoera diglosikoan bizi denez, askotan, pertsonaiak eraikitzean, erdarazko eredia euskaraz imitatzen dugu. Erregistroarekin jokatzeko du Joxe Marik.

### **1.173. Zer behar du ipuin batek ona izateko? (ERR-058/058)**

Hartailearengan intriga sortu behar du, "eta orain, zer?" galdetuaraztea. Zerbait gertatu behar da kontakizunean. Beti tonu berbera erabiltzea ez da komeni, ez baitu jendea kontaktara erakartzen.

### **1.174. Ipuinik asmatzen duzu? (ERR-058/060)**

Ipuin batzuk asmatzen ditu, bestetan, ipuin tradizionalen aldaerak sortzen ditu. Kondoï deprimituaren ipuina. Kondoï zakiljalearen ipuina. Ipuin tradizionalekin lan egiteak istorioak asmatzen lagundu dio, egitura bat sortzen.

### **1.175. Inprobisatzen ere jakin behar (ERR-058/061)**

Egitura barneratuta izatean, inprobisaziorako leku gehiago dago, izan ere, hamaika gauza gerta daitezke istorioa kontatu bitartean eta egitura finkoa ez bada, haria galtzea erraza da. Publikoaren arabera ere asko aldatzen da inprobisaziorako aukera.

### **1.176. Kontaketa eta ipuina ez da gauza bera (ERR-058/063)**

Kontalaritzaren inguruko ikerketa bat egin zuen Leire Diaz de Gereñuk. Bertan, ipuina eta kontaketa bereizten ditu, izan ere, kontaketa barnean sartzen du kontalariak ipuina, bestela, narrazioa da.

### **1.177. Gaur egungo ipuinetan, gordintasunik ez? (ERR-058/065)**

Esaten da ipuinetan zenbait tabu daudela, eta gordintasuna ezkutatu edo gozotu egiten dutela. Joxe Mari ez dago ados pentsamolde horrekin. Zentsura.

### **1.178. Helburu zehatzetarako ipuinak modan (ERR-058/067)**

Gaur egun ipuin-kontalaritza egun zehatzetan gai jakinak lantzearen bueltan bizi da. Joxe Marik proposameak onartzen ditu, baina bere ikuspegitik egitea ezinbesteko baldintza da.

### **1.179. Kanpoko ipuin-kontalariak, erakargarrikoak (ERR-058/069)**

Gaur egun gehiago erakartzen du jendea kanpotik etorritako norbaitek bertakoek baino, exotikoagoa-edo delakoan. Garai batean exotikoak euskaldunak ziren.

### **1.180. Homosexualak frankismo aurretik, bitartean eta ondoren errepresaliatuak izan dira (ERR-062/002)**

LGTBIQ+ pertsonak errepresaliatuak izan dira lege ezberdinen bitartez: "Alfer eta gaizkileen Legea" ("Ley de Vagos y Maleantes"), arriskutasun sozialaren legea, eskandalu publikoarena... Homosexualentzat espetxeak. Emakumeek sexualitaterik ez zutela uste zenez, ez ziren kontuan hartzen. Langraitzko espetxera homosexualak bidaltzen ziren.

### **1.181. Transexualak, genero sistema borrokatzen lehenak (ERR-062/003)**

Sexu askapenaren mugimenduaren mugarrria Stonewall-eko liskarrekin hasten da. Espainian, frankismo garaian transexualak hirira joaten ziren hormonak hartzera eta trantsizioa egitera eta haiek izan ziren genero sistema borrokatzen lehenak.

### **1.182. EHGAMen sorrera eta Francisen hilketa (ERR-062/004)**

1976ko Durangoko Azokan, Antonio Quintanak Imanol Alvarez Britainia Handiko homosexualen askapenaren fronteaz hitz egiten dio eta horren ondorioz Euskal Herrian EHGAM sortzen da 1977an. Espainiar Estatuan ere mugimendu ezberdinak sortzen hasiak ziren. 1978ko ekainaren 28an Bilbon manifestazioa egin zen eta hurrengo urtean Donostian egin edo ez adosten ari direnean, Francisen hilketa gertatzen da. Kalez jantzitako polizia batek Francis hiltzen du eta horrek Euskal Herriko sexu askapeneko mugimendua bultzatzen du.

### **1.183. Vicente Vadillo "Francis"-en hilketa (ERR-062/007)**

Vicente Vadillo "Francis", Andaluzian jaio zen eta Oreretan bizi zen. Gaueko ikuskizunetan trabestituta lan egiten zuen. Goizalde baten, dantzaleku batean trago bat hartzen ari zela, polizia bat sartu zen eta Francisek tiro bat jasotzen du buruan. Polizia hori epaitua izan arren inoiz ez zuten espetxera sartu. Egun horretan bertan herrian mobilizazio handi bat egon zen eta lehen aldiz Mikel Martin, Emili eta beste batzuk homosexual bezala azaldu ziren herrian aurrean. Ordurako EHGAMen hasiak ziren eta aurpegia emateko ordua zela erabaki zuten.

### **1.184. Gipuzkoako lehenengo sexu askapenerako manifestazioa (ERR-062/008)**

Francis-en hilketaren ondorioz udalean ezohiko batzar bat egin zen eta polizia kargatzera sartu zenez, herritarrek grebara deitu zuten. Manifestazio bat egin zen Donostian, sexu askapenaren aldarrikapenerako lehena Gipuzkoan, eta hortik aurrera homosexualak eta lesbianak aurpegia ematen eta kalera ateratzen hasi ziren.

### **1.185. Sexu eta nazio askapenerako mugimenduak, beti eskutik (ERR-062/010)**

80. hamarkadan EHGAMeko kideek eraso polizialak jasan zituzten. Sexu askapena, nazio askapenaren mugimenduarekin batera joan da.

### **1.186. EHGAMek sexu identitate eta genero guztiak batzen ditu (ERR-062/012)**

EHGAM, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendutik dator. Gay hitza gizon zein emakumearentzako ulertu behar da, ingelesetik bait dator. EHGAMen beti bildu ditu sexu identitate eta genero guztiak.

### **1.187. EHGAM 1977an sortu eta 1983an ofizializatu zen (ERR-062/013)**

EGHAM 1977an sortu bazen ere, ez zen 1983a arte ofizial bihurtu. Garai hartan, kafetegietan eta uzten zizkieten lokaletan biltzen ziren, nahiko ezkutuan eta klandestinoki. Arriskutasun sozialaren legearen aurkakoak izan ziren lehenetariko ekintzak.

### **1.188. 70. hamarkadako espedienteak ikertzen (ERR-062/014)**

70. hamarkadan zehar atxilotuak izan ziren 4600 homosexualen espedienteak atera dira eta haiek ikertzen dabilta. Oraindik aitortu gabe dauden sexu askapenerako ekintzak daude.

### **1.189. Miarritzeko Itsasargia, gay-en topalekua (ERR-062/015)**

EHGAMen lehenengo lokala Bilbon izan zen. Miarritzeko Itsasargia-ko lorategia, gay-en topaleku izan da denbora luzetik.

### **1.190. Sexu askapeneko mugimenduei buruzko ikerketak (ERR-062/016)**

Euskal Herriko mugimenduak gehiago zentratu dira ekintzak egitera ikertzera baino, baina orain hasi dira ikerketa batzuk garatzen. Xabier Susperregi ari da sexu askapenaren eta Francisen inguruko liburu bat prestatzen.

### **1.191. Stonewall-eko liskarrak (ERR-062/018)**

Stonewall-eko liskarrak 1969ko ekainaren 28an gertatu ziren. Sexu bereko pertsonekin harremanak bilatzen zituzten pertsonak joaten ziren taberna hartara eta polizia askotan joaten zen bertara. Horietako batean, jendea hasarretu eta oldartu egin zen eta hainbat egunetan liskarrak egon ziren. Aitzindariak. Mendebaldeko gizartearen sexu askapenerako lehen mugarrria bertan kokatzen da.

### **1.192. EHGAMeko lehenengo manifestazioa (ERR-062/020)**

EHGAMeko lehenengo manifestazioa Bilbon egin zen, Basauriko espetxean hilda agertu zen sexu-langile batengatik.

### **1.193. EHGAMeko lehenengo mobilizazioak Bilbon (ERR-062/022)**

1977an EHGAMek sexu-langile baten hilketa salatzeke lehen manifestazioa egin zuen talde bezala, eta 1978ko ekainean sexu askapenerako eta harrotasuna adierazteko lehen mobilizazioa egin zuen.

### **1.194. Emakumeak sexualitaterik ez zutenaren ustea (ERR-062/027)**

Frankismo garaian uste zen emakumeak ez zuela sexualitaterik. Ondorioz, ez zegoen lege urraketarik emakumeen artean sexuari dagokionez. Genero adierazpenak egiten zituztenak: trabestiak, transak...

### **1.195. Emakumearen rola frankismoan eta adotrinamendua (ERR-062/028)**

Antisorgailuak garatzen doazen heinean, gizarteak duen emakumearen plazeraren ikuspegia aldatzen joaten da. Emakumearen dotrinamendua irratian. Elena Francis. Antisorgailuen legalizazioak askatasuna suposatzen du emakumearentzat.

### **1.196. Feminismoa eta LGTIBQ+ mugimendua, elkarrekin (ERR-062/029)**

Feminismoa eta LGTIBQ+ mugimendua beti doaz eskutik helduta, lesbianak beti egon baitira mugimendu feministan.

### **1.197. LGTIB+ko lehenengo martxetan, jende asko begira (ERR-062/030)**

LGTIBQ+ mugimendua plazara ateratzen hasten denean, jende gehiago zegoen espaloietan begira, manifestazioan baino, ikuskizun bat izango balitz bezala.

### **1.198. Euskagintzan LGTIBQ+ mugimenduko erreferenteak falta dira (ERR-062/031)**

Kolektiboko jendea poliki-poliki hasi zen aurpegia ematen argazkietan, elkarrizketetan... Euskarazko hedabide batzuetan agertzen ziren (Argia, Anaitasuna...). Gaur egun ere badaude publikoak diren pertsonak, feminismoaren bandera ateratzen dutenak baina ez bestelako banderak. Euskal komunitatean erreferenteak falta dira.

### **1.199. EGHAMeko erreferenteak Oreretan; Gazte EHGAM (ERR-062/032)**

Imanolen erreferenteak herriko EGHAMeko kideak ziren: Mikel Martin, Altxu, Emili, Nati Rufo, Asun... Zintzilik irratsaioa. EGHAMek gazte talde bat ere bazuen, Gazte EGHAM.

### **1.200. Lamiatasunaren kontzeptua (ERR-062/033)**

Lamiatasunaren kontzeptu edo irudiaren barruan kokatzen dira LGTIBQ+ mugimendua osatzen duten kideak.

### **1.201. LGTIBQ+ mugimenduko euskal erreferenteak (ERR-062/034)**

Empar Pineda hernaniarra izan zen publikoki (Interviu aldizkarian) lesbiana zela aldarrikatu zuen lehenengo emakumea. "La Ochoa"-ren "Liberate" kanta famatua. Fernando Telletxea "Fama".

### **1.202. Luma nola egin euskaraz? (ERR-062/035)**

Euskara berandu iritsi zen LGTIBQ+ komunitatera. Bera baino zaharragoak diren kuadrilla euskaldun gay-en erreferenteak ez ditu ezagutu. Beraien artean euskaraz hitz egiteko formak (hika, noka...) bilatu zituzten eta hiztegi propioa sortu (oilategia, marisoinketa, lumatza...).

### **1.203. Euskalgintza eta feminismoaren zubigintzako aitzindariak lesbianak dira (ERR-062/036)**

Euskalgintza eta feminismoaren zubigintzako aitzindariak LGTBIQ+ pertsonak dira, "maribollotrans"-ak. Euskalgintza eta mugimendu feministari buruzko hausnarketa. Medeak taldea.

### **1.204. Sexu askapenerako mugimendua eta euskara (ERR-062/037)**

Sexu askapenerako mugimendua eta euskararen arteko hausnarketa. EHGAMen militante gehienak elebakarrak izan arren, euskararen zaintza egon da beti.

### **1.205. Homosexualak Lourdesera sendatzera (ERR-062/041)**

1981ean, EHGAMeko kideak Gipuzkoako Foru Aldundian itxi ziren, eskatutako dirulaguntza bat ukatzeaz gain, Lourdesera joan eta bertan sendatzeko autobus bat ipiniko zietela esan zietelako. Aspertuta zeudenez, espiritismoa egiten hasi ziren eta orduan polizia nazionala sartu zen.

### **1.206. "La Ochoa"-ren "Libérate" kanta (ERR-062/043)**

1979ko abuztuan, Bilboko Aste Nagusiko kanta sonatuena "La Ochoa"-ren "Libérate" kanta izan zen. Sexu askapenerako kanta. Bilboko txosnagunean beti egon da sexu-askapenerako espazio libre bat.

### **1.207. HIESak aurre bat eta ondoren bat markatu zuen (ERR-062/045)**

Trantsizioan, arau zena araua izateari uzten dio eta sexu askapenerako olatu bat sortzen da. Testuinguru horretan, HIESaren gaia poliki-poliki zabaltzen joaten da. Kutsatzeko beldurratik, jendea ez zen oilategira hurbiltzen. Estigma, sendabide bat aurkitzeko presa... Jendea zer baldintzetan hiltzen zen.

### **1.208. Ez dago arrisku talderik, arrisku praktikak baizik (ERR-062/046)**

HIESaz jendea hiltzen zenean, homosexualak arrisku-talde bezala jo zituzten. Ez dago arrisku talderik, arrisku praktikak baizik. Hori desmuntatzea zaila izan zen: mobilizazioak, tailerrak, eskaerak instituzioei...

### **1.209. HIESari aurreko egiteko koktel erretrobiralak (ERR-062/048)**

"Dallas-eko erosleen kluba" filmean, HIESari aurreko egiteko koktel erretrobiralen kasua oso ondo kontatzen da. Jaioterrira hiltzera bueltatu ziren baina azkenean tratamenduengatik bizirik jarraitu zuten aitzindariak aipatzen ditu.

### **1.210. "Eta zu zergatik zara heterosexuala?" (ERR-062/050)**

1989ko martxoaren 8an Gipuzkoako Feminista Lesbianen mugimenduak, "Eta zu zergatik zara heterosexuala?" lema kaleratu zuen. Heteroaraua oinarri zen gizarte batean galderari buelta eman zitzaion, hausnarketari bidea zabaltzeko.

### **1.211. GEHITUren sorrera eta lan-metodologia (ERR-062/052)**

90. hamarkadaren erdialdean Gipuzkoan GEHITU taldea sortu zen. GEHITUK lan egiteko modu ezberdinak ekarri zituen.

### **1.212. GEHITU, EHGAMeko ukazio bezala sortu zen (ERR-062/053)**

GEHITUKo sortzaileetako batzuk, EHGAMeko ukazio bezala sortu zuten talde berria, nahiz eta gero ezkututzen saiatu den arren. Mikel Martinen heriotzarekin, EHGAMeko kideei eskerrak eman dizkiete GEHITUTik. GEHITU Ajuria Eneako hitzarmenaren bueltan sortu zen. GEHITU eta EHGAMen aukeraketari buruzko Iritzi pertsonala ematen du.

### **1.213. Ezkontzaren instituzioaren alde eta kontra (ERR-062/058)**

Printzipioz sexu askapenerako mugimenduak ezkontza instituzioaren kontra bazeuden ere, kode zibila aldatu zenean ezkontza instituzioaren alde borrokatzeko autua hartu zuten, nahi zuenak heterosexualek bezala ezkontzeko eskubidea izan zedin. Hori lortuta, berriz egin zioten heteroaraua den ezkontza instituzioaren kontrako borrokari.

### **1.214. Medeak taldearen lana eta borroka (ERR-062/059)**

GEHITUK ezkontzaren instituzioaren alde beste gauza batzuk irensten zituen baina Medeak taldeak, kontrakultura eginez eta heteroaraua hautsiz sexu bereko pertsonen ezkontzen alde izugarrizko borroka eta lana egin zuen. Ezkontzaren instituzioa nahi zen baina ez edozein modutan. Aurpegia gogor eman zutenak izan ziren.

### **1.215. Medeak taldea eta transfeminismoa (ERR-062/060)**

Transfeminismoaren mugimendua Medea taldean. 2000. urtetetik 2020-ra lan egin zuten eta hausnarketarako bidea zabaldu zuten. EHGAMentzat bidelagun oso garrantzitsua izan zen Medeak.

### **1.216. Zer da GKE bat: helburuak eta motak (ERR-064/003)**

GKE bat zer den. Helburuak mota ezberdinetakoak izan daitezke, lortu nahi denaren arabera. Mota ezberdinetako GKE: ekologikoak, feministak, euskararen aldekoak, garapenekoak....

### **1.217. GKE eta elkarteen arteko ezberdintasuna I (ERR-064/006)**

GKE eta herri elkarteena arteko ezberdintasuna eta erlazioa.

### **1.218. GKE eta elkarteen arteko ezberdintasuna II (ERR-064/009)**

GKE bat, gobernuak sustatzen ez duen edozein elkarte bat da. GKEak atzerriko immigrazioa jaso aurretik sortu ziren eta immigrazioa jasotzen hastean, ziurrenik lehenengoak izan ziren pertsona haiei laguntza eskeintzen.

### **1.219. GKE-en sorrera (ERR-064/011)**

GKE-en sorrera. II. Mundu Gerraren ostean sortzen da lehenengo Lehenengo GKEak Britainia Handian eta AEBn sortzen dira, Europan gerraren ondorioz miserian geratu direnei laguntzeko. Deskolonizazioa heldu zenean, koloniak izandako herrialdeei laguntzen hasi ziren.

### **1.220. GKE-en sorrera Euskal Herrian (ERR-064/012)**

Euskal Herriko garapenerako GKE gehienak, Mitch urakanaren ondorioz sortu ziren 90. hamarkadan. Ordura arte, bazeuden elizaren bidez mugitzen ziren misioak.

### **1.221. Herrialde pobrenei, aberatsen BPG-aren %0,7aren (ERR-064/015)**

Herrialde pobrenei eta deskonolinastuei laguntzeko, herrialde aberatsek haien urteko ekonomikoaren %0,7-a bideratzearen jatorria zein den kontatzen du.

### **1.222. BPG-aren %0,7a bideratzearen egungo errealitatea (ERR-064/016)**

Herrialde pobrenei gure BPG-aren %0,7-a ematearekin oso urrun gaude, nahiz eta dirua badagoen hori emateko.

### **1.223. Mundukide GKE: proiektu nagusiak (ERR-064/020)**

Mundukide, garapen sozioekonomikoa bultzatzeko GKE bat da. Arlo produktiboa da haien lan-ildoak. Mozambike eta Brasilen egiten dute lan gehiena, lehenengoan baserritarrei beraien produkzioa hobetzen lagunduz eta bigarreanean, kooperatiba handi batean lagunduz. Kolonbian, hondakinak birziklatzen lan egiten dute.

### **1.224. Mundu-mailan, Euskal Herrian aberatsak gara (ERR-064/021)**

Mundukidek Euskal Herrian kontzientziazio-lana egiten du. Mundu-mailako biztanleriaren ekonomikoki hiru zatitan banatuta dago: aberatsak, klase-ertainekoak eta behartsuak. Behartsuenak zeintzuk diren.

### **1.225. Mundu-mailan, Euskal Herrian kutsatzaileak gara (ERR-064/022)**

Munduaren kontestuan, Euskal Herrian kutsatzaileen artean gaude.

### **1.226. Inor ez da ekonomikoki autosufizientea (ERR-064/024)**

Munduan, orohar, inor ez da autosufizientea. Euskal Herriko menpekotasun handiena energian dauka. Energiatz gain, beharrezkoak diren beste gauzak, metalaren industriaren esportatzen den diruarekin erosten da. Mozambikeren adibidea.

### **1.227. Mundukideko kideak (ERR-064/025)**

Mundukiden, 20 bat pertsona daude soldatapean. Bolondresak ere badaude, baina gutxiago, lana kanpoan egiten dutelako.

### **1.228. Mundu hobego bat egiteko gure esku dagoena (ERR-064/027)**

Mundu hobego bat egiteko lanerako aukera onenak, hemen daude. Ziurrenik mundu hobego bat egiteko gure esku dauden ekarpen nagusiak, gure kutsadura-maila jaistea eta ekarpen ekonomikoak egitea dira.

### **1.229. Aldaketa klimatikoaren ondorio sozialak eta nola konpondu (ERR-064/028)**

Bidegabeko izateko, egunerokoan egin daitezkeen gauzak. Mozambikeko azpiegituren egoera eta zikloi tropikalak. Aldaketa klimatikoaren ondorio sozialak.

### **1.230. Gutxiago kutsatzeko, jarrera aldatu behar da (ERR-064/029)**

Gutxiago kutsatzeko, lehenengo gauza jarrera aldatzea da.

### **1.231. Gaur eguneko kontsumo joera (ERR-064/030)**

Gaur eguneko kontsumo joerak: etxebizitzak erostea, kotxea gehiegi erabiltzea, arropa...

### **1.232. Europaren nagusitasuna kolokan (ERR-064/032)**

Globalizaziori esker, ehundaka milioi pertsona atera dira pobreziatik. Orain dela 40-50, Europarrak ziren munduko nagusiak ekonomikoki. Baina gaur egun, lehen behartsuagoak zirenak begietara begiratzen diote Europari, enpresak erosiz, zabalduz, handituz...

### **1.233. Globalizazioaren ondorioak herrialde behartsu eta aberatsetan (ERR-064/034)**

Globalizazioaren ondorio batzuk: herrialde behartsuenetan miseria murriztea, tokiko enpresak kolokan jartzea eta enpresaren jabea aberastea. Adibideak.

### **1.234. Bidezko merkataritza (ERR-064/038)**

Bidezko merkataritza, produktu baten produkzioa bistaratzea da, eta helburua lortuta dagoela uste du. Adibideak.

### **1.235. Herrialde aberatsen aberastasunaren jatorria (ERR-064/041)**

Gure (euskaldunon) eta herrialde aberatsen aberastasunaren jatorriak bi arrazoi ditu: gizarte-egitura eta kolonializazioa.

### **1.236. Herrialdeen aberastasuna berdintzeko hausnarketa (ERR-064/042)**

Herrialdeen aberastasuna berdintzeko egin beharreko hausnarketa.

### **1.237. Industrializazioak eragindako aberastasunaren desberdintasunak (ERR-064/043)**

Industrializazioaren ondorioak biztanleriaren hazkundera eta bizimoduan. Azken 50 urteetan industrializazioa eman den lekuetan, nazioarteko mailan ezberdintasunak ez dira hain nabariak, globalizazioarengatik. Ordea, nazio barruko desberdintasunak areagotu egin dira. Jasangarritasuna

### **1.238. Gutxiago kontsumitu behar dugu herrialde aberatsetan (ERR-064/044)**

Guk kontsumitzeari utzi behar diogu, ez behartsuenak direnak. Guk asko kontsumitu dugu azken 50 urteetan eta gure ardura da hori jeistea.

### **1.239. Plastikoaren erabilera (ERR-064/048)**

Plastikoa gauza ona da, baina erabilera oso handia denez, arazoa bihurtu da.

### **1.240. Gehiegikeria da europarren gaitz nagusia (ERR-064/050)**

Europar gaur egungo arazo nagusia gehiegikeria da: auto gehiegikeria, plastiko gehiegikeria, diru gehiegikeria...

### **1.241. Zer egiten du pertsona bat zoriontsu edo zorigaitza izatea? (ERR-064/052)**

Mozambiken miserian daude eta gose asko pasatzen duten arren, zoriontsuak dira. Zoriontasuna eta aberastasuna ez daude alderatuta.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-09*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com